



EGAN

Jon KORTAZAR
Juan Mari Lekuonaren
egunerokoa 1957-1958

F. Borja de Aguinagalde
Joaquín de Alcibar-Jauregui
eta Acharan (1746-1810)
eta *Grand tourra* (1772)

Gorka TOLOSA USARRAGA
Bertsogintza eta
haurrentzako antzerkigintza

2007-1/2

AURKIBIDEA
LX alea – 2007-1/2

AZTERKETA LITERARIOAK

Jon KORTAZAR. Juan Mari Lekuonaren egunerokoa 1957-1958.....	5
F. Borja de Aguinagalde. Joaquín de Alcibar-Jauregui eta Acharan (1746-1810) eta <i>Grand tourra</i> (1772).....	35
Antzerkiaren transkripzioa eta hainbat ohar Iñaki Aldekoa Beitia	69
Joaquin Alzibarren Antzerkia. Hiztegia. Jose Luis Ugarte	93
Joaquin Alzibarren Antzerkia. Grafia. Jose Luis Ugarte	105
Juan Lui ZABALA. Euskal literatur sorkuntza: 2006an argitaratutako liburuaren zerrenda.....	115
Karmele ALKORTA ALONSO. Euskal liburuaren presentzia. Azterketa txiki bat Gasteizen	159
Luis Maria MUJICA. Trebiñu konterriko euskal toponimia historikoari ohar linguistikoak.....	171
Fertxu IZQUIERDO. Joseba Sarrionandia, pantailaren aurrean	203
Ana GÁNDARA SORARRAIN. "Im lauf der zeit" Narrazioak liburuko denboraren ildoan.....	245

SORKUNTZA

Pello OTXOTeko. Groove pub	269
----------------------------------	-----

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Gorka TOLOSA USARRAGA. Bertsogintza eta haurrentzako antzerkigintza: bi diziplina uztartzearen ahalegin emankorra.....	275
--	-----

KRITIKAK ETA ERRESEINAK

Pello OTXOTeko. Postontzia hutsik dagoenean.....	307
Pello OTXOTeko. Zaldiaren barrunbean itsu-esna	311

EGAN



Maz. Salvador Comas fidei

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO "BOLETINA"-REN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Salla
3.263 Postakutxatila — DOMOSTIA



Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak
ez du derrigorrez bat etorri behar
EGAN aldizkarian agertzen diren edukiekin.

ERREDAKZIO BATZORDEA


Zuzendaritza eta Idazkaritza
GILLERMO ETXEBERRIA eta LUIS MARI MUJICA

Administraria
BIZENTE ZARAGUETA

Bokalak
JOSE M^a URKIA
JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA
ABEL MUNIATEGI

ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: S.S. 289/1958
Inprimategia: FASPRINT-IGARA - Donostia

Juan Mari Lekuonaren egunerokoa 1957-1958



Azterketa literarioak



**Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak
diruz lagundutako akzioa**

Ekalek, liburuak, irakurketak, elkartak
eta demagokiak, besteak beste,
EGAN proiektuan agertzen dira.

ERREDAKZIOA

Zuzendaritza eta Idazkaritza
GILBERTO ETXEBERRIA eta LUIS NANI MURIA

Administratzailea
BIZENTE ZAMOLOETA

Bokalariek
**JOSE M. URKIA
JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA
ABEL MURATEGI**

Azterketak literarioak
1981-82
Legea 10/1981, 1981-82
Inprimategia: Txarra-Itxoa - Donostia

Juan Mari Lekuonaren egunerokoa 1957-1958

Jon KORTAZAR

Sarrera

1957. urtean, Juan Mari Lekuona Añorgako bikario delarik, eguneroko bat idazteari ekiten dio. 1957. urtearen hondarra da, eta urte horren bukaeran eta 1958. urtean zehar idazten du bere egunerokoa. Eguneroko hori, ez dakizkigun baina suma ditzakegun arrazoiengatik, argitaratu gabe dago, bere senide eta adiskideen eskuetan. Arrazoi bat izan liteke gaiaren alde barneko eta pertsonala, egunerokoaren jabeak publiko egitea nahi ez duena. Bigarrena liteke gazteleraz idatzita ego-
tea.

Baldintza horiengatik, lan honek muga garbiak ditu. Lehe-
na, egunerokoaren jabeak inori irakurtzen ez uztekotan utzi
zidan originalaren kopia bat, eta beraz egunerokoan idatzita-
koaren aipamenik egiteko baimenik ez dudanez, zeharbidez
aritu beharko dut lan honetan, aipurik gabe, dagoena deskriba-
tuz baina egilearen hitzak paperera ekarri gabe. Eta bigarrena,
lan hau argitaratu aurretik egunerokoaren jabearen eskuetan
izan da, haren iritzietara makurtu naizela adierazi nahi nuke,
agian, lan kritikoetan inoiz egin beharko ez litzatekeena. Baina
dokumentu pertsonal eta barnekoiaaren aurrean nagoenez, eta
Juan Mari Lekuonaren lagunek baldintza horiekin utzi zidatenez

testuaren originala, ez dut nire burua ikusten horrelako hitzar-menik apurtzeko.

Horrek ondorio nagusi bat du lan honen definiziorako. Deskribapen lana izango da, deskribapen teknikoa lehenik, autobiografiaren diskurtso esanguratsu eta interesgarriaren bidean, eta gaiaren deskribapena ondoren, Juan Mari Lekuonaren hitzei boza emango diet, berak duen aberastasunari tonu arrunta gehituz. Haren ahotsa ez da entzungo, baina uste dut lan honen irakurketaren bidez haren ahotsaren itzala behintzat taxutuko dela, argiak egiten duen gerizaren azpian agertuko dela.

Has nadin, bada, koaderno deituriko horren deskribapen fisikoarekin. Koaderno bat baino gehiago liburu dotore baten itxura du, guardak marinaz dekoraturiko paper ederrarekin. Papera ere hainbestekoa da, ederra, lodia, ukimenerako gustuko dena. 120 orrialde ditu, denak eskuz idatziak, oso aldaketa, zirriborro edo zuzenketa gutxirekin, oso gutxirekin.

Esan dugunez, 1957. urteko azaroaren 29an hasten da eta 1958. urteko irailaren 12an bukatzen. Hamar hilabete horietan (azaroko 29koa ia abendukoa baitugu, hamar hilabete kontatuko ditut), baina, 37 egun baino ez dira aipatzen; 37 egunetan idazten du bere egunerokoa Juan Mari Lekuonak. Beraz, oso erritmo lasaia da, ez egunero-egunero idatzitakoa. Gainera, hilabete batzuetan, batez ere hasierakoetan, kartsuki eman du idazketa egileak, baina pixkanaka-pixkanaka moteltzen doa idazteko gogo. Azaro-abenduan 9 sarrera ditu egunerokoak, 7 urtarrilean eta 4, aldiz, otsailean. Une honetatik aurrera, motela da erritmoa; sarrera 2 martxoan, 3 apirilean, 4 maiatzean, 2 ekainean, 2 uztailan, 1 bakarria abuztuan, oporraldietatik itzuli ondoren, eta beste hiru irailean.

Egunerokoak izenburu garbia du: *Mi Diario en Añorga. Reflexiones poético religiosas de un sacerdote*. Eta hitz horiekin bukatzen du egileak liburua ere koaderno bukatzen denean, 1958. urteko irailaren 12an.

1. Egunerokoaren aitzakia eta abiaburua

1.- 1957. urtearen azaroaren Mari Carmen eta Mañoli (ez da abizenik aipatzen) Jesusen Bihotzaren Misiolari Frantziskotarrak Venezuelan sorturiko orden erlijiosoan sartzen dira eta agur gisa egunerokoa idazteko koadernoak –liburu gisako koaderno dotorea– opari egiten diote parrokiari urte bete bakarrik daraman eta adiskide duten koadjutore berriari: Juan Mari Lekuonari. Ordenak Donostiako Loiolan zabaldu duen komentura hailer joan, eta hamar bat egun geroago hasten du bere egunerokoaren idazkera Juan Mari Lekuonak, 1957. urteko azaroaren 29an.

Aitzakia, bada, bikoitza da: moja bik oparituriko koadernoak sostengatzen du fisikoki egunerokoa, eta koadernoak bukatzen denean bukatzen da egunerokoa ere. Aitzakia dena, beraz, egunerokoaren giltza bihurtu da. Egunerokoaren hasiera eta bukaera koadernoaren izaera fisikoak mugatzen du. Ez dago arrazoirik egun batean hasteko edo beste batean bukatzeko, baina hausnarketa pertsonala bukatzen da koaderno bera bukatzen denean.

Arrazoi pertsonalez gainera, agian, beste arrazoi kultural garrantzitsua ere alpatu dezakegu. Zein neurritan eragin zion Georges Bernano-sen (1888-1948) *Diario de un cura rural* (Journal d'un curé de campagne) nobelak lana aurrera egiteko orduan? Nobela 1936. urtean argitaratu, baina 1951. urtean Robert Bressonek nobelan oinarrituriko filma estreinatu zuen. Gaiak, jakina denez, abade baten barnean graziak eta bekatuak duten borroka deskribatzen du. Egunerokoan apaizak bere hausnarketa eta bere otoitzak kontatzen ditu, baina batez ere ikuspuntuak bere izaera eta jendearen arteko harremana aztertzen du. Ikusten denez Juan Mari Lekuonaren egunerokoarekin diren paralelotasunak nabariak dira.

Nobelaren oihartzuna handia izan zen erlijio taldeetan garai hartan eta haren eragina ez dugu nahikorik neurtua, nahiz eta

Nemesio Etxanizen *Izotz kandelak* nobela autobiografikoa ere garai bertsukoa izan, eta, beraz, izango genuke hemen hari berezi bat Euskal Herriko apaizen artean lanak izan zuen harre-raren garrantzia adierazi eta ikertzeko.

Opari-egileen irudiak ere bere garrantzia du, garrantzi berezia hark ere, zeren egunerokoaren diskurtsoa haiei zuzenean zuzendua ez badago ere, haiek, batez ere bukaeran, idazten duen ni dialogikoaren hitz jarioaren azken helburu bihurtzen dira, eta bukaerako pentsakizuna haientzako da, idatzitakoa ezagutuz gero haiek zer pentsatuko ote luketen galde-tzen du. Egilearen niak, idazkera prozesua bukatzen denean, bere buruari galdetzen dio haiek koadernoan oparitu ziotenean zer ote zuten buruan, zer pentsatuko ote zuten oparia egitera-koan, eta zer irudituko litzaiekeen barrenean dagoena ezagu-tuz gero. Baina, artean, egileak garbi du zeintzuk izan diren bere gai nagusiak koadernoak bere denboraren iraupena kon-tatu duen artean, erlojuaren papera betetzen zuen artean, edo, Juan Mari Lekuonak adierazten duenez, bide bat zabaltzen duen pelikula bukatzen denean. Lau gai nagusi aipatzen ditu idazleak: norberaren animo egoeraren azalpena, hausnarketa-ren berri ematea, erabakiak hartzen dira (eta beraz, haien zergatiaz hitz egiten du), apaiz bizitzaren zenbait alderen poeti-zazioa egiten da. Lau muga beraz: egoerak, hausnarketak, zergatiak, poetizazioa.

Lau ekintza nagusi haiek hasieran eta bukaeran agertzen den esaldiaren menpe agertzen dira; lau muga ditugu, baina arku nagusi baten azpian: Testua hasten den momentuan, Jaungoikoaren zerbitzari gisa agertzen du bere burua egileak, eta bukatzen denean bere joera idealista azpimarratzen du, izpiritu idealista munduaren erdian mantentzeko, izpiritua man-tentzeko, esan nahi du, subjektuak izan duen sublimazio joera mantentzeko testuak eguneroko guztian zehar.

2. Autobiografiaren nondik norakoak

2.- Garbi dago *Mi Diario en Añorga* testua autobiografikoa dela, baina autobiografiak arazo teoriko anitz sortu ditu teoria literarioan, hain zuzen ere muga egiten duelako fikzionalizazioarekin. Zer da benetakoa, zer irudimenaren munduko, hone-lako kontakizun batean? Hauxe dugu lehendabiziko muga; edozein autobiografiak mundu paralelo bi adierazten ditu: alde batetik, identitate baten sormena (eta horretaz Juan Mari Lekuonaren testuak adibide anitz ematen ditu), eta, bestetik, egiazat ematen diren zenbait ekintzen kontakizuna. Identitatearen eta kontakizunaren artean mugitzen da beraz bere muga izaera hori. Baina luri Lotmanek gogoratu zuenez, mugak oso garrantzizkoak dira kultura alorrean, hain zuzen ere mugetan gertatzen baita komunikazioa.

Literaturako teorikoek toki handia eman diote hausnarke-tari autobiografiaren definizioa dela eta.

Garbi dago, baina, autobiografia, eta eguneroko bat haren adibiderik garbiena litzateke, identitate bila dabilen subjektu baten diskurtsoa dela, diskurtsoa egiten duen neurrian enunziatu egiten du, enunziatzailea izan eta era berean enunziatua. Autobiografiaren teorikoa den Philippe Lejeunek (1975) hasiera-hasieratik proposatu zuen autobiografia ez dela fikzioa, nahiz eta batzuetan fikzioaren eredia hartzen duen zenbait kasutan. Lejeunentzat autobiografia egileen eta irakurleen artean dagoen hitzarmenean oinarritzen da, hitzarmen autobiografikoan egilearen ni testuala eta egilearen nia bat bera dira, eta horrela ulertuko du irakurleak, horrek onartu egingo du kontaktzen zaiona egia dela.

Autobiografia adierazteko orduan, sei baldintza jarri zituen Lejeunek:

- a) Hizkeraren forma: a) hitz lauzkoa eta b) narrazioa da.
- b) Gaia: nortasun baten historia.

- c) Egilearen egoera: egilea eta narratzailea identitate berekoak dira, bera dira.
- d) Narratzailearen ikuspuntua: a) narratzailearen eta pertsonaia nagusiaren arteko beratasuna, b) narrazioaren iraganerako ikuspuntua.

Autobiografia litzateke sei baldintzak betetzen dituen testua, eta. haietatik batean huts eginez gero, autobiografiaren ondoan dagoen beste genero bat: memoria, biografia edo, gure kasuan den bezala, egunerokoa, zeinetan ez den narrazioaren iraganeko ikuspuntua betetzen, hain zuzen ere iragana kontatu beharrean oraina kontatzen baitu egileak, testuaren buruan data jarriz gainera, eta egunerokoa kontatuz, nahiz eta noiz edo noiz atzerantz bidali begirada.

Lejeunek identitatearen arazoa sinaduran kokatzen zuen. Testuaren egilearen eta testu idatziaren artean dagoen batasunaren oinarri da sinadura. Baina Identitatea, Juan Mari Lekuonaren eguneroko honetan agertzen den bezala, nitasunaren eraiketa da, eta beraz neuri batean testuak sortzen du nitasuna, edo nitasunaren irudia. Egunerokoa bukatzen ari denean, eta itzuliko gara gai honetara geroago, bere egunerokoak erakusten duen identitateaz mintzo da Juan Mari Lekuona, eta metaforen bidez hitz egiten du: bere bizitza zinemarekin konparatzen du, baina ez da metafora erabat osatua, esaten ari denaren artean mugitzen ari da metafora bera ere. Hasieran, bizitzaren pelikulan ebakirik zeluloide zatiarekin konparatzen du bere bizitza, baina bat-batean esaten du pelikulak aurrera egiten duela, pertsonaiak ere hala egiten baitu: aurrera jarraitu. Beraz, egunerokoak egiten du subjektuaren aurrerapena auto-kontzientzia indartzen duen neurrian. Egunerokoa bilaketa prozesu baten agerpena da azkenean (Loureiro, 1991).

Mi Diario en Añorga egunerokoa dugu, bada. Eta genero berezi horrezaz ere hainbat azalpen teoriko daude eginak. Gure egoeran hurbil denez Vicente Huicik (2006, b) egindakoa eka-

rri nahi nuke orrialde hauetara, Juan Mari Lekuonaren praktika ezagutzen lagunduko digulakoan.

Egunerokoak definitzerakoan ezaugarri nagusia ikusten du:

“Oso paper emankorra dauka idazleak, narrazioaren objektua bere bizitza delako, honek inplikazio filosofiko, soziologiko, estetiko eta antropologikoa duelarik” (2006, b, 49).

- a) Filosofikoa: egunerokoaren bidez idazten duen subjektuak bere bizitza aztertzeko tresna egokia aukeratzen du.
- b) Soziologikoa: niaren agerpena sortzen da egunerokoaren idazkeran. Ikusiko dugu ondoren zenbat aldiz galdetzen dion bere buruari Juan Mari Lekuonak egunerokoan nor ote den bera, eta zenbat aldiz jartzen duen bere burua besteek esaten dutenaren aurrean.
- c) Estetikaren ikuspegitik, Huiciren ustez gure kulturaren dagoen joera tragikoaren aurrean enpatia proposatzen du, esan nahi da, egilearen eta irakurlearen arteko enpatia.
- d) Antropologikoa: askatasunaren eremua dugu egunerokoa, sormen praktika bat eta askatasunaren praktika ere bada egunerokoa.

Egunerokoak beste ezaugarri bereziak ere baditu, “eguneko eguneko denboratasuna” (Huici, 2006, b, 51) da bere helburu nagusia. Egunekoa historikoa ez dena gisa definitzen delarik, ibiltzea besterik ez da bere helburua, eta horregatik, agian, bukatzen da eguneroko hau koaderno bukatzen den egunean, eta, guk dakigularik, Juan Mari Lekuonak ez zuen ondoren beste egunerokorik egin ez sortu. Gainera denbora horrek ez du ematen distantziarik ez ondorio nagusirik ateratzeko betarik, bakartasunaren esparrua da egunerokoa –bakartasunaren gorazarrea egingo du noizbait Juan Mari Lekuonak testu honetan–, eta bukatzeko esperientzia formalizatu egin behar da, idatzi, azken batean:

“Puntu honetan beharrezkoa da idazketa autodiegetiko honen idazlearen konpromiso gogotsua aipatzea; libre hartutako konpromisoa, idazteko duen konpromisoa” (Huici, 2006, b, 53).

Elementu tekniko guztiok oso arrotzak irudituko zaizkio Juan Mari Lekuonaren egutegiaren gaiak jakin nahi duen eta literaturaren teorian ohitua ez dagoen irakurleari. Baina beharrezkoak ditugu hemendik aurrera azalduko duguna argitzeko, hain zuzen ere, hemendik aurrera egunerokoaren nondik norakoak adieraziko baititugu, eta elementu teknikoak beharrezkoak dira egunerokoan esaten dena argi geratu dadin.

3. Jaikoaren irudia

3.– Gorago aipatu dugu lau direla Juan Mari Lekuonaren egunerokoan agertzen diren gai nagusiak, edo egilearen ikuspegitik agerturiko gai nagusiak, lau muga, lau alpamen mundu jarri ditugu adierazpide gisa: arimaren egoera, sentipenaren eta nortasunaren gorabeherak, hausnarketa askatu bat berari gertatutako ekintzei buruz, bizitzari, sexuari eta heriotzari buruz; harturiko zenbait erabakiren azalpena ematea; eta azkenean bere poeta senaren berri ematea. Eta hori guztia lau hitzetan laburtu dugu gorago: egoerak, hausnarketak, zergatiak, poetizazioa.

Baina jar dezagun arreta izenburuaren bigarren zatian: *Mi Diario en Añorga. Reflexiones poético-religiosas de un sacerdote*. Apaiz baten eguneroko gisa definiturik dago egunerokoa, eta apaiz izaeratik begiratuta daude hemen agertzen diren gaiak eta izaerak. Apaiz baten hausnarketak, lau zirkulu nagusitan: Jainkoarekiko lehenik (hausnarketa), norberarekiko ondoren (egoerak), parrokiako jendearekin ondoren (egoerak eta zergatiak) eta azkeneko, eta ez horregatik garrantzi txikiagoz, norberak egiten duen edo egin nahi lukeen poesiarekin (poetizazioa).

Lau gai nagusi lantzen badira, edo lau hausnarketa zirkulu hartzen baditu kontutan egileak, nahiko bide ematen du, egunerokoa gertatzen dena aztertzeko eta begiratzeko.

Lehen-lehenik Jainkoa dago apaiz horren gogoan. Espainiako Urre Aroko autobiografia asko eta asko egilea baino maila sozialean gorago dagoen norbaiti zuzenduak daude. Horien antzera, Juan Mari Lekuonaren egunerokoa ere gainetik dagoen Norbaiti zuzendua da, gehienetan. Galdetzen badugu nori zuzentzen zaion Juan Mari Lekuonaren ahotsa erantzun bi izango ditugu. "Zu"ka ari denean, lehen-lehenik eta batez ere Jainkoari zuzentzen zaiola esan beharko genuke. Ez Kristori (abendua den 13an aipatzen da Nazaretoko Jesus deitzetik Hitz Haragitua deitzera igaro dela eta izen aldaketa horrek bere barnean gertatu den aldaketaren berri ematen duela), baizik eta Jainkoari. Kristoren irudia agertzen da, hala ere, noiz edo noiz, han eta hemen barreiatu oharretan. Adibidez, apaiz izaeraz hausnartzen ari denean Kristo mistikoari buruzko aipamenak aurkitzen ditugu eta parrokiako emakume bat, Mari Carmen, minbiziz hiltzera doanean, Kristo mindua aipatzen da. Egiten da Kristoren irudiaren eta eguneroko bizitzaren arteko paralelotasunik, baina gehienbatean Kristoren orde, "Jauna" hitza erabiltzen da sarriago edo bestela "Zu" besterik gabe, letra larriz jarrita. Egunerokoaren zenbait pasartetan, batez ere bukaeran, beste batzuk dira ahots horren "entzuleak": minbiziz hiltzera doan Mari Carmen deituriko gazte bat, eta azken orrialdeetan koadernoan opari zioten Mañoli eta Mari Carmen ditu gogoan idazleak eta haien ere zuka ari zaie. Testua zabalatzeko momentuan zuka ari zaie opari egin dioten adiskide biei, eta amaitzeko momentuan ere bai.

Mari Carmenek eta Mañolik koadernoan oparitu zioten Juan Mari Lekuonari, eta honek bizitzaz eta hitzaz bete du, eta egunerokoa bukatzerakoan berriz itzultzen die opari gisa, idatzia haientzat egindako oparia dela esanez. Koadernoan igortzen die berriro, baina oraingoan beterik, ez etorri zen moduan.

Zertzeladak egin beharrekoak badira ere bigarren pertsonan, zuka, norbaiti zuzentzerakoan, hausnarketa egiterakoan, Jainkoari zuzentzen zaio ahotsa, egilearen ahotsa.

Ez da alde batera uztekoa egileak bere burua "apaiz" gisa definitzea ezer baino lehen, eta apaizaren ikuspegitik eginda egotea lerroetako hausnarketak.

Lehen esaldietan, bere egoera eta bizitza Mari Carmen eta Mañoliren bizitzarekin konparatzerakoan, idazleak argi uzten du bere bizitzak duen helburu nagusia Jainkoaren zerbitzari izatea dela. Eta horrela erdiesten sailatu dela Añorgako parrokian daraman urtebetean.

Jainkoarekiko duen loturaren berri batez ere alde hauetan gauzatuko du Juan Mari Lekuonak aspaldikoak diren urte horietan.

- a) Sublimazio gogorako erakusten duen adibideetan agertzen da. Jainkoari hitz eginez, egileak bere buruarentzako santuago, jakitunago, zerbitzariago, ahaidetsuago izateko gogoia erakusten du. Badaki, baina, eta hau identitatearen puntuan ikusiko dugu, bere izaera ez dela erabatekoa horrela, berea proiektua dela, eta, historikoa den neurrian, sublimaziorako edo Idealismorako bidea jarraitu behar den bide bat dela. Askotan Jainkoaren eskuetan uzten du bide horren eta proiektu horren jarraibidea egitea, baina beste batzuetan, egin-kizun historiko gisa ulertzen du bere bizitzako proiektua. Kristori buruz diren abestien letrak komentatuz, haien joera bigunez hitz egiterakoan, Kristorengana zuzentzeko formen sublimazioaz hitz egiten du, ideia indartuz. Gorago ikusi dugunez, Kristoren ideia oso loturik agertzen du Hitz Haragituarekin, izaera konplexuaren agerpenarekin: maitasuna, ezaguera, sentsibiltatea, hiru bertuteak agertzen dira batera Jesusekin izan nahi duen harremanean. Galdera zabaltzen du, baina: abstrakzioaren ideia jarraitu Jauna-

ren ideia ulertzeko moduan, edo sentsibilitatearena, horra hor koska. Apaiz izatea, azken batean, Jaunarekin bat egitea litzateke eta bere bizitzako arlo guztietan ikusten du egileak asmo hori, nahiz eta noizbait bere ahultasuna ere agertzen duen. Inoiz, baina, Jaunarengana era poetiko batez hurbiltzen da, eta egunerokotasunetik hasi eta Jaunaren ideiara heltzen da. Euria ari dela ikusirik, egileak ura bihurtu dadila eskatu dio Jaunari, horrela ura izanaz mugagabetasunaren metafora izango litzateke. Ontasuna egin, apaiza izatearen osotasuna lortu. Koadernoaren helburu nagusia ere Jainkoarekin duen harremanean definitzen du Juan Mari Lekuonak: apaiza izatearen osotasuna lortu nahi du, bere bizitzako obsesioa dela aitortuz, idazki honetan oinarritzen duen obsesioa. Apaiza izateko osotasun horretan Juan Mari Lekuonak bere idazkera eta hausnarketa eramaten ditu aurrera, helburu nagusi gisa horixe adieraziz.

- b) Otoitzetan. Juan Mari Lekuonak ez du askorik alpatzen egiten duen otoitza, inoiz esaten duenez, ez delako metodikoa horretan, baizik eta bihotzekoa egiten zaio otoitza hastea. Brebiarioaz ere hausnarketa luze bat du, bere buruari galdetzen diolarik brebiarioak ez ote duen mekanizatzen otoitza egiteko modua. Kexatu egiten da Elizako otoitz forma ofiziala egin egiten duela baina indarge, eta saiatzten da oso gustura egiten ez duen ekintza hori ere hobetzen, brebiarioaren historia eta formak aztertuz, ziurrenik, hobeto egin zezakeelakoan otoitz hori.
- c) Bakarkako hausnarketan. Egunerokoak maiz hartzen du kontutan egileak asti luzeak igarotzen dituela berak bakarrik sagraioaren aurrean hausnarketa eginez. Lehen aldiz, dena utzi eta Jainkoaren bila joateko alpatzen ez den norbaiti sortu dion alaitasunez hitz egiten du egunerokoak. Bakarkako hausnarketak, baina,

beste joera batzuk ere hartzen ditu: asko pentsatzen da orrialdeetan eta gauza askori buruz, ez soilik Jainkoaren izaeraz, ez soilik Jainkoa ulertzeko gaiari buruz. Edozein egoera bihurtzen da hausnarketarako bide. Batzuetan Jauna bera da gaia, baina gehienetan Juan Mari Lekuonaren bizitzako puntu desberdinez hausnartzen da: bizitza pastoralara ongi egiten duen ala ez, besteek bere lanaz eta bizitzaz pentsatzen dutena... bizitzako gai oso desberdinak. Sagararioaren aurrean, urtarrilaren 24an idazten du, bere buruarentzako ez du egileak ezer nahi, ez du eskerrik gura, ez dio inguruari eskerrona exijitzen, bere burua hustu nahi du jendea –herria, bere hitzetan– zerbitzatzu.

- d) Idatzitako otoitzetan. Elizako otoitzak pertsonalagoak egiten saiatzen da beti Juan Mari Lekuona, eliztarrei otoitz egiteko aukera berriak emateko asmoz. Maiz idazten ditu otoitz berriak, eta argitaratu jendearen artean ezagunak izan daitezzen, eta askotan ere bertsoaren forma hartzen du eginkizunak. Lehen otoitza baina abenduaren 2an agertzen da, eta Orbanik Gabeko Ama Birjinari eskaini dio. Testuak originala eskaintzen du, baina komentatzen da aldatu beharra izan zela eta Juan Mari Lekuonak bere ezinegona adierazten du, eta guretzako interesgarriagoa dena, bere sentsibillitate berezia arte kontuetan, eta edozein aldaketa txikik minbera uzten du. Badirudi, eta honetaz batean baino gehiagotan hitz egiten du, Parrokiko orriak argitaratzeko ohitura dagoela, eta egileak haiek idazten dituela ematen du. Inoiz berak idatzitako kantuek kantatzen direla mezatan aipatzen du idazleak edo Lehen Jaun-hartze bat dela eta berak egindako bertso baten ahapaldia transkribatzen du Juan Mari Lekuonak.

4. Identitatea

Egunerokoaren helbururik nagusia Juan Mari Lekuona nor den azaltzean datza. Nor den ikustera, edo nola ikusten duen bere bizitza aztertzeraz dator eguneroko hau. Batzuetan norberaren definizioa izenlagunen bidez ematen da: "Ni hola-koa naiz", baina usuago gertatzen da idazleak ekintzetan edo duda-mudetan definitzea bere burua. Edo egoeretan. Lau modu desberdin ditugu bada identitatea azaltzeko.

- a) Adjektiboak. Nolakoa da Juan Mari Lekuona? Bada, gehienbatean bere burua txikitzat duen gizakia dugu, inferioritate konplexuz hornitua, eta neurri berean, menpeko sentitu izan horrek gora bultzatu du, eta menpeko izatearen eta harro izatearen artean zalantza sortzen zaio maiz, jakin ez baitaki non dagoen neurria. Alde horretatik obsesioz jokutzen du, hausnarketari toki handia emanez. Baina poza ere agertzen du maiz ahots narratibo horrek. Poza batez ere euria denean. Euriari dela-eta hiru bat aldiz azaltzen du bere poza, euriak eraberrituko balu bezala, haurtzaroa datorkio gogora eta haurtzaroarekin batera garbitasuna eta Jaunarekin bat egiteko modua. Ura berez eta beraz sinbolo nagusia da Juan Mari Lekuonaren bidean. Euria gauzekin bat egiteko bidea ere bada, eta, ikusi dugu gogo, mugagabetasunaren metafora nagusia ere bai. Bakartia ere bada poeta, eta bakartasuna egunerokoak idazteko aiposeko egoera bada, Juan Mari Lekuonak baldintza oso ondo betetzen duela aitortu beharrean gaude. Bakartasuna askotan aipatzen da testuan, eta beharbada, *Bonjour tristesse*, Françoise Saganen nobela ezagunaren aipamena da testuan agertzen den aipamen literario bakarrenetarikoa (besteak bere poesiarekin edo bertsolaritzarekin loturik daude). Bakarrik bizi den pertsona dugu, noizbehinka talde baten babesa bilatzen duena, baina ez da erabatekoa ematen den

irudia, konplexua baino. Sentibera da hemengo gizakia, artista, abilitate anitz dituena, olerkaria, sentibera, lastima zigorra baino hobeto jasaten duena. Tristeziak oso orrialde ederrak idazti ditu Juan Mari Lekuonak eguneroko honetan eta benetan tristurak ematen dio oso baikor ez agertzeko neurria, eta gauzei neurria hartzeko teknika. Tristura pozarekin nahasten du maiz eta tristuraren bidez, kontrastearen bidez, ezagutzen du zer duen ederretik udagolenak. Tristurak egin zuen poeta, tristurak, bada, toki handia du identitatearen sorreran eta irudiaren eraketan. Oso gustura da tristeziarekin gure ahotsa. Zoriontsua da baina irakurtzen dugun gizakia? Zoriontsua neurri batean, jakin badaki ez dela guztiz zoriontsua izango bizitzaren edozein egoeratan ere. Zoriontsua da gizaki hau? Eta ez daki erantzuten, zoriontsua baino gehiago egoeretara ongi moldatzen den izaera bat. Barne oreka mantentzen duena, bakean bizi dena. Zoriona beste maila batean kokatzen du. Bizitza praktikoan ongi moldatzea da gizakiak nahi duena eta ez zuzenean zorion ideala. Zorionaren orde, saminaren filosofia asmatu duenak –horrelaxe dio– nahiago du egunerokotasunaren aurrean lasai izan eta konturatu samina ere joan doala denborarekin. Horregatik sentibera dagoenean lanean ematen ditu bere onenak, desengainuak arin ahazteko asmoz.

- b) Duda-mudak eta zalantzak. Bere ingurukoek definitzen dute maiz norbera, eta askotan gertatzen da eguneroko horren orrialdeetan, Lekuonaren izakia besteek epaitu izatea. Berari baina zalantza sortzen zaio, bera nolakoa den benetan galdetzen duelarik askotan eta askotan. Hasiara hasieratik besteekin duen harremanean ikusi behar du zein den bere burua. Horrela bere testuak eta letrak parrokoak ukitzerakoan, edo herriak abesti batean nota oker batzuk kantatzerakoan, poetaren sentsibilitatearen eraginez bere barrua asaldatu

egiten da eta bere berezitasuna orrialdeetan garbi agertzen da. Askoz ere finago eta zalantzakorrago agertzen da norbaitek lausengu egiten dionean, bere jarrera parrokian oso ongi doala adierazten dionean. Horrela, behin gorazarrea jasoz gero, gorritua eta lotsatua agertzen da ahotsa eta horrek aldarte txarrean jartzen du, ez baitaki nola erantzun gorazarrearen aurrean, berak parrokian gauzak ongi egiten dituela entzuterakoan edo herriak estimu handian duela aditzean. Hor bai sortzen direla zalantzak eta desenkusak. Santu izan ez eta santuarena egiteak beldurtzen du bere arima. Porrotaren beldurretan ari den identitatea da Juan Mari Lekuonak adierazten duena, besteek zer uste dutenaren zain dagoena, baina era berean bere irudi zuzena eman nahi duena, ez du faltsukeria-rik, ez du maite itxura, beti apaiz ona izatea nahi luke bere neurrian, baina askotan ez da hain justu hori gertatzen, batez ere neurria zein den etengabe ari zaiolako bere buruari galdetzen. Porrotaren eta apaiz egokia ez izatearen zalantza 1958ko urtarrilaren 5ean idatzita-koan agertzen da. Fabrikari (ez da aipatzen zein, baina Añorga izanda, ziurrenik porlan fabrikaz ariko dela suposa dezakegu) istripu bat gertatu, zaurituak izan, hildakorik zorionez ez, baina apaizak ez ziren bere tokian behar ziren laguntza espiritualak emateko. Hor ere porrotaren beldurrak hartzen du Juan Mari Lekuonaren bihotza eta bere zalantzak luzaz azaltzen ditu.

- c) Egoerak. Orrialdeotan agertzen den Juan Mari Lekuonaren irudia pixka bat sentibera da, laster beherantz jotzen duenarena. Lanak "desbordatu" egiten du eta ez du astirik nahi lukeena egiteko, bere poesiak egiteko, bere tesiarekin aurrera jarraitzeko, mezatako eginkizunak behar beste taiukerarekin betetzeko. Bere buruarekin konforme ez dago inoiz idazlea, eta ahotsak asko eskatzen dio bere buruari: hutsik egin ez, denen

zerbitzuan izan, banaketarik egin gabe, zorrotza izanaz bere buruarekin, lan eta lan beti, eta beti asegaiz, bat-batekotasunaren aurka. Neurri berean bada egoera berezietan bere buruari asko eskatzen dioen gizakia eta behin (otsailean da) berandu idazten duela-eta garizumako orrialdea larri agertzen da identitatea, eta txiki-keria batek sortzen dion larriduratik irteteko oso beharrezkoa du parrokoaren laguntza, onarpena; lasaidura ez dator, bada, barnetik, baizik eta kanpotik, berriro ere besteek esaten diote zer egin behar duen, esanekoa izateak ere onurak dakartzkio gure Juan Mari Lekuonari. Horregatik mintzen du behin autobusean zetorrela jendeak berarekin izan zuen jarrerak. Inork ez zuen bere ondoan jarri nahi eta berezia zela sentiturik mina hartzen du bere bihotzak eta bakarrik sentitzen du bere burua, arraroa, banandua, jendearengandik urrun. Eta horrek min eman dio, jakinda gainera, bere bidaiaren zioa parrokiako jende arruntari on egitea zela: lana bilatu, pasaporte batzuk bildu, kantu batzuen inprenta probak zuzendu, oparitzeko liburu batzuk erosi... Hitzaren zentzu bietan berezia izateak zer pentsa eta zer sentitu eman dio poetari. Dena dela, egoera berezietan jartzen da pentsakor egilea. Hileta batean, ezkontza batean, meza berri baten ostean. Denetan bere joera abegikoa agertzen du Juan Mari Lekuonak, animatzailea eta umoretsua, bertsoetara jaioa, eta egoera horietan bi dira sortzen diren harremanak. Batzuk aurpegiratu egiten diote jarrera eta kontuz ibiltzeko aholkatu. Beste alde batetik, ongi sentitzen du bere burua txantxen eta kanten artean. Aldarte bi agertzen ditu, beraz, beldurra eta poza, eta berriro sortzen zaio egileari zein ote den bide egokia aukeratzeko modua: umoretsu agertu edo apaiz izateak eskatzen duen jarrera serloan jarraitu. Barneari eutsi

edo kanpokoek esandakoari men egin... zalantza beti zalantza apaizaren kontzientzian.

- d) Ekintzak. Egia esateko, egunerokoa batez ere hausnarketa eta erreflexioa da gehien batez. Vicente Huicik, egunerokoen teorikoak, adierazten zuenez, bakartasunetik (ikusitako dugu zer garrantzia duen bakartasunak Juan Mari Lekuonarentzat), eta askatasunetik (beranduago agian bai, baina une horretan inork irakurriko ez zuela izango zuen ziurtasuna). Baina bakartasuna eta askatasuna ere baldintza nagusiak badira eguneroko baten idazketan, ez da zalantzarik zintzotasunak ere bere toki nagusia betetzen duela idazkera praktika horretan. Ekintza gutxi dago, ordea, batzuk bai, pastoraletan ari den apaizak lanak ere baditu eta.. Hausnarketaren barnean kokatzen denez egunerokoa, nahikoa du subjektuak bere barnean kokatzea eta bere barneari entzutea, bere kezkek, arrangurak, tristeziak, pozak eta esperantzak, eta analisiak adierazteko. Baina bizitza ere hor dago eta bizitzan ekintza pastoralak ere kokatzen da. Puntu molde honetan nik alde bi nabaritu nituzke, batetik bakarreko iritziak eta bestetik taldeko ekintzak. Bere identitatea sortzeko unean, besteen eta hurkoen iritzien menpe bizi den gizakiak nahi eta nahi ez kasu egin behar die hurbileko iritziei, konfiantzaz egindakoei. Horrela hain sentibera den Juan Mari Lekuonak elkarrizketa bi (eta haien ondoren datozen pentsakizunak) biltzen ditu bere egunerokoan. Bata, apirilaren 15ean biltzen da. Badirudi emakume bati emandako erantzun zorrotz batek sortzen diola subjektuari min ematen dion sentipena. Badirudi Miak gaizki erantzun ziola emakume horri. Gaizki ez, arrazoez eta, agian, zakarkeriaz. Orduan, besteak erantzun egiten du, penaz. Juan Mari Lekuonaren erantzuna hartaz pentsatzea da, eta gertatutakoari buruz duen iritzia bikoitza da. Pentsatzen du ordu arte ongi tratatu duela

arima hori, karitate osoz, eta uste du aurretik izango harremanak konponduko duela arazoa, eta hala ez baltz, Jainkoaren eskua ikusten du, arima hari beste bide bat erakutsiz. Bigarren arazoa berarekin konfesatzen zen gizon batekin du eta maiatzaren 17an jasotzen du gertatutakoa. Harrezkero berarekin ez dela konfesatuko aitortzen dio pertsona horrek, hain zuzen ere konfiantza galdu duelako. Orduan ere Juan Mari Lekuonaren erantzuna besteen erabakien onarpena da, eta etorkizunerako ere bere eskua zabalitzen dio. Karitatearen kontzeptuaren azpian kokatzen du subjektuak beti bere joera hori. Baina banakako pertsonekin duen jarreraz gain, badira beste harreman batzuk ere banakakoak direnak: adibidez, gogo-jardunak egiten dituen apaizarekin, zeinarekin apaiz izatearen gai nagusi batzuk alpatzen dituen: nola bizi apaiz izanez, nola mantendu oreka sentimentala, espirituala, munduaren erdian? Elkarrizketa horretan berriro agertzen da Juan Mari Lekuonaren zalantza nagusia, gaizki ulertuaren beldurra: nola lotu norberak borondate onez egiten duena, eta herriak ekintza horri ematen dion esanahia, batzuetan okerra? Batez ere irakurketak alpatzen ditu Lekuonak pasartean eta irakurketa berrien aipamena egiten du, izenik eman gabe, baina irakurketa jabalen beharra azpimarratuz, sentimentalismotik urrunduko duten irakurketa bareak. Eta berriro, gaia: apaizaren bakartasunaz hitz egiten dute eta bide batez zelibatoaz. Juan Mari Lekuonak bere iritzi oso pertsonala ematen du: bera izan litekeena eman du, besteak izan daitezen, goza dezaten berak utzitako bide hori. Eta aditz biak azpimarratuz ematen dira. Juan Mari Lekuonaren barnean bizitzari buruzko iritzi oso baikorra ematen da beti, aurre egiten zaio bizitzari eta beti ere pozez eta oreka mantenduz, sentimentalismoan sinetsi gabe, baina sentsibilitateari eutsiz. Beste apaiz batzuen pre-

sentzia ere nabari da testuan: berarekin ari den parrokoa adibidez. Hari buruz, izenik eman gabe, izan duen harreman ona aipatzen du, behin eta berriro, zein ondo konpondu diren lanean elkarrekin, beti ere bera kolaboratzaile eta parrokoa gidari, baina era berean lehen aldiz parrokia batean dagoenarentzat laguntzaile. Pastoralgintzak baina eskatzen du jendearekin, herriarekin, Lekuonak dioen moduan, harremana izatea. Eta maiz ematen da mezen berri, homilien gaiak, gazteekin egindako gogo-jardunak, inoiz gazteek elizarekiko agertzen duten hoztasuna aipatuz. Parrokiarako egindako idazkiak ere maiz aipatzen dira: Ama Birjinaren egunerako otoitza, meza jarraitzeko paperak, garizumarako egindakoa... Ezkontzak, hiletak... Lanak ere zer pentsa eta zer senti ematen dio Juan Mari Lekuonari. Batez ere musikarekin lotzen du bere izaera, eta berak idaztitako kantak abesten entzuten duenean herria mezatan gora egiten dio gogoak eta bere burua ikusten du zeruan sartzen aingeru koroak lagundurik. Eguneroko lanez kezu ere bada, ez batzuetan alferriakoa edo ikusten duelako bere lana, eta orduan bere gogoak behera egiten du, baizik eta beste gauza batzuk, bere joera intelektualarekin edo kulturakoarekin lotuta daudenak –batez ere poesia edo tesia egitearekin–, aurrera ateratzen uzten ez diotelako. Dena dela, aipagarria da beste apaiz adiskide batzuekin izandako batzarra, adiskide baten urtebetetze egunaren aitzakiaz egina. Hor pastoralgintzaren helburuak zeintzuk izan behar duten aipatzen ditu garbi Lekuonak: bizitza berria eta sana, herria, elkarkidetz, lana, poza, jai osasuntsuak. Baina, batez ere, pertsonen heziketa osoa, "integrala", garai haietan esaten zen bezala.

5. Erabakiak. Jaiotza eta heriotza. Bizitza

Eguneroko horrek zerbait hunkigarri agertzen badu Juan Mari Lekuonak jaiotzaz, sexuaz, eta heriotzaz ematen duen irudia da. Ondorioz, sexuaz eta heriotzaz hitz eginez bere bizitzaz hitz egiten du, eta apaiz izatea erabaki zuen momentuko zioak, erabakiaren arrazoiak. Erabaki bat dago egunerokoaren barnean, zergatik den apaiz, zergatik daraman bizitza hori, zergatik jarraitzen duen maite duen bizitza hori.

Sexuaz, gizaki harremanez eta heriotzaz egindako hausnarketa bikoitza da. Alde batetik, kasu praktikoak ditugu, parrokian gertaturiko zenbait gertakizun, bestetik gai biei buruzko hausnarketa jaso, abstraktua edo hotzagoa, nahi bada.

Ez dugu aipatu, baina badirudi Juan Mari Lekuonaren eguneroko honetan gaiak bildurik agertzen direla, egun batean idatzitakoa loturik dagoela gai aldetik, ardura edo kezka aldetik, hurrengo egunean egingo den hausnarketarekin. Sexua eta heriotza bildurik doaz koadernoan, bitan behintzat, lehendabizi urtarrilaren 31ko oharra sexuaz eta otsailaren 6koa heriotzaz; eta, ondoren, sexuaz abuztuaren 26an, heriotzaz irailaren 3an eta 7an, Mari Carmenen minbizia dela-eta idazten dituen orrialdeetan.

Alde biak banatzen badituz, lehen ere esan dut, oharrek duten tonu aldaketagatik da. Lehen kasuan, urtarrileko eta otsallekoan, kasu batek hausnarketa pertsonal batera darama kontzientzia; beste bietan, ordea, pentsakizun sakonetara. Lehen kasu bien arduraren arrazoia pastoral da, beste bietan historikoa edo existentziala. Ikus ditzagun biak banan-banan.

Urtarrilaren 31n parrokiako katekista bat haurdun geratu dela zabaltzen da. Juan Mari Lekuonaren kontzientziak pena sentitzen du, baina ez du juzkurik egiten, ez neskatoaz, ez, berak deitzen duen moduan, "opresoreaz", baina gero honi buruz metaforak erabiltzerakoan oso hitz gogorak erabiltzen ditu, artaldean sartu den otsoaren metafora da bigunena. Bai-

na, irudiak kontrajarrita badira ere, eta apaiza lan sublimearen egilea dela diosku, bestea galdu bat den artean, hausnarketa bien arteko desberdintasunez ari bada ere, ahotsak kontuan hartzen du, agian, drama horretan aurkakoa gertatzea ere bazezgoela, eta bakoitzari paper desberdina tokatzea. Horren gainetik, baina, ahotsak apaizaren funtzioaz hitz egiten du, haren betebeharez.

Apaizaren lanaz, pastorgintzaz, ari da heriotzari buruzko otsailaren 6ko oharra ere. 83 urteko emakumea hil da, haren hiletaren ostean idazten du. Emakumearen etxean, adultero bat eta elizatik urrunduriko apaiz bat bizi dira, eta ez diote apaizari garaiz deitu, azken laguntza emateko hiltzorian dagoenari. Beraz, pertsona horri behar bezala ez laguntzeak min ematen dio kontzientziari, eta pastorgintzaren aldetik huts egin duela (gogora dezagun fabrikan izandako istripuarekin gertaturikoa, zaurituak izan eta apaizarik ez zela herrian haiei laguntza emateko) iruditu zaio ahotsari. Eta bide horretatik bere barnean den munduari begiratzen dio Juan Mari Lekuonaren ahotsak. Eta kontrastea ikusten du bere fedearen eta berak egin nahi duenaren eta hildakoen familiakoek agertzen duten hoztasunaren aurrean.

Bigarren oharrean, aldiz, desberdin jokutzen du. Pastoral presentean dago, noski, eta egoera konkretua ere bai, baina beste arnas bat du egindako hausnarketak. Guztia esateko, ikusi beharko genuke Juan Mari Lekuonak aurkezten dituen iritziak eta ondorioak garaikoak direla, edo, hobeto esateko -garai hartan beste iritzi batzuk ere bai baitziren-, elizaren eta apaizen arteko ikuspegi tradizionalistatik usmatuak direla. Eta zentzu horretan ahotsak aurkezten dituen iritziak oso xaloak eta lainoak gertatzen direla. Baina horri dagokionez gaur eta orduan desberdin bizi gara.

Uda aldean, oporraldietatik bueltan, Juan Mari Lekuonaren ahotsak bere buruari hitz egin nahi dio, egunetan, hala dio, gertatzen ari zaion iradokizun batez. Aitorpen kontutan hasten

da hausnarketa, maitasunari eta sexualitateari buruzkoa da berau. Beti ere bizitzak eramaten du kontzientzia hortaz hitz egitera. Dena dela, badirudi maitasun "fisikoa", garaiko hitza erabiltzearen, ez duela ongi ulertzen. Konfesionarioko aitortze-
nez hasten da oharra eta ondoren maitasunak eragiten dion pentsakizuna dator. Gaurko ikuspegitik begiratua gogorra da agertzen duen iritzia. Konturatzen da puntu honetan juzku orekaturik ez dagoela, zaila dela iritziak ematea. Dena dela, maitasun horri mesfidantza agertzen dio, eta konturatzen da disgustu handiak sortzeko iturria dela behar ez bezalako erlazioa. Ulertzen du ahotsak, hala ere, maitasunak ezkontza duela helburu nagusi, eta hori dela oreka psikologikoa mantentzeko bidea. Alde ikusgarria da nola behin eta berriro adierazten duen espresabide fisikoaren oinarrian alde psikologiko garrantzitsua dagoela, eta hori idealerantz bideratu behar dela uste du. Baina, irakurle honen iritzi apalean, ez da muina ulertzen. Sexualitatearen helburua ideal garaia izan beharko lukeela adierazten du, berriro bere joera sublimea azpimarratuz.

Puntu hau bukatzen den unean, iraileko 3ko oharra hasten da. Mari Carmen hil zorian dago. Ziurrenik egunerokoak agertzen duen oharrik luzeena da, batez ere kontuan hartuz irailaren 7an gai horrekin jarraitzen duela. Mari Carmen gaztea da, ezkongala ondoan du, eta hiltzera doa. Gazte baten heriotzak barrenetik hartzen du Juan Mari Lekuonaren bihotza. Dena dela, sublimaziorako joera agertzen du pasarteak. Mari Carmen hiltzera doa, eta denek dakite hori, baina goragoko eta iraukorra izango den beste betiko bizitzara doa, eta horrek hausnarketara eramaten du gure kontzientzia. Ez da pentsakizun erraza Juan Mari Lekuonak darabilena. Kanpoko deskripzioekin hasten da. Nola dagoen ohe ondoan, nola kentzen dizkion euliak gaixoari. Baina laster bakearen kontzientzia zabaltzen da orrietan. Beste bizitzaren kontsolamendua geratzen bada ere, hilzorian dagoenaren ondoan pasatzen dituen uneez apaizari balio diote jakiteko zein den bere benetako lana, zein ga-

rrantzitsua den bere izaera: zentzu sakona erakustea da bere eginbarra. Otoitz egitea, gaixoa Kristo mindua bezala ikustea...

Irailleko 7ko oharrean, Mari Carmen hilda dagonean, pentsakizuna askoz ere bermeagoa da. Hildakoak Juan Mari Lekuona barnetik nola den ezagutuko du. Zerutik ezagutuko dute nor den, eguneroko honek bilatu nahi duen helburu nagusia beteko dute besteek beste toki batetik, zerutik, sublime izatetik, idealetik. Dena dela, heriotzaren esperientzia gogorrean irribarrea, hilzorian zegoenak zuena, eta apaizak zuena, bien arteko elkar ulertuaren keinu horrek mugituko du egunerokoaren bihotza. Irribarrea egitea, eragitea, horra baita ere apaiz baten eginbarra...

Sexualitatearen eta heriotzaren esperientziek jartzen dute kontzientzia eta jartzen gaituzte gu irakurleok apaiz izatearen hausnarketaren aurrean. Ekainaren 2an idatzitako orrialdean, maizatzean izan den ezkontza baten oroimenaren kariaz, hain zuzen ere sexualitatearen eta bizitzaren ospakizunaren itzalpean, Juan Mari Lekuonaren ahotsak bere nortasunari buruz hausnarketa egiten du. Ezkongaila katekista zen, eta orrialde hauetan maiz gertatzen den bezala, musikak emozioz bete du bere gogoia, eta emozio horren kausaz, bere izaeraz, bere apaiz izateaz pentsatzen hasten da. Musika abiapuntu egin zaio idealari buruz hitz egiteko. Juan Mari Lekuonak Musika Idealarakin lotzen du maiz.

Bikotearen zorionaren, keinu maitekorren, nahikunde sublimeen aurrean apaizak bere definizioa, bere nortasuna bilatzen du: apaizak konfiantza eman behar du, lehendabizi; ondoren, denek emateko prest den maitasunaren eragilea da; espirituaren jarraitzailea; egia da, ez du horretaz zalantzarik, hainbat egoera eta esperientzia utzi dituela alde batera, baina beste bizitza hobea lortu nahiaz.

Apaiza, horrelakoetan, bizitzan dagoen gida da, arazorik delikatuen artean oreka mantendu nahi duena, edertasun moralaren jarraitzailea, adiskide beharrezkoa, idealen jarraitzailea.

Juan Mari Lekuonak bere burua apaiz gisa definitzen du, eta apaiz izate horretan, lehenago ere adierazi dugu, sublime izateak pisu handia du. Idealak ilusioz bete du bere arima eta idealaren bila ari den kontzientzia da Juan Mari Lekuonarena.

Ezkonberrien aurrean bere izaera adierazten du ahotsak eta kontzientziak. Oso berezia da baina jakitea apaizaren izaera ezkontza batean aurkitzen duela eta adierazten duela, bizitzaren aurrean, eta ez heriotzaren aurrean.

Horrelakoa baita Juan Mari Lekuonaren bihotza: bizitzan sinesten duena.

6. Poesia. Esteta idealista

6.- "Esteta idealista bat naiz ni" adierazten du une batean Juan Mari Lekuonak bere nortasuna definitzeko asmoz. Nola ulertu genezake bere izaera poesiaren aipamena egin gabe? Ezinezkoa zaigu, nabarmen. Gizaki honen tasunik argiena poesiarekin loturik dago. Sublimearen beste aurpegi bat baino ez da poesia.

Gorantz begira dagoen poetaren bisaia ikusiko dugu orrialdeetan. Poeta, batez ere. Eta poesiaren jeinutik begiratzen du bere bizitza. Alabaina, poetaren irudi bi ditugu egunerokoan. Lehendabiziko poeta idazle bat da, erlijioa herriaren ahotan jarri nahi duena. Bertsogile baten antza hartzen du hor, eta, abesti letrak egiten duenean, bere sentsibilitatea erakusten du, bai, eta herriaren ahotsetan jartzen du bere sinismenaren espresioa. Egia esateko, testu idatziak direla edo poesia egiten dela-eta bakarrik ditugu aipamen urriak egunerokoan.

Bertsolaritzak alde handia hartzen du poesiaren praktika horretan: ezkontzetan (Ekainaren 9ko oharrean), noizbehinka

inprobisatu egiten du fabrikako geletan, langileen artean kantari (Apirilaren 15ean), poza dakar bihotzetara, konturatzen da hortaz ahotsa, eta zalantza du ea ongi egiten duen ala ez, eta inoiz arazoren bat izan duela eta jarri du testuan Juan Mari Lekuonak (ekainaren 9ko oharrean). Bertsolaritzaren estimua handia da eta oharretan garbi dago Juan Mari Lekuonak maite duela koplari izatea eta bat-batekotasuna.

Poesia horren bigarren aldea dugu herriarentzako egiten duen kanta letretan. Pastoral delata eta, maiz ikusten dugu Juan Mari Lekuona herriarentzat kantuak idazten, Verdaguer berri bat balitz bezala, haren bideak jarraituz, kanta sotiletan erlijioaren sentipena agertuz, inoiz larri, berandutzen delako, eta lasaitu denean amen batean agertu zaio kantuaren letra. Kanta horiek musikarekin loturik agertzen dira, eta berebiziko garrantzia ematen dio musikari Lekuonak, harekin sublime izatearen jitea agertzen duelako. Musika oso garrantzitsua da bere bizitzan eta hori garbi agertzen du, hain zuzen ere, geroago ikusiko dugunez, poeta sinbolista bat dugu eta sinbolismoarentzako ezinbestekoa da musikak agertzen duen hitzik gabeko poesia, hitzez egiten den poesia bera baino espirituala-go, garbiagoa, xumeagoa.

Ezin dira poema hauek alde batera utzi, zeren denborarekin Juan Mari Lekuona liturgia euskaraz berrituko duen taldearen barnean izango da, eta gaur egun gure elizetan kantatzen diren hainbat kanturen letren egilea baitugu oiartuarra.

Baina bertsolaritzaz eta kantuaz aparte, Juan Mari Lekuonaren barnean badago poeta senaren indarra. "Seré poeta siempre" idazten du otsailaren 24an. Eta bere bizitzako gertae-rak ikusteko joeran agertzen du izaera hori.

Poesia dela eta, sinbolismoaren eragin bi oso garbiak ditu bere burua poeta gisa definitzen duen subjektuak. Batetik, ikusi dugu, musika maite du (martxoaren 30eko eta ekainaren 2ko oharra), eta musikak sentimendu sotilak eragiten dizkio. Bestetik, izadira begira dagoen poeta dugu. Uso batzuk hegan

Ikusteak barne zirrara sortzen dio eta Jainkoaren eragina gisa interpretatzen du edertasun hori, sinbolistek agertzen zuten panteismoaren bidetik. Jainkoaren isla zen izadian gertatzen dena. Izadiaren zenbait deskribapen poetiko ere adierazten dira orrialdeotan. Euriak (urtarrilaren 11) zein eragin handia sortzen dion oso garbia da bere nortasuna azaltzeko orduan. Euriak lasaitasuna eman ohi dio. Baina gauaren deskribapena ere badago (apirilaren 30ean) eta deskribapen hori irakurriko bagenu, Lizardirengandik zein hurbil dagoen ikusiko genuke.

Izadiaren deskribapenak toki handia badu ere, ez dago poesiaren aipamen handirik testuaren orrialdeetan. Izadia nagusia bada, ez da ahaztu behar Juan Mari Lekuonaren poeman egiturak oso zehatzak eta orekatuak direla. Horrela, abenduaren 19an poema bat idazteko gogoia sartu zaiola adierazten du. Eta haren egitura, haren gai nagusiak aipatzen ditu. Poemak bost zati izango ditu eta pertsona baten bizitza erlijiosoan izango du gai nagusizat, bataiotik hiletara eta erlijioa bizitzeko bost une dira, bost sakramentuen aipamenak. Beraz, musikaren eta izadiaren ulermenean poeta sinbolista bat dugu Lekuona, baina poesiaren mamia ongi egituratzen duena.

Poesia ez dago, baina orrialdeetan maiz hitz egiten da astirik ez izatearen kezaz. Ez du astirik lasai irakurtzeko, lanaz "desbordatua" dago (abenduaren 18an) eta ez du modurik ez lasai otoitz egiteko, ez lana prestatzeko, ez idazteko... Noski, horregatik guztiagatik ez du poesiaren berririk ematen. Idatzi ezina eta tesia aurrera atera ezina batera doaz bide honetan (urtarrilaren 14ko oharra). Eta noiz edo noiz, bere bizitzaren programa egiten du, kontzientziak idazteko eta irakurtzeko asti gehiago izateko asmotan. Baina ez da horren berririk ematen. Asmoak bai, baina aipatzen diren eginkizunak pastoralarekin loturik daude eta ez poesiarekin.

Dena dela, estilo kontuaz arduratua agertzen da idazlea. Eta noizbait Jesukristo laudatzeko erabiltzen diren kantuen estiloaz arduratua agertzen da egilea. Milingatzat ditu erabili ohi

diren espresioak, eta sendotasuna eskatzen du maiz, emozio lotu bat, sentimentalismoan jausi gabe, sentimenduei erantzunez. Berriro bada poetaren joera orekatua, neurri batean logikoa, burukoa agertzen da ohar horretan.

Egunerokoa, behin eta berriro diogu, "Mi Diario en Añorga. Reflexiones poético-religiosas de un sacerdote" deitu du egi-leak. Arreta izaera poetikoan jartzen ari gara. Eta izaera horren sena ez genuke ulertuko barne mundua maiz era poetikoz lantzen dela ez bagenu kontuan hartuko. Izadiari begira da-goen begiradak barnea ere oso kontutan hartzen du. Eta ez da zalantza soilik agertzen den sentipena. Tristuraren sentipena, edo ezezkortasunarena, oso era finez aipaturik daude. Berekin duen sentipen nagusia da tristura, bizitzaren beste aldea eza-gutzen erakusten diona. Beraz, zalantzarekin batera, Juan Mari Lekuonaren nortasuna hobekien agertuko lukeen sentipena dugu. Tristura ez baita beretzat depresioan jausteko bidea, baizik eta bizitzari atakarik ederrena ateratzeko bidea.

Bibliografia

- HUICI, Vicente (2006, a): *Aproximaciones a la razón narrativa (Historia, Novela, Autobiografía)*. Bassaral. Gasteluz.
- , (2006, b): "Eguneroko eta dietarioak: egunez eguneko imajinarioaren idazkera esparru literarioan". *Hegats*. 38. 49-58.
- LEJEUNE, Philippe (1975): *Le pacte autobiographique*. Seuil. Paris.
- LOUREIRO, Ángel (1991): *La autobiografía y sus problemas teóricos. Estudios e investigación documental*. Suplementos Antrophos. 29.
- POZUELO IVANCOS, José María: (2006): *De la autobiografía. Teoría y estilos*. Crítica. Barcelona.

Joaquín de Alcibar-Jauregui eta Acharan (1746-1810)

(1746-1810) eta *Grand tourra* (1772)

F. Borja de Aguinagalde*

Lerro hauen ondoren jarri dugun antzerki laburra, eskuizkribuz idatzia dago eta bere egilea Joaquín María de Alcibar-Jauregui (1746-1810) da, XVIII. mendeko gipuzkoar ospetsuen arteko bat, nahiz gaur arte kondaira ofizialak ez digun bere berririk eman. Gauza jakina da, ilustrazio garaiko Gipuzkoako kondaira, ohiko pertsonaietan sustraitua dagoela eta ez dituela beste hainbat eta hainbat pertsonaia alpatu ere egiten. Aurkezpen labur honetan, literatura-lantxo xume honen iturriez eta testuinguruez mintzatuko naiz¹.

1. Alcibar-Acharan-darren biografia apur bat

Joaquín, garaiko familia (1735) aberatsenetako baten seigarren semea zen: Manuel Francisco de Alcibar-Jauregi (1707-1767)² oinordekoarena, eta María Antonia de Acharan (1721-

* Historiako Errege Akademiako taldekidea

(1) Zabala-Alcibar-Jauregui sendiaren artxiboan kontserbatzen da, 31 zkian. (aurrerantzean ACAJ). Atal bat *Irargi-n, Euskadiko Dokumentu Patrimonio zentruan* dago gordeta. Nahi duenak begira dezake weben eskaintzen dugun zerbitzuan: www.snae.org.

(2) Duela hainbat urte Alcibar-Jauregui-tarren genealogia argitaratu nuen eta hura izan dut gogoan lan hau egiterakoan. Erres.: AGUINAGALDE, F.B. "Los notables de Segura. Palacios y Linajes", in *Segura historian zehar*, Segura, 2003, 205-246 or.

1790) indianoaren alabarena. Maria Antoniak 14 urte zituen ezkondu zenean, eta bere senarrak ia bi halako.

Alcibar-Acharan-darrak, garaiko gipuzkoar eliteko gizar-tean, sendi berezia osatzen zuten. Hori ondo ulertzeko, besteak beste, ondoko arloak gogoan eduki behar dira:

Malorazgo aberats baten ezkontza goiztiarra (Alcibarrek hiru malorazgo zituen eta laugarrena eskuratzeko zorian zegoen). Guanajuaton jaiotako indiano batekin ezkondu zen, Azkoitiko, hau da, senarraren herriko jatorria zuten merkatarien alaba batekin, diruz eta ondasunez etxetik ondo hornitua. Ezkontza honen bidez sortu zen garaiko Gipuzkoan izan zen jabego sendoenetako eta garrantzitsuenetariko bat.

Bikote honek izandako seme andana, 18 hain zuzen. 11 iritsi ziren helduarora. Haien berri zehatz-mehatz ematen du beren amak³. Seme hauek, garaiko gizar-tean ohikoak ziren "rol"ak bete behar zituzten. Leinuak sendo irauteko eta ospea handitzeko gizar-te hartan derrigorrezkoak ziren helburuak bete behar zituzten, baldintza sozialak sortu eta leinuari sendotasuna eta ikusgarritasuna eman. Gizasemeentzat hainbat zerbitzu erreserbatzen ziren: militarra, itsaszaina, klerikoa, oinordekotasunaz gain, gure kasuan bezala. Harrigarria dirudien arren, zaharrenak, Josek bere oinordekotasunari uko egin eta jesulagun sartu zen (Azkoitiko jatorriko Duque de Granada de Ega, Javier de Idiaquezen (1711-1790) modura, urte batzuk lehenago jesulagun egina). Ondorioz, oinordekotasuna bigarrenari utzi zion, baina, gauza harrigarria, ez dirudi honek ere oso atsegina izan zuenik, zeren ez baitzituen egoerak eskatzen zizkion baldintzak bete, hala nola ezkondu eta leinuari jarraipena ematearena. Kasu harrigarria eta ulertzen ez erraza: zergatik, ordea? gogorik ez ezkontzarako?, osasun arazoak? Andere-

(3) Bere eskuz idatzita dago: "Razón de los yjos que a mi Maria Antonia de Acharan, Dios Nuestro Sor. me a dado l de sus destinos". Horien guztien jaiotegunaren berri ematen digu eta, batzuetan, beren 18 semeen heriotzaren berri, eta erlijio profesioaz gain, lehen lanbide eta ezkontzak.

entzat ere, beste "rol"ak gordetzen ziren. Haietako bi moja sartu ziren Azkoitiko eta Lasarteko Brijidetan. Gainerako lau alabak beste lau etxetako oinordekoarekin ezkondu ziren. Hori bai, dote aberatsekin eta garaiz ordaindutakoa. Hori ere ez baitzen normala garai haietan. Alcibar Acharan-darrak aberatsak eta diru arloan konplituak eta finak ziren.

Beraz, jarri berri ditugun gorabehera hauengatik guztiengatik, Joaquinek bizi izandako giroak bazuen ukitu berezia. Adin guztietako anal-arreben tartean bizi izana, eta, dirudienez, ama aberatsaren presentzia nabarmena tarteko, -ekarritako doteaz gain, aitaren odoleko osaba oso aberatsaren⁴, Jose de Aguirre Acharan (1691-1771), mexikarra, Erregeen kontseiluko Errege-Ogasunean eta Kontalaritza Nagusiko Tribunalean zenaren ondarea heredatu baitzuen. M^a Antonia de Acharan 46 urterekin alargundu zen eta 11 seme zituen bizirik (7 hilak oso haurrak zirela), txikiena 3 urtekoa, eta inon kolokatu gabeak, beste 7.

Garaiko ohituren arabera, seme bakoitzari, oso gaztetatik, bere eskola propioa eman ohi zitzaion: militarren akademian, Itsaszairen Eskoletan; neskek, berriz, ahal zen oinordekorik aberatsenarekin ezkontzen saiatu behar zuten. Alcibar Acharan-darrak sekulako dotez hornituak zeuden (8.000 eta 10.000 dukatekoak, bataz beste). Horra ezkontza horien hainbat xehetasun: lehenengoa, odoleko lehengusu batekin (1769, Azkoitiko Altuna) ezkondu zen, bestea indiano aberats-aberats batekin (1771, Balzola, Arrua-Zumaiakoa), hurrengoa antzinako oinordeko batekin (1768, Segurako Arrue)⁵ eta, ha-

(4) Ondasun honen zati esanguratsu bat, Francisco de Mendinueta eta Marques de Murillo nafarrekin batera egindakoa da. Zati hori "Gineako beltzen Idazpena" delakoari zor zaio, beste hitzetan esanda, beltzen trafikolari. Erref.: José de Agirre Acharan-en 1788-03-10eko paperak, ACAJ-en 56 zkian, famillako konfiantzako eta haren ordezkari zen Jose M^a Galdosek izkiriatura.

(5) Ezkontza bitxi honek, uztarri batean estekatu zituen bi familiak krimena egin ondoren (1652) Seguran, han bizi baitziren biak. andregaiaren bigarren aitona, Martin de Alcibar-Jaureguik (1675. urtean hila) erial zuen Francisco de Arrue, senargaiaren birraitonaren anaia, hilketa honen ondorioz bikote berria, seguratik alde egin eta gero azkoltian jarri zen bizitzen xvii. mende amaieran.

rrigarria dirudien arren, "kanpotar" batekin (Hurtado de Corcuera, Orduñakoarekin), haietatik hiru 21-23 urterekin eta txikiena⁶ 15 urterekin – ama bezala – Balzolarekin.

Acharan andereak, berari zegozkion ondasunez gain senarraren lau "mayorazgo" bereganatu nahi izan zituen. Baina alabek ez zuten onartu, hala izatera herentzia oso mamitsuari egin behar baitzioten uko.

Semeek, oso bide desberdinetik jo zuten, eta, nolabait esateko, ez ohiko bideetatik. Ez da sinestekoa oinordekoa ezkondu gabe geratzea (eta haren heriotzan etxeko odola ez duen pertsona baten esku geratzea herentziaren eskubide osoa. Are eta bitxiagoa, zeren pertsona hori ez baitzen edozein ardura, alde edo molde, hartzeko lotsa. Adibide bat jartzera, bera zen gipuzkoan mende hartan Diputatu Nagusi gehien izandakoa (14 aldiz 21 urtetik 67ra arte).

Egoera hori ezin zitekeen izan onargarri bere kategoriako beste pertsonentzat, harik eta ez bazituen, behintzat, hartarako beharrekoak diren meritua eta kapazitateak demostratzen. Guardiamarinoa, bertan ezkondu zen, Ferrolen eta ez zuen semerik izan. Eta, azkenik, Joaquin Maria, bizitza arin eta axolagabe samarraren ondoren –hainbat ibilera susmagarri suma daitezke idatzietan –41 urterekin ezkondu zen Iruñean, bertako oinordeko aberats batekin⁷-. Honek 33 urte zituen, garaiko iritzi eta ohituetarako zahartxo.

Hitz laburretan, hainbeste eta hainbeste seme izan ondoren, odoleko gizasemeen suntsitzearen zoria dakusagu.

Zer zuten bada Alcibar-tarren odoleko gizasemeek Gipuzkoan bertan ohiko ezkontzarik ez egiteko?

(6)Kontua da, gero, amak herentzia kendu ziola. Seme, alaba eta biloben arteko liskarrak XIX. mendean sartu eta gero konpondu ziren

(7)Familia honekin,hau da, Mitxelenatarrekin, Aguirre Acharan osabak hainbat negozio garatu zituen duela 40 urte.

2. 1772, Vicente eta Joaquín Alcibar eta *grand tour* delakoa

Eskuetan ditugun dokumentu eta datuen arabera, Vicente eta Joaquín Alcibar, garaiko *outsiders*-en artean edo koka daitezke zalantzarik gabe.

Vicentek, apur bat bederen, izan zuen "res publica", hau da gizarte kontuaren ardura⁸, baina badirudi Joaquín bere bizi osoan alferzorri bat izan zela. Agian, pentsa daiteke, militar izateak areagotu zuela izaera hori.

Eskuartean dugun pieza koskor honetaz gain, baditu beste hainbat testu idatziak, batzuk eruditua, besteak iragarriak eta mitologikoak, hainbat bertso eta karikatura tarteko⁹.

Dena den bien biografiako gauzarik garrantzitsuena, Europako Gorte Nagusietan zehar egindako bidala luzea izan zen –mende hartako¹⁰ aristokrazia europarrek egin ohi zuten *grand tour* klasikoaren arabera–, 1772ko maiatza eta azaroaren artean. Bisitatu zituztenak: Italia (Erroma, Florencia, Bolonia, Napoles, Venecia), Austria-Alemania (Viena, Baden, Munich), Frantzia (Paris) eta Britainia Handia. Bidala horrek izan zezakeen aurreko urtean Aguirre Acharan indianoak utzitako herentziarekin zerikusia finantzatzeko arloan, bederen.

Sinestezina, dudarik gabe, garai haietan horrelako ibilaldi bat egitea¹¹, eta gisako adibideei begiratuta, Ramon de Muni-bek, bera baino apur bat gazteagoak egindakoarekin pareka daiteke. Hain zuzen, biek topo egin zuten udaren amaieran

(8)Hala ere 1796. urtean "errepublikako arduraz" zituen betebeharrak libratzeko eskatu zuen.

(9) Horiek guztiak paper-multzo batean gorde dira oinordokiei esker eta, gaur egun, familiako artxiboan daude. ACAJ, 31 zkia.

(10) Erref. hurbilena gaiari buruz: BRILLI, A.: *In viaggio in Italia. Storia 'du una grande tradizione culturale'*, Il Mulino, Bologna, 2006.

(11) Bere garaiko Pedro Valentín de MUGARTEGUIK, autobiografia labur bat idatzi zuen eta bertan bere "ibilera eta txango"ei buruz mintzatu zen, baina honek ez du lehen aipatu dugunarekin zerikusirik.

Vienan¹². Harrigarria, bestalde, zeren 30 urte lehenago han inguruan Venecian egon baitzen bere osaba bigarrena (aitaren lehengusu propioa) Manuel Ignacio de Altuna.


Bidaia hau izan zen oinarrian eskuarteko antzerki xume hau idazterakoan aitzakiatzat hartu zuena.

Alcibar anaiek, "Europako Gorte nagusietara bidaiatu duten zaldun agurgarriak" titulatu du *Amsterdamen* 62. zenbakian, 1772ko abuztuaren 4an¹³ Clemente XIV Ganganellirekin lortu zuten audientziaren kariatz, eta, justu, Carlos III.aren Enbaxadoreak Aita Santuari egiaztagiriak eskaini behar zizkion egunean bertan; noski, enbaxadore hori Floridablanca bera zen. Jose Moñinok, Erromara joatean, Carlos III.aren ospea sendotzeaz gain, Jesulagundiaren aurkako debekua eta disoluzioa kentzea zuen helburu. Eta, hain zuzen, Enbaxadore izateko Audientzia 1772ko uztailaren 12an eskuratu zuen¹⁴. Haren ondoren sartu ziren Alcibar anaiak, eta ez nolana,

(12) Egokitze hau, garaia kontuan izanik, oso bitxia gertatzen da. Atera kontuak gazteak zirela bidaiariak: Vicentek 30, Joaquinek 26 eta Munibek 21 urte. Peñafloredaren malorazkoaren berri eman zigun 1929. urtean J. de URQUIJOK azterketa bikain batean: "Los Amigos del País (según cartas y otros documentos inéditos del XVIII)". Gutun horietan bere aitak izan ohi zituen kezkek errepikatzen dira, "bide okerretatik" joango ote zen bildurra bere malorazkoa (Uncetarenari gertatu zitzaion bezala, eta Muniberen semeari gerta zekiokkeen moduan, izan ere haren heriotza aski "Iluna" izan baitzen Marquinara itzuli zenean), ez baitzuen dibertitzea besterik buruan, hau da, ekin zekiola gogor ikasketari eta ez dibertimendu zoroel eta antzeko ekintzei. Alcibar-tarrek, ordea, beren bidaia turismo egiteko erabili zuten eta, logikoa da pentsatzea ondo aprobetxatu zutela. Urquijo jaunak esaten duen Ramon de Muniberen bidaiarik ez dokumentatuena hau da. Vienakoa, alegia. (Ip. Cit., 88 or.) Badirudi, gainera, "amodio kontuak" izan zituela Areizagako azken Baronesa austriarrarekin -amaren aldetik bere senide-, Fca. Romana Freilin von Areizaga (1685-1720), Johann Frantz von Hallwilekin (1674-1749). Erres.: *Monasblatt*, IV (XII. 1898), 358 or.

(13) Laburpen bat inprimatu zen, dudarik gabe, Alcibar anaiek eraginda. Artxi-boan gordeta dago. Haren facsimila jarri dut alboan. ACAJ-en alpatutako orri-multzoa. Ez dezagun ahaz garai hartako Europar "Gaceta" zela ospe handiena zuena, beraz, han Alcibar-tarrak alpatzeak oraindik ere garrantzia gehiago du hein batean. Erref.: ENAUX, A.M. eta RÉTAT, P.: "La Gazette d'Amsterdam, Journal de référence: la collection du ministère des affaires étrangères". In *Revue d'histoire moderne et contemporaine*, 40-I zkia., 1993.

(14) Erref. nabardurak L.PASTOREk emanak: *Historia de los Papas*, XXXVII alea, 1937, 196. or. Eta hurr.



EXTRACTO

DE LA GAZETA DE AMSTERDAM N. 62. DEL
MARTES 4. DE AGOSTO DE 1772.

Roma 15. de Julio de 1772.

EL Domingo último el Señor Moñino nuevo Enviado de S. M. C. en esta Corte, ha tenido audiencia por primera vez del Soberano Pontífice, de quien ha sido recibido con la mayor estimacion y distincion, y estuvo con S. S. cerca de hora y media; y á luego que él se retiró, entraron los dos Hermanos Españoles Don Vicente, y Don Joaquin de ALCIBAR, Caballeros distinguidos, que viajan por las principales Cortes de Europa, que tuvieron tambien audiencia de S. S., y fueron recibidos con la mayor demostracion y afecto Paternal de S. S., y les permitió el honor de besarle sus pies, y se entretuvieron con S. S. bastante tiempo, y hablaron sobre diferentes asuntos, y salieron muy satisfechos de la gran acogida y recibimiento, que merecieron á S. S.

NOTA.

Esta misma relacion trae la *Gazeta Italiana* N. 58. intitulada *noticias del mundo* impresa en Roma, el 21. de Julio de 1772, y la *Gazeta Francesa* N. 62. intitulada *Correo de Monaco* del Martes 4. de Agosto de 1772.

zeren "egonaldi luzea" egin baitzuten Aita Santuarekin "hone-taz eta hartaz" mintzatuz. Diotenez, "oso pozik atera ziren handik, hainbestekoa izan baitzen egindako harrera".

Gertakari hori ezohikotzat jo daiteke, zoragarritzat ere bai. Gaur arte ez dugu horren berri jakin. Nolatan lortu zuten gisa horretako mesedea, eta zein izan zen Kuria barnean bisitaldi hori bideratu zuena? Gertakari horrek paper zaharrak arakatzeko gogoia ere sortzen du, nahiz oraingoz ez dudan arlo horretan sakonduko.

Ibilaldi horren berri ematen duen dokumentu bat dago Aita Manuel Luengoren (1735-1817) egunarian, 1767an jesu-lagundi azaldua, zeinak egunkari luze bat idatzi baitzuen 1767 eta 1815 tartean¹⁵.

VI. alean, 1772ko ekaina eta uztaileko orrietan, bidai be-rezi honen berri ematen du.

(1772ko ekainaren 5) *"gaur andan al presente por esta ciudad de Bolonia dos jovenes españoles, que desde Azcoitia en la Guipuzcoa su patria vienen viajando por la Francia e Italia, y desde aquí proseguirán su viaje hacia Florencia, Roma y Napoles. Tienen entre nosotros un hermano que es don Joseph Alcivar y assi en San Juan, donde estaba este Padre como aquí, han tratado con los jesuitas con entera franqueza y libertad y han entregado a muchos cartas y socorros, que los trahen de alla, especialmente a los que son de aquellas Provincias de Cantabria. Muchos, y con razon, extrañan la ninguna reserva con que estos jovenes tratan con nosotros siendo tanto el rigor de nuestra corte en esta parte; y mas*

(15)Loiolako Santutegiko Bibliotekan dago gordeta, honako izenarekin: *Diario de la expulsión de los jesuitas de los dominios del Rey de España, al principio de sola la Provincia de Castilla la Vieja, después más en general de toda la compañía, aunque siempre con mayor particularidad de la dicha Provincia de Castilla*. Lehen bi urteak argitaratuak daude. Ref. LUENGO, M.: *Memorias de un exilio. Diario de la expulsión de los jesuitas de los dominios del Rey de España (1767-1768)*. Argitalpena, sarrerako azterketa eta oharra Inmaculada Fernandez Arrillagak egin, Publicaciones de la Universidad de Alicante. 2002.

estando aqui presentes dos comisarios y no haviendoles hecho el consejo de una visita; y asi temen que los acusen a Madrid y tengan por esta causa algun trabaxo....

Piensa el P. Joseph acompañar en este viage a sus hermanos, y se quedara en Roma mientras ellos pasan a Napoles; porque si no fue permitido a un jesuita aleman entrar en aquel reyno y Corte al lado de una Princesa tan grande como la Electriz de Saxonia¹⁶, quanto menos le sera a un jesuita español en compañía de unos particulares caballeros españoles. Nada cuentan estos dos jovenes de España que merezca ser ***¹⁷. Solo en general hablan malisimamente de los religiosos españoles para con nosotros y protestan absolutamente que no hay un fraile en España que en el dia no se alegre de nuestro destierro y se relama con nuestra sangre " ¹⁸

(1772ko uztailak 31)"Se hallan ya en esta Ciudad de vuelta de su giro por la Italia los jovenes Alcibares, de quienes antes se habló, y en su compañía ha vuelto su hermano el Padre Joseph. Pero vuelven muy diferentes de lo que eran quando pasaron por aquí. Estan mui cautos y timidos en quanto a tratar con nosotros y han avisado que ninguno les visite en su posada. Esta mudanza puede haver nacido de que, haviendo sido acusados a la Corte de la franqueza con que trataron con los jesuitas quando pasaron la otra vez por Bolonia, hayan tenido de alla alguna advertencia o reprehension.

(16) Aita Luengok adierazten duen bidaia Maria Antonia Walpurga (1724-1780), Bavierako Printzesak (Carlos VII. Enperadorearen alaba) eta Elector de Sajonia eta Poloniako Printzea zen Federico Cristianen (1722-1763) alargunak egindakoa da, zeina jesuita bat lagun zuela ibili zen arranditsu, aditasun guztiak emanaz –honi Tanucci lehen ministroak Napolen sartzea debekatu zion– eta zeina Jesulagundiko beste lagunekin aritzen zen harremanetan inongo oztoporik gabe. Electriz, musikari bikaina, apirilaren 6an iritsi zen Boloniara, Farinelli aurrez aurre ezagutzeko helburu nagusiarekin. Bisitaren ondoren, zera esan omen zuen: *Orain hil naiteke lasaitasun osoan*". Erres. CASA-NOVA DE SEINGALT, J.: *Memoires*, edic. de la Sirene, 12 alea 1935, 127. o reta hurr. (oharrak barne). Atal oso eta luze bat eskaintzen dio Boloniako egonaldia.

(17) Originala urratua dago. Testuinguruaren arabera, honako hitza izan daiteke: "contado".

(18) Luengoren Egunkaria, VI. Alea, 138. or.

Rupta de Paris a Bayona

Salida de Paris el 27 de marzo de 13 en el 11 y 12. Del día
a Dormin a Angouville en la Isla de Francia. Reg. Pueblo
Di. Angouville.

Rupta de Paris a Bayona

Salida de Paris el 2 de febrero de 13 en el
11 y 12. Del día. a Corme a Longumeau. p. Pueblo.
a Dormin a Angouville Pequeño Pueblo.

23 salida en el 7 y 8. de la mañana a Corme a Dale
ans. Capital del Ducado de su nombre. Vease
la Calle. R. Campesina. de uniformidad de Casa.
y el Puente q. una gran obra nueva q. comienza
q. que ven en un casi impracticable. Aun. en
el ojo del medio. donde por un lado del puente
se ven la Armas del Rey por el otro las del
Dugues. por un puente para el espacio.

rio q. a. dice. ^{la boca q. que el camino de todo en Paris} ^{la situación de este Pueblo}
es de las mas bellas y hermosa de Francia. 10.
bre. la ciudad de Orleans. Salim.

la tarde del mismo día en un día y en esta
ciudad cerca de la Plaza Mayor en la ciudad Calle R.
se ve un pedestal levantado de piedra blanca que contiene
en francés. El siguiente lección. — En este mismo año sobre
el puente antiguo se cruzó en tiempo de Carlos 7º un Monu
mento para memoria del Varón Espuero con que Juan de
Arce de la Puerta de Orleans defendió a esta Ciudad, cuando
por los Ingleses y en no dia la ha destruido. Luis 15. sobre

- 76^{va}
1773 Parti de Vienne le 8 juil, fuchois à egartkirchen, village
- le 9. Papes par St Loellan petite ville de la baphe autrichie
sur la Riviere de Drafin. Dines à Moelch petite
ville avec un chateau sur le Danube. il y a au pres et sur
une hauteur une très riche abbaye de Bénédictin
dont l'abbé prend le titre de primas d'autriche
Couches à Amsteten, village.
- le 10. Dines à ens ville forte dans la haute autriche
avec titre de principauté au conflens du Danube
et de la riviere d'ens qui vien des montognes de Salzbourg.
A moitié chemin d'ens à ling on entre sur les terres
de l'evêque de Salzbourg; papes à ling capitale
de la haute autriche, très belle ville avec deux chateaux
fortifiés, l'un sur une colline et l'autre en bas. Il y a
un très beau pont de bois sur le Danube qui pape le
long de la ville. Couches à Wels ville de la haute autriche
- le 11^e. entrée en Baviere, papes par hong petite ville
de la haute Baviere, près de la riviere d'inn; Dines à
à Pried bourg de Baviere dans la regence, il pape sous
le plus beau bourg de toute la baviere; la douane est
dans cet endroit. Couches à Altheim, bourg.
- le 12^e - à Braunau ville forte de la Baphe baviese sur
la riviere d'inn qu'on pape sur un grand pont de bois
dont l'entrée est très rapide et on nous avons souve
un grand danger par la rupture de la chaîne qui
retenait le lasope. cette ville est à 10 heures de pape
papes de nous par Burcharfen ~~ville~~ ville de goute sans

Pero mas verisimil (sic) es que, sin nada de esto, habiendo observado ellos mismos espezialmente en Roma el rigor con que se ha prohibido a toda clase de españoles el tratar de modo alguno con los jesuitas se hayan hecho cuerdos y hayan caído en cuenta de que es cosa peligrosa para ellos el comunicar con nosotros con tanta libertad y franqueza. Yo estoi muy lexos de condenar en estos jovenes esta reserva y precaucion, pues seria una imprudencia y temeridad exponerse a gravissimos males y perjuicios por el pequeño bien que pueden hacernos en hablarnos y tratarnos”¹⁹.

Alcibartar gazte hauen bisita eta bidaien nolakotasuna bistan dugu. Ohikoa den bezala, ziur asko Azkoititik irten zirenean gutun eta gomendioz²⁰ beteta abiatu ziren, egoera politikoaren ardura handirik gabe. Horrek garbi adierazten du bi hauen erromesaldiaren helburua. Erromatik itzuleran nabaritu zitzaizen aldarte aldaeraz argi eta garbi mintzo da Luengo. Inork esaten ez duena, eta ibilaldiari beste ukitu berria ematen diona, zera da, alegia, Boloniara bi bisitaldietan bertatiar batekin egin zutela topo: Giacomo Casanovarekin. Hau, berez, jakinzalea zen eta atzerritarrekin harremanak edukitzea atsegin zuena; beraz, nork esan elkarrekin egon ez zirenik...

Hemendik aurrera, ez dakigu ezer garbirik bidaia honi buruz. Artxiboan ikus daiteke kronika labur bat, frantsesez idatzia, –frantziar batena, letraren arabera– egunkari baten moduan idatzia eta bertan Vienara egindako bisitaz eta Parisko bidaiaz mintzo da (irailaren 8tik 25era), Londreseranko irteeraz gain urrian 3an. Joakin Mariaren bidez eskuratutako txarteltxo batean adierazten dira etapa bakoitzean igarotako egunak, Erromako egonaldian (29 egun), Parisera itzuli arte. Egunak batuaz eta Boloniako eta Vienan egondako egunekin aurki daitezkeen kointzidentziak gogoan hartuta, baieztatu daiteke Parisa 1772ko

(19) Ibid. 250-6 or.

(20) Gipuzkoatik desterratutako jesuitak asko eta asko ziren, eta horien artean Bolonian bizi zen Joaquin Maria de Zavala bere lehengusua.

urriaren 30/31n itzuli zirela (ez ahaztu ekainaren 5ean Bolonian zeudela).

Bitxitzat jo daiteke Joaquín Alcibarrek, 1773ko martxoan idatzitako testu labur bat, non ematen den Paristik Baionarantz egindako irteera baten berri. Era berean, frantsesez dagoen testuaren data ere 1773koa da. Agian Alcibartarrek bi bidaia egin ote zituzten bada segidako urtetan?

Gauza nahasiagoa izateko, Artxiboan aurki daitezkeen hon-darretatik baieztatu daitekeenez, Joaquín de Alcibarrek bidaia honi buruz liburuxka bat idazteko asmoa hartu zuen, mende hartan egin ohi zen moduan eta haietatik hainbat ideia ere jaso zituen horretarako. Frantsesez dagoen testuan ikus daitezkeenez, izan zuten norbait bidelagun; beren laguntzaile misterio-tsuak egunkari moduan idatzi zuen bidaia-kronika. Horrela dio:

“liburuak honelako izena eduki behar du”:

Diario historico Geographico y Critico de un nuevo viaje principiado e laño 1772 y concluido en el siguiente por los dos hermanos Dn. Vicente M^a y Dn. Joaquín Maria de Alcivar: quien los dedica al Excmo. Señor Dn. Francisco de Lette. Comendador del Orden de Baco en las viñas de Navarra. Su gentil hombre de camara con exercicio perpetuo y dignissimo miembro de todas las Sociedades tabernativas de la Noble y L. Villa de Azcoitia”.

Horra agertzen den beste titulu landuagoa:

“Analysys historico-geographico y critico de un nuevo viaje por las principales ciudades de la Europa aumentado con una descripcion inserta al fin del museo de Cox en Londres y dedicado por un apasionado al Excmo. Señor Dn. Francisco de Lette, Comendador del Orden Bacco, su Gentil hombre de Camara con exercicio perpetuo, De la Real Academia de Ciencias de Paris, de la de Berlin, de la Sociedad Regia de Londres, etc.

Nota del Ympresor: en la imprenta de Juanico y sus here-deros, calle Dolphin frente de la posada de la buena acogida se

*hallan a una con este otros libros curiosos todos en justoprecio. Gabiria (zirriborratua: 20 de marzo) 1773*²¹

Adierazi den bidaia 1772 urtekoa dela ez dago dudarik. Testuan bertan agertzen diren hainbat erreferentziak salatzen dute: Enperatrizaren sendagilearen heriotza, Gerard, Baron Swieten-ena, "*mort quelques jours avant notre arrivée*", 1772ko ekainaren 18an hila. Eta Baden-en etorrera, honen Margrave, diotenez, aurreko urtean hil baitzen, "*l'an dernier*". Eta hala da, 1771ko urriaren 21ean hil baitzen.

Aurkezpen honen ondoren doan antzerki laburra, bidaia lillugarri honen oroitzapena da. "1772ko Eguerritan" datatua, Venecia, Viena, Paris eta Londres aipatzen ditu... Lette Aitoren semeaz gain". Zer dela-eta datak aldatu nahi hori? Ez dago datu gehiagorik artxiboetan eta, azken baliabidetzat har dezakegu Joaquin Maria de Alcibar atseginak bidaia honi buruz egiten duen agerpen umoretsu hau.

A, eta ez dezadan ahaztu, Alcibartarren artetik ez zen inor Adiskideen Elkarteko partaide izan²² Nolanahi ere, honek ere badu gatza. Ala ez²³?

(21) Bakoitza bere orrian ACAJ-en, 31 ZKIA.

(22) Artxiboetan jasota dagoenez, 1767ko otsailaren 25ean, Bileran publiko batean edo "irekian", EAEko fundatzailleak, D. Francisco Sales de Comesfort ikasletzat hartu behar zutela-eta, Azpeltiko eta Azkoitiko lagun eta senideak gonbidatu zituzten Irlandako Infanteria Erregimentuaz gain. Bazkide-Adiskide Santiago de Samaniegok, sarrera gaztelaniaz egin ondoren, D. Vicente María de Alcibarrari erantzun zion, honek galdetutako Kronologiari buruz.

(23) Azken oharra. Egia esan behar baldin badut, duela hainbat urte, Alcibartarren ibilaldien berri topatu nuenean, uste izan nuen Joaquin de Alcibarrek asmatutako jukutria berri bat zela, bai baititu beste testuetan halakoak, besteak beste "balizko" bidaiaren titulua. Baliteke garaiko gutun harreman diplomatikoetan bidaiaren etapan erreferentziak egotea. (Madrilgo AHN, Estado atala). Gogoan izatekoa da ibilaldi oso bitxia izan zela, negozio agenteel eta enbaxadoreel beren *dépeches* delakoetan kontatzea gustatzen zaien horietakoa.

Nueva, se tra. Representada en el Teatro de la
 Cocina de Casa de Alcibar en la Villa
 de Acharan. el ~~1772~~.

Contran en ella las Personas siguientes.

1.^a D.^a M.^a Antonia de Acharan.

2.^a Antoni Fortuna, que se halla à la
 sazón en dicha Casa. Corriendo à toda
 prisa los nuevos Modelos de Verdidos
 que ella ha ideado, y que la citada.
 S.^a D.^a M.^a Antonia los dixise à
Paris à sus Hijos. p.^{ra} q.^e los den al Público.

3.^a Ygnaci Olcaga, por otro Nombre La.
 Muxer del Gran Neuton: Esta viene
 à la Casa de la Comedia, à dar un Voto
 sobre el Chocolate, que se acaba de labrar.
 en ella, y retirando de fies entra en la
 Cocina, y despues de saludar à la Citada
S.^a D.^a M.^a Antonia, la obla de otra manera.

hallan a una con este otros libros curiosos todos en justoproposito. Gabilta (Zimborata) 20 de marzo 1773

3^a Betozzia Cereco Andria. Vernien noiciarie badu.

1^a — Lo Ynnaci noicia fundamentarozie arial
Dico Epuritan. badaquizu nola Abuzui
Abadianquin. binalduazeina. Carta bat-
num Eraten cizen Boloniatic. Veneziana
zipuazela. biazarian gauza ciaturie Erango
Erizot.

3^a — Betozziata. Venezia oxi num dago

2^a — Abada Ynnaci esta quizu num dapiuan?
Lazarascandatic baxuna jubatenda la
nie beti aitudo.

3^a — errit. Atotzi oxi iatanzen. islant. num-
dapiuan?

2^a — num Erango da? baldin /aquin nai badizu
izaxico purtata. ipozazu eta andic ierificozu.

3^a ^{nola} zaxico purtatic. uulia. ierificada?

2^a — Bai Ynnaci nie beti aitudo. ce. nola izaxico num
dia. dan oin aluua. andic hitz lazi aro. ieriten
dize la. eta tuberane bas. Erango da. Venezia oxi.

- 1^a para Conico epunadayu era quipu. yuxc lizenia
 aubix Cana xic. Euguico de yuna. temporairuac tina.
 cizexala. eugui batua.
- 2^a Oaxitaxa. para ichen leigu. J^o Vizentete era
 nra semiac aña. pechu. Eporeo tempora luxian
 Centaxic. Escabim bupa.
- 1^a Jaguin biandezu xi. baldin ichetun bader. era lei
 xi semiapandic. se patic onio. ni Dizon dajera.
 buriac bano quibel. andijana dancu: era otuba da
 go leonapo tian era ^{eporean} tempora. lusechuan. lusecho
 bac. escribitu bafe.
- 3^a Cu bado. Cuyatic. buriac aña amonjo celi on.
 solam^{te}. J. Vizent bario. Hopochuaymada. escivizaco.
 bario. Orrepatiam era badeizot. era. baxeti. era
 buriac. Cartacho bac. Euguizaco. Conculuo. para
 Euguico deuala.
- 1^a Tem. Yonaci. Jaunpoimac. bijchoza fodiun.
 ana emenda. Vizentxon Cartia: se era dij. Salae
 onec: ia izacoxiezacuni
- 3^a... Lex djiu Echicoan dia. nola daude. era num
 nira.

Euzkian

Euzkianac. Ezango diru: Corralu Ona ~~Comercio~~ ~~Comercio~~
 ezamanteburum. Ezai Antani esta ezin bertepuzcaio.
 eran liguu. Cepatican. Londres. Yngelaxararun-buxuba.
 o Ezai Napuzina. Da ala ^{bera} Calicoran. nola Echetan, chit
 entera xaxija. Ezai ^{an} ~~pas~~ pazela bada era. Oxapatican
 baiceiza Eozn liguu. ^{baiceiza} ~~baiceiza~~ Naiduban Modubani Eze
 zu Mundubara parte, onetan. Ezai Curiozuayari tan
 arguino. puritazaco: Cepatican ^{bera} Comercio.
 Andijac. Caatendico. Mundu onetaco aldia ^{purane} ~~avotit~~
 Gaunboicoae dagujan Ondarunac. Chinarequin
 nola daucan Comercioa andina, anpo. onetan
 quin botonic dauca. Londres. cari Denda puritac
 eta. Denda auben Eoztazunac, ~~Comercio~~ ~~Comercio~~. ain
 hadaxac ^{eyngelaxar} Londres co Calic. puritac. ee. erio. rini. ~~Comercio~~
 Lig. ^{Comercio} ~~Comercio~~ bayu: ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~
 Zen. ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~
~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~

3^a Buxonia Echico Andina. Buxonia badijozte. ^{2a}
 Paris. ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~ ~~Comercio~~

1^a Ori Zeinia etagui Yngacit.

3^a Eque nola. Luxe labraztozcon dikan
 Pranchoz arco. auben impormatu nau beo.
 London. Paris; eta saguit bixduze. eta
 mala

2^a

er baintat. erri. nic. hiritu Donostia bano
 Andijapur. izan yodana: lo mismo tyor.
 Colectan. era plamian. Dimostia. Colina
 ondo lutenac, era lidenac tior. In abyo
 plazadexia. ^{ber} astu izandor. Caruba daucala.
 baldin ezan baint. Paris. Gorenadar calle
 berri. guisayo daucala. Guisye Pantheon. Costa
 bac tix. ~~ezan baint~~ hiritu yuni hiritu era
 zoticoi. ezan baint Echeco andia. Estanca onpa
 Arzazoe.?

1^a

er Antonis baintac. ^{Sanjatic} Paris
 Luc. Urrenduzan ^{Sanjatic} bano. Ezan andijapodan
 anpat. izan ordue. ^{Sanjatic} Paris de agrotian Paris
 Atxandura. ^{Sanjatic} Paris. baldin bainta
 qui. er Ezan Paris.

3^a

Daxerana Echeco Andia. nic. ^{Sanjatic} Paris
 Comparacion ^{Sanjatic} Paris. ^{la baya} ^{pueldiuda}
Sanjatic Paris izan yodana.

1^a

Bai. Ynau. ^{Sanjatic} Paris. ^{Sanjatic} Paris
 ondo ipini. ^{Sanjatic} Paris. ^{Sanjatic} Paris
Sanjatic Paris.

3^a

Ezan baintu bada ezan Paris. ^{Sanjatic} Paris
 pun. berri baint. Ofuzizen bada ezan Paris.
Sanjatic Paris ezan Paris.

- 2^a Juri Echeco Andain: Milloc. bas. era
 qui hic subbasan bona. arceda.
- 3^a Oraxara Chindocui Echeco Andain an
 Gendiar. Ono Erutuaric. eyon bianda.
- 2^a emen Exliac. Exlaroguan dauden byela
 Prancherac Parisen Gonyo Dira.
- 1^a Era Ori succizeni Baldin. bazinegui
 Antoni. Paris. sin Andiatadan, icussis
 sendug. erandi la Luc. Vren derum Estata
 zuriam. Paris. buzetasuniaz tzanpo.
 da emindic. billa. Lazalexano, eta bere
 ain bere. Lavalexan.
- 2^a Juri Echeco. Andain. Oraxatic daude
 barten puchiac Prancherac Ondaluzic.
- 3^a Exai Oraxitan ene. boir arigui lanyoda
 ba^{on} Echeco Andain. jerran Gonyodan jendia
 jmaxurico.

1^a chie pichiaz. Ygnacio. Sertar. Vnion
de su. Vnion. parameca. la nie leen
can dean Paronac Montonisco.

3^a Cchico Andria. arca biancedu; Neni bada
Zoni. er. arlian Janys dia la ^{Paris} puchin qui
chiaz. doxena bar. Aniqui. ¹⁹embere. Onen berte
axapui.

2^a lita Oxip. bada puchicho.

1^a Paris ^{subano}. Ermen Lyon balia. obeto nubano
Contuba Anxaco Suban. Luc ezandazan
bano. terpares. puiafo. Eyun ero Eyun
ero. Parisen. garacenda.

2^a Oxuberte. Eyunian. gararicem bada.
re ezandazenda Vnion.

1^a Nie. Ezandazubet. vnian Sertar
Paris. gararicem: bixazicun -
tanca paza; ixuroyeta ama laspi milla
izi. cum da Opi milla texuna. bixoye

era. Obiszarpo da. nizu dirparatiazquin yera
 beaxari Canaen bano leen. Echea, jubaial Op
 bete aldixia. farco. ordubado. Inza. Praxico sai epon
 gorat. Obidite, laban leendie leen: apen Eche
 co andria. Ondo geldibeyni.

1^a Suparabuzza yel diuzaitz. baldin naibade.
zu.

3^a Estimacen dior. Echea Andria. Ezin yel diu
 naigie. Sepatin Campocotan ario ditut.
 paun Echiari. era. falta. equiter det: Emen
 epon naizan. Bitantian, yuze Praxicozi-
 mumbac Ondo aznotu saizco: puazun
 ycutina. se Ezevivimantu equiter dizan.
 Ondo. Geldibeyni. Echea. Andria.

1^a Suaz bada Ondo Yonaci.

2^a Echeandria: nic. lre. acabate ditoc nize
 Jonocoac: era Poliquicho. yalduen^{dior}. binal
 du brianco ditu: E bada seypate. nic idia
 tuta, equinditanan. bano baduzor. ere
 Paziren. golpe andia emanyo ditela.

Amari lue. eta nic. etaguzen lzea. Mundu
 ban ce paraundari. eta ala obidizu D. N.
 Anthonia Andrie. yux. Hispanataguzin. bexari
 luegaso Conatu. bano lue. Comandi bacoiza
 bexa luehena. dijuen: ni. beinzae. tsin yuziayo
 Egon bzuque.

[The text in this section is extremely faint and illegible, appearing to be a list of items or a detailed report.]

ANTZERKIAREN TRANSKRPZIOA ETA HAINBAT OHAR

Inñaki Aldekoa Beitia

Beti ere Borja Aginagaldereen informazioaren arabera, Joaquin Alzibar da antzerkitxo honen egilea. Eta 1772ko Gabonetan Azkoitiko Alzibar etxeko sukaldean aurkeztutako pieza dela esaten zaigu antzerki-atarian. Beraz, 1772ko Azkoitiko herrian kokatzen gaitu, eta Alzibar etxera biltzen. Alzibar etxeko anderea da Maria Antonia Acharan, pieza honetan parte hartzen duten hiru protagonistetako bat. Nahiz eta garaiko kultur giroan ez erdietsi Alzibartarrek Peñafloidako konteak (Javier Maria Munibe Idiaquez) eta Narrosko markesak (Joaquin Maria Aguirre) zuten entzuterik, ez pentsa ondasunei erreparatuz gero –honetan ere Aginagalde dugu Informante– gutxiago zirenik.

Beste bi protagonistak ere, Inazi Oleaga eta Antoni Jostuna, azkoitiar petoak dira biak ala biak. Lehenengoa txokolata probatzera etorria da Alzibarko sukaldera eta bertan aurkituko du Antoni jostuna, Maria Antonia Acharanentzako lanean. Hark jositakoak Parisen banatzen dituzte Maria Antoniaren semeek. Hala ere, zain dago Maria Antonia Acharan noiz jasoko Bizente semearengandik (Joaquinen anaia) gutuna, eta hura ere iristen da, eta haren aitzakian ez zaie aurkerarik faltako Europako hiriburu handi eta ospetsuez hitz-aspertua izateko. Dagokion posizio sozialak hala aginduta, Maria Antonia Acharani egokituko zaio ezjakinei munduaren berri ematea. Haren azalpenak ilustrazioak Europan zehar zabaldutako espiritu berrian kokatu behar dira. Gauzak horrela, Inazi Oleagaren sineskeria barrega-

rrien aurrean –Alemanian denak animaliak direla, esate baterako– alemanen zibilizazio mailaren berri emango die beste bi protagonistei Maria Antonia Acharangoak. Horrela, Venezia, Viena, Paris eta Londres bezalako hiri handien gainean mintzatu-tuko dira. Venezia eta Paris aipatu direlarik, ez legoke seguruenik soberan Manuel Maria Altunaren ibileren berri ere gogoratzea; izan ere, J. J. Roussearen *Aitormenak* liburuak jaso ondoren (ordurako Rousseau bera eta Altuna ere hilik zeuden), mendebalde osoan ezagunago izan arren, ez pentsa Altzibar anaiak ere makal ibili zirenik bidaia kontuetan: eskura dugun antzerki piezatxo honek Europako zenbait hiriburu ospetsuren inguruan bi anaiek egindako bidaia du oinarrian.

Ezin da alderdi komikoa aipatu gabe utzi ekitaldi bakarreko entremes moduko honetan (ez dirudi komedia luzeago baten zatia denik); audientzia dibertitzeko intentzioa garbia da. Gora-go esan dugu, aristokrazia ilustratuaren ardura zela herri xehea hezitzea. Esango nuke, ordea, tradizio honetan sortutako gehientsuenak bezala, eskutan dugun hau, edo Peñafloidaren *El borracho burlado* hura, ez zirela izan herri xeheak ikusiak izan zitezten atonduak; aitzitik, bertako protagonista nagusiak ezjakinak eta arloteak izan arren, azken horiek emango baitiote antzerkiari duen komizitatea, etxe oneko eta handikien gustu eta atseginerako taularatu bide ziren. Ezagun du eskura dugun piezatxoak –pieza xume eta “ganberroa”– txantxa eta jolaserako aldartea. Beraz, ateraldi komikoz beteta dago antzerkia, eta asmo horri lotuta sortua dirudi “El Gran Neutoni” pertsonaia (Praisko). Ez ote du ezizen horrek Newton zientzialari handiaren aipamena iradokitzen? Seguru hala dela, izan ere ordurako Newton zientziaren jainko txikia baitzen.

Testuaren azalpen formalak

Testuak 20 orrialde ditu. 3.orrialdean hasten da berez antzerkia ze, aurreneko orrialdean aurkezpena dator eta gazte-

leraz idatzirik dago (129 hitzez osatzen da), eta 2. orria hutsik ageri da. Beraz, esan dugun bezala, 3.orrialdetik aurrera garatzen da antzerkia, eta 2197 hitzez osatzen da.

6. orrialdeko zati luze bat ere (67 hitze osatua) gaztelaniaz dator.

Hiru dira protagonistak antzerki honetan, hiruak dira emakumeak: Antonia Acharan, Antoni Jostuna eta Inazi Oleaga. Honela banatzen da protagonista horien partehartzea lan honetan:

AA protagonistak 27 bider

AJ protagonistak 23 bider

IO protagonistak 24 bider.

Gorago esan dugun bezala, Maria Antonia Acharangoa etxe oneko emakumea denez, badu besteek ez duten munduaren inguruko ezagutzarik. Jende xehearen ahotan jarri ohi diren sineskeria eta ateraldiak Antoni jostunaren eta Inazi Oleagaren ahotan agertuko dira.

Gaztelera idatzitako zatiez gainera, asko dira testuan zehar erderatik zuzenean sartutako hitzak (erderakadaz josita dago testua). Garbi ageri zaigu egilearen kultura hizkuntza (edo hizkuntza idatzia bederen) erdera zela, nahiz eta etxean eta eguneroko bizitzan euskara erabili. Festarako eta irrirako zein naturalago ahozkoa baino?

Iñaki Aldekoa Beitia

**JOAQUIN ALTZIBARREN
ANTZERKIA
(Hitzez hitzeko
transkripzioa)**

Orria: 1 (1. orrialdea)

Nueva Pieza representada por Navidades del año de 1772 // en el Theatro de la Cozina de Alcibar en la Villa // de Azcoitia.

Entran en ella las Personas siguientes^s.

1ª. Dª. Mª. Antonia de Acharan.

2ª. Antoni Jostuna, que se halla á la // sazón en dicha Casa. Cosiendo á toda // prisa los Nuevos Modelos de Vestidos // que ella ha ideado. y que la citada. // S^{ra}. Dª. Mª. Antonia los dirige á // Paris a sus Hijos. p^{ra}. q^e. los dén al Publico.

3ª. Ygnaci Oleaga. por otro Nombre la // Muger del Gran Neutroni: esta viene // á la Casa de la Comedia. á dar su Voto // sobre el Chocolate. que se acaba de labrar // en ella. y tiriteando de frío entra en la // Cozina: y Despues de Saludar. á la expresada // S^{ra}. Dª. Mª. Antonia. la habla de esta manera.

**JOAQUIN ALTZIBARREN
ANTZERKIA
(Moldatutako
testua)**

Nueva pieza representada por navidades del año 1772 en el teatro de la cocina de Altzibar en la Villa de Azkoitia.

Entran en ella las personas siguientes:

AA Dª. Mª Antonia de Acharan.

AJ "Antoni Jostuna", que se halla a la sazón en dicha casa cosiendo a toda prisa los nuevos modelos de vestidos que ella ha ideado, y que la citada S^{ra}. Dª. Mª Antonia los dirige a Paris a sus hijos para que los den al público.

IO Inazi Oleaga, por otro nombre la mujer del Gran Newton. Ésta viene a la casa de la Comedia a dar su voto sobre el chocolate que se acaba de labrar en ella, y tiritando de frío entra en la cocina, y después de saludar a la expresada S^{ra}. Dª. Mª Antonia la habla de esta manera.

Orria: 2 (3. orrialdea)

3^a. Betorria echecho Andria.
Semien noticiaric badu.

1^a. Es Ygnaci noticia fundamentuscoric aspal // dico Egunetan; badaquizu nola Alzuru // Abadiarequin. biralducireena. Carta bat // num esaten cireen Boloniatic. Veneziaara // zijuazela. bitartian gauza cierturic esango estizut:

3^a. Betorriata. Venezia ori num dago

2^a. Abada Ygnaci esta quizu num dagan? // Larrascandatic barruna jubaten da la // nic beti aitudot.

3^a. estet. Antoni ori itanzen. solam^{te}. num dagan?

2^a. Num egongoda? baldin jaquin nai badezu // Izarrisco. puntara. Igoezazu eta andic icusico-dezu.

3^a. Nola bada Yzarrisco puntatic. gustia icusten da?

2^a. Bai Ygnaci nic beti aitudot, ce. nola. Izarrisco men // dia. dan ain altuva, andic hcit [sic] erri asco. icusten // dirala. eta aubetatic bat. ezango da. Venezia ori.

Orria: 2v (4. orrialdea)

3^a. Sure. razolac Antoni chitesco. ~~convener~~ fuerza andia // eguindire. eta ala nago. firme

—
IO: Betorria etxeko andrea.
Semeen notziarik badu?

AA: Ez, Inazi, "notizia" fundamentuzkorik aspaldiko egunetan. Badakizu nola Alzuru abadearekin bidali zidatena karta bat, non esaten zidaten Boloniatic Veneziaara zihoazela. Bitartean gauza "ziertorik" esango ez dizut.

IO: Betorriata. Venezia hori non dago?

AJ: A, bada, Inazi ez dakizu non dagoen? Larraskandatic barrera joaten dela nik beti aditu dut.

IO: Ez dut, Antoni, hori itauntzen. "Solamente" non dagoen?

AJ: Non egongo da? Baldin jaquin nahi baduzu Izarraizko puntara igo ezazu eta handik ikusiko duzu.

IO: Nola bada, Izarraizko puntatic gustia ikusten da?

AJ: Bai, Inazi, nik beti aditu dut ze, nola Izarraizko mendia den hain altua, handik txit herri asko ikusten direla eta hauetik bat izango da Venezia hori.

—
IO: Zure arrazolek, Antoni, txitezko "fuerza" handia egin didate eta, hala, nago sinetsirik bali-

pensaturic sinisturic bêla. izarristic. icustia. baña gauza aubec guc baño // obeto. Jaquingo ditu. D^a M^a Antonia Andriac

1^a. Ai. Ygnaci punto. onetan subec aña obligacio daucat // Jaquiteco. baña. nere. ustes. esta. Venecia erorten subec // uste desuten lecuban. baisic. chit. arunzago. Alemaniaco // Ymperjuaren. onduan; emendic. laureun ó bosteun legua; // ala. alperric da. izarriza. Igozia. ezin andic icusi leiq^e?

2^a Betorria. eheco andria. eta. ~~aituzen duan~~. Animalia. ó del // son ori ze. erri moduda?

3^a. Antoni suc estaquizu. gauzaaubetan nic aña. cegatic // nic, nola. gure echera etorten dira. Campoco asco. // ~~galdera asco eguiten det~~ ascotan galdezen det. ia numguac // tiran. eta berela arrazoe. ematendire: bein Campoco bat // etorrizan. Gure Ostatura. eta itandunion. nere modu // ban. numgua zan. errespuesta. emanciran eze. ani // malla sala. guero itandu nion ze erri modu // zan. animalia ori eranzunziran se. zala. erribat. num. gustiac. // animaliac zirana. guero. ezan nion. ia. nola bada bera // guizona. san. eranzun ziran. se ~~Animalia Naguetia sala~~ Adan sala // eta. animalia. gustiac bere sujeciona [?] seuscalal

tekeela Izarraiztik ikustea, baina gauza hauek guk baino hobeto jakingo ditu D^a M^a Antonia andreak.

AA: Ai, Inazi, puntu honetan zuek adina obligazio daukat jakiteko, baina, nire ustez, ez da Venezia erortzen zuek uste duzuen lekuan, baizik txit harantzago, Alemaniako inperioaren ondoan, hemendik laurahun edo bostehun legoara. Hala, alferrik da Izarraitza igozteaz, ezin handik ikusi liteke.

AJ: Betorria, etxeke andrea, eta animalia edo deritzon hori, ze herri modu da?

IO: Antoni, zuk ez dakizu gauza hauetan nik adina, zergatik nik, nola gure etxera etortzen diren kanpoko asko, askotan galdetzen dut ea nongoak diren, eta berehala arrazoia ematen didate. Behin, kanpoko bat etorri zen gure ostatura eta itaundu nion, nire moduan, nongoa zen. "Errespuesta" eman zidan eze, animalia zela. Gero itaundu nion ze herri modu zen animalia hori. Erantzun zidan ze, zela herri bat, non guztiak animaliak zirena. Gero esan nion ea nola, bada, bera gizona zen. Erantzun zidan ze, Adan zela eta animalia guztiak bere "sujezioan" zeuzkala!

2^a. Jesus Ygnaci Orrenbeste
 paciencia. euquizendubat // ain-
 beste pregunta eguiteco. baldin
 banequi jaquinn [sic] // puntu.
 onetan suc aña. enion nic bein-
 zat. onenbeste itanduco;

Orria: 3 (5. orrialdea)

3^a. Ori zinistendet. baña dau-
 cat. satisfaziaua. // gauza onetan.
 egotia chit. ondo instruituval a
 la bane // qui gauza gustiac.

2^a. Bai Ygnaci. Orrenbestere-
 quin satisfacioa euquilei // andra
 guichi arqutuco dira Azcoitian.
 suc aña daquiena // eta ala Ynvi-
 dia andia dizut: baña. Orandican
 ere // badeizot. eze. echeco an-
 driac. suc bano obeto // jaquin-
 go duala.

1^a. Antoni naleneco iñoz. sar-
 tu izeguitera libertade andijare-
 quin // chit ondo aizen ezturen
 gauzetan. ~~Cegatic badaquizu~~
~~ee~~ bestela daroa disparatia dis-
 paratiaren gañian // bana Orre-
 gatic. ere arrazoe. emango di-
 zut. gauza onetan // es siniste-
 co. Ygnaciøere eguin dizun ere
~~laeio. or~~ Relaciua Alemania //
 co. Ymperijuaren gañean; nola
 bada cegatican. estan eguia.
 Campo // tarrac ~~Ygnaciri eguin~~
~~zion~~ ezan Ziona. eta ala esta.
 alemania. // Animalijen. errija
 bacarrican. baizican Guizon An-
 dijena. // Viena. Ymperijo onen

AJ: Jesus, Inazi, horrenbeste
 pazientzia edukitzen du batek
 hainbeste "pregunta" egiteko.
 Baldin baneki jakin puntu hone-
 tan zuk adina, ez nion nik
 behintzat honenbeste itaun-
 duko.

IO: Hori sinesten dut, baina
 daukat "satisfazioa" gauza hone-
 tan egotea txit ondo "instrui-
 tua". Hala baneki gauza guztiak!

AJ: Bai, Inazi, horrenbeste-
 rekin "satisfazioa" eduki liteke.
 Andre gutxi aurkituko dira Azkoit-
 ian zuk adina dakiena eta, hala,
 "inbidia" handia dizut. Baina o-
 raindik ere baderitzot eze,
 etxeko andreak zuk baino hobeto
 jakingo duela.

AA: Antoni, nahi ez nuke inoiz
 sartu hitz egitera "libertade"
 handiarekin txit ondo aditzen ez
 ditudan gauzetan, bestela daroa
 "disparatea disparatearen" gal-
 nean. Baina horregatik ere, arra-
 zoi emango dizut gauza honetan
 ez sinesteko. Inaziren "relazioa"
 Alemaniako Inperioaren gal-
 nean, nola bada, zergatik ez den
 egia kanpotarrak esan ziona eta,
 hala, ez da Alemania animalien
 herria bakarrik, baizik gizon han-
 diena. Viena, inperio honen herri
 nagusia edo buru, izango da ha-
 mabi bider Donostia baino han-
 diagoa. Herri honetan dago

erri Nagucija ó buruba. ~~da De~~ // ~~nestia~~ ezangoda amaé bano andijagua. Erri // onetan dago. Emperadoria (Madrilen Erregea dagan bezela) vere Ama alargunarequin // sein deisendan Ungriaco. eta. Bohemiaco. emperatriza // chit. andra. ona: aldi-gustiatetic. eta bere demboran. // gauza andijac eguinditubana. ~~Asco~~ izeguín neique ~~puntu~~ nola Alemaniaco luzetazun andi // ~~onetan. bana cegatic. uci~~ ~~cia. dan largazen dizut.~~ daucan gauza gustiac. beraren [?] galian azco izeguín lei^q. bana larga // zadan. zegatic uciareainzen nau suben bijon Conversasiuac.

Orrialdea: 3v (6. orrialdea)

2ª. Cargu eguiñic nago eche-co andria. berorren // noticiac. beste fundamenturic dauquiela. Ygnaci // renac baño, eta. icaratura largacen nau, nola // ain ondo daquijan gauza auben. Azcoititic erten bage.

3ª Antoni. estet .Ori nic estrañasen, Guizon Savi // uac, bere echetic erten bage. imponiu lei-que. // gauza azcotan. Nere echian daucat. onen // exemplua. Fraisco Guriarequin. estubada Onec // Azcoititic erten. bana Orregatican ere. // Gaste-laubac gure Ostatura etorten diranian. gure // Praiseuri eman-

enperadorea (Madrilen erregea dagoen bezala) bere ama alargunarekin, zaina deitzen den Hungariako eta Bohemiako enperatriza, txit andre ona alde guztietatik, eta bere denboran gauza handiak egin dituen. Nola Alemaniak luzetasun handia daukan, gauza guztiak beraren gainean asko hitz egin liteke, baina laga dezadan, zergatik utziarazten nau zuen bion "konbertsazioak".

AJ: Kargu eginik nago, etxeko andrea, berorren "notiziek" beste fundamenturik daukatela Inazirenak baino, eta ikaratuta lagatzen nau nola hain ondo daukien gauza hauen Azkoititik irten gabe.

Konderrian historiaurreko aztarnak garatzen dira, batez ere, eneolitos eta brontzearokoak, eta, orobat, burdinaroko ontzi eta keramika zenbait. Ertaroan, gainera, Albaita eta Lañuko bisigotiar eliza tiplak aipatzekoak dira, harkaitz zulatueta eraikiak kristautze goiztar baten lekuko bezala. Ikusiko dugunez, XI. mendeko Donemiliagako errejan Konderriko herriska gehienen aipuak eskaintzen dira.

Trebiñu herria, zehazki, 1161 urtean eraiki zuen Antso Jakituna nafar erregeak, Konderria Nafarroa eta Gaztela arteko gorabeheren arteko gune bilakatu zela. Alfontso VIII.a gaztelarrak Gasteiz XIII. mendean erasoko zuen, eta Gipuzkoako lurretan ere sartuko zen. Mende horretan eskualdea mende politiko gaztelaua bihurtu zen, Trebiñu hiria gaztelar erregearen mendekoa eginez. 1270 urtean Alfontso X.ak Konderriko bizilagunak "libres y exentos de todo Portazgo" deklaratu zituen. XV. mendean, berriz, Manrique de Lara jauntxoaren mendekoa bilakatu zen, etxe horretako jaunek Trebiñuko Konte titulua bereganatu zutela.

Esan beharrik ez dago, Trebiñualdeko demografia egungoa baino bizkorragoa izan dela aurretiko mendeetan, nahiz bere jaitsiera XVI. menderako jadanik nabarmentzen hasi. Populazioaren makurrera bortitza, hala ere, XX. mendekoa izan da, bertako biztanleriaren hein handi bat Gasteiz hiriburura aldatu delako. Argantzón eta Trebiñu udalerriak kenduta, konderriko demografia biziki apala da; adibide baterako, berrogehi eta hamar eta piku herrisketan demografia osoa, ia inoiz, ez da 50 bizilagunetara iristen -10-etik beherakoak ere urri ez direla-.

Trebiñualdeko lurretara hurbiltzeak euskara historikoaren hegoaldeko mugetara allegatzea suposatzen du. Hain zuzen, Trebiñuko Konderri gehiena euskararen esparrukoa izan da, historikoki. M. Nieves Sánchez González de Herrero-k bere

tesian (*El habla y la toponimia de Arganzón y el Condado de Treviño* delakoan) euskal errozko hiztegia jaso zuen arretaz. Konderriko ipar-mendebaldea, erdialdea eta eki-hegoaldea, bada, aski euskaldunak izan dira bertan (eta, alderantziz, hego-mendebaldean gaztelania elebakarraren presentzia nabaria izan da ertarotik hona). Beraz, Trobiñualdea iparrera eta hego-ekialdera Gasteizaldea, Bernedo eta Lagranaldeko lurrez inguratua kausitzen da, non euskal hizkuntzaren lekuko aberatsak nabariagoak diren. Beherago, Errioxa Garaian (eta oraindik mendebal eta hegoalderago Burgosko Pradoluengo aldeko lurretan) *euskal* toponimiaren aztarnak nabariak dira. Trobiñualdeko egoera linguistikoa (euskara eta gaztelaniaren elabitasun zahar baten ildotik) aipaturiko gune geografikoetan egia izan da. Guk hemen biltzen dugun toponimia historiko-dokumentalean egitate horren lekuko aberatsak daude. Seguraski, Trobiñualdean gaztelaniaren eskutik euskararen ordezkatzeko-prozesua XVI. mendearen azkenaldean etorri zen, gehienbat. Argantzón aldea, eta hego-mendebalde gehiena, aldiz, mintzaira erromanikoa –edo gaztelaniaren– eremu izan zen, euskal toponimiaren garapena aski murrizta dela bertan; hain zuzen, gaztelaniar toponimia erabat nagusi da Villanueva de Tobera, Pangua, Argantzón, Muergas, Añastro eta Ozana bezalako herri-gunetan. Trobiñualde gehienez, bada, ertaroan elebitasuneko egoera berezia emanen zen, euskal mintzairaren desagertzea etengabe zetorrela. Beraz, konderriko mintzairako *amarreko*, *zil*, *aran*, *abillurri*, *biskar*, *azkarro kardugera*, *garabasta*, *txintxorra*, *otaka*, *laia*, *perrotxiko*, *zapaka*, *suguanbila*, *zara*, *tegi*, *zarrapo* moduko euskal hondarrak gorde ditu gaur arte. Zorionez, toponimiak, hitz solteek baino errazago, egin dio aurre desagertzeari; horregatik, bada, bertako *euskal* toponimiaren jasotzearen beharra eta garrantzia. Berdin gertatu da aintzinako Euskal Herriaren beste lurralde erdaldunduetan ere (kasu, Bizkaiko Enkarterrian, Nafarroako erdialdean, Burgosko Belorado eta Pradoluengoko eskualdean, Errioxa Garaian, Aragoiko Pirinioetan, eta abar).

Bestalde, Trebiñualdeko gaztelaniaren azterketarako kontu izatekoak dira Aragoi, Errioxa eta Burgosaldeko mintzaira erromanikoen aportazioak. Bai fonetikan, eta bai hiztegian, euskararen zerikusiak interesgarri eta esanguratsuak dira gaztelaniarentzat.

Euskal toponimoen gune aberatsena konderrian iparraldekoa da (hots, Saseta, Otxate, Agilu, Axarte, Uzkie, Imiruri aldekoa), eta, ondoren, erditik ekialdera doan tartekoa (hau da, Arrieta, Argote, Albaita, Obekuri, Baxauri delakoena). XVIII. menderako ez zen bide geratzen, jada, konderrian euskara mintzatzen zuen herririk. Kontuan izatekoak dira, gainera, toponimiako kasu hibridoak (*Turriberde, Montuegi, Monterena, Mendiparredo, Villabidi* –eta *Vallaran, Peñas de Aspia* (**Aspea*) tautologikoak–). Formula horiek euskara-gaztelaniaren prozesu ordezkatzailaren adierazpen argi dira, hots, eskualdeko geruza askotako zalantza linguistikoen fenomeno bitxi.

Hiztegia

Trebiñualdeko euskal onomastika –egun euskara itzalirik dagoen esparrukoa izaki– metatesi, hitz nahasi, artikulatu erromanikoen deglutizio (edo eta bere interpretazio okerre) ukitua dago maiz. Taulogikak eta etimologia herrikoikiak dira harrigarrien aipaturiko aldaketetan. Trebiñualdeko mintzairako euskal erroa duten hurrengo terminoak gogoan izatekoak dira: *aspil*, *azkarro* (arce), *abillurri*, *barda*, *otaka*, *kurrubeta*, *garabasta* (estopa), *gallur* (viga cimera), *perretxiko* (seta), *laia*, *tegi* “pocilga”, *sagundila* (lagartija), *sirimiri*, *zara* (tira de roble..., astilla de avellano...), *lantegi*, *zapaka* “pantanosidad”, *zarrapo* (sapo), *zarbo*. Cfr. M. Nieves Sánchez, op.c.135-147, J. A. G. Salazar, “Vida de relación y toponimia” (Obekuri eta Baxauri aldean), Euskal Folklore (1971-72), 9 ss.

Hona fenomeno zenbait:

a) Toponimo hibridoak

*Montegi, Montuegi,**Morabidi,**Remelaran**Ribazal**Sotolandia**Somendi (*Bajo el monte),**Subarraran**Turrierde**Loyoaran (El Hoyo Arana)*

Etimologia izunak eta herrikoiak:

*Agustina > Buztina (arcilla)**Kanpanaldea > Kapanaldea**Isabel > Usabel (sabel, anatomiatik jasoriko osagaia dela)**Espia > Aspia (Azpia).*

b) Artikulu erromanikoaren eragina (*Larre, laku, larrin, landa* eta beste terminoetan), lehen silaba artikulu eromanikotzak hartua dela, batzuetan:

*(La) Rebalza > Larrebalza.**La Rei > Larrein (La Herrén gaztelaniarra ez bada).**La Rinbe > (*Larrinbe).**La Rinbia > Larrinbea (Lañu).**(La) Kuzubia > Lakuzubia.**La Rinza > Larrinza, La Andabia > Landabia.**Komendi > Lakumende (*Lakumendi).**La Andaluzia > Landaluzia.**El Andarazo > Landarazo**La Angurria > Langurria (*Lango-
rria)*

c) Tautologia zenbait euskal hizkuntzaren ulermena itzaltean, haren truke mintzaira ordezkatzaillearen ordainak alboematen direla:

*Fuente Turraldia (Paritza).**Puente Arzubia.**Camino Salbide (Fuidio)**Rein de la Era (Saseta).**Vallarana (San Martin Galvarin-
goa)**Peñas de Aspia (*Aspea) (Sa-
miano)**Balza, la Negra, (Arana)**Aranbalza, Valle Negro**Zubigote, La Puentecilla (Grandi-
val, Ozana).**Karobia, La Calera (Albaita)**Frankubidia, Camino Franco.**Aletxandi (Axarte), El Roblón
(Uzkio)**Arzuria (Baxauri), Peña blanca.*

d) Metatesiak. Hauek hizkuntz-ordezkatzearen fenomeno dira, fonema bat edo bi lekuz aldatuz, batez ere, dardarkaria-
ren kasuan agitzen direla. Bere adierazpide dira hurrengoak: *Sargamin* (Sagarmin), *Agalatia* (Alagatia), *Sarregaldia* (Sagarral-
dia), *Urgrazia* (Urgazia), *Maramurrio* (Marramurrio), *Alranza* (Ar-
lanza), *Lezagarbe* (Legarzabe), *Isnuza* (Isunza), *Vitordobe* (Vi-
torbide?).

Morfologia

Lehen artikulua erromanikoaren sasi-interpretapena atze-
man badugu, hemen bere deglutizioa nabarmen egiten da
euskal erroa duen toponimo berezitan. Tipologia horretakoak
dira hurrengoak:

El Mendil, Mendiél

Lasao (*La Asua).

Lespia (*La Azpia)

A preposizio erromanikoaren isla
hurrengoan:

Euskal artikulua ondorengo toki-
zenetan:

Alindaurra > *A Lindaurra, Alin-
dorra*.

Frankubidia, Frankoidia

Euskal noranzko *-ra* deklinati-
boaren presentzia ondorengo
bi kasuetan:

Larrinbia

Garzabala

Askarzalabide (**Askararabide*)

Iturraldia

Vitorialabide (*Axarte*) (**Vitoriara-
bide*)

Solandia

Inikoturria.

Fonetika

Trebiñu Konderriko euskal toponimiaren hein handi batek
gazelaniaren ukitu fonetikoak jasan ditu. Eta, orobat, bi hiz-
kuntzen elkar eragina islatzen da, modu bitxian, bokalismoa
eta kontsonantismoaren gorabeheretan.

Bokalismoa la) Lehen bokalak

U < *o* irekiera nabaria da latinetik gaztelaniara igarotako termino anitzetan (adibidez, *lupus* < *lobo*, *mundus* < *mun**do*, *subtus* < *soto* kasuetan). Bere eragina islagarri da, orobat, euskal erroa duen tokizenetan.

Urisolo < *Orisol* (Fuidio)

Urkiza < *Orkiza* (Lañu)

Urraga < *Orraga* (Doroñu, Goler-
nio)

Uribia < *Oribia* (Imiruri)

Uribusti < *Origusti*

Urtabaso < *Ortabaso* (Agilu)

Urarka < *Orarka*

Urratxita (**Urretxaeta*) < *Orratxi*-
ta

Urrundia < *Orrundia*

O < *u* aldaera hurrengoetan,
maiz, asimilazio bokalikoak
bultzatuta.

Oruña < *Uruña*

Ortondo < *Urtundo*

Ortueta < *Urtueta*

Olate < *Ulate*

Okarana < *Ukarana*.

Lehen bokala galdua ageri da beste batzuetan, eta, batez ere, dardarkariaren aurretiko protetika.

lb) Barruko bokalak

Gaztelaniar azentuak ere ukitzen ditu euskal tokizenak dikzio barruko atonek *o* / *u* zalantza azaltzen dutela:

Argomana / *Argumana* (San Vi-
centejo)

Mendigorría / *Mendigurria* (Sase-
ta)

Bosturia / *Busturia*

Bizkárrola / *Bizkarula* (**Bizkarrola*)
(Sanmartintzar)

Bestalde, euskal kontsonatismoaren soltasuna dela kausa, *kr*, *br*, *tr* gisako talde kontsonantikoak anaptixiaren bidez ekiditzeko joera ageri da zenbait toponimotan. Tipologia horretakoak dira hurrengoak:

Krasta (lat. *crasta*) / *Karasta*
(Doroñu)

Korozia / *Krozia* (Kruzia) (Albaita)

Gurruskarrate / (**Kruzkarrate*)
(Sanmartintzar).

Bokal aurretonikoak eta atzetonikoak ere eror daitezke:

Areguro / *Arguro* (Agilu)

Maraloste / *Marloste* (Arrieta)

Olabide / Olbide (Zurbitu)

Basiturri / Basturri (Albaita)

Suarrate / Suarte

Ic) Azken bokalak

Azken posizioko *i* bokalak e irekiera pairatzen du, maiz, goiko *u* < *o* kasuan bezala. Irekiera horretan gaztelaniar mintzairaren ohiturak atzematen dira, latineko *u* / *i* laburren irekiera jasaten duela hitzak lat. *lupus* < *lobo*, *vicem* < *pez* kasuetan bezala (halabaina, *lupu* eta *bike* emaitzetan euskarak latindar bokalismoa hurbilagotik jarraitzen du) Cfr. LEEE, 32 ond. Aipaturiko aldaketa atzematen da ondorengoetan:

Armotxi / Armotxe (Ormatxi >
Ormagutxi?) (Fuldio)

Aranbide / Aranbidi (Arana)

Aranguti / Arangute (Bustu)

Butisarri / Butisarre (Caricedo)

Faido / Faidu

Solatxi / Solatxe (Armentia, Pedruzo)

Lañu / Laño

Sugartxi / Sugartxe (San Martin Galvaringo)

Sarasu / Saraso

Franco / Franku

Larratxi / Larratxe (Larregutxi?) (Aglu)

Kutxo / Kutxu

Busto / Bustu

Kasu berezitan azken bokala eror daiteke (*Sant Vicent* (1257 urtea), *Chochat* (Otxate) 1257 urtea), *Fachart* (Hassarte, 1025 urtea), *Argot* (Argote, 1025 urtea) kasuen modura.

Bestalde, amaieran *u* arkaikoa ireki daiteke o bokalean *Tximizu* (*Tximiju*) < *Tximiso* / *Tximijo* (Añastro) kasuen arabera. Hemen ugaltasunezko -*zu* atzizkian irekiera bokalikoa.

Orobat, gaztelaniar fonetikaren ondorio dira diptogazio sekundarioak, *o* < *ua* gisakoak (*Gortabe* < *Guartabe* (Arrieta, 1693 urtea), *Intxorta* < *Intxuerta* -Trebiñu-). Alderantziz, monoptongazioa agitzen da *au* diptongoa *o* bokalera murriztean (*Alindaurra* (**A Lindaurra*) < *Alindorra*, *Zubiaurre* < *Zubiorri* (San Martin Galvaringo) kasuetan).

Bestalde, hiatoak alboratzen dira herri-mailan, bai euskaraz, bai gaztelaniaz; hori dela eta, *aa*, *ea* / *oa* moduko hiatoak *ia* / *ua* diptongodun bilaka daitezke.

Goikoa / Goikua (Ozilla)

Karearan / Kariaran (Fuldio)

Joaran / Juaran (Armentia)

Iturraldea / Iturraldia (Turraldia)

Nekoaran / Nekuaran (Uzkio)

(Paritza)

Solearan / Soliaran (Sanmartintzar)

Azkenik, kontuan izatekoak dira asimilazioak. Hain zuzen, asimilazio goranzkoak edo beherankoak daude ondorengotan:

Bostibuste / Bustibuste

Olarrate / Olorrate (La Arrote)
(Ozana)

Parragorri / Parragarri

Zerrotorun / Zerroturun (Marauri)

Resaldai / Razaldai

Kostuia / Kustuia (Araiko)

Sekilza / Sikilza (Imiruri)

Toberana / Tobarana

Sotolandia / Sotalandia (Torre)

II) Kontsonantismoa

IIa) Lehen kontsonanteak

Lehen herskarien ozendura ematen da latindar mailegu antizetan. Beraz, *gurutze* lat. *crucem*-etik, *gorta* lat. *cohortem*-etik, *gardu* lat. *carduum* delakotik. Horregatik *Gortabe* (Arrieta), *Goba* (lat. *covam*) (Lañu), *Gobate* (Doroñu), *Gruzabal* (Kruzabal) eta *Garanzuieta* / *Karanzuieta* (Saseta), *Parrabia* / *Barrabia*, *Picoralde* / *Bikoralde* (Baxauri) alternantziak.

Beste batzuetan, ohikoa denez, lehen kontsonantearen erorketa sor daiteke (*Gobela* / *Obela*, *Buraletxe* / *Uraletxe* tokizenetan bezala).

Ezpainkarien eta sudurkarien sailean, euskaraz zalantza asko du, eta fenomeno hori nabarmen da Trebiñualdeko toponimian ere, bereziki, *M* / *B*, *M* / *N*, *G* / *B*, *B* / *G* kontsonanteetan.

B < *G* eta *G* < *B* aldaerak:

Bizkarra / Gizkarra (Argote) *Burzabala / Gurzabala* (Billa Tobera)
Buraletxe / Guraletxe (Saratsu) *Bustin / Gustin* (Austin) Saseta)

Eta alderantziz:

Gortabe / Bortabe (Arrieta). *Mikolanda / Nikolanda* (Axarte)
 M / N alternantzia: *Marubidea / Narubidea* (Lañu)
Mogape / Nogape (Agilu) *Marikokua / Narikokua* (Lañu).

Maizago, ordea, M / B alternantzia:

Marinaza / Barinaza (Albalta) *Mendioste / Bendinoste* (Baxauri)
Madureta / Baduleta (Ozilla) *Marumendi / Barumendi* (Ozana)
Marrangoitia / Barrangoitia (Pedruzo) *Murieta / Burieta* (Ozana)
Murieran / Buriaran (Argote) *Moronda (Maranda) / Baranda* (Bustu).

P / B alternantzia:

Pedruzo / Betruz (1025 urtean) *Pariza / Barizaha* (1025 urtan)

Euskal ohitura fonetikoetan agitzen denez, *f* biezpainkariaren kasuan, toponimia nagusian, bereziki, *F* < *P* aldaketak gertatzen dira -ala zero errealizazioak-. Honela, *Ozilla faux / *faucillam*-en ondorio erromaniko batetik. *F* < *P* *Fuidio / Puidio* 1025 urtean, *Franco / Prango* 1025 urtean (eta, erorita, *Fuscianus* < *Uzkiano / Uzkio*, *Fozana* < *Ozana*). *Faido* kasuan, aldiz, gorde egiten da (lat. *fagetum*).

IIb) Bokalarateko kontsonanteak

L / LI alternantzia. LI bustidura hegoaldean mintzaira erromantzeatu baten ukituan luzaroan egoniko euskal hizkuntzaren fenomeno da, *zabala zaballa*, *ola / olla* kasuen modura (nahiz, batzuetan, modu geminatuan ahozkatu). Cfr. L. *Michelena*, Apell. Vascos, 162. Tipologia hori islatzen da *Olabarri / Ollabarri* (Imiruri), *Remelaran / Remellaran* kasuetan (azken hau **Herramelaran* batetik, *Herramelluri* izen bereziaren ildo jarraituz).

R < L دیسیملازیوا (بیزیآوا دلا بokalartekoa ez den posizioan): *Armora* < *Almora*, *Arkorta* < *Alkorta*, *Armaya* < *Almaia*, *Ormatxa* < *Olmatxa*, *Artegi* < *Altegi*, **Sagarzarra* < *Sagalzarra*.
Hona bokalarteko dardarkarien دیسیملازیواک:

<i>Abarduri</i> / <i>Abarduli</i>	<i>Badureta</i> / <i>Baduleta</i> (Ozilla)
<i>Aretxandi</i> / <i>Aletxandi</i> (Axarte)	<i>Turburo</i> / <i>Turbulo</i> (Saratsu).
<i>Marutarana</i> / <i>Malutarana</i> (Saseta)	

D < R (eta B < R) فونمەن زالانتزاک:

<i>Udabra</i> / <i>Urabra</i> (Agilu)	<i>Bidigutxi</i> / <i>Birigutxi</i> (Agilu, Saratsu)
<i>Santa Leokadia</i> / <i>Santorkaria</i> (Lañu)	<i>Zorzaido</i> / <i>Zorzairo</i> (Villanueva de Oca)
<i>Zumabia</i> / <i>Zumaria</i> (Doroñu)	
<i>Zubiaga</i> / <i>Zuriaga</i> (Doroñu).	
<i>Anturbidi</i> / <i>Anturbiri</i> (Pedruzo)	<i>Zudiaga</i> / <i>Zuriaga</i> (*Zubiaga)

B / Ğ eta Ğ / B nahasketak, orobat, bokalartean (*gutxi* / *butxi* eta bereziki - *guen* / *buen* (*Buenetxea*) delakoetan):

<i>Mendigutxi</i> / <i>Mendibutxi</i> (Imiruri, Otxate)	<i>Basagutxi</i> / <i>Basabutxi</i>
<i>Bidigutxi</i> / <i>Biributxi</i> (Saratsu)	<i>Sarragutxi</i> / <i>Sarrabutxi</i> (Argote)
<i>Sarruguen</i> / <i>Sarruben</i> (*Sarrubuen) (Albaita)	<i>Oribusti</i> / <i>Origusti</i> (Agilu)
	<i>Putxoba</i> / <i>Putxuga</i> (Ladrera).

Herskari ahoskabeak daude bokalartean. Mailegu latinoetan lat. *rotam* < errota, *spatham* < espata, < *lupus* lupubelar. Cfr. LEEE, 98 ond. Gaztelaniaz, aldiz, herskari ozenak ematen dira hitz beraletan (*rueda*, *espada*, *lobo*).

<i>Moskatorbide</i> (Moscador)	<i>Kapanaldea</i> (Cabaña) (lat. <i>capanam</i>)
<i>Kokulua</i> (Cogolla)	
<i>Ripandi</i> (lat. <i>ripam</i>)	

Ohikoa da bokalarteko herskariak (*g*, *b* kasuak) itzaltzea (*tegi* < *tei*, *Etxaberi* < *Etxarri*, *Etxabarren* < *Etxarren*, *Arribillaga* < *Arrillaga* delakoen modura). Trebiñualdeko toponimian, bestalde, *Sansogaral* > *Sansorai* (Fuidio), *Zubia* < *Zuya* (Villa Tobera), *Osagabia* < *Osabia* (Doroñu).

Talde kontsonantikoak

Euskarak, ahalik eta gehien saihesten ditu talde kontsonantiko konplexuegiak, $mn < n$, $ld < d$, $bb < p$ (lat. *sabbatum* < *zapatu*) moldeko soilketak eskainiz. Kontsonante-pilaketak anulatzeko, gainera, anaptixiak datoz maiz. Bestalde, mintzaira erromanikoen eraginez gordetzen da *mb* taldea (*ganbara*, lat. *cammaram*), *ganbelu*, *ganbela* mallebu latin-erromanikoetan). *Mb* taldea, orobat, sekundarioa da *Loma*-ren ordezkoa den *Lomba* kasuan. *Santa Kolomba* hagianimoan, aldiz, *Koloma* da formula murriztua. Bestalde, $rd < rg$ prozedura *Ardanzuri* / *Arganzuri* (Pedruzo) delakoan.

Oraindik, *Fr* (*Frango* / *Franku*), *Nt* / *Nd* (*Antoñana*, *Andoñana*) taldeak ematen dira.

IIc) Azken kontsonanteak

N sudurkaria maiz galtzen da azken posizioan:

Barraran / *Barrara* (Moskator)

Eskibil / *Eskibi* (baldin *Eskibide* /

Mendiguren / *Mendiguri* (Agilu,
Fuidio),

Eskibidi ez bada) (Saratsu),

(*La*) *Rein* / (*La*) *Rei* (Golernio).

Basaul / *Basau* (Arana), *Basao*
(Moskator).

L albokaria, orobat, eror daiteke
noiz edo noiz:

Toponimoen sailkapena

Sail bakotzari bere garantzia dagokio; horregatik, Trebiñu konderriko euskal jatorrizko toponimoen alde nabar batzuk argitan jartzen ditugu, elementu etimologikoak eta fonetikoak tartekatuz. Semantikaren esparruan adierazpen bereizgarriak seinalatuko ditugu.

1.- Lurrari atxikitako berezitasunak

a) Lurraren hanturak eta gainaldeak

Bizkarra "loma", "espalda de monte". Garadura adierazten dute, era berean, *Lomba*, *Lombas* dalakoek. *Bizkai* toponimoa

ematen da, bestalde, Argantzón eta Villanueva de la Oca aldean (eta Nafarroan *La Vizcaya* eskualdea, Aibar aldean) da. Moraza herrian *Bizkalzai* tokizena kausitzen da. Bada, gainera, Biskarrola < *Bizkárrola* delako azentu esdruxolaz gaztelaniaz. -*Ola* atzizkiak "tokia" adierazten du, bere aldetik, eta, konposakerazko zatiki bezala "sel", "cabaña", "ferrería", eta abar. Gainera, badira *Bizkarana* "valle de la loma", *Bizkargana* "alto de la loma" gisakoak.

2) *Garai* "alto", "altozano". *Garaia* Armentian, Azkartzan, Bustun eta bestetan. *Garaioste* Moskatore-n -oste "tras, parte de atrás" osagai latinoaz. *Garamuñon* kasuan, berriz, bigarren elementua *muino* "colina" izan daiteke. Ziurragoa osagaien aldetik *Garape* (*gara* "elevación" eta *pe* "cabe, bajo" elementuetatik). *Be / pe* "bajo", "cabe" antonimoak, berriz, *Murube*, *Murupe*, *Mudube* (*r < d* aldaeraz) formulak ditu.

3) *Armora*. *Zorrotza*. *Armora*-k lehen osagaien *arr(i)*- "piedra" du, eta ondoren -*mora / morea* osagaia (azken hau *morena* mailebuti datorrela). *Arnotxe*, *Almotxe*, *Ernotxi* ildo berekoak izan daitezke.

Ertaroan *Morondo*, *Moronda* (*Mora ondoa* 1248 urtean) erro beretik, batzuetan, *more(a)* < *mur* bilaka daitekeela ixtura bokalikoaz. *Armurea* Ataun-en (Gipuzk.). Cfr. *P. Oroz Arizcuren*, BAP XXVI (1970) 411-413), *L. Mitxelena* FLV (1969) 25, ss. Trebiñualdean *Marcuero*, *Marcueros* (Moraza, Saratsu) iturri erromaniko batetik. Lp Gereñu-rentzat *almora* "majano, montón de piedras sueltas" da.

Zorrotza "agudo" elementua dago, bestalde, *Zorrotzia* -Panguako lekuizenean-, bestetako *Zorrotza*, *Mendizorrotza* (eta *Monteagudo*, *Montagud* erromanikoen) segidatik.

4) *Mendi*. Hedadura handia du Trebiñualdeko toponimian, batzuetan, gaztelaniako *monte*-k *Montaspia* bezalako hibridoak sortzen dituela. Nahasketa bera *Monterana*, *Montaran* (Añastro) kasuetan.

Alpatzekoak dira, orobat, *Mendiguren* (*Mendiguri* > *Mendigurin*), *Mendigurenoste*, *Mendigurria* (**Mendigorria*), *Mendiloste* (**Mendibil-oste*) "tras el monte redondo", *Mendoste*, *Orramendi*, *Somendi* (hemen ere hibridoa, lehen elementua so- "debajo de" erromanikoa dela), *Talamendi*, *Zalmendi* (ausaz, **Zaldimendi*), *Lakumende* "monte de la laguna" (azken bokalaren asimilazio beheranzkoaz). Orobat, nabarmen da *-mendi* *Burumendi*, *Marumendi* "monte de moros", *Armendil*, *Armendila*, *Aramendi*, *Kukumendi* delakoetan.

5) Ate "entrada (puerta)", "paso de monte", "garganta o estrechadura de un valle, desfiladero" (Iribarren); *-ate-k*, bada, *mendi* edo beste leku estu baten sarbidea adierazten du. Hori islatzen dute hurrengo toponimoek: *Atazabal* (despopulatua), *Narate* (Mesantza), *Uriatxate* (Agilu, Marauri), *Loiate* (Meana), *Olarte* (Ozana), *Otxate*. Kontuan izatekoa da *-arrate* kasuan *-arri* "piedra" elementua, batzuetan, "puerta rústica de campo...", "seto" ere adieraz dezakeela.

6) *Sabel*, *obi*, *arru*. *Sabel* "seno", "cavidad (de terreno)" da *Mutusabela* (1666 urtekoa), *Usabel* (Ozilla) delakoetan antzera. Lat. *caveam* du iturritzat *-gabi* terminoak *-Osagabia*, *Osegabia*, *Sagabia-* (nahiz *Usabiaga* kasu batzuetan *usa* "terreno comunal" ere izan daitekeen). Orobat, *Aranobi* (Marauri), *Estobiza* (Marauri). *Arru* / *arro* "barranco", antza, *Arroko* (Azkartza), *Arrua* (Saseta), *Arrutxi* (Arrieta), *Arronarte*, *Rutiaran* (**Arrutiaran*) delakoetan.

7) *Goba*. *Lezea*. Bi terminoek "cueva", "sima", "abismo" adierazten dute. Jatorrian *goba* hitza latin-erromanikoa da lat. *covam*-etik lehen kontsonantearen ozenduraz; *leze*, berriz, euskalduna da, maiz, txistukari aurretiko diptongazio sekundarioaz (hots, *leize* formulaz). Lehenengoaren ildotik *Gobe* (Dorónu) eta *Gobea* (Fuidio), eta bigarrenetik *La Leza* (Paritza), *Leziaga* / *Laziaga* (Caricedo) -azken hau asimilazio goranzkoaz-.

8) *Atxa*. *Arria*. *Atxa* "roca", "peña" mendebaldekoa da txitxeakatzeaz eta monoptongazioaz. *Aitz-* ekialdeko formula, berriz, *Aispe* (Ozana), *La Aispe*, *La Ispe* (diptongoaren murriz-

ketaz) kasuetan agitzen da. *El Espia*, *Lespia* kasuak, berriz, *La Aizpea* baten trakesturak dira. Atx mendebalekotik *Atxondo* (Saseta), *Atxoste* (Dodoniz), *Atxiturri*, *Latxiturri* (* La Atxiturri) (Golernio), *Latxuri* (Sanmartintzar). Osagai bera *Aspidia* (Masantza), *Aspiarte* (Argote), *Axarte / Ajarte* (herria) kasuetan. Arri- "piedra" osagaia dago *Arpidia*, *Arlusa* (*Aloza), *Armendil*, *Arralde* (Arrieta, Doroñu, Marauri), *Arraturi*, *Arriaran*, *Arzuria* "piedra, peña blanca" (Baxauri) (*Urzuria* asimilazio bokaliko goranzkoaz), *Arza* (Marauri), *Arzibide*, *Arrieta* (herria), *Almora* kasuetan. *Armentia* (herria) delakoan, aldiz, probableago da lat. *armentum* -beste *Armendariz*, *Armentegi*, *Armentero* (Gaztelan), *Armenteiro* (Galizia) delakoen ildotik-.

9) *Aran*. *Aran* "valle", dudarik gabe, euskal toponimoetan osagai sarrienetakoa da. Bere alboan *valle / val* elementuaz sorturikoak ere joriak dira. Batzuetan, tautologia ematen da *Vallarana* tokizenean bezala. Orobat, hitz nahasiak dira *Valde-rrutia* (Azkartza, Uzkiario), *Valdealguerra* (ausaz, euskal agerrenen ildokoa), *Valdebelarra* (Baxauri), *Valdegorta* (Marauri), *Aramayor* (*Bustu*) kasuak.

Aran-en presentzia nabaria da -*bide* (*bidi*, *bede*) osagaiari lotutakoetan. Orobat, *gatxa*, *txipi*, *guti* (*gutxi*, *butxi*) izenondoel atxikia agertzen da, maiz, -*aran* delakoa. Gainera, *Arantzanzarte*, *Nanzarte*, *Aramakotxa* (**Aranbakotxa*) "valle único", *Aramendi*, *Aranbe*, *Aranobi* "cavidad del valle", *Barraran* (Moskator), *Berrokaran* (seguraski, berro "jaro," "lugar húmedo," "seto", "zarza" polisemikotik). *Iturri* osagaia *Iturran*, *Turran* delakoetan. Eta, oraindik, *Perraran* (*herrán* gaztelaniarraren jatorritik, iturrian lat. *farraginem* dagoela), *Parraran*, *Lonbieran*. *Larrikoarean* (*La Recuaran*, *La Rikuaran*, lehen osagaia **larreko*-bide dela), *Justaran*, *Lejaran* *(*E*)*lejaran* "valle de la iglesia"-ren sinkopa), *Palaziaran*, *Remelaran* (*Herramel* antroponimoaren segidatik, antza, *Herramalluri* bezala), *Riparan* "valle del paraje costanero", *Solaran*, *Zurbaran*, *Villaran* "valle del la villa", *Sarrikoaran* "valle de la espesura", eta abar.

10) *Ibarra*. *Ripa* (*Erripa*). *Landa*. Kontzeptu hauetan lur-gunea, eta lur-geruzaren depresioa –ala garaidura– adierazten da. Gaztelaniar *Campete*, *Campillos*, *Campera* delakoek euskararen eremuan *landa* “pradera” (Baraibar), “campo o pieza de terreno” dute ordain; *landa* hitza, berriz, ezaguna da beste hizkuntzetan ere (*hots*, *Ireland*, *Nederland*, *Ingland* ezagunetan).

Tipologia horretakoak dira *Barrikolanda* (Ozana), *Restikulanda* (Saseta), *Mikolanda* (agian, **Bekolanda* / **Mekolanda* batetik), *Landaurrea*, *Landaluz* (Samiano, Torre), (*El*) *Andaluz Landaluz*-en trakestura), *Landaluzia* (Andaluzia), *Landabia*, *Landa-barre* (*Landabarri*-ren aldaera azken bokalaren irekiera berantaz) (Ozilla), *La Landa* (Arana). *Langorri*, *Langurria* delakoetan, aldiz lehen elementua *lan*- “cultivo (trabajo)” da, normalki. *Ibarra* “vega” presente dago, bestalde, *Ibarrate* (Ogeta), *Ibarra* (Grandival, Argote, Franku) tokizenetan. *Barrikolanda* izan daiteke *(*l*)*barrekolanda* baten sinkopa, eta, orobat, *Barrondo* (*l*)*lbarrondo*-rena (Ozilla).

Ripa latinismoak (*ripam*) “paraje costanero, terreno en declive” espresatzen du, gehienetan, dardarkari aurretiko protetikarik gabe *Riparan* (Caricedo), *Ripandi* (Grandival), *Ripela* (Dordoniz), *Zagarripa*, *Ripoitia* (**Ripa* goitia) kasuen modura. *Cuesta Repoita* (Arana) gaztelaniarra hemengoaren erreferentzian ematen da.

Las Arras (Arrieta) (*Iribarren*-ek *arras* “planicies sin vegetación de las crestas del Pirineo” bezala) dakarrena da. *Arrasko* baliteke *larratz* “terreno baldío” terminoaren hondarra izatea -lehen silaba berriro, artikulatu erromanikotzat sasi-interpretatuta (**La Arras* > *Larratz*).

Koloreak agertzen dira lurraren deskribapenetan (*zuria*, *baltza*, *gorria*). *Gorri*- “rojo, colorado” osagaia du *Ligorria* (*Lugurria*) tokizena. Ildo berekoak dira *Gorritoste* (Agilu), *Gorri-txoste* (antza, -txo eta -oste elementuez), *Guarizpe* (agian, **Gorriaispe* batetik) (Zurbitu). *Zuria* “blanco” *Atxuri* kasuan dago, eta *baltza* “negro, oscuro” *Rebalza*, *La Rebalza* (*Larre-*

baltza "dehesa negra", *Rabalza* (**Larrabalza*) delakoetan. Gaztelaniaren eraginak hemen *larre* terminoaren lehen elementua artikulatu erromanikotzat hartu du. Bada, orobat, *Baltxu* Caricedo-n azken silaban *-zu* ugaltasunezko atzizki bustia dela (baldin **Zabalzu* baten hondarra ez bada)–.

14) *Guti / gutxi. Handi. Txipi. Zabal. Luze.* Kontzeptu guztiok lurraren eitearekin zerikusia dute. "Menor" ideia esprezatzeko Araban *gutia* (*gutxia / butxia*) elementua erabiltzen da. Tipologia horretakoak dira *Aranguti* (Armentia, Bustu), *Arangute* (azken bokalaren irekieraz), *Mendibutxi*, *Mendibutxe*. *Txipi / txiki* "pequeño", berriz, *Arantipi* (Obekuri), *Arantxipi* (Obekuri), *Txikita* kasuetan. Bere antonimoa *handi* "grande" da, *Ripandi* (eta *Ripondi*, *Ripendi* trakesturaz) ematen dena. *Zabal* "ancho, extenso" delakoak hedapen gehiago du, *Zabalaguerra* (Albaita, Lañu), *Zaballegi*, *Zabala* (Arana, Argote, Caricedo), *Zabaleria* (Zaballaria) (San Vicentejo) kasuen modura. *Luze* "largo" nabaria da *Mendiluz*, *Landaluz*, *Landaluzia* (Andaluzia trakesturaz) tokizenetan.

II.- Lur-azalaren beste toki-zehaztapenak

Sail honetan tokiaren beste zehaztapen topografiko zehatzak –kokagune fisikoarekin zerikusia dutenak– sartzen ditugu, hau da, *aurre* "delante", *oste* "tras, detrás", *arte* "entre", *goi*, *goiti*, *gain*, *gan* "alto, encima", *be*, *pe*, *azpi* "cabe, debajo", *-alde* "al lado", *ondo* "junto, cerca" bezalakoak.

Alde kontzeptua lehen elementu bezala ematen da *aldai* kasuan (*alde-* gehi *-ai* "repecho, cuesta" elementuetatik); bigarren osagai modura ageri da bestetan, *Basalde* (Dordorniz)", *Basaldia* (Kutxu), *Sagarraldia* "paraje de manzanas", *Presaldia*, *Mezalde* (Mezanzalde?), *Gindalde* "paraje de guindos", *Elejaldia* "paraje de la iglesia", *Kapanalde* "paraje de la cabaña", *Urialde*, *Sarraldia*, *Rekalde*, *Iturralde*, eta abarretan. –*Ondo* "lado, junto a" dugu osagai *Allondo* (Burgeta), *Basondo*, *Ba-*

rondo ((l)barrondo ?), Morondo / *Morondoa, Atxondos (Saseta) "junto a las peñas" tokizenetan.

Arte "entre", "espacio intermedio", noiz-noiz, aurrezarria ager daiteke (ertaroko Artekale kasu ezagunean bezala), baina bigarren posizioa da ohikoena berea, *Supitarte* (Fuidio) "entre puentes", *Larrarte* "entre dehesas", *Mendarte* (Ozilla, Villanueva de Oca), *Buriarte*, *Arananzarte*, *Atxarte* (Ajarte) "entre peñas", *Sarrarte* (Imiruri, Otxate), *Basarte* (Ozana, Trebiñu) delakoen erara. Formula arkaikoetan *aurte* diptongoduna ematen da *Rekaurte* deiturak islatzen duenez. Cfr. L. Michelena, Apellidos vascos, 58.

Aurre "delante" atzezarrria agitzen da *Zubiaurre*, *Lindauarra* (**Alindorra*, azken bokalaren apofoniaz), *Kruziaurro* (**Kruziaurre?*) kasuetan. Oste antonimo latinoan, berriz, sarriagotan ematen da: *Arrioste* (San Vicentejo), *Torrigoista*, *Turrustia* (Obekuri), *Mendioloste*, *Mendoste* (Saratsu), *Lejoste* (**(E)lejoste* "tras la iglesia"), *Garaioeste*, *Armostia*, *Atxoste* (Dordoniz) "tras la peña", *Lintoste* (Ozilla), *Garrapetostia* (Agilu), *Gorritxoste* (Agilu), eta abarretan.

Goi- "alto, arriba" ideiarekin loturik daude *Goikoa* (Albaita, Zurbitu) eta *Goitia* (*Barangotia* / *Barrangoitia*, *Marrangoitia* (ez-painkariaren aldaketaz) (Pedruzo). Kasu batzutan *-goiti* osagala *-gotxi* bilaka daiteke "menor" esanahiaz, Aiaraldean gertatzen denez. *Be(h)e*, *be* / *pe* "de abajo, so" antonimoa dute, berriz, *Murube* (*Mudube*), *Rotabe* "cabe el molino" (Fuidio), *Sagarbe*, *Uribe* (*Oribe*) "cabe el poblado", *Arbe* "cabe la piedra" (Moskator), *Arbea*, *Ormabe* "cabe la pared", *Arroiabe*, *Ogapia*, *Aranbe* (Araiko), *Mugape*, *Usabia*, *Parranbia*, *Larrinbia* / *Rinbia*, *Reinbe* "cabe la era" (Lañu), eta abarretan. *Aspe* kasuan "cabe la roca, sopeña" kontzeptua ematen da (*Lespia*, *Espea* bere aldiak izaki). Aldi berean, *barrena* "de abajo, extremo inferior" delakoa *Alzabarrena* "aliso de abajo" (Lañu) kasuan. Aurretiko *-be*, *-pe* osagaien ordainak dira *so-* erromanikoa, eta bera agertzen da *Sorrundia*, *Somendi*, *Solarrein* "cabe la era" hibridoetan. *-Bera* "de abajo" noranzko deklinatiboa bide dago

Udabra **Udabera*, *Mugabra* **Mugabera*, *Basabra* tokizenetan (zeinetan gaztelaniar azentu azkarraren eraginez itzali dira tar-teko bokalak).

III.- Hidronimoak

Hidronimiarekin zerikusia duten tokizenetan *-ur* "agua", *iturri* "fuente" eta *madura/ padura* terminoak azaltzen dira, gehienik. *Ibai* "río" delakoak garadura tipiagoa du, eta presente dago *Ibatate* (Dordoniz), *Ibaiate* (Marauri), *Buzibai* (Fuidio), *Bayas* (**Ibaias*) (Morgas) delakoetan. Lat. *recare* jatorria duen erreka-k protetika galtzen du gehienetan (*Rekalde*, *La Reka*, *Rekabide* kasuetan, adibidez, erreka horrek "arroyo", "álveo de un río o arroyo" adierazten duela).

Bere euskal ordain arkalkoa *latsa* da, *Lasa* (Albaita, Grandival, Paritza) eta *Lasura* kasuetan (azken hau *lats* + *ura* osagalez). *Erreka*-ren ildokoa da *regatxo* "regato"-ren aldakia batzuetan, *regacharse* "formar pequeños charcos" ezaguna izaki Murtzian. Lagran-en ere bada *regacho* "canal estrecho para regar" (Lpz. Gereñu) delakoa, euskal formularen hurbiletik.

Ur "agua" islatzen da *Urbiaran* (Villa Tobera), *Urbina* (Trebñu), *Sallurbi*, *Ubide* "Torre) kasuetan -eta *Ibia*, *Ibiza* (Mesantza) tokizenetan *ur*-ren aldaki den *i* arkaikoa, probableki). *Ur*-en garadura islatzen da hurrengoetan: *Usabel* "hondonada de agua" (*Isabel* trakesturaz, antza) (Zurbitu, Ozilla), *Uralde* (Araiko), *Uraga* (Doroñu), *Ugarzabal* (Imiruri), *Urgazia* (Orgazia) (Lañu), *Urate* (*Ulastre*) (Agilu, Marauri), *Orazandia* (**Urazandia*, seguraski, *urez andik* "allende el agua" espresatuz), *Uratxita*, *Urabras* (*ura* + *bera* elementuetatik, seguraski), *Uarca* (*Ora-rka*) "depósito de agua", *Urtiaga* (Albaita), *Urtiana* (Obekuri), *Uruña* "lugar aguanoso" (Marauri).

Osin zaharraren aldaera erromanikoak *putzu*, *potxu*, *pozu* dira. Azken hau datza *Puchoba*, *Puchuba* (Ladrera), *Pozarrate*

(Ozana) kasuetan. *Txorroba* kasuak, bestalde, gazt. *chorro*-ren formula du, eta ildo berekoak dira *Txorrea*, *Txurrugutxi*, *Txorreta*, *Txorrotas*, *Txorrote* "cascada pequeña", "salto de agua" adieraziz.

Ubide-ren segidakoak lirateke, agian, "canal" adieraziz *Isunza* (Agilu), *Ismuza* (?), *Isusa* (Uzkio) *isun* "canal"-etik. Cfr. *Pedro de Zabala*, BAP IX, 256 or. *Iturri* "fuente" terminoak garadura berezia du Trebiñualdeko hidronimian ere. Gaztelania-ko *Fuentecica*, *Fuentefría*, *Fuente Salada* hidronimoen ondoan, aipatzekoak dira *Iturrate* (Ogeta), *Iturraran* "valle de la fuente" (Azkartza), *Iturritxu* (Axarte), *Iturrubea* (asimilazio beheranzkoaz), *Eskiturri*, *Lititurri*, *Maniturri*, *Pikiturri*, *Tallauturri*, *Sauturri*, *Zamauturri*, *Zamaturri*, *Lapiturri*, *Atxiturri* "fuente de la peña", *Basiturri* (eta, orobat, lehen bokala galdua duten *Turrustea*, *Turrizabala*, *Turrita* "fuentecita", *Turriverde* hibridoa, *Turburu* "manantial").

Azkenik, hidronimoetan sartzen dira *madura* / *padura* "terreno húmedo", "terreno pantanoso", "terreno llano a orillas de arroyos y ríos" delakoak lat. *paludem*-etik, hau da, *Artemadura* "terreno húmedo de encinas", *Madureta*, *Madurea* (eta *Badureta*, *Baduleta* aldakiak), *Saspadura* (Villa Tobera) (agian "terreno húmedo de sauces"), *Sartamadura* (Argote), *Paduria* (Caricedo, Imiruri).

IV.- Fitonimia (zuhaitzak, zuhaixkak, landareak)

Lehenik, euskal toponimia nagusian ohikoak diren *ametz*, *azkar*, *arte*, *zumel*, *aretx*, *sarats*, *urki*, *sagar*, *okaran*, *biku*, *ezki*, *gorosti*, *haltza*, *zumar* / *zugar*, *pago*, *intxaur* delakoak dira aipatzekoak. Eta, ondoren, *kuskulu*, *gindondo*, *ezkur* "bellota" eta "árbol" (arkaikoa) bezalakoak.

Tantaien eta zuhaitzen gunen den *baso* terminoa maiz azaltzen da (ipar eta ekialdeko oihan-aren ordeztu). *Basalde* (*Bajalde*), *Baxauri* (*Bajauri*), *Basabutxi*, *Basabia*, *Basiturri*, *Urtaba*

so. Aratz "árbol podado"-k *Arastuia* (Albaita) eman du (eta *chirpial* erromanikoa ere bai). "Lugar espeso, espesura" esprezatzeko, berriz, *sarri* agitzen da, eta bere errotik datoz *Sarrikoaran* (Marauri), *Sarduia*, *Pitisarri* (Billa Tobera), *Sarributxi* (Ogeta), *Sarria* bezalakoak. *Sarrarte*, *Sarrate* delakoetan ere *sarri* bide dago –eta ez sagar–, Nives Sánchez-ek adieraziriko lritziaren aurka, op. c. 241).

IV a) Zuhaitzak eta fruta-arbolak

Ametz "quejigo, melojo" *Mezalde* (**Amezalde* agian, lehen bokalaren erorketaz), *Amestuia* (Fuidio), *Ameztuia* (Baxauri) delakoetan. Bere familiakoa da *areitz / aretx* "roble" ezaguna *Aletxandi*, *Alitxandi* ($r < l$ disimilazioaz), *Aritxandi*, *Arestuia* (Saseta) kasuetakoa.

Arte "encina" gaztelaniar *Encinilla*, *Encinal*, *Encinabete* toponimoen ordaina da. *Artaza* (Saratsu), *Artiaso*, *Artemadura*, *Artimendi* (Obekuri), *Artazoste* "tras Artaza", *Artikuzila* delakoetan agertzen da.

Koskullo, *Kuzkullo* (Grandival) tokizenak lat. *cusculium*-era garamatza "coscojar, carrasquilla" esprezatur. Aizkibel-ek bere hiztegian *kuskullu*-ren hurrengo esangura dakar: "Especie de encina pequeña cuyas hojas son espinosas y en su corteza se forman dichos granos...". Hurbiletik *zumel* (Sanmartintzar) *zur-eta -bel* "oscuro" elementuetatik "carrasca, coscoja" (Azkue) adieraziz. Bere eratorri eta konposatuak *Zumelso* "coscojal", *Sumeltzu* aldakia (San Vicentejo), *Arzumel* (Taravero) dira. *Chaparro*, aldiz, arrotza da, hots, aurrelatinoa, nahiz terminoa euskararen esparruan ere *txapar* modura onartua den.

Azkar, *ezkar* "arce" sarritan ematen da Arabako toponimia orokorrean. Bere errotik datoz *Askarreko* (Axarte), *Askarrio* (Burgeta) -*askarro* arruntaren parekoa-, *Askartza / Azkartza*, *Askarzalabide* (**Arkarzarabide* "camino hacia Azkartza"), *Eskarraran* (Armentia) "valle de arces", *Eskarralde*, *Eskarbete* (Agi-lu). Kontuan izatekoa da, orobat, *ihar* "arce de España" *Igarra*,

Igarro gisa katastroan ageri dena, eta jatorrian *ihar / igar* "seco, marchito" hitzaren ildokoa, antza.

Pago "haya"-ren arrastoa Trebiñualdeko toponimian murrizta da, *Faido* eta *Paguzabal* "haya ancha" urri diren kasueta-koak direla.

Intxaur "nuez, nogal" *Intxorta*, *Intxuerta* kasuetan (azken hau diptongazioaz **Intzaurta* ordez, gaztelaniar *ue* diptongoaren eragina bide duela). *Isaustia* (Saseta) toponimoak ere hemengo erro bera bide du **Insaustia* batetik "noceda" esanguraz (eta horretara bultzaten gaitu *-au* diptongoaren presentziak, ze **Isasi*-oste delakoak ez luke aipaturiko diptongorik berean).

(H)altza "aliso" presente dago *Alzabarrena* "aliso de abajo" (Lañu), *Alzabastera* "rincón del aliso" delakoetan. *Alsarzia* (Albaita) kasuan, aldiz, egitiagoa da *artza-* "pedregal" (*Artzartia?*) *r < l* disimilazioaz.

Leizar, *lexar* "fresno" Ozillako *Litxarra* tokizenaren erroan datza (baina gaztelaniar *Fresneda*, *Fresno*, *Fraxinillas* (Argantzón, 1724) gaztelaniarrak ugariagoak dira).

Sagar "manzana, manzano" fitonimoak garadura du Trebiñualdeko toponimoetan. Honela, *Sagalzarra* (**Sagarzarra r < l* disimilazioaz) (Dordoniz), *Sagarduia* (Albaita, Fuido, Imiruri...), *Sagartuieta* ("sagar- gehi -tui + -eta atzizki pilatuetatik), *Sagarraldia*, *Segarra* (**Sagarra*) (San Vicentejo, Uzkio), *Sagarmin* "manzana silvestre o ácida", *Sagarbe*, *Sagarduri* (*Sagardui?*).

Araikoko *Sastikuralde* eta *Sastilatxi* toponimoetan, berriz, lehen osagaia *sa(g)asti* "manzanal" bide da.

9) *Ginda*, *okarana*, *bikua* fruta-arbolak. *Gindo*-tik *Gindalaran* (Zurbitu), *Gidalde* (*Gindale*, *Ginalde*) *-alde* "paraje, lado" osagaiaz-, *Gindeta* (Moraza, Taravero). "Ciruela" mendabaldeko euskaretan *okaran* da, eta bertatik *Okaranbe* (Imiruri), *Okarana* (Grandival), *Ukarana* (eta *Bokarana* protesizunaz). *Biku*, lat. *ficum* delakotik, *Pikuza* "higueral", *Pikutxa* (San Vicentejo, aldaki bustia), *Pikozabal* (Marauri), *Bikoaran* "valle de higos" (Marauri) kasuetan.

IVb) Zuhaixkak eta landareak

Ur "avellana" eta urritz, urretx "avellano" delakoetatik *Ur* (Zurbitu), *Urralde* (Saratsu), *Urretxu* (Meana), *Laurri* (La Urria ?) (Otxate), *Urrola*, *Urrarana*.

2) *Zara* "jaro" delakoa *Zarate* toponimo ezagunean.

3) Gaztelaniar *Mimbres*, *Mimbreras* delakoek *Mimenza* (lat. *vimem*) dute ordain (*Saseta*), eta, orobat, zume-tik *Zumaria*, *Zumabia* (**Zumabea*) (Doroñu), *Zumabide* (Imiruri), *Zumeta* (Imiruri-Otxate), *Zumea* / *Zunberas* (Dordoniz).

Gardua, *Elorria*, *Ira*. *Gardu* "cardo" lat. *carduum*-etik *Garduza* (Imiruri, Otxate), *Gardunza* (Albaita), gaztelaniazko formula dela *Cardal* (Fuidio). Bestalde, Trebiñualdean ezaguna da *carduguera* hitza, bestetako *gardabera*, *gardanbera*-ren aldaki traketsa. Cfr. *Nieves Sánchez*, op.c. 130.

Elorri "espino"-tik, berriz, *Lorza* (**(E)lorza* (Albaita, Imiruri)-tza ugaltasunezko euskal atzizkiaz, eta, orobat, *Lorduia* **Elorduia*-ren sinkopa (*La Orduya*, *Larduya* aldakiak ere ematen direla artikulu erromanikoaren nahasketaz).

5) *Isasia*, *otea*, *zamaka*, *galarra*. *Isasia*-ren oinarrian *isats* "retama" datza, nahiz semantikoki "retamal" esanhalaz gain, "jaro" ere adierazten duen. Bere ildotik *Isabia*, *Isabe* (Atxarte), *Isoste*. Bestalde, *Ota* "aullaga, argoma" dago *Otakaza* (Uzkio), *Otakal* kasuetan, *-ka* txikidurazko euskal atzizkia dela (eta *-al* *perritxikal*, *Osinal* delakoetan ere agitzen den atzizki gaztelaniarra). *Otabra* (Dordoniz) tokizenak, bere aldetik, *Otabera*-ren sinkopa du postonikoaren itzalketaz. *Zamaka* (Azkartza, Arrieta), berriz, "alfombra de grama, hierba rastrera que en otros sitios llaman grama" da, agian, euskal *zamar*-en ildotik. *Galar* "leño muerto en el árbol mismo" terminoak *Galarza* (Caricedo, Imiruri, Mesantza...) eta *Galarzika* eman ditu, azken hau *-ica* txikidurazko atzizki erromanikoaz; eta, orobat, *Galardeta* (Imiruri) eta *Galarga* (azkena bokal postonikoaren erorketaz).

V.- Komunikabideak

Beste eskualdetan bezala, *bide* (*bidi*, *biri*) terminoak hedadura bizia du, batez ere, herri batetik besterako tartearak eta norantzakoak adierazterakoan. Batzuetan, *-ra* deklinatiboaz (eta *-la* disimilaziodunaz) hornituak azaltzen dira toponimoak (*Askarzarabide* < *Askarzalabide*, *Vitoriabide* < *Vitorialabide* kasuen modura). *Bide* osagaia dute hurrengoek ere: *Faidobide*, *Faidubre* (**Faidubire*), *Aguillobide*, *Urtatebidia*, *Frankudia* (**Frankubidia*) *Frankubede*, *Vitorbide* (**Vitoriabide*), *Uribiria*, *Moskatorbide*), *Villarbide*, *Billabidi*, *Nubide*, *Nubede*, *Kruzibidia*, *Anturbidi*, *Bidigutxi* "camino menor", *Arbiri*, *Iribiri*, *Gallibide*, *Olbide*, *Zumabide*, *Zumaida* (apofoniaz), *Arpidea* "camino de piedras", *Azpidia* "camino de rocas", *Repida*, *Repide* (*erret-*bide* "camino real"), *Bidarte*, *Uspidia*, *Biraza*. *Lindaurra* (Lañu), berriz, etor daiteke artikulu erromanikoaren deglutizioaz euskal *inda* "senda"-tik, eta *Ziorras* (Kutxu) *zi(d)or* "sendero"-tik. *Kalzarra* (Arrieta, Bustu...), bere aldetik, *calzada* erromanikoaren (*galtzara* euskaraz) aldaera da. Esan behar da XVII-XVIII mendetako *-bide* anitz XVIII-XIX. mendetako izendegietan gaztelaniazko *camino* (hots, *Camino de Fuidio*, *Camino de Aguillo*, *Camino de Franco* gisakoa) bilakatu zela, euskal hinkuntza zahararren ordezkatzear. Gaztelaniar *camino* eta *senda* delakoez gain, bada *carra* osagaia (*Carramolino*, *Carralafuente*, *Carraladrera* delakoa). *Cara* o "que mira hacia..." espresatzen duen aldaera horren ordaina euskal toponimian, orobat, *-begi* / *-pegi* (*Eguzkibegi*, *Izpegi* modukoa) izan ohi da.

VI.- Eraikuntzak

Zubi "puente" delakoa datza *Zuia* delakoan. *Zuia* Araban 1457 urtean, *Zuyate* (Imiruri, San Vicentejo), *Zuriarena*, *Arzubia* "puente de piedra" (Pedruzo, Zurbitu), *Marikuzubia*, *Kuzubia*, *Zuieta* (Caricedo), *Garanzuieta* (Saseta), *Zudiaga* (Doroñu)

(ezpainkaria hozkari bihurtuaz), *Zubiakotxe* (Uzkio), *Zubigote* (Grandival).

Orma "pared" lat. *formam*-etik *Ormabe*, *Ormatxa* (**Ormaetxe*), *Ormarian* (Villa Tobera), *Ormazabe* (Pedruzo) toponimoetan. Bestalde, ugaltzen dira *tximisoa*, *tximisu*, *tximijoa* terminoak (aldaki berantena azkena dela txistukariaren belarizazioagatik). Toponimian *Tximijua* (San Vicentejo), *Tximijo* (Morgas), *Tximitxo* (Añastro) kasuetan; bere etimologia zimitz "fleje" gehi *-zu* (*-so*, *-jo* atzizkietatik) dator, "tejido de seto que hace las veces de barandado" espresatuz.

Torre agertzen da, bere aldetik, *Torroziaga* (Doroñu), *Torroziya*, *Torrigostia* (**Torrekoostea* "paraje tras la torre"), *Torrigotxi* (Agilu) "torre menor" kasuetan (baina, batzuetan, *torri*, *turri* delako formulak (*i*)*turri* "fuente"-ren segidakoak ere izan daitezke).

Capannam maillegu latinoak presentzia garbia du *Kapanaldea* (Saseta) kasuan, eta *Kanpalandea* eta *Kanpalandia* ere erro berekoak dira, nahiz *campa*-rekin nahastekatu.

Etxe "casa", azkenik, *Txabarria* (Moskator). *Etxabia* (Albaita), *Uraletxe*, *Buraletxe*, *Ormaetxe* (Kutxo), *Exabide*, *Itxabia* (Dordoniz), *Txartia* (Torre) toponimoetan agitzen da. Ikusten denez, *etxe* osagaiak maiz galtzen du hasierako bokala.

VII.- Nekazal kulturako tokizenak

Lanbarri (San Matin Galvaringoa) eta *Lanbarris lan*- "trabajo", "cultivo" eta *-barri* "nuevo" elementuetatik. Solo mendebaleko aldakia da lat. *solum*-en eratorri erromanikotik. *Solandi*, *Orisolo* (Fuidio), *Lañosolo*, *Batxisolo*, *Botosolo*, *Arransolo* (Villa Tobera), *Argotesolo*, *Abaisolo*, *Amasolo* (Obekuri), *Gramasolo* tokizenetan nabarmen da.

Erein "sembrar" aditzetik dator, berriz, *Erenza* (Argote) "sembradio" -za ugaltasunezko atzizkiaz).

Ortueta, Ortondo (Saratsu), *Oturbura* (Otxate) (*Ortuburuatik* metatesiaz) lat. *hortum*-en errokoak dira. *Oturba*, antza, **Ortuburua* baten sinkopa trakestua da.

Ardantza "viñedo" *Ardanzuri* (Armentia, Pedruzo), *Ardanza* (Baxauri, Doroñu) delakoetan burutu da -*Viñuelas, Viñas* erromanikoen ondoan-.

Gainera, Galtxurika, Galtxuria gari < *gal* "trigo" eta -*zuri* / *txuri* "blanco" osagaietatik ematen dira, eta, agian, *Garipochas* hibridoan osagai bera gertatzen da, hots, *gari* "trigo" delakoa.

Larrein / **larrain*-ek, jatorrian *larra-* eta -(*g*)*ain* osagaietatik, "era" adierazten du. Gehienetan, arabar toponimian *La Rein*, *La Rin* (eta *Rain*, *Rin* sollak) lat. *ferrago* / *ferraginem*-en erroa duen *herrén* / *herrán* gaztelaniarra datza. Gaztelako *harrein*, *herrañes* delakoak ezagunak dira, eta Errioxan *herrén* arkaikoa. *Herrén* hori "sitio en que se siembra" (DRAE) da, eta, hurbilagoetik "heredad cercada sita cerca del pueblo". L. Gereñu-k, bere aldetik, "*herrán* "heredad al lado de la casa", "*rain*, pieza o heredad inmediata a la casa" esanahiak dakartza. Beraz, batetik euskal jatorria duen *larrain* / *larrein* "era, plazoleta" dugu, eta bestetik *herrén* / *herrán* gaztelaniarra.

Trebiñualdean hurrengoak azaltzen dira: *Larrindia* (Albaita), *Larrinbia* (Lañu, Otxate)(agian, **Larrainbea* batetik "cabe la era" adieraziz), *Larreina* (Doroñu), *Larreniga* (Arrieta), *La Reinbe* (Mauri), *Las Reines* (Kutxu, Obekuri), *La Rina* (Baxauri), *Raigrande* hibridoa (Taravero), *Larrinza* (eta *Rinza*, seguraski, **larr(a)inza* batetik), *La Rein* (Agilu, Axarte, Azkartza, Kutxu, eta abar), (*La*) *Rei* (**La Rein*) (Golernio, Uzkio). Bestalde, *Perran*-en ildotik *Parraran* (Doroñu), *Perranbia*, *Parranbia* (Ozilla, Ladrera). *Barranbia* delakoak goian adierazitako *herrén* / *herrán* erromanikoen errokoa dirudi *h* < *p* disimilazioaz (lat. *ficum* < *piku*, *fenilum* < *mihilu* kasuetakoaz).

VIII. Ekintza eta mineral desberdinei atxikitako toponimoak

Industriaren esparruan *Rotea* (Bustu), *Rotaldia*, *Rotalde* (Agilu, Azkartza), *Rotabin*, *Rotabe* (Fuidio), *Rotikoaran*, *Rotikaran* (Trebñu) modukoak lat. *rotam*-ekin lotzen dira "molino" adieraziz, eta, oso maiz, euskarazko protetikarik gabe azaltzen dira. *Borun* / *burum* aldakiak > lat. *molinum*-etik, bestalde, azalpidea du *Borunbide*, *Burunbide* (Trebñu) kasuetan (*Borunbide* ahanzi gabe).

Mina-ren segidakoak dira *Minasarra* (Azkartza), *Minbide* (Taravero) tokizenak, eta *Ikatz*-rena *ikaztobi* "carbonera" (eta Argoteko herrian *Gastobi -obi* "hoyo" formulaz lat. *foveam*-etik).

Gaztelaniar *La Calera*, *El Calero* ezagunek *Karobia* (Albaita, Pedruzo) ordaina dute, eta *karea* terminoak *Kariaran* (Albaita), *Karearan* (Fudio), *Karialde* (Trebñu) tokizenak sortu ditu. *Gobela*-k, berriz, "cal viva" adierazten du *Gobela* (Agilu), *Gobeloste*, *Gobetoste* (Imiruri), *Gobeaurra* kasuetan.

Burdina-ri lotua dago, bere aldetik, *Burdiniga* (Doroñu) gaztelaniar *Las Herrerías*-en ordaina. Hurbiletik datoz *ola* polise-mikoaz (ferrería, sel, cabaña...) *Olabari* (Imiruri), *Ollabari*, *Olate* (San Vicentejo), *Olaza* (Moskator), *Olbide*, *Olaisolo* (Obekuri) kasuetan. *Labea* (Ogeta) "lugar de hornos" ere bada.

Mineralen esparruan, oraindik, *buztina*, *area*, *legarra*, *tupa* terminoen andanakoak dira aipagarri. *Buztin* "arcilla" daukagu *Bustinko* (Azkartza), *Bustisari* (Caricedo), *Bustizabal*, *Bustina* (Grandival), *El Bustin*, *Austin* (Saseta), *Bustinza* "arcillal" (Grandival) kasuetan. *Area* latinismoak, bere aldetik, *Arenaga* (Paritza), *Balarea* (Val de Area?) eman ditu, eta *legarra* "grava, guija", "piedrecilla menuda" harrimotak *Legarda* (Marauri), *La Legarra* (San Vicentejo), *Legarzabe* (Saratsu), eta, probableki, *Las Lezas* (Franku), *Las Llazas* (Armentia).

Legarda toponimoan *-da* amaierak *-(e)ta* atzizkian du iturri probablea, dardarkari ostean, batzuetan, ozendura sortzen bal-

ta (Eibar < *Eibargo* kasuan bezala. *Tupa* delakoan (lat. *tupam*) bokalismo zaharra gordetzen da, gaztelaniako *toba* aldaeran ez bezala. *Tuberana* kasua *tupam*-etik dator, baina bokalismo berantaz beste *Tobia* (Agilu, Marauri), *Rondotoba*, *Tobakua* (Paritza), *Tobal*, *La Toba*, *Tobera* kasuetan bezala.

IX.- Fauna eta abeltzaintzari atxikitako toponimoak

Sail honetan faunarekin loturiko onomastika dugu. Abeltzaintzaren esparruan larreak eta belardiak sartzen dira. *Larre* "dehesa", "pastizal", "prado" maiz apofoniaz azaltzen da, eta bere ildokoak dira *Larrate* "entrada del pastizal" "(Moskator), *Larruntza* (Albaita), *Larrunbia*, *Zitalarra*, *Zitabarra* (agilñu), *Kortalarra* (Agilu), *Larratxe*, *Larratxi* (Agilu), *Larreluz* "dehesa larga" (Marauri), *Larraustri* (Bustu).

Saroe, *saroi* Morgasko *Sarona* toponimoan eman daiteke *saro(e)* gehi *ona* hipotetikoetatik (*saroe* "majada", "granja" dela (*sare* -red- eta *o(h)e* -lecho- elementuen pilaketatik).

Korta eromanikoak, lat. *cohortem*, "majada", "cuadra" "sel, terreno de un particular rodeado de monte comunal", "ejido" esanahiak ditu, eta, batzuetan, lehen kontsonantearen ozenduraz *gorta* bilakatu da. Bere segidakoak dira *Kortibutxi* "sel, majada menor" (eta, orobat, *Bortibutxi*, *Borzibutxi*, *Burzibutxi* (Arrieta), *Borzibutxo* aldakiak), *Kortalarra* (Arrieta), *Gortabe* (*Bortalarra* k < b disimilazioaz) (Arrieta), *Begorta* (Agilu).

Esi- "seto" osagaiaz, berriz, *Eskortea* (Paritza) "corral en el monte", "redil para ovejas", "puerta rústica" (Aezkoa, Nafarroa).

Fauna zehatzaren sailean aipatzekoak dira, bereziki, *otsoa* "lobo"-rekin zerikusia duten *Otxate* "portillo del lobo" herria, *Osagabiā*, *Osaran* "valle del lobo", *Osarrate* "portillo del lobo" tokizenak. *Pistia* "alimaña" lat. *bestiam*-en ondorioa da asimilazioaz *Pistiaran* (Mararuri) kasuan. Orobat, *Mingorrandia* (Paritza) "mingor "becada" eta *andia* "grande" elementuetatik), *Arran-*

zeta, agian, *arrano* "águila" terminotik (baina ez da guztiz ziu-rra, ze **Aranzeta* "espinal" -eta **Ardanzeta* "viñedo"-ren trakes-
turak ere kontuan izatekoak dira).

X.- Izen berezi eta hagianimoekin loturiko tokizenak

Bai toponimian nagusian, bai tipian, izen bereziek garrantzi handia dute, batez ere, hagianimiarekin loturiko onomastikan. Izen berezitan aipatzekoak dira *Martin*, *Matxin*, *Juan*, *Juanes*, *Mari*, *Migel*, *Pedro*, *Lope*, *Eneko*, *Sanso* gisakoak.

Ildo horretakoak dira *Migeleta* (San Esteban), *Nikolaspe* (Saratsu), *Nikiturri*, *Nekoaran*, *Nikoaran* (Uzkio) "valle de Eneko" (biak ertaroan hain ezaguna zen (E)neko izenetik), *Lopegi* (Arrieta, Doroñu, Golernio), *Ansoleta*, *Sansasulo* (Moskator), *Sansogarai* (Fuidio), *Sansiturri* (Villa Tobera), *Juan Zabalza*, *Juandarmendiz* (Trobiñu), *Matizabal* (Lañu, Ogeta), *Martikalekua* (Lañu), *Matxilarrena* (Paritza) (*Matxi la Reina* trakesturaz). *Mari* izenetik datozenek ugaltasun berezia dute, bestetako *Marixalar*, *Marigorta* onomastikoen ildotik (batzuetan, *Mari* mitologikoa ez dela baztertzekoa). Jatorri hori dute *Marizabal* (Moskator), *Marineta* (Ogeta), *Maridiaz* (Franku), *Marikokua* (Lañu), *Mariaran* "valle de Mari" (Doroñu, Imiruri), *Marikuzubia* (Azkartza), *Mariogeta* (Saseta) delakoek.

Hagianimiak ere bere itzala du, Euskal Herriko onomastika orokorrean bezala. Hain zuzen, toponimia nagusian ezagunak dira *San Esteban*, *San Formerio*, *San Vicentejo*, *San Vicente*, *San Martin* gisakoak, eta beraiekin *Sansolo* (San Zoilo), *San Roke*, *San Kilez*, *Santirso*, *Santiuste*, *Santuste* (Doroño), *Santotornil* (*San Saturnino*-ren erroitik), *San Migel*, *San Juan*, *San Mederi* (*San Emeterio) (Ladre-Ozilla), *San Mames*, eta abar. *Santa* izenlaguna dute, berriz, ondoroengoeak: *Santa Ageda*, *Santa Katalina*, *Santa Koloma*, *Santa Luzia*, *Santa Leokadia*, *Santillana* (*Santa Juliana), *Santa Marina* Gainera, badira latineko *domine* / *done* (santo) delakoaz hornituak, *Donariz*

(Axarte) (*Donna Feli(ze)*) batetik, eta *Donamarti* (San Martin) (*Dolamarti* disimilazioz) bestetik).

Erljioaren kontzeptuei atxikitakoen artean daude *gurutze* (*kurze*) "cruz" (batzuetan, komunikabideetako "cruce de camino" hutsa dela), *Kruzia* (Albaita), *Kruziaga* (Albaita), *Kruzizabala* (Saseta), *Kruzabal* (Paritza), *Korozia* (bokalismo erromanikoaz), *Kruzimendi*, *Kruzibidia*, *La Kurzea* (Obekuri), *Grozeta* (Villanueva de Oca), *Gurruzkarrate* (Sanmartintzar) "portillo de la cruz". Orobat, aipatzekoak dira *elexa / eleja* "iglesia"-ren ildotik *Lejoste* "tras la iglesia" (Marauri, Ogeta), *Lejaran* "valle de la iglesia" (Bustu, Golernio), *Elejaldia* (Saseta), *La Zagurria* (Doroñu) (seguraski, aspaldiko (*E*)*lizagorria* "iglesia roja" ezagunetik (Nafarroan toponimo bera ematen dela). Ikusten denez, hagonimiak gararrantzia aparta du Trebiñuko konderriko onomastikan ere. Kontuan izatekoak dira, orobat, gaztelaniar deituraz hornituriko beste *Monasterio*, *Convento*, *Ermita*, *Iglesia* (*Tras la Iglesia*, *Junto a la Iglesia*, *Pieza la Iglesia*, *Sobre Iglesia*) modukoak.

XI.- Alderdi filologikoak

Sail honetan kontsideratzekoak dira ugaltasun eta tokizko euskal atzizkiak dituzten toponimoak, eta, orobat, toponimoe-tan kausitzen diren osakerazko kasuak. Trebiñualdeko lurretan euskara XVII. mende arte, gutxi gorabehera, bizirik iraun izanak toponimoen eratorpen-ahalmena argitan utzi digu. Lehenik, *-tegi*, *-za*, *-eta*, *-dui* gisako atzizkidun tokizenaik aipatuko ditugu; ondoren tokizenen elementu osatuak.

Atzizkiak

Ugaltasuna adieratzen duten *-aga*, *-eta*, *-di / dui*, *-zu* (*so,jo*), *-za* gisako atzizkiek, garadura nabaria dute Trebiñu konderriko onomastikan ere. *-Eta* atzizki latindarrak (lat. *ulmeta* < *zumarreta*, *fraxineta* < *lizarreta*, *buxeta* < *ezepeleta*) aberas-

tasun handia islatzen du. Orobat, *-aga* eta *-tegi* tokizko beste atzizkiek. Aipatzekoa da hemen euskal erro bati loturiko *-al* atziki erromanikoa (Arabian *Perrotxikal*, *Otakal* bezalakoetan agertzen dena).

-Tegi, -egi

Montegi, Zaballegi, Lantegi, Bellostegi, Lopetegi, Retegi.

-Di

Sagardia.

-Dui (doi)

Orduia, (E)Lorduia, Mendui, Sargarduia, Sarmentuia, Zarduia.

-Èta

*Kazaneta, Larraketa, Paraleta, Gindeeta, Intxueta, Bialdapeta, Ubieta, Txurgineta, Uratxea, Zurreta, Legarda (*Lergar(e)ta), Galardeta, Badureta, Barrueta, Arbineta, Ansoleta, Aldapeta, Kuzarreta, Larrakieta, Urrutxita (Urrutxeta?), Raneta, Penüketa, Txururieta.*

-Aga

*Zurriaga, Zudiaga, Zuzarraleta, Urkiaga, Galarraga, Atxiega, Atxaga, Buurduniga, Laziaga, Saminaga (*Sagarminaga), Arenaga, Turriaga (*Iturriaga), Torroziaga.*

-Ola

Urrola, Rotola.

-Za

*Larrinza, Eskuza, Galarza, Isunza, Legarza, Eskarza, Bustinza, Azkuza, Eskinza, Ranuza, Mimenza, Orkiza (Urkiza), Ubiza, Lorza (*Elorza).*

-Zu (ju)

Urretxu, Tximiju, Zumelzu.

-So (jo)

Botruso, Tximijo.

-Txo, txu

Iturrutxu, Menditxo, Ardadutxo, Txarratxo.

-Tu

Zurbitu.

-Al

Perrotxikal, Garduntxal.

Atziki pilatuak

*Garduietas, Sargatuieta (*Sagartuieta).*

Toponimoen osakera

Izena + izena *Zumabide, Lakuzubia, Usabel, Kortalarra, Arrate, Arpidea Turraran, Basaran, Beroki (*Berotoki).*

Izena + izenondoa *Bizkarluz, Landaluzia, Solandi, Sagarmin, Orzuria, Uruzuria, Olabarri, Larrebalsa, Arantxipi, Barangoitia, Atazabal, Basabara (*Basabera), Mendigurria, Torrigotxi, Urzabala, Ripandi, Biributxi.*

Izena + atzikia *Atxaga, Atxiega, Urkiza, Azkarza, Arrieta, Artza, Iturrutxu, Arza, Larrinza.*

Izena + izena + izena *Olarrate.*

Izena + atzikia + pospositiboa *Arzoste.*

Izena + deklinatib. + izena *Larrikuan, Marikuzubia, Restikulanda.*

Izena + pospositib. *Bulunbia, Parranbia, Mendibia, Oribe, Mendioste, Isoste, Lejoste, Lejaldia, Txartia (*Etxartia), Iturralde.*

Izen berezia + izen arrunta *Mariaran, Markizpidia, Matxinlarreina.*

Joseba Sarrionandia, pantailaren aurrean

Fertxu IZQUIERDO

I. Sarrera

Istorioak narratzea. Hori da idazleak eta zinegileak egiten duena. Bakoitzak dituen baliabideekin. Lumarekin lehenengoak, kamerarekin bigarrenak. Baina batzuetan, nolabait, bide biak elkartzen dira eta literatura zinemaren eremuan sartzen da (edo alderantziz). Bidegurutze horretan elkartu gara Joseba Sarrionandia idazlearekin, eta pantailaren aurrean topatu dugu. Idazlea pelikulak ikusten ari zen eta guk pelikula horiek zeintzuk ziren jakin nahi izan dugu. Horretarako, denboran auzera egin behar izan dugu eta 1977 urtera joan gara. Hortik aurrera 1977tik 1980 urteen bitartean, idazleak ikusitako filmak aztertzeke aukera izan dugu. Urte horietan *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Pott bandaren* aldizkarietan ikusitako zenbait filmen kritikak idatzirik utzi zizkigulako. Kritika horiek guztiak bildu eta egilearengan izan duten eragina aztertzea izan da lan honen helburua: pelikulak zeintzuk diren ikusi, politikarekin zer nolako lotura duten, zer nolako eboluzioa dagoen artikuluen egituran eta zer nolako lotura dauzkaten artikuluko horiek Sarrionandiaren lan literarioekin. Hauek dira, beraz, lan honen ardatz nagusiak. Har itzazue krispetak eta eseri lasai, ibilbide honen filma hastear baitago: Joseba Sarrionandia, pantailaren aurrean.

II. Galaxiaren agerpena: 1977

1977 urtean topatzen dugu, lehenengo aldiz, Sarrionandiak egindako zine-kritika bat *Zeruko Argia* aldizkarian. Hortik aurrera egileak sinatutako beste zenbait kritika ere topatuko ditugu eta idazlea eta zinema lotzen duen galaxiaren eztanda agertuko zaigu aldizkari honen orrialdeetan.

Bederatzi dira lehenengo urte horretan eta *Zeruko Argia* aldizkarian egin zituen zine-kritikak. Mota desberdinetako artikulua idazten ditu: film baten inguruan, zuzendari baten inguruan, gai baten inguruan edota Donostiako zinemaldiaren inguruan.

Sarreran aipaturiko hiru aldizkari hauen azterketa egin ondoren ohartu gara idazleak urtero egiten zuela Donostiako zinemaldiaren inguruko artikulua bat, bederen. Artikulu horiek, guk egindako *artikuluen zerrendan* sartu baditugu ere, ez da gure asmoa aztertzea, zeren eta film edota kontu ugari aipatzen ditu baina sakonki aztertu gabe. Beraz, interesgarriak izan daitezkeen zenbait kontu aipatuko ditugu, agian, baina bestela, zinemaldiaren inguruko artikulua horiek albo batera utziko ditugu, nahiago izan dugulako bestelako artikuluetan zentratzea.

Lehendabiziko urte honetako bederatzi artikuluen azterketa kronologikoki egin dugu, hots, artikulua argitaratu ziren moduan hartu eta banan-banan aztertu ditugu. 1977ko artikulua hauekin horrelako banan-banako azterketa egitea interesgarria iruditu zitzaigun, agertzen diren lehenengo zine-kritikak direlako, asko ez direlako eta gai desberdinak jorratzen dituztelako. Gainera, hau horrela egiteak Sarrionandiaren zinemaren inguruko karriken lehenengo mapa orokor bat margotzeko aukera ematen zigun. Dena dela, esan beharra dago, hurrengo urteetako artikuluekin ez dugula horrela egingo. Urteka antolatuko ditugu, baina urte bakoitzaren barnean ere gaika sailkatuko ditugu, gaiak sarritan errepikatzen baitira.

Argibide hau eman ondoren atal honen harira itzuliko gara eta 1977 urtera joango gara Sarrionandiak argitaratutako lehendabiziko zine-kritikekin topo egiteko asmoz.

Katharina Blum-en ohore galdua filmaren inguruko artikulua da aurkitu dugun lehenengoa. J.S. Inizialekin sinatuta dago, baina Joseba Sarrionandia izenarekin sinatutako beste artikuluekin alderatuta ziurtasun osoa dugu lehenengo J.S. hau (eta gerora ere inisial horiekin sinatutako beste artikulua batzuk) gure Joseba Sarrionandia dela.

Sarreran azaldu dugun moduan hiru aldizkari desberdinetan bilatu ditugu Sarrionandiaren aztarna zinematografikoak: *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Pott Banda*. Baina azaldu beharra dago laugarren aldizkari bat ere aztertu genuela: *Ibaizabal*. Azkeneko aldizkari honetan Sarrionandiaren artikulua topatu ditugu baina ez zinemaren gainean, beste gai batzuen gainean baizik. Izan ere, Sarrionandia idazle benetan ugaria dela garai horietan eta 19 urte bete zuen urte berean, zinemaz gain, beste gai ugari ere idazten zuen aldizkari guzti hauetan: arteaz, politikaz, literaturaz... Artikulu horien azterketa ez da gure lanaren helburua, baina hala eta guztiz ere, laster ohartuko gara zer nolako lotura zuzena duten gainontzeko gai horiek guztiek egilearen zine-kritikekin.

1. Baader-Meinhoff

Esan dugun moduan, *Zeruko Argia* aldizkarian topatzen dugu Sarrionandiaren lehenengo zine-kritika 1977 urtean, *Katharina Blum-en ohore galdua* filmaren ingurukoa. Eta, dagoneko, idazle bizkaitarraren zine-kritika gehienetan aurkituko ditugun konstante batzuk topatu ditugu bertan: literatura eta politikarekiko loturak, besteak beste.

Artikuluaren hasieran Volker Scholondorff zuzendari alemaniarraren inguruko informazio pixka bat ematen digu. Beste film batzuen izenburuak alpatu ostean *Katharina Blum-en ohore galdua* filmaren azterketari ekiten dio eta zuzendariaren au-

rreko filmekin konparatzen du. Filmaz egiten duen fitxa moduko batean Scholondorff-en izenarekin batera, zuzendari lanean, beste izen bat agertzen zaigu: Margarethe von Trotta-rena, alegia. Trotta, aktorea eta zuzendaria izateaz gain Scholondorff-en emakumea zen eta, honekin batera, zuzendu zuen *Katharina Blum-en ohore galdua*. Alemaniako 70 hamarkadako Zinema Berria korrontearekin lotzen da. Dena den, Sarrionandiak ez ditu emakume honen azalpenak ematen.

Artikuluarekin jarraituz, literaturaren eremura eramaten gaitu lehenengo paragrafotik, zeren eta filma Heinrich Böll-en nobela batean oinarriturik dago. Eta nobela honen aipamenak bigarren harira eramaten gaitu: politikaren eremura, hain zuzen ere. Bai, zeren eta idazle alemaniarren nobela benetako gertaera politikoetan oinarrituta dago, Andreas Baader eta Ulrike Meinhof, RAFeko militanten (Rote Armee Fraktion) inguruko gertaeretan, batez ere. Beraz, literatura eta politika uztartu eta filmaren azterketari ekiten dio.

Hasteko, tramaren nondik norakoak argitzen ditu eta, jarraian, filmaren helburua zein den planteatzen du. Bere ustez, filmaren xedea "estatu modernoaren errepresio aparatoak agertzea" eta salatzea da (polizia, kazetaritza eta epaileak). Horretarako suspensea erabiltzen duela dio idazleak, baina filmak funtsezko akats bat duela ere uste du iurretarrak: eskematismoa. Horren azalpena emateko pertsonaiak aztertzen ditu "pertsonaiak, edo erabat onak, zanpatuak eta inpotenteak (gutxi batzuk) ala inkisidoreak, zanpatzaileak eta hipokritak dira (aparatokoak)". Eta lehenengo akats honen ondorio gisa ikusten du bigarren arazoa: "pertsonaien anbiguitatea". Ez baitira ezagutzen pertsonaien izaerak ezta joerak ere. Pertsonai bakarra salbatzen du kritika honetatik, Katharina protagonista, baina ez pertsonaiagatik, baizik eta Angela Winkler aktorearen "aktuzio onagatik".

Beraz, hiru ardatz ditu filmari egiten dion kritikak: lar eskematikoa, gehiegizkoa eta pertsonaien karakterizazioa anbigua

izatea. Hala eta guztiz ere, pelikula gomendagarria dela deritzo eta, era berean, errealitatea kritikatzeko balioagarria dela dio. Bukatzeko, Euskal Herriko garaiko egoera politikoarekin ere lotzen du, eta "errepresio poliziako, judizial, ideologikoa orain ere gudan latentea baita" esaldiarekin ixten du lehenengo artikulua hau.

2. Nazismoa eta klase borroka

Joseba Sarrionandiaren sinadurapean (esplizituki sinatuta jadanik) aurkitzen dugu *Zeruko Argian* bigarren artikulua. Kasu honetan filma bat azertu orde, gai baten inguruan egin diren zenbait pelikula komentatzen ditu: nazismoaren erorketaren ingurukoak, alegia. Beraz, zinema eta politika elkartzen diren bidegurutzera eramaten gaitu berriro eta zinema politikoaz ere mintzatzen da.

Bi orrialdeetako artikulua honi hasiera emateko Bertold Brecht idazle alemaniarraren hitzak erabiltzen ditu: "Ezin daiteke zintzotasunik egon fazismoaren aurkako dei batetan, hau halabeharrez sortzen duten kondizioak ikutzen ez badira. Produkzio medioen propietate pribatua utzi nahi ez dukeena, ez da fazismoarengandik askatuko eta, beharrezko izango du fazismoa". Eta ondoren nazismoaren erorketa gaia duten bost pelikula hautatzen ditu komentatzeko: *Diktadore handia*, *Jainkoen erorketa*, *Beste Klein jauna*, *Gaueko atezaina* eta *Salon Kitty*.

Film bakoitzaren argumentua eman ondoren interpretazio pertsonala edota iritzia ematen du. Bostek, nazismoa ("izuikarazko errejimen irrazionala") kritikatu egiten dutela eta, ondorioz, erregimen horren kondena moralak direla dio. Mezu politiko-pedagogikoa ikusten du, batez ere, *Diktadore handiaren* hitzaldian eta demokrazia burgesaren topikoen apologian oinarritzen direla uste du.

Konflikto psikologikoak azaltzen direnean klase borrokaren testuingurua ahazten direla ere esaten du Sarrionandiak. Her-

man Hesse-ren *Lecturas por minutos* liburuan idatzitako argu-
mentuen isla direla deritzo: "mundua aldatzeko edozein boron-
dateak gudura eta bortxara eramaten duela dakidala uste dut,
eta horregatik ezin naiz inongo oposizioekin elkartu ezin bait
ditut bere azken ondorioak onartu eta injustizia eta gaiztakeria
sendaezinak kontsideratzen ditudalako". Eta, zentzu horretan,
filmak baikor eta ezkorren artean desberdintzen ditu.

Chaplin-ena, esaterako, baikorra dela dio. Baina kondena
morelean geratzea kritikatzan dizkie film hauei guztiei, eta kla-
se borrokaren testuinguruaren azterketa ez egitea leporatzen
die. Izan ere, idazlearen ustez, nazismoa analizatzekotan
funtsezko da azterketa hori egitea.

Gai horren inguruan bere iritzi politikoa zein den azaltzeko
ere aprobetxatzen du eta nazismoaren sortzaileak produkzio
harreman kapitalistak direla dio, baita nazismoa egitura klasista
hau finkatzekoa dela ere. Lenin-ek 1913 urtean esandako
hitzak gogora ekartzen ditu bere iritzia indartzeko asmoz: "Bur-
gesia edozein basakeria eta edozein aberekeria, edozein gaiz-
kintza egiteko kapaz da, menpekotasun kapitalistaren beheral-
dia eusteko". Eta ondoren, Alemanian gertatu zenarekin (faxis-
moaren igoerarekin, alegia) lotzen ditu Lenin-en hitz hauek.
Klase zapaltzaileak gatazka etikoak azalduko dituela baina ez
duela emango, ordea, klase gatazkaren berririk dio. Eta, bere
ustetan, zinema politiko historikoak egin beharko lukeena
azaltzen du: "orduko gizartearen berri eman, oraingo ikuspegiz
eta bere funtsezko baseak aztertu edo elemento egoera kon-
kretoak base horien kontextoan kokatu". Azken finean, azpi-
marratzen du behin eta berriro ideia bera: bost pelikula horiek
"ez dutela nazismoa aztertzen bere klase oinarri sozialetan,
baizik eta ulerketa hori estalirik". Nazismoa klase borrokaren
testuinguruan aztertu behar dela dio eta artikulua amaieran,
berriro, zirkulua ixten duena Bertold Brecht-en poema da:
"Goikoek diote: bakea eta guda izakera ezberdinekoak dira.
Baina heuren bakea eta heuren gerla haizea eta ekaitza bezala

dira. Gerla heuren baketatik sortzen da semea amarengandik bezala. Bere eite izugarri berberak digu. Heuren guduak heuren bakean gainbizitzen dena hiltzen du”.

3. *Trotsky*

Joseph Losey zuzendari amerikarraren *Trotsky-ren erahilketa* filmari eskaintzen dio Joseba Sarrionandiak hirugarren artikulua. Baina filma baino gehiago Trotsky-ren figuraren inguruan duen iritzia emateko aprobetxatzen ditu lerro horiek. Horregatik, Trotsky eta troskismoak ezker iraultzailearen mugimenduan izan zuten garrantzia aztertzen du eta, “oraingo iraultzaileen artean” oraindik Trotsky bizi dela azpimarratzen du.

Artikuluaren sarrera egin ostean, beraz, Trotsky-ren biografiaren errepaso labur bat egiten du eta, Lenin-en heriotzaren ostean, iraultza internazionalak izan duen eboluzioa ere aipatzen du. Trotsky-ren ibilbidea oso testuinguru zehatz batean kokatzen du eta testuinguru horren elementuak zeintzuk diren aztertzen ditu: “nazismoaren igoera, fronte popularren eralikitza, bortxaz ezarritako diktadura...” Stalinismoari ere kritika egiten dio, Europa osoan eragin zituen erailketengandik. Trotskiren bizitza, teoriak, ibilbidea eta hilketa azaldu ondoren bestelako bi alpamen txiki-txikiak egiten ditu. Bata *El gran corrido de Leon Trotsky*, Mexikoko kanta anonimoa da eta, bestea, Trotskiren omenez Gabriel Arestik egindako *Zeren Leo* poema. Beraz, ikus dezakegun, film baten aitzakiarekin politikaz (Trotsky, troskismo eta iraultzaz) hitz egiteko aprobetxatu du Sarrionandiak artikulua, literaturari egindako keinu txiki hori ere kontuan izanik.

Gure aldetik, zuzendariaren inguruan lau pintzelada ematearren esan dezakegu Bertold Brecht-ekin batera zenbait lan egin zuela, Sobietar Batasunean antzerki teknikak ikastera joan zela eta Joseph McCarthy Estatu Batuetako senatariaren “sorginen ehizaren” biktima ere izan zela “anti Amerikanismoaz” akusatuta.

4. Anarkia

Laugarren artikulua ere Amerikako Estatu Batuetara eramaten gaitu. Lurralde horretan gertatutako Sacco eta Vanzetti anarkisten bizitza eta exekuzioen inguruko filma aztertzen du. Kasu honetan ere, aurreko artikuluan egin zuen moduan, filmaz baliatzen da Sacco eta Vanzettiren berri emateko eta Ipar Amerikako sistemari kritika egiteko. Vanzettiren alpu batekin hasiera ematen dio artikuluari eta, jarraian, bi gizon hauen istorio tragikoa kontatzen digu. Italiatik Ipar Amerikara lan egitera joan ziren Nicola Sacco eta Bartolomeo Vanzetti, zapatarri bata eta arrain saltzailea bestea eta South Braintree-n gertatutako atraku bat burutzea eta hilketak bat egitea leporatu zieten. Zazpi urtez egon ziren espetxeratuak eta tarte horretan idazlan asko egin zituztela gogorarazten digu Sarrionandiak. Gizartearen kritika anarkista ziren idazlan gehienak. Kartzelaren barruan lau urte zeramatenean Celestino Madeiros presoak atrakua egilea bera zela aitortu bazuen ere ez zioten aintzat hartu eta 1927ko abuztuaren 27an exekutatuak izan ziren Sacco eta Vanzetti.

Beraz, gertaera hauetan kokatu ondoren, filma aztertzen hasten da eta, horretarako, filma egin duen taldearen izenak ematen dizkigu. Jarraian, filma, teknikoki, nola eginga dagoen azaltzen digu eta "zeharo politikoa" dela esan eta gero, bere ustez dituen akatsak azaltzen ditu. Akats horietako bat da, iurretarraren ustetan, ez duela sakontzen kondizio sozialean eta "filmagintza burgesaren eskema berak erabiltzen dituela". Kondizio sozialean edota klase borrokan ez sakontzearen kritika agertzen zaigu, beraz, berriro ere artikulua honetan.

Dena dela, filma hartu eta honek transmititzen duen ideologia aztertzen du. Ikuslea protagonistekin identifikatzen dela dio, baita "Sacco eta Vanzetti-ren ideologia asimilatzea eta sumitzera heltzen dela" ere. Iurretarraren iritziz menderatuen aldeko lan bat da filma, bi italiar immigratu anarkisten aldekoa, alegia. Eta giro anarkistarekin lotzen du. Pentsatzen du historia

ez dela neutrala eta objetibitateak klase ikuspegia suposatzen duela azpimarratzen du Sarrionandiak. Iritzi pertsonalen eremuan murgiltzen da guztiz "menperatzaileena ala menperatuen alderdia hartu behar du. Kontenplazio hutsa erreakzionario bait da" esaten duenean. Eta garai historiko batera eramaten gaitu: 1917-1919 urteetara, hain zuzen ere. Langile giroa, Ipar Amerikako grebak, estatuaren errepresioa eta iraultza sobietikoa dira, besteak beste, aipatzen dituen garai horietako elementuak. Masa proletarioaren miseria gorriak borroka espontaneora bultzatzen duela dio kapitalismoaren errepresioaren aurrean. Politikaren eremuan sartzen gaitu bete-betean eta sistema kapitalistaren kontrako kritika gogorra egiten du, ikuspuntu marxista argi eta garbi erakutsiz. Kritika horren erdigunean, batez ere "USA" kokatzen du eta historiaren zenbait pertsonai iraultzaileen hitzak ekartzen ditu gogora, Malcom X edota Che Guevara, esaterako. Sacco eta Vanzettiren kasuaren inguruan ere bere iritzia ematen du eta "ez zituztela delitogatik kondenatu, baizik eta inmigrante eta anarkista izateagatik" dio eta anarkismoaren aldeko iritzi argia ematen du. Era berean, Txiki eta Otaegi, Frankismoak fusilatutako azkeneko ETAko militanteak ere ekartzen ditu gogora baita "hilgo dituztenak" ere Sacco eta Vanzettiren kasuarekin alderatuz. Azken hauena hilketa politiko bat izan zela defenditzen du inolako zalantzarik gabe.

6. Francoren ondorengo jaialdia

Atal honen hasieran esan dugun lez, Donostiako zinemaldiaren inguruko artikuluak ere egiten zituen idazle bizkaitarrak. Artikulu horietan, batez ere, zinemaldian parte hartzen zuten filmak aipatzen ditu, baina azterketa sakonak egin gabe. Film horiek zeintzuk diren lan honetan eranstean dugun *artikuluen zerrendan* ikus daiteke baina, atal honetan, bederen, ez dugu artikulu horiek aztertzeko asmorik. Aipatuko ditugu, hori bai, interesgarriak iruditu zaizkigun zenbait kontu.

1977 urteko bosgarren zine-kritika honetan Donostian ospatutako lehenengo Zine Festibal postfrankistaren inguruko artikulua idazten du Sarrionandiak. Bertan, zinemaldian parte hartu duten zenbait filmen aipamen labur-laburra egiten du, eta hauen inguruko iritzia ematen du. Interesgarria iruditu zaigu, batez ere, euskal zinemari eskaintzen dion tartea. Bertan, zenbait filmen izenburuak eta zuzendarien izenak aipatzeaz gain euskal zinemaren egoeraren inguruko iritzia ematen du lurretarrak. Horren inguruan dio "argi geratu dela ezin dela euskal zinemaz proiektu bezala baino ezin daitekeela hitz egin". Euskal zinemak dituen hiru osagai, bere ustetan, zeintzuk diren azaltzen ditu: "1) Euskal zinema euskaldun herritar eta iraultzaile baten berrizan eta urjentzia. 2) Zinegile ugaritasuna, baina Euskaditik at lan egin beharrik edo lan egin gabe. 3) Soluzio posiblea: finantziaziorako kapital akumulutan bat". Eta epe laburrean egin beharreko zenbait gauza ere planteatzen du: "a) Zinegileak autoeratu eta b) kapitala lortu batez ere abantail politiko posibleak (estatutua kasu) aprobeztatzea kontuan izanik". Hausnarketa horiek uzten ditu airean, euskal zinemaren inguruko eztabaida piztu nahian-edo.

7. *Erotismoaren inperioa*

Erotismoaren gaia duen filmaren azterketa egiten du oraingo artikulua honetan lurretako idazleak, Hiromi Oshima, zuzendari Japoniarraren *Zentzumenen inperioa* pelikula aztertzen baitu. Filma hau gertaera historiko batean oinarrituta dago eta gertaera horren berri ematen digu artikuluaeren hasieran Sarrionandiak.

Jarraian, pelikularen funtsa azaltzen digu: Japoniako ostatu bateko patroli bat eta bere morroi baten arteko sexu harreman korapilatsuak.

Teknikoki, filma oso ondo egina dagoela esaten du ondoren, baina arrisku bat baduela ohartarazten digu: "saio pornografiko edo erotiko errez bezala ulertzea". Ohar hau egina,

filmaren zentzuaren inguruan eta, pelikula beste begi batzuekin ikusi ahal izateko, beste hiru hausnarketa egiten ditu:

- a) Sartaldeko eta sortaldeko kulturak zeharo desberdinak direla kontuan hartzeko eskatzen digu. Oshima beraren hitzak erabiltzen ditu ideia hau indartzeko asmoz. Japon tradizionalan, yankiek bertako kultura suntsitu aurretik, sexua gauza natural eta preziatu bat zela dio. Honekin lotuta, yankien politika inperialistari kritika egiteko ere aprobetxatzen du.
- b) Filma ulertzeko bigarren gako bat Georges Bataille idazle eta pentsalari frantziarrarengan kokatzen du bizkaitarrak. Idazle honen *La literatura y el mal* liburuan Oshimaren filmarekin parekotasunak aurkitu dituela esaten du, eta liburuak filma ulertzeko zenbait elementuak dituela ere esaten du. Ideia hau defenditzeko asmoz edo, liburuaren testu txiki bat erabiltzen du, gaztelaniaz. Zinemaren bidezidorretatik lortzen du, berriro ere, literaturaren bidegurutzera ailegatzea.
- c) Eta azkenik, erotismoaren inperiora eramaten gaitu azterketa honetan. Hirugarren ohar honetan pelikularen protagonistetako batek (neska) Sada izena duela gogorarazten digu eta izen horrek, noski, beste izen ezagun batera eramaten gaituela ere: Sade. Sarrionandiaren ustetan, Oshimak Sade-ren erotismoari omenaldi bat egiten dio. Hau frogatzeko berriro ere Oshima-ren hitzak erabiltzen ditu, tartekatzen duen elkarrizketa baten zatiekin (*Ozono* aldizkarian egindakoa).

Ezaugarri hauek guztiak aipatu eta gero, filma estatu espainolean eta Japonian, besteak beste (garai horietan betiere), oraindik debekaturik zegoela gogorarazten digu.

Zuzendariaren inguruan, iurretarraren ustetan, Oshima "errealismo sozialeko joerak markaturiko korronte baten aintzindaria da" eta honen beste filma baten aipamena ere egiten du. *Udako arreba* izeneko film hori, dirudenez, japoniarrek yankiengandik pairatutako zapalkuntza nazionalaren ingurukoa da. Eta zapalkuntza nazional horren aurrean, eta yankien inperialismoaren aurrean, Sarrionandiak herri horren independentzia aldarrikatzen du. Artikulua zuzendariaren hitz batzuekin bukatzen da: "gizartea aldatu nahi duen edo nahi

duten guztiak eta bere burua aldatu nahi izan duten eta nahi duten guztiak. Baina ospetsu ala ospegabeen artan aukeraztekotan, gogokoago ditut azkenok”.

8. Inperialismoa galaxian

Galaxietako gerlari eskaintzen dio zortzigarren zine-kritika hau. Izenburuan bertan azaltzen digu artikulua nola nondik norakoak “Galaxietako gerla inperialista” idazten duenean. Gary Kurtz, filmaren produktorearen hitzekin hasiera ematen dio artikuluari: “ez dugu egoerari dagokioan ezer egiterik nahi izan, hada ipuin bat baizik”. Hortik abiatuta pelikularen argumentua azaltzen digu Sarrionandiak eta, jarraian, kritikari ekiten dio. Idazlearen ustez jenero zahar baten hari narratibo klasikoa hartzen du filmak: “erdi aroko zaldunen nobelak, mahai borobileko zaldunena, western eta bigarren gerla mundialaren ikuspegi amerikanoa”. Espektakulo ikusgarri hutsa izatea eta, funtsean, inperialismoaren ideologia izatea leporatzen dio, era berean. Horren adibide gisa pelikulak bi urteetan suposatutuen gastuak eta hilabete gutxitan lortu dituen etekinak aipatzen ditu. *Marrazo* filmak lortutako etekin handiekin konparatzen du eta *Galaxietako gerlak* etekin horiek hilabete gutxiren buruan berdinduko dituela dio. Ildo beretik jarraitzen du idazleak esaten duenean “espainolezko, frantsesezko eta alemanezko bertsio-etan ari dira lanean. Alegia, dirua eskuarki lortu dute eta lortzen ari dira eta itxaropen oraindik ere joriagoak dituzte”. Eta honekin lotuta “kasuotan rituala denez” bigarren partea prestatzen ari direla ohartarazten digu.

Sarrionandiak aitortzen du, teknikoki, *Star Wars* oso ona dela, baina gairi dagokionez huts egiten duelakoan dago. Filmaren arrakastaren zergatia ez du bilatzen, halere, alde tekniko horretan baizik eta fenomeno soziologiko batean, eta honek eramaten gaitu, beste behin, literaturaren eremura eta, zehazki, zientzia-fikzioaren eremura, kasu honetan. Zientzia-fikzioaren arrakasta da, iurretarraren ustez, filmaren arrakastaren zergatia. Honen azalpena emateko Ipar Amerikan zientzia-fikzioak

izan duen garapena azaltzen du eta "Lehen Gerla Mundialaren garaipenaren ondoko giro triunfalista" eta "29.eko depresio ekonomikoa"rekin lotzen du. Testuinguru horretan, zientzia-fikzioa Ipar Amerikako "klase dominanteen ideologia pseudodemokratista eta inperialista" zabaltzeko asmoz bultzatua izan zela iritzi dio. Zentzu horretan idazlearen ohiko kezka bat ere agertzen zaigu zeren eta, bere ustez, "krisi garaietan, zientzia-fikzioa langile masa langabe eta goseak mitoz elikatzeko erabili izan da".

Dena dela, ez du jotzen zientzia-fikzio guztiaren kontra. Pelikula zintzoak ere egin daitezkeela aldarrikatzen du eta, adibide gisa, Kubrick-en *2001: Odisea bat espazioan* edota Truffaut-en *Fahrenheit 451* jartzen ditu, biak futurismo humanista batean oinarritzen direlako eta "oraingo errealitatea isladatzen zutelako nolabait".

Star Wars-en atzean, berriz, joko zanpatzailea dagoela uste du "etxetik lantegira eta lantegitik etxera joatea besterik ez duen hiritar galduari abentura intergalaktiko batetako heroea izatearen ilusioa eskaintzen dionak ez du zintzo jokatzeko".

Azkenik, George Lucas, filmaren zuzendariaren hitzak erabiltzen ditu amerikar gizarteari eta, batez ere, sistema kontsumistari kritika gogorra egiteko.

9. Pasolini gogoan

Sarrionandiaren zine-artikuluetan gerora aurkituko dugun beste konstante bat da zuzendarien aipamen berezia egitea. Ez du egiten, noski, edozein zuzendariaren aipamena, baizik eta zine konprometituarekin, nolabait, zerikusirik duten zuzendariena. Zine politikoarekin edota errealismo sozialistarekin lotura dutenak, batez ere aipatzen ditu.

Bide horretan aurkitzen dugu Paolo Pasolini-ren hilketa salatzen eta zuzendari honen ibilbide pertsonala eta zinematografikoa gozesteko egindako artikulua. Eta zuzendari beraren hitzek irekitzen dute artikulua: "Sexoa, heriotza, grina politikoa

ene bihotz elejiakoa ematen diedan gauza sinpleak dira... Ene bizitzak ez du besterik. Ahal izango dut bihar monje bat bezala bilutsik, mundutik partitu, garaipena infameei utzirik... Ez dut deus galduko ez, zinez, ene arima". Hitz hauen ondoren ezkerreko borrokalarien aldeko iritzi garbi batekin hasiera ematen dio artikulu honi. Bertan, munduko ezkertiarrek, zapalduak edota baztertuek bi aukera dituztela dio: "boterearengandik ihes egin edo boterearen aurka burrukatu", eta lehenengo aukera Ipar Amerikan gertatzen denarekin lotzen badu, bigarrena Europako ezkertiarren ohiturazkoa dela iritzi dio. Eta bigarren aukera honen testuinguruan kokatzen du Pasolini-ren ibilbidea eta bigarren urteurrena betetzen duen honen hilketa.

Doinu poetikoa jorratzen du Pasolini goraiatzeko tenorean eta zuzendariaren ibilbidearen errepasso labur bat eskaintzen digu: Iraultzaile, kritikoa, kontraesale, komunista, poeta, zinegile... dira Pasolini deskribatzeko erabiltzen dituen hitz batzuk. Eta, Sarrionandiak ere maite dituen munduko baztertuen aldekoa zela gogorarazten digu. Laudoriozko hitzak alde batera utzirik, artikulua bigarren partean datuei erreparatzen die. Bertan, Pasolini-ren datu biografikoak eskaintzen dizkigu eta, era berean, zuzendariaren filmografia zabala ere eskaintzen digu. Filmografia honetako zenbait filmek poesia, kritika soziala, ipuingintza herrikoa, askatasun sexuala, edota burgesiarrekiko gorrotoarekin lotzen ditu idazleak.

Artikuluaren azkeneko zatia zuzendariaren hilketa salatzeke erabiltzen du eta Pasolini-ren erailketa, "kulturaren eta askatasunaren aurkako hilketa bat izan zela" dio. Jarraian, Pasolini sinbolotzat duela aitortzen du lurretako idazleak eta, orolgarri gisa, bere hitz autobiografiko batzuen mezu lapidarioan irakur daitekeena eskaintzen digu: "Hormetan GORA ASKATASUNA idazteagatik, seguritatezko zelda batetara eramán ninduten lehenbiziko aldiz, eta ordenaren zainzaileak zer diren ere experimentatu nuen. Harrez geroztik izkutatua eta inguratirik pasatu nuen bizitza (eta ikaratua, heriotzari beldur biziki patolo-

giko bat nion eta orduan) harrapatua bukatzearen ideiak etengabe obsesionatua: honela bukatzen baitira Itsaertz Adriatikoan gazte profugo edo antifaxista aitortuak”.

10. Errealismo sozialista

Aurreko puntuan esan dugun moduan, honetan ere Sarrionandiak zuzendari bi ditu hizpide eta biak errealismo sozialistarekin, nolabait, lotuta daude: Eisenstein eta Jancsó.

Sergei Eisenstein-en *Potenkin akorazatuaren* aipamena egiten du lehendabizi. Eisenstein-ek *Potemkin akorazatua* 1925ean zuzendu zuen (Sobietar Batasuneko gobernuaren enkarguz) 1905eko Errusiako iraultzaren 20. urtemugaren ospakizunetarako eta, Eisenstein-ek berak filma nola banatu zuen azaltzen du Sarrionandiak. Tragedia klasikoak bezala bost atal dituela dio. Filmaren zenbait zati goraipatzen du “zinemagintzaren historiarako zati antologikotzat kalifikatu daitezkeelako”. Eta filmaren antolakuntza azpimarratzen du, fotogramaz fotograma zeharo ongi antolatuta dagoela iritzi baitio. (Fotogramen antolakuntza sistema honen aipamena oso berezia da, gerora, ziurrenik, planoka antolatutako Sarrionandiaren zenbait narrazioetara eramanez gaituelako).

Sergei Eisenstein-en biografiaren lau datu eman ondoren pelikularen mezu ideologikoa aztertzen du idazleak eta poema epiko bat delakoan dago, “iraultza sobietarraren kantu zinematografikoa”, alegia. Beraz, nolabait, poesia eta zinemaren arteko lotura agertzen zaigu Sarrionandiaren hitz hauetan. Dena dela, egungo sobietar sistema “sasi-sozialista burokratizatu” ere kritikatu egiten du eta, genero epiko mota hau aztertzeke onean, ikusten duen arriskua da “epika horri 1925eko sobiet herrietan triunfalista deritzala”. Zentzu horretan, lurretako idazleak uste du oso indikatiboa dela “Hitler eta Goebbse 1933an boterera heldu eta Potemkin-Nazi bat egitearen proiektua asmatu zutela”, Karl Anton-ek 1936an egindako *Sebastopol Akorazatuari* erreferentzia eginez. Baina ez gaitezen nahasi.

Sarrionandiak ez du, inolaz ere, lehenengo akorazatua bigarre-narekin konparatu, baizik eta "jenero epikoaren arriskuez go-goeta batzuk egin" nahi ditu. Eta haratago badoa oraindik *Potenkin Akorazatuaren* defentsan, uste baitu "Errusiako sasi-sozialismoaren kontextoko kultur itolarritik salbatu daitekeen bakarrenetariko bat eta zinemagintzaren historian produkto gorren bat da".

Bidezidor beretik Hungariaraino eramaten gaitu, Miklós Jancsó zuzendariarenganaino, hain zuzen ere. Zuzendari honek 1956an egindako *Etsituak* pelikularen nondik norakoak azter-tzen ditu eta argumentuaren berri ematen digu. Filmaren gaia austriar inperialistek hungariar herriaren kontra eragindako za-palkuntza krudela da. Arazo nazional batean oinarritzen da, beraz, filmaren muina. Era berean, azkeneko datu gisa, peliku-la "gaizki" bukatzen dela abisua ematen digu idazleak.

Filmaren teknikari dagokionez zuri-beltzean bada ere ma-gistrala dela iritzi dio eta pelikula ikusterakoan zuzendariaren abisu batekin bukatzen du artikulua: "Ez zaizkit axola oro esten duten filmeak, oro sakonki azaltzen dutenak. Zuzendariak guz-tia azaltzen baldin badu, ikusleak ezin diezaioke filmari ahalegin intelektualik aportatu. Ikusleak hausnartu egin behar du".

III. Unibertso desberdinez jositako lerroak: 1978

Zine-kritikei dagokienez, behintzat, urte emankorra da 1978koa Joseba Sarrionandiarentzat. *Zeruko Argian* 38 zine-kritika topatu ditugu eta beste bat *Anaitasunan*. Artikulu kopu-ru honekin, lehen azaldu dugun moduan, beste azterketa mota egitea erabaki dugu, hots, gai edota artikuluen zioaren arabera antolatu eta aztertuko ditugu orain iurretarraren artiku-luak. Honek, dena dela, beste arazo mota bat planteatzen digu, kasu askotan oso saila baita artikulua bat zio bakar baten inguruan kokatzea. Alde batetik zine italiarra gaitzat hartzen badugu eta, beste alde batetik zine politikoa ere gaitzat har-

tzen badugu, esaterako, non kokatuko genuke Bertolucci? Ados egonen gara bi gaien ataletan egon zitekeela baina, irizpide pertsonalen arabera, batean ala bestean kokatuko dugu (ez bietan), Sarrionandiaren artikuluetan gaia edota pertsona duen garrantziaren arabera, gure iritziz betiere. Honekin lotuta esan behar dugu zenbait artikulua aztertu gabe utziko ditugula, batzuk beste batzuetan agertu dena errepikatzen dutelako eta, beste batzuk interes gutxikoak iruditzen zaizkigulako. Dena dela, artikulua guztien aipamena ikus daiteke, hori bai, artikuluen zerrenda eranskinean.

Beraz, hurrengo lerro hauetan, antolatzeke sistema honen arabera, aurkezten dizuegu 1978 urtean Sarrionandiak landutako zine-kritikak.

1. Zinema politikoa

Lan honetako lehenengo atalean konprobatu ahal izan dugun moduan politikaren presentzia nonahi agertzen zaigu idazlearen lerroetan. Ia-ia zine-kritika guztietan (orain arte ikusitakoetan bederen) bere ikuspuntu politikoa azaltzeko aprobeztatzen du. Eta ikuspuntu politiko hau, betiere, zapalduen aldeko eta inperialismoaren kontrakoa dela esan dezakegu, oro har.

Horrela, zinema politikoaren eremuan kokatzen du Sarrionandiak Costra Gravas zuzendari grekoaren Z filma. Film honen funtsa 1963ko maiatzaren 22an, Salonikan eskuindarrek egingandako Gregorios Lambrakis ezkertiar diputatuaren erailketa da. Filmaren oinarria Vassili Vassilikos-en izen bereko nobela da, beraz, bide honetatik berriro ere literatura, politika eta zinemaren bidegurutzera ailegatzen dira gure urratsak. Filmaren mezua faxismoa salatzea dela ziurtatzen du idazleak.

Dena den, film honen aipamenak badu bere garrantzia, zeren eta iurretarrak dioen moduan "egitura komertzialaren barneko zine politikoaren hastapen bezala hartzen da Z filma eta harrezkero ere Costa Gravas-ek jenero hau asumiturik joe-

ra honen aitzindaria izan da". Honek esan nahi du, Sarrionandiaren ustez, Costa Gravas-ekin zinema politikoaren joera komertzialaren aurrean gaudela eta, ukazioaren zinegile gisa definitzen du iurretarrak; greziar faxismoa, estalinismoa, USAko inperialismoa, bigarren gerla mundialeko Vichy-ko errejimena ukatzen dituelako. Eta, zentzu horretan, autore politiko negatiboa dela iritzi dio.

Zine politikoaren barnean Gravas-en *Z* eta *Aitorpena* filmek polemika sortu zutela aipatzen du, lehenengoa faxismoa salatzen zuelako eta bigarrena estalinismoa, biak zaku berean sartuz. Honen harira, bere iritziz, *Z*, urrutitik ikusita, despolitizaturik geratzen da eta, *Aitorpena*, ordea, boterearen aldeko arma bihurtu delakoan dago. Eta zinema politikoaren arriskua horretan ikusten du idazleak zeren eta "honela, filme politiko antizantipatzaileok sistematan integraturik gelditu izan dira".

Film honekin jarraituz lengoaiaren garrantzia azpimarratzen du Sarrionandiak. Alde batetik, lengoia zinematografiko tradizionalaren erabilera zine politikoak duen helburu pedagogikoak erraztu daitezkeela onartzen badu ere, zine komertzialean integrazioa ere erraztu daitezkeela uste du eta, are gehiago, "zine iraultzaileak kontenidoak erabat aldatu nahi baldin baditu lengoia ere aldatu beharko du derrigorrez" uste du. Zrekin bukatzeko, halere, filma interesgarria dela dio eta filmaren egoerak Euskal Herriko egoerarekin identifikatu daitezkeela uste du.

Gravas-en antzera Gillo Pontecorvo zuzendari italiarra topatzen du Sarrionandiak zine politikoaren eremuan. Kasu honetan, Algeriako iraultza hizpide duen filma da aztertzen duena: *Algeriako bataila*. Film hau aztertzen duen artikuluari sarreara emateko ezinbestekoa zen Frantz Fanon kolonialismoaren kontrako borrokalari sutsuaren aipamena egitea eta *Afrikar Iraultzaren Alde* liburutik hartutako hitzak erabiltzen ditu Sarrionandiak. Hasierako aipamen honek, beraz, artikulua nondik norakoen pista argi bat ematen digu, Frantz Fanon-en ibilbideari erreparatzen badiogu, bederen. Fanon Martinika Irlan sor-

tu zen 1925ean irla hau, oraindik, kolonia frantziarra zenean. Aurrerago, Bigarren Mundu Gerran Erresistentzia frantziarrean nazien kontrako borrokan hartu zuen parte eta bere bizitzaren bi une garrantzitsu hauetan kolonialismoaren krudelkeriaz ohartu zen. Psikiatrian graduatua, 1953an Algeriako ospitalean zegoen lanean eta, 1954ean Algeriako Askapenerako Gerra piztu zenean Askapenerako Fronte Nazionalean (AFN) hartu zuen parte. Idatzi zituen lanetan arrazakeriaren kontrako eta biolentzia iraultzailearen aldeko iritzi garbia, besteak beste.

Aurrekari honekin, beraz, badakigu nondik kokatu behar dugun Sarrionandiaren zine-kritika hau. Horrela, Fanon-en ai-puaren ondoren zinema politikoaren bilakaeraz aritzen da idaz-lea. 60ko hamarkadan eta, bereziki, 68 urtetik aurrera ikusten du iurretarrak zinema politikoaren bilakaera baina, aitzindariak lehen zinemagintza sobietikoan bilatu behar direla apuntatzen du.

Zine sobietikoekiko oraingo zine politikoak dituen desber-dintasan nagusiak aztertzen ditu. Zentzu horretan, 1968ko susperraldia garaiko "erradikalizazio politikoak eraginik eta abantail zinematografikoen posibilitaturik" dela aipatzen du.

Baina zine politikoaren bi momentu hauen arteko dife-rentziarik nagusia da "garaiko zine politikoa ez dela bakarrik estatala (estatu sozialistetan) edo alderdiarena". Puntu horre-tatik aurrera zinema politikoak bi norabidetan banatzen dela uste du idazleak: batetik komertzialki errentagarria izan daite-keena eta, bestetik, industria zinematografikotik at egiten dena. Eta, zentzu horretan "zabalkundeari buruz inportantea-na, dudarik gabe, zine politiko komertziala da" esaten digu. Mundu guztiko zuzendariak aipatzen ditu baina, bereziki, zine italiar eta frantziarraren heldutasuna azpimarratzen du: Gravas (Frantziar bizi den grekoa), Godard eta Ives Boisset aipatzen ditu Frantziar. Italian ordea, ezkerreko erakundeek duten inda-rrarekin eta tradizio zinematografiko sozialak duen garrantzia-rekin lotzen du zine mota honen garapena eta, besteak beste,

zenbait zuzendari aipatzen ditu: Petri, Loy, Risi, Damiani, Montalde, Rossi, Giuliano eta, batez ere, Gillo Pontecorvo.

Hausnarketa hauek guztiak eginez gero, produkzio aljeriarra izan zuen filmaren argumentua azaltzen du eta, esan dugun lez, aljeriar herriak bere independentziaren alde 1957tik 1962 urtera arte egindako borrokari buruzkoa da eta, Sarrionandiak dioen moduan "bataila konkretu bat narratzen da bereziki: Mathieu –Massu koronel– general frantsesak 1955ko urtarrilaren 28an erasoaldia hasi eta Ali La Pinte oldartuen azken liderra 1957ko urriaren 8an hila izan arte".

Fikzio eta dokumentalaren arteko filma da, idazlearen iritziz, eta zine politikoaren tradizioaren barruan kokatzen badu ere, neorrealismo italiarraren influentzia baduela pentsatzen du, protagonistak protagonista kolektiboak direlako baina, era berean, pertsonaia soilak ere agertzen direlako. Herri baten kolonialismoaren aurkako eta independentziaren aldeko borrokaren adierazlea da filma eta, borroka horretan, aljeriarrek irabaziko dute. Dena dela, gaia jorratzerakoan Pontecorvo-ren objetibitatea azpimarratzen du (Aljeriarren aldeko jarrera baldin badauka ere) "beti, egia iraultzailea delakoa jokabidearen bandera gisa darabilelarik".

Objetibitate hau hobetu ulertu ahal izateko, kontuan hartu behar den datu bat da Aljeriako gobernuak Pontecorvo-ri filma egitea eskatu ziola eta filma egin ondoren gobernuak moztu egin nahi izan zituela zenbait eszena (Tabernako lehegailuen eztearen ondorioz hiltzen diren haur europarrak, esaterako), baina Pontecorvo-k ez zuen onartu. Pontecorvo-ren ezezko honen arrazoiak aztertzen ditu Sarrionandiak biolentzia iraultzailearen aldeko diskurtsoa garatuz: "Krudeldadea gatazkaren konponente funtsezko bat baita. Aljeriarrek, hain zuzen, bere situazio larria dela medio, krudelak izan behar dira. Iraultzak ez dira lore-jokoak. Iraultzak gogozkoak dira, baina inoiz ere alaiak. Iraultza sozialak zapalkuntzak esijitzen duen bezain gogorak, krudelak eta odolezkoak dira".

Etazapalduko klaseei erreferentzia agertzen zaigu, beste behin, Sarrionandiaren kezken artean. Klase zapaldua izatetik klase iraultzailea izatera pasa behar dela dio, Rosa Luxemburgok esaten zuen moduan. Bere lan narratiboetan gerora aurkituko dugun ezaugarri bat ere sumatu dugu hurrengo lerro hauetan, utopiaren etengabeko bilaketaren aldeko borroka, alegia: "buruzagiak hil arren, masak masakratuak izan arren, Aljeriako prozesu iraultzailea irrebersiblea zen. Mila zatitan apurtu eta zati bakoitza bizirik eta birhazten den izakia bezalakoa baitzen algeriar iraultza". Orbita komunistaren pentsalarien zantzuak ere artikuluan topa ditzakegu. Lehen Rosa Luxemburgoren izena aurkitu badugu ere, orain Mao Tse Tung-enganaramaten gaituzten hitzak ikus ditzakegu: "kolonialismoa paperezko tigrea izan da beti".

Artikuluaren amaiera aldean, iraultzak irauteko dituzten zailtasunen inguruko hausnarketa bat uzten digu airean AFNko buruzagi batek, Ben M. Hidi-k esaten dituen hitzen bidez: "Zailak dira iraultza baten hastapenak, zailagoa iraupen eta are zailagoa irabaztea, baina ez da deus ere iraultza finkatzea bezain zaila". Eta sententzia honen ondoren "iraultza degeneratuaren garaiari gaudela" dio, garaiko Aljeriako egoerari erreferentzia eginez, eta berriro ere utopia agertzen zaigu idazlearen zerumugan "iraultzak finkatzea utopia xarmangarri bezain inpossible bat besterik ez dela dirudi".

Azkenik, filmak zine politikoaren benetako zentzurik funtsezkoena galtzen duela uste du "triumfalismo faltsu bat enkubritzeko eta zine-ikuslegoaren konzientzia ona elikatzeke balio dezaketelako". Eta artikuluaren azkeneko esaldian ez du aukerarik galtzen hemengo egoerarekiko iraultzaren aldeko egin beharreko bide horretan parekotasunak bilatzeko: "Aljeriako bataila bezalako aunitz bataila dira Aljerian, eta hemen ere irauteko".

Utopiaren hari beretik tiraka aurkitzen dugu, baita ere, Jean Louis Comolli, zuzendari frantziarraren *Cecilia*. Comolli

Cahiers du Cinéma zine-aldizkarian idatzi zuen 1962 eta 1978 urteen bitartean Nouvelle Vague eta marxismo-estruturalismoaren goraldiaren garaietan eta, bere hitzekin, hasten da Sarrionandiak eskaintzen dion artikulua: "Historia esperientzia mota utopikoez beterik dago, gauza interesante gutxi daude historian utopiak nolabait ukitu ez dituenak. Utopia gauzen aldaketa eragiten duen indar berezia da". Idazleak lau pintzeladekin margotzen digu filmaren grabazioaren inguruko giroa eta, Comolli-k eskasia ekonomikoak eta interprete ezezagunak izan bazituen ere filma egokia dela uste du iurretarrak.

Utopiaren idelarekin batera agertzen zaigu berriro hemen anarkiarena, Sarrionandiaren ustez "filme anarkismoaren apologia da, aldi berean emotiboa eta didaktikoa. Pelikula bera ere esperientzia bat izanik, esperientzia komunal libertario bati buruzkoa da". Pelikula Giovanni Rossi-k Brasilen XIX. Mendearen amaieran bultzaturiko komuna anarkistaren inguruan datza, *Cecilia* izeneko komuna, alegia.

Hortik abiatuta, Sarrionandiaren iritziz, Comolli-k "esperientzia komunal honi buruzko azterketa poetiko/didaktiko bat egiten du". Beraz, zenbait elementu nahasten zaizkigu hemen: gai historikoa, doinu poetikoa eta zentzu didaktikoa. Komunaren oinarria esaldi esanguratsu batean dago Sarrionandiaren ustez: "badakigu zer ez dugun nahi... baina ez nahi duguna". Horrelako esperientzietan sortzen diren kontraesanak aipatzen ditu pelikularen harira eta, komunan parte hartzen duten guztiek "gizarte armoniko komunista libertario bat" eraikitzeko asmoa baldin badute ere "desberdinak dira gizarte hori moldatzeko sortzen diren bideak". Eraikuntza horretan, gizarte tradizionalak ezarritako aurreiritzi gaindiezinak badaudela aipatzen digu eta honen adibidea da, filmaren komunan "barne kontradikzio gehien sortzen duen instituzioa familia dela". Horregatik pelikulak familiaren instituzioa erasotzen du, baina gizarte tradizionalaren instituzio honek komunaren porrota eragingo du, beraz, utopia frakasatu baten istorioa kontaktzen duen pelikula

baten aurrean gaude. Eta esango genuke, ideia hau Sarrionandiaren ondorengo narrazioetan behin baino gehiagotan agertzen den ideia bat dela. Gainera, *Ceciliaren* esperientziak uhartetara eramaten gaitu. Eta gerora, utopiaren bilaketarekin batera, ezin dugu ahantzi, Sarrionandiaren geografia narratiiboan uhartearen irudia ere agertuko zaigula.

Dena dela, Don Pedro II enperadoreak baimena eman zuen uharre libentario honen esperientzia egiteko eta, horregatik, anarkisten artean bi joera agertu zirela aipatzen digu idazleak: "Giovanni Rossi esperientzia komunalen alde aritzen eta Malatesta-k esperientzia marjinal hauek klase burruka abandonatu egiten zutelako eta komuneroak desertoreak zirela esaten zuen. Mikroiraultza eta makroiraultzaren arteko eztabaida besterik ez da". Gizartearen bazterretara eramaten gaitu honen, Sarrionandiaren pertsonai literarioak zeharkatuko dituzten bazterretara, alegia.

Baina, mezu positibo batekin bukatu nahi du *Ceciliaren* utopiaren ibilbidea. Idazlearen ustez, "pelikulan frogaturik gertatzen dena zera da: komunak egokiak eta posibleak direla, baina iraultza sozialak instituzio burgesak suntsitzen ez baditu, hauek suntsituko dutela iraultza soziala".

Beste epopeia kolektiboa narratzen duen pelikula *Marusiako aktak* da. Txiletar film honen aipamen laburra egiten du Sarrionandiak eta aipamen horretan zuzendaria aipatzen ez badu ere, esan dezakegu Miguel Littin dela *Marusiako aktak* filmaren zuzendaria.

Littin Palmillan (Txilen) sortua da 1942an eta, 1970 urtean, Allenderen UPko gobernupean *Chile Films* konpainiaren zuzendaria izendatu zuten. Pinochet-en estatu kolpearen ondoren erbesteratu joan behar izan zuen eta, atzerrian, filmatu zuen *Marusiako aktak*, (1976an) bere laugarren pelikula.

Beraz, eta Sarrionandiaren aipamenean esaten den moduan "pelikula politiko bat da". XX. mendearen hasieran harrobi batean lan egiten duten langileen greba baten inguruko

filma da eta, batez ere, hauek jasaten duten errepresio bortitza.

Zine politikoaren barnean, errealismo sozialistaren beste adibide bat dela uste du iurretarrak eta joera horren gehiegikeria eta akatsak dituela dio. Didaktismoa nabarmentzen du Sarrionandiak. Idazlearen azterketaren arabera lau pertsonal kolektibo agertzen dira filmean: "1) Langileria; miseria; eroizitate eta martirioaren artean. 2) Soldaduak; langile eta buruzagien aginduen artean. 3) Harrobien propietario yankiak; negozioaren ikuspegiarekin. 4) Ejerzitoko nagusiak; boterea intolerantziz eta krudelitatez zaintzen". Armadak suntsitu egingo du langileria eta esperantzaren testu bat besterik ez da salbatuko: aktak.

Filmaren ezaugarri bi azpimarratzen ditu idazleak. Alde baretik pelikulan nabaritzen den "giro magiko", krudelkeriarekin lotzen duena. Bestetik, "adierazten duen tentsio latentea arras sakona eta ballotsua dela obran" iritzi dio. Epopeia kolektibo baten filma dela esan dugu hasieran, baina Sarrionandiaren hitzak erabiliz zehaztu beharko genuke ideia hori "langileria masakre baten epopeia da" eta garaiko historiarekin lotuta agertzen zaigu.

Garaiko errealitate sozio-politiko eta iraganaren berrikusketen interesa sortzen dira baita ere Frank Cassenti-ren kameraren atzean. Agian horrexegatik Sarrionandiak zuzendari frantziarraren *Poster gorria* filma aztertzea erabakitzen du. Zinema politiko-historikoan kokatu daiteke filma hau gure ustez eta, zentzu horretan, idazlearen iritzi, "zinema historikoaren planteamendu berezi batean oinarritzen da", zeren eta "pelikula historiko lineal bat egin beharrean, bigarren gerla mundialeko frantziar erresistentziaren episodio bati buruz"koa da.

Cassenti-k erabiltzen dituen interposizio teknikak azpimarratzen ditu Sarrionandiak.

Filmaren argumentua eskaintzen digu idazleak: "komediante talde bat biltzen da liberazioko partisano talde bati buruzko errepresentazio bat antolatzeko eta hain memoriaren

omenaldi bat egiteko". Eta ideia honetatik abiatuta, filmak episodio hau eta errepresentazioaren eszenak nahastu egiten ditu, "alegia, alde batetik historia eta bestetik metahistoria bezalako erreflexio distante bat agertzen dira". Sarrionandia, ondorengo narrazioetan horrelako jolasak eta saltoak egiten ikasteko apunteak hartzen ari zela dirudi.

Poster gorrian "Manouchian talde"ko hamar gerrillarien argazkiak daude eta naziek Frantzia okupatuan beldurra zabaltzeko eta erresistentzia desprestigiatzeko erabiltzen duten sinboloa da. Missak Manouchian Frantziako erresistentzia antifaxistaren heroia izateaz gain poeta armenio bat izan zen. Literaturaren istorioak, berriro ere, zinemaren munduaren barnean agertzen zaizkigu Sarrionandiaren zine-kritiketan. Erresistentzia talde honetako 23 partaide erail zituzten naziek eta taldeki-deen berri ematen digu.

Cassenti-ren filmaren garrantzia ikusleari planteatzen dion hausnarketa historikoa da idazlearen ustetan, "intolerantzia faxistari buruzko erreflexio bat da" eta garaiko historiaren erreferentziak agertzen direla dio: "hala Victor Jara Txilen edo Txiki Bartzelonan hil zituztenekoari buruzko aipamenak". Jon Paredes, Txiki, frankismoak fusilatutako ETAkidearen aipamena agertzen zaigu idazlearen artikuluren batean bigarren aldiz eta, noski, aipaturiko filma eta garaiko Euskal Herriko egoeraren arteko lotura, nolabait, aurkezten digu.

Film honen inguruko artikuluen amaieran oso bitxia iruditu zaigu topatu dugun erreferentzia, zeren eta, lehenengo aldiz, filmaren soinua bandari egiten dio aipamena: "oso atseginak Cuarteto Cedron-en musika tangeroa". Eta poesiaren eremura eramaten du Sarrionandiak Cassenti-ren filma, oso poetiko eta oso hunkigarria dela uste baitu.

Zine politikoaren bidezidor honetatik jarraituz bi izen propio eta beren bi filma, aipatzen ditu Sarrionandiak beste artikuluan batean.

Humberto Solás, zinegile kubatarraren *Lucia* filma aipatzen du. Kubako iraultzaren garaipenaren ondoren egindako filma da eta egitura eta argumentuaren berri ematen digu idazleak. Hiru zatitan banatuta dago pelikula: espainiar inperialismoaren aurkako borroka, Machado-ren aurkako borroka eta kastrismoa. Eta hirurak maitasunezko istorioak direla esaten digu. Oro har, kubatar zinemak lantzen dituen ohiko gaiekin lotzen du Sarrionandiak eta "zine herrikoi bat egiteko asmoz populu xehea hezitzeko egiten dira ofizialki filma ejemplar hauek" dio. Pelikula feminista-sozialista dela iritzi dio zeren eta, batez ere, emakumearen garrantzia da azpimarratzen dena. Sarrionandiak filmaren aipamena benetako kultur herrikoia alderantziz jarrikeria agertzeko erabiltzen du, uste baitu "kultura herrikoi eta populuaren zerbitzurako bat ofizialki ezartzen denean, kultura hau funtzionarioen zerbitzurako bihurtzen dela, libertatearen aurka", eta ideia hau defendatzeko honen inguruko Che Guevara-ren hitzak ekartzen ditu gogora non kultur sozialista ofizialaren bidea kritikatzeko erabili zituen.

Marguerite Duras, zinemagile eta nobelagilearen aipamena berezia ere egiten du zine politikoaren eremu honen barnean. Zuzendariaren esaldi bat azpimarratzen du lurretako idazleak: "ikusleak egiten du zinema, irakurleak liburua egiten duen baino agitz gehiago. Zinegilea ikusle bat da". Sarrionandiarrentzat, Duras "nobelagintza ofizial tradizionalak inposatzen dituen idazle/irakurle harremanak desagitzen salatzen da bere literaturan", eta Nouveau Roman izeneko mugimenduarekin lotzen du. Duras-en jarduera bikoitza (nobelagile-zinemagile) aprobeztatzen du literatura eta zinemaren lengoaien arteko diferentziak aztertzeko eta, "desberdinak diren arren, funtsean, berdinak dira". Gizakiaren alienazioaren aurka agertzen zaigun beste behin, lehen ere ikusi dugun ideia batekin "idazle/irakurle edo zinemagile/zineikusle harreman tradizional alienanteak aldatu egin behar direla". Zentzu horretan, Alain Robbe-Grillet, nobelagile, zinemagile eta Nouveau Roman mugimenduaren teorikoaren hitzak erabiltzen ditu: "...nik proposatzen dudana

obrak, aldiz, zuen partizipazio kreatzailea galdetzen du: zuetarik bakoitzak egin behar du zinema”.

Bide hori jarraitzen du, beraz, Margueritte Duras-en filmak, zinemaren deseraikitzearen bidea, alegia, baina Sarrionandiak dionaren arabera “filme honetan butaken erdiak hustu egin ziren proiektioan, libertateak eta kreatibitate propioak aspertu egiten baitu gizaki modernoak”.

2. Zinema sobietikoa

Zinema politikoaren aurrekaria da, zalantzarik gabe, zinema sobietikoa. Eta zine honi artikulu bi eskaintzen dizkio 1978an.

Zinema sobietikoaz hitz egiten badugu, noski, Eisenstein-i buruz hitz egitera behartuta gaude eta hori da Sarrionandiak egiten duena *Urria* filmaren aitzakiaz. Baina, esan dugun moduan, zine sobietikoa zine politikoaren aurrekaria da eta politikaren inguruko hausnarketa eginez hasiera ematen dio artikulu honi: “... Kontzientzia sozial eskaseko herrietan (herri aurreratu orotan alegia) sozial arazoak ez du jendea motibatzen. Ez zanpatzaileak, noski. Zanpatuak ere ez. Gainera, ekintza politikorik gehienak errepikatzaile eta aspergarriak izan ohi dira. Orduan, alderdi politikoez, jendea erakarri beharrean aurkitzen direlarik, mitinekin batera jaialdiak eta politikarekin batera jolasa eskaintzen dute erakargarri gisa. Baliabide hau Euskal Herrian hauteskunde inguruan deskubritu zen eta norma da geozetik mezu politikoa ikusgarri edo hornidura atsedeen baten barnean eskaini ohi da. Eta hau positiboa da dudarik gabe”. Hitz hauek azaltzen duten zentzuan ikusten du Sarrionandiak Sergei Eisenstein-ek 1927 urtean egindako *Urria*, bere aburuz, troskismoaz jarduteko aitzakiarekin egindakoa. Iraultzaren 10. urteurrena ospatzeko gobernuaren aginduz egin zela, iraultzaren erreportai bat dela eta langile masak protagonistak direla esaten digu idazleak. Zinema poetikoan ere kokatzen du *Urria*, irudiekin egiten den poesia. Eta Eisenstein-ek zinema poesia-

erraldoi bat bezala erabiltzen duela iritzi dio. Metafora eta konparaketen garrantzia "estilo espresionista-sinbolista ia barroko horretan" azpimarratzen du. Eisenstein-en bidez jasotzen duen estilo barroko hori azpimarratuko genuke guk. Funtsean, *Urria* iraultza sobietarraren epopeia dela dio, "poetiko eta sentimentala, errealismo sozialista delako joaeraren barnean, baina forma aldetik sinbolista eta konplejoa".

Teoriko boltxebikeek zabalkunde kulturalerako aparatu didaktiko gisa erabili zuten zinema Sarrionandiak dioen moduan. Baina berriro ere errusiar iraultzaren garapenari kritika egiten dio "estatalismoa" eta "estalinismoa", batez ere. Guzti honen aztarna *Urrian* ere badela esaten du "...Trostki agertzen zeneko pasarte guztiak kendu zitzaizkion". Errusiar iraultzaren garapen okerraren adibidetzat jartzen du, era berean, Eisenstein-ek berak gerora egingo zuen *Iban Terriblea* filmak izan zituen ozto-poak.

Maximo Gorkiren *Ama* nobela belaunaldi iraultzaile gazteen manual literarioa izan dela dio Sarrionandiak beste artikulua batean. Hamabost urte zituenean Gorkiren liburua eskuratu zuela eta bertan azaltzen diren langileriaren sufrimenduaz hunkitua geratzen zela aitortzen du. Baina liburutik ere literaturara egiten du salto eta nobela horretan oinarritzen den Sievolod Pudovkin-en *Ama* pelikularen azterketari ekiten dio. Filma klasikotzat jotzen du eta, teknika aldetik, Pudovkin-ek garaiko zinemagintzan egindako aportazioak azpimarratzen du idazleak: "trebeki erabiltzen du montajea eta ekintza paraleloak". Pudovkin-ek imajina metaforikoak gertaeratan bertan sartzen dituela iritzi dio eta, bestalde "kantu-epiko baten armonia ematen dio pelikulari erritmo eta ordenaren aldetik". Azpimarratzekoa da, agian, zuzendari honek "lehen planoet" ematen dien garrantzia. Sarrionandiaren narrazioetan ere planoekin egiten dituen jolasak aurkituko ditugu.

Eisenstein eta Pudovkin-en zinemaren artean desberdintzen du eta lehenengoarena "masa-zinema dela eta sujetoa

eta emozioak kolektiboak direla" eta bigarrenak "pertsonalizazioan sakontzen duela" azaltzen du.

Gorkiren bilakaerari ere garrantzia ematen dio bere lehenengo joera anarkistatik abiatuta jokabide ortodoxoetaraino. Eta errusiar idazlearen pertsonaiak aztertzen ditu Gorkiren hitzak erabiliz: "hasieran beren klasetik deserrotuak dira, perjuizio burgesetarik libre. Baina ez dira askatasunaren eta lanaren alde erreboltatzeko gai".

Aman berriz, klase borroka gardenki isladatzen duela uste du Sarrionandiak eta, errealismo sozialistaren aitzindarizat jotzen du. Errusian, idazlearen ustez, literatura izan da oposizio politikozko medio posible bakarra, bai zarismoaren azpian baita Errepublika Sozialistetan ere.

Zinemagintza sobietikoaren estatalizazioaren gaira itzultzen da artikulu honetan eta zinema eskola ofizialaren sorreraz aritzen da. Izen batzuk aipatzen ditu baina, batez ere, Eisenstein eta Pudovkin-ez gain, Alexander Dovjenko film epiko-poetikoak egiten dituen zuzendari ukrainiarra aipatzen du. Stalinismoaren hasiera eta errealismo sozialista akademikoak kreatibitate guzti honi, zentsuraren bidez, ateak itxi zizkiola aipatzen du.

3. Zinema erotikoa

Zinema erotikoaren bidezidorrak zeharkatzen ditu batzuetan ere Sarrionandiak. Kontuan izan behar dugu, dena dela, 1978an gaudela eta Euskal Herrian eta, oro har, Estatu Espainolean zine erotiko ikusi ahal izateko zailtasun ugari bazirela oraindik.

Horrela uler daiteke, *Emmanuelle* filmaz esaten duena: "sesio guztiak beterik egon direla". Ez dio garrantzi handiegirik ematen filmari eta negozio hutsa dela iritzi dio eta "lukro pornografikoa ez da, izan ere, negoziolorik txarrena egun". Are gehiago, "pornografia merkea beterik ez dela" esaten digu idazleak "erotismotik inbezilitatera erraz pasa daitekelako". Zine erotikoaren eremu honetan *Zentzumenen inperio* eta

Azken *Tango Parisen*, berriz, "bestelakoak eta dignoagoak" direla aipatzen du.

*Emmanuel*eren bide berean, hots, zine erotiko-estupidoan kokatzen du baita ere Just Jaeckin-en *O-ren historia* film honen inguruan egiten duen oso aipamen laburrean.

Aipamen benetan laburra egiten du, baita ere, Walerian Borowczyk-en *Ipuin inmoralak* filmaz, baina, kasu honetan, ipuin hauek interesanteak direla iritzi dio. Ipuinak direlako, akaso, eta badakigu Sarrionandiak ipuinak gustukoak dituela.

Louis Malle zuzendari frantziarraren *Pretty baby* da erotismoarekin lotu daitekeen beste film bat. Hemen aipatu behar dugu film honi eskaintzen dion artikulua *Anaitasuna* aldizkarian agertzen dela eta, hau dela 1978an aldizkari horretan argitaratzen duen lehenengo (eta bakarra) zine-kritika.

Artikulu honen sarreran Lewis Carrol (Charles Lutwidge Dodgson) idazlearen hitz batzuk topatzen ditugu: "Beste egun batzutan hasitako istorio bat da, udan eguzkia erretzen zenean... arraunak higierazteko kanta simple bat... eta bere oihartzuna oraindik ere oroimenean ikaritzen da orain urteak ahortziz doazenean". Carroll *Aliziaren abenturak lurralde miresgarrian* idazlanaren sortzailea da eta, agian, egile honen alpa-mena testuartekotasuna gisa uler daiteke, Carroll-ek ere argazkilaria zelako eta neskato biluzien argazkiak egiten zituelako. Honek, beraz, *Pretty Baby*ra eramaten gaitu, bertan 10 urteko neskatoa biluzik agertzen baita, alde batetik eta, bestetik, filmean sumatzen delako E.J. Bellocq argazkilaria Nueva Orleanseko prostitutei egindako argazkien eragina.

Violet, puta baten alabaren istorioa da filmak kontatzen duena eta, horregatik, Sarrionandiak Vladimir Nabokov-en *Lolita*rekin aurkitzen dio antza. Pelikula New Orleansen kokatuta egotearen arrazoiak hiru direla esaten du idazleak. Alde batetik lehen aipatutako E.J. Bellocq-en argazkien eragina, Al Rose-ren liburu bat eta Storyville jazz musikaren sorterrria izatea eta Jelly Rollo Morton pianista bertako putetxetan bizi izana. Beraz,

putetxeekin loturiko filma dugu hau, jazz musikarekin eta, finen, gizartearen bazterreko pertsonaiei lotuta. Narrazioa, ambientazioa, musika eta fotografia azpimarratzen ditu iurretarrak. Eta fantasiarekin lotzen gaituen filma ere bada, zeren eta, garai batean, New Orleans "USAko fantasiaren hiriburua zen". Eta Sarrionandiaren artikuluan fantasia eta errealtateak New Orleans-en talka egiten dutela ikus dezakegu, jazz eta marihuanaren aldekoen fantasia, droga eta jazz debekatu nahi dutenen errealtatearen kontra. Fantasia, Sarrionandiaren narrazioen osagai garrantzitsu bat izango da, zalantzarik gabe.

Nabokov-en nobela, *Lolita*, Stanley Kubrick-ek zinemara eramanezuela gogorarazten digu idazleak eta, harrez geroztik neskato baten eta gizon baten arteko harremanak hizpide dituzten lanak ugalduta egin direla baieztatzen du Sarrionandiak. Lan horien artean kokatzen du euskaraz egindako Jon Miranderen *Haur besotakoa*. Koktelera berean nahasten ditu orduan Nabokov-en *Lolita*, Malle-ren *Pretty Baby* eta Miranderen *Haur Besotakoa*. Eta puntu honetan ere, Lewis Carroll-en lanaren aipamena dugu maitaleak ezin baitute ihes egin "Aliziak bere herrialde miresgarritik irtetzea ere ezinbesteko zen bezala".

Filmaren bukaeran, gainera, Violet Alizia perfektu bat bihurtzen da, egoera normalizatzen da eta fantasiak galtzen du egunekotasunaren aurrean.

Erotikotzat jo daiteke, baita ere, Tino Brass-en *Salon Kitty*. Nazismoaren degradazioaren inguruan sortu ziren film andanaren barnean kokatzen da *Salon Kitty*, baina Sarrionandiak "planteiamendu pseudoprogresista eta espektakulo komertzial" izatea leporatzen dio. Tino Brass-en ibilbidearen errepa-soa egiten digu eta, "bere aurreko filmeetan marjinatuen aldeko posizionamendua nabaritzen bazen azken *Salon Kitty* honetan planteiamentuen inkoherentzia erabatekoa eta espektakularismo komertziala dira ezaugarriak funtsezkoenak". Nazismoaren krudelkeria eta erotismoaren arrakastaren aitzakiarekin film "takilero" bat egitea kritikatzeko dio. Eta, are gehia-

go, zinema politikotik at kokatzen du: "ez da zinema politikoa, baizik eta zinema porno-komertzial espektakularra". Pertsonaiak ere, sarritan, sinesgaitzak direla dio eta, azkeneko ondorio gisa, gutxienez "Wallemborg kapitaina ajustiziatuak eta Salon Kitty suntsituak" bukatzen direla esaten du.

4. Zinema italiarra

Zinema italiarrak izugarritzko presentzia du Sarrionandiaren artikuluetan. Lehen, zinema politikoaren atalean Gillo Pontecorvo aipatu badugu ere, oraingo honetan idazleak miresten dituen zenbait zuzendari aipatuko ditugu, Fellini, Bertolucci edo Pasolini, besteak beste.

Giovanni Giacomo Casanova pertsonai historikoaren harira Federico Fellini eta Luigi Comencini-ren urratsen aztarnak aurkituko ditugu. Casanova pertsonaiaren ibilerak aitzaki gisa erabiltzen dituzten zuzendari hauen film bana aztertzen du Sarrionandiak. Comencini-ren filma Casanova gaztearen historia den arren, pelikularen ardatza "gizartearen kotidianotasun anekdotikoan" dagoela esaten digu idazleak, "analisi soziologiko bat da pelikula, eta ondorio aski afortunatuak ditu".

Baina Comencini baino askoz ere gehiago maite du Sarrionandiak Federico Fellini, "magistrala" dela esateraino. Fellini-ren *Casanova* komedia barrokoa dela azpimarratzen du iurretarak. Berriro agertzen zaigu barrokoaren presentzia zinemaren gaineko lerro hauetan eta "gizartea espektakulo barroko bat dela" dio.

Fellini-rentzat Casanova aitzaki hutsa dela eta filmaren benetako pertsonaia Fellini bera dela dio eta, gizarte baten gainbeherarekin lotzen du.

Dena den, norbaiten aipamena egiten badu, behin eta berriro, Sarrionandiak hori da Bernardo Bertolucci. Zenbait artikulutan Bertolucci-ren biografia eta filmografiaren inguruko datuak eskaintzen dizkigu idazleak. Ezkerreko zinemarekin lotuta, betiere.

Partner filmaren azterketa egiten du, esaterako eta, Dostoievski-ren nobela batean libreki inspiraturik dagoela azaldu ondoren, pelikula eskizofrenikoa dela "sentidoan eta estiloan" esaten digu. Intelektual burgesek jasaten duen iraultzarekiko inpotentzia azaltzen da *Partner* filmean. Zuzendariaren bilakae-ran film honek izan duen garrantzia aipatu ostean, plano-sekuentzien erabileraren garrantzia azpimarratzen du "plano-sekuentzian narrazioa ez da normala, unekako plano obsesi-boak berehala une gorenetan moztu egiten dira erritmo arras neurotiko bat sortuz". *Partner* egiterakoan Bertolucci-k publiko kontuan ez duela hartu azaltzen du eta "deus komunikatzeko baino areago, neurotismoa liberatzeko filme bat egin zuela" dio. Filmak gertaera sinbolikoak erabiltzen ditu gizartearen zen-bait kontu aztertzeko asmoz. Eta sinboloen erabilera aurkituko dugu, baita ere, Sarrionandiaren narrazioetan. Utopian sines-ten duen bazterreko gizarte hori da, beste behin, Sarrionandi-ri interesatzen zaiona, 1968 urte historikoaren inguruan sortu-tako ikasleen errebolta, Amerikan eta Europan, "1968ko maiatzean heltzen da bere maila gorenera eta bere suntsidura-ra (Hegoamerikako gerrillaren derrota, Tlatelolco-Mexikoko ma-sakrea, Pragako Udaberria, ETaren susperraldia e.a. ere garai honetakoak dira bestalde)". Kausa galduen defentsaren intere-sa, utopiaren bilaketa, iraultzaren ametsa pizten dira idazlearen lerro hauetan.

Hurrengo artikuluan batean Bertolucci-ren filmografiaren in-guruan aritzen da eta zuzendari italiarraren zazpi filma modu labur batez aipatzen ditu, betiere zuzendariaren lana gorai-patuz: "Bertoluccirengan poetika eta politika aurkitzen dira, espe-rientzia eta irudimena kausitzen, errealismoa eta fikzioa nahas-ten, espontaneidatea eta elaborazio perfektionista elkartzen dira". Kontuan hartzeko hitzak dira, beraz, Bertolucci-ren ingu-ruan esaten dituenak. Dena dela, filmen azterketari ekin aurre-tik zuzendariaren haurtzaro eta bizitzaren inguruko zenbait datu eskaintzen dizkigu baita, bizitzaren gertaera hauek zer nolako eragina izan duten Bertolucci-rengan azaldu ere. "Sozial mailan

indibiduo desklasatu bat da, burgesiari uko egiten baitio". Baztertuen aldeko interesa. Eta Karl Marx, Sigmund Freud eta Wilhelm Reich-en eragina izan zuela aipatzen digu, baita 50 hamarkadako mugimendu existentzialistaren kutsu bat nabaritzen zaiola ere, Sartre, Camus edo Pavese, besteak beste. Gaineratzen du, baita ere, Bertolucci-k gaztetatik poesiak argitaratu zituela eta joera poetiko hori nabaritutako zitzaiola gerora ere zinemagintzan.

Filmei dagokionez *La Commare seca* filmatik *Azken Tango Parisen*-eraino eramango gaitu Sarrionandiak markatutako ibilbidea eta, ibilbide horretako une desberdinetan Pasolini, Godard edota Rossellini-ren eragina nabarmenduko du Bertolucci-ren zinemagintzan. Zenbait unetan zinema guztiz poetikoa lortzen duela ere azpimarratzen du eta literaturak ere zinemagintzan izan duen eragina uzten digu agerian, *Armiarmaren estrategia* filma Jorge Luis Borges-en narrazio labur batean edota *Il conformista* Alberto Moraviaren nobela batean oinarriturik daudela azaltzen duenean.

Ibilbide honen amaieran, *Azken Tango Parisen* filmaren aipamena egiten du. Filmaren argumentuaren inguruko lau datu eman ondoren teknikoki nola dagoen antolatuta azpimarratzen du Sarrionandiak "emeki landurik dago, koloretik hasi eta plano bakoitzera arte". Orokortasunetik zehaztasunetara, Sarrionandiaren narrazioaren batean aurkituko dugun jolas bera. Arte eta musikari ere aipamena egiten die "oso ondo dagokio pelikulari Francis Bacon-en pintura eta Gato Baribieri argentinar sasoaren musika". Azkenik, filmaren anbiguotasuna aipatzen du "ikuspegi diferenteetatik interpretatu daitekeelako" eta zinema existentzialaren ezaugarriak dituela uste du.

Novecentorekin, Zinema herrikoirantz Bertolucci-k egiten duen saltoren berri ematen digu idazleak. Masa zinema politikoa egitea erabakitzen du zuzendari italiarrak eta, horretarako, merkatu kapitalistan sartzea beharrezkoa bihurtzen zaio. Beraz, salto hori egiteko, publiko zabalera iritsi ahal izateko, multina-

zionalen parte-hartze ekonomikoa ezinbestekoa dela ohartarazten digu Sarrionandiak eta, puntu honetan, kontraesana planteatzen digu "kapital finaziadore eta filmaren kontenido politiko antikapitalistaren artean" gertatzen dena. Eta gehitzen du "multinazional amerikanoek zinemagintza politiko hau finantzatzen baldin badute inefikaza eta integrakorra kontsideratzen dutelako da".

Laborarien kultura herrikoia defendatzen du filmak eta lan-gileria ez ezik, laborariak ere iraultzaileak direla. Filmaren egitura lurgintzaren denboran modu sinbolikoan oinarritzen dela azaltzen du iurretarrak: uda, udazkena/negua eta udaberria. Urtaro bakoitzak bere konnotazio sinbolikoak dituena. Eta ezin dugu ahanzi urtaro hauek utopia iraultzailerantz eramaten gaituztela. Sarrionandiak ere defendatuko duen utopiarantz. Eta Sarrionandiak berak pelikularen bukaera italiar konpromiso historikoaren metafora bat dela uste du. Kronika historiko epikomaterialistatzat jotzen du idazleak. Klase borrokaren kezka agertzen zaigu oraingo honetan ere, laborari, faxista eta patroien artean ematen dena, hain zuzen ere. Iurretako idazlearen ustez errealismo sozialistaren joerakotzat har daitekeela pelikula eta, kritikatzan dio manikeo eta eskematikoa izatea. Ezaugarririk interesanteena, bere ustez, didaktismo politikoa da. Osagai ugari ikusten ditu Bertolucci-ren koktelera honetan, zeren eta, alde batetik "hollywoodtar jatorria" sumatzen du, bestetik "Jean Renoir frantziar zuzendariaren errealismo poetikoaren eragina eta lehen zinema sobietikoaren zuzendarien sentido epikoaren presentzia" eta, azkenik, Visconti-ren eragina.

Sarrionandiak Pasolini-rekiko duen miresmena ere ez da makala. Arestian ikusi dugun moduan 1977ko lehenengo zine-kritika horietan jadanik aipatzen du. Atal honi dagokion urtean ere Pasolini-ren lana eta garrantzia aztertzen du eta *Bizitzaren triolojia* osatzen duten filmen garrantzi narratiboa azpimarratu nahi du idazleak: "narrazio zaharren tankera garbi

eta sinpleenak erabiltzen ditu, obra zahar horiek beste edozeintzuk baino kutsu hunkigarri eta unibersalago bat dariotela-ko", eta gehitzen du: "narrazio egitura jenuninoen medioz libertate sexualaz eta ontoloziaz hausnartzen da". Narrazioen egitura garrantzitsua bihurtuko da, modu berean, Sarrionandiaren lan literarioetan.

Pasolini-ren *Il Fiore delle mille e una notti* aipatzen duenean ere, egitura narratiboa azpimarratzen du, ipuinen egitura, 1001 gauetako ipuinen antzerakoa eta Pasolini-ren "trebetasun fabuladorea" goraiatzen du bereziki: "guztia oreka egoki batean antolaturik, errealismo narratibo eta majikoaren artean: majikoa diot, izan ere majikoak baitira gertaerarik gehienak". *Aziz, Aziza eta Budur* izeneko istorioa fabula poetiko aparta delakoan dago. Eta hemen ere, Pasolini-ren elipsiaren erabilera azpimarratzen du. Idazlearen zenbait narraziotan ere elipsiaren teknika topatuko dugu gerora. Diskurtso erotikok narrazioa betetzen duela iritzi dio, baina, Pasolini-ren kasuan erotismo kontsumista ez dela uste du Sarrionandiak, baizik eta "gorputz libroaren gorazarrea. Gorputz bilutsiek, zakil laztanduek, harreman sexual espontaneo eta alaiek kultura terzermundista kutsatugabeetara garamatzate, non lurrarekiko harremana ez den galdu". Askatasun sexualaren diskurtsoa ikusten du idazleak film honen atzean.

Pasolini-ri eskainitako artikulu horretan zuzendari italiararren azken bilakaera aztertzen du eta, botere kontsumistak bere obra integratu eta "instrumentalizatzen" zuela uste zenez "egungo gizartearen eta sexoaren degradazioak" kritikatu egiten du Pasolini-k eta, probokazio gisa planteatzen du bere azkeneko pelikula izango dena: *Salo o le 120 giornate di Sodoma*. Film honetan, iurretarrak ohartarazten digu sexua ez dela naturala, baizik eta traumatikoa, derrigorrezkoa eta itsusia.

Taviani anaien aipamenak ere badu lekua Sarrionandiaren artikuluetan. Toskanako Vittorio eta Paolo zuzendari italiarren

ibilibidearen errepasso labur bat egin ondoren *Padre Padrone* filmaren azterketari ekiten dio. Italiar zinemagintzaren abangoardian kokatzen ditu eta, *Padre Padrone* "hainbat gizarte arazoren azterketa eta gogoeta-proposamen bat dela" azaltzen du. Tavani anaiek, ezker posizioetatik kultura oro zalantzan jartzen dutela dio.

Filma Gavino Ledda-ren biografia da, hasiera batean Sardi- niako artzain analfabetoa dena eta, ondoren intelektuala bihurtuko dena. "Kultura arkaikotik kultura hiritarrera pasatzearen kronika egiten du, askatasunbidea ote den galdetzeko". Patriarkatuan oinarritzen da filmak aurkezten digun gizartea eta "bortxaren jerarkiak sostengatzen du sistema". Zentzu horretan Sarrionandiak klase borroka ikusten du film honetan, aita uga- zaba delako eta, beraz, aitak defendatzen duen iraupena eta semeak (Ledda) defendatzen duen aldaketaren artean gatazka gogorra sortzen da. Gatazka horretan bortxa da hierarkiaren argumentu bakarra eta bortxaren erabilera da semeak emantzipazioa lortzeko duen irtenbide bakarra. Baina, azterke- ta honetan klase borroka eta biolentzia iraultzailea agertzeaz gain "interpretazio freudiano bat ere egin daitekeela" pentsa- tzen du idazleak. Edipo konplexua ikusten du gatazka horren atzean non "ama", hiria izango litzateke.

Sinboloen garrantzia ere agertzen zaigu Sarrionandiaren azterketa honetan, zeren eta inkomunikazioaren aurrean, "Ga- vino-k erosten duen akordeoiak komunikazioa sinbolizatzen du. Hiriaren dei ederra, elkartasunezkoa eta askatasunezkoa".

Dena dela, hirira allegatzean, Sarrionandiak planteatzen digu ez duela askatasuna aurkituko eta, are gehiago, gizarte modernoan ere "hondakin bat dela" ohartzen dela. Hierarkia berri baten menpe dago orain. Eta gizarte berri horretan, tekni- ka eta kulturaren hierarkia aurkitzen du eta kultura "domi- nio"aren arma bihurtzen da. Horretaz ohartzen da protagonista menperatu izatetik pribilegiatu izatera pasatzen denean. Egoe- ra hau erabiltzen du Sarrionandiak botere eta hierarkiaren gai-

neko hausnarketa politikoa egiteko "botere eta jerarkia oro da zapaltzailea" esaten duenean. *Padre Padrone* sistema sozial arkaikoaren kritika bat dela iritzi dio, modernotasunaren arazoa ere, modu ilunean bada ere, konnotatzen bada. Eta filmaren protagonistaren askatasunaren bilaketa horrekin lotuta Cesare Pavese poeta ikusten du idazleak. Biak, laborari izatetik hirira joan direlako utopiaren bila, "modernitatearen kaleetan barrena ibili izan dira hiritar askatasun amestu baten bila. Ez dute aurkitu (esistitzen ez delako agian) noski. Menditik hirira, beste zapalkuntza batera baino ez dira heldu".

5. Zinemaren izen propioak

Sarrionandiaren mundu zinematografikoan izen propio bartzuen hausnarketa ere topatzen dugu. Zuzendari, aktore edo pertsonal gisa ager daitezkeenak.

Idazleak letra larriz idazten duen horietako izen bat da Charles Chaplin, Charlot-ena da. Eta Chaplin-en heriotzaren harira pertsona eta pertsonaiaren gaineko nekrologia eskaintzen digu. Pertsonaren haurtzarora eramaten gaitu artikuluaeren lehenengo lerroetan eta, hemen, beste artikuluekiko desberdintasun nabarmena topatzen dugu, Chaplin-i zuzentzen baitzikio hitzak. Haurtzaroko miseria eta ezbehar horietatik gazte garaletara garamatza, "akrobata bufoi bat izan zinen kafetegietan barrena eta miseriaren eszenetan" doinu poetikoa erabiliz. Eta ondoren, fama iritsiko zela gogoratu ondoren, aurreko sasoi horiek ez zituela inoiz ahaztuko esaten dio Chaplin-i, egingdako lan autobiografikoak erakusten zuten moduan.

"Zureak izan ziren zinemako lehenengo benetako pertsonak" esaten dio beste une batean eta Charlot-en irria sentimentala zela eta umorea suntsitzailea zuela uste du. Puntu honetan Charlot eta Charles nahasten ditu pertsona bakar batean elkartuz "Charloten tragedia, zurea". Eta Charlot bagabundo erromantikoaren irudia goraiatzan du, "judu erratzile"aren irudia. Eta, hasieran Sarrionandiak pertsona eta pertsonaiaren

nekrologia egiten duela esan badugu ere, hemen aipatu behar dugu pertsonaia, Charlot, eternala dela uste duela, "klasegabea, aberrigabea, baina erroak zenituen". Zalantzarik gabe, Charlot-ek irudikatzen duen erromantizismoa, miseria, margi-nazioa eta umorea ederki ongi egokitzen dira Sarrionandiak maite dituen pertsonaien ezaugarrietara.

Luis Buñuel zuzendariak ere pizten du Sarrionandiaren arreta. Honi eskaintzen dio artikulu pare bat urte honetan *Zeruko Argian*. Buñuel-en filmen artean aipatzen duen lehenengo *Viridiana* da. Baina filma aztertu aurretik, frankismoaren garaietan egindakoa dela gogorarazten digu, baita 16 urtez bahitua egon zela ere. "Frankismoan zehar debekaturik eta zentsuraren almazenetan pilaturik egoniko filmeak, orain, askatasun formal berriak direla medio, bat batean agertzen zaizkigu karteleretan". Buñuel-en zineak benetako erlazio sozialen erretratua egiten duela esaten du. Zentzu horretan 1961 urtean egindako *Viridiana* pelikula konplexua dela eta irakurketa asko egin daitezkeela uste du. "Blasfemiatik jenialitatera eta surrealistatik marxistara arteko kalifikatiboak hartu dituen filmea da".

Bere ustez, Buñuel-en filmak "ez dira filme erabat bukatu eta itxi batzuk" baizik eta interpretazio desberdinak egiteko aukera eskaintzen dituzten filmak. "Diskurtsoa ideologia zapaltzaileen kritika bezala antolatzen da eta pertsonaien ezaugarriek osotasun horretan funtzionatzen dute. Egitura hau situazio eta detaile bilakaera batek sostengatzen du". Pertsonaiak kontradikzioetan murgildurik bizi dira, idazlearen iritziz. "Pertsonai mistikoa eta pertsonai utilitarioa"ren arteko borrokan, mistikoa izango da galtzaile. Sujerentziaz beteriko filma dela azaltzen digu iurretarrak eta, bere ustez, "Buñuel-ek pelikulan erakusten duena zera da: ideolojia eta konportamendu ideologiko guztiak hipokritak direla, mistika frakasoaren amildegira kondenaturik dagoela eta mundu burges utilitarioa botxan oinarritzen dela, eta bortxa horrek oro harrapatzen duela". Eta

azkeneko ondorio gisa, pelikulak bi alde dituela azaltzen digu: "Bata zeharo pesimista: utopiarik baduzu profanatu egingo zaituzte. Bestea gizartearen kritikaren aldekoa". Utopia ezinezkoaren bilaketaren ideia eta gizartearen kritika agertzen zaizkigu berriro ere Sarrionandiak aztertutako beste film batean.

Buñuel-ekin jarraituz *Desioaren objeto ilun hori* filmarekin egiten dugu topo.

Pierre Louys idazlearen *La femme et le pantin* nobela postinbolistan inspiraturik dagoela argitzen digu Sarrionandiak. Dena den, Buñuel ez da nobela hori erabiltzen duen lehenengo, zeren eta nobela horren erotismoaren haritik beste filmak ere egin baitira, nahiz eta, Sarrionandiaren iritziz "Buñuelek, hala ere, kutsu oso berezi bat eman dio". Pelikulan, erotismotik sexu harremanetara iragan nahi denean beti agertzen da oztopo misterioitsu bat, pauso hori ekiditen duena. "Desioaren objektua, orduan, obsesioaren eta frakasoaren objektua bihurtzen da". Pertsonaien arteko harremanak, bere ustez, "espontaneoki, diskretuki eta humanismoz azaltzen ditu Buñuelek". Eta pelikula osoa surrealista kutsu batean murgildurik dagoela iritzi dio. Azkeneko hitzak gordetzen ditu idazleak Buñuel-en lana goraiatzeko "pelikula goren bat ez bada ere, merezi du ikustea eta hausnarketa batzuk obra inteligente eta satiriko bat baita eta, gainera, Luis Buñuelena..."

Ingmar Bergman-en *Sugearen arraultza* filmaren kritikaren aitzakiaz, zuzendari suediarren bizitzan sakontzeko aprobeztatu egiten du Sarrionandiak. Filmaren berri eman ondoren, Bergman-en film guztietan agertzen den konstante bat aipatzen du idazleak: "gatazka kolektiboa indibiduaren barne burrukaren ondorio bat besterik ez da". Iurretarraren ustez, film honetan estatuaren botereari buruzko hausnarketa egiten du Bergman-ek eta, gehitzen du, zuzendariaren baitan "pesimismo sakon bat ageri da, gizartearen deterioa eta hondamendia progresiboak eta derrigorrezkoak bailiren. Bestalde, gizartearen degradazioa arrazinalismoatik datorrela ikusten da, mo-

dernitatearen bilakaera autoritarismo eta deteriororantzako bultzatzen".

Woody Allen eta McCarthy senataria dira film baten inguruan agertzen zaizkigun izen propio bi. Lehengoa zinemarekin lotuta, noski, eta bigarrena politikarekin eta, nolabait, zinema amerikarra jasan zuen zentsurarekin ere bai. Ezaguna denez McCarthy-k komunismoaren arriskuaren aitzakiarekin, "sorginen ehiza" bultzatu zuen. Eta ehiza honek eragin handia izan zuen zine zuzendarien artean, Sarrionandiak gogora ekartzen digun moduan: "edonor salatzen zen, persekuzio eta izuzko giro sakon bat sortu zen". Tragikomedia batekin konparatzen ditu gertaera horiek lurretako idazleak eta, ehiza honen biktima batzuen izenak ematen dizkigu: Ezra Pound poeta, Deshiell Hammet nobelagile poliziako-beltza edo Marshall, besteak beste. Hau guztia, dena den, USAko historiarekin lotuta dagoela azpimarratzen du eta aurretik aipaturiko beste artikuluko batean Sacco eta Vanzettiren kasua gogora ekartzen du, baita Ku Klux Klan bezalako erakundeak ere. Eta buruzagien kritika egiteaz gain, idazleak gizarte amerikarra ere kritikatu egiten du "barne barnean dituelako McCarthysmoa berpiztu dezaketen indarrak".

Jarraian, mccarthysmoaren gaia hizpide duen filma bat alpatzen du, *The Front*.

Film honen zuzendaria Martin Ritt da, baina, kasu honetan, Sarrionandiak izen propioa jartzen dio aktore bati, Woody Alleni, hain zuzen ere. Allen-en umore kritikoa aipatzen du eta tradizio komiko amerikanoaren barnean kokatzen du, Sarrionandiak berak maite dituen beste komikoen alboan: Charlot, Buster Keaton, Marx anaiak edota Jerry Lewis. lurretarrari interesatzen zaio, bereziki, Allen-ek ordezkatzeko duen "desheroea"ren irudia, "ez azkarra, ez galanta, ez ausarta, ez aberatsa (...) Indibiduo arrunta eta sentimentala besterik ez da". Sistemen barnean deseroso dagoen indibidua, alegia, honek sortuko dituen egoera tragiko-komikoekin. "Allen, derrotan ere

sinpatikoa da. Eta desegokitasuna inposatzen dioten jaun gorbatahunak ez. Honela Woody Allen irabazlea da beti, eta inguruko en seriotasuna galtzailea eta antipatikoa". Beraz, *The Front*-ek, mccarthysmo bezalako gai tragiko baten salaketa egiteko umorea erabiltzen duela iruditzen zaio idazleari, baina, era berean, lanaren anbiguotasunak kritika politiko erradikal bati ateak ixten dizkiola iritzi dio.

6. Zinemaren gizarte hondatua

Gizarte modernoak sortutako hondakinak dira, askotan, Sarrionandiari interesatzen zaizkion gaiak edota pertsonalak. Horrela gertatzen da Barbet Schroeder-en *More* filmarekin. Marx-ek "lunpenproletargoa" izendatzen zituen pertsonai horien inguruko filma da *More* eta, Sarrionandiak dioen moduan, "literaturan ere maiz isladatu da gizarte modernoaren urradura krudela, esperantza historikoa hil delarik", eta adibide moduan Samuel Beckett-en literatura edota Alfonso Sastreren *Esperando a Godot* antzerki lana jartzen ditu. Desesperantza eta desenkantuaren kronika hauetan, halere, "lirismoa eta edertasun bilatze esperantzatu bat nabaritzen da batzutan". Filma monotonoa dela esan arren, Pynk Floyd-en musika eta hainbat plano oso ederrak dituela azpimarratzen du. Bilatze erromantiko batekin eta Nietzsche-k amestutako "eguzkiaren egrantzako" bidaiarekin lotzen ditu.

(jarrailtuko du)

"Im lauf der zeit" Narrazioak liburuko denboraren ildoan

Ana GÁNDARA SORARRAIN

Lan honen egitasmoa Jon Kortazarren eskoletariko batean sortu zen. Modernitate eta post-modernitatearen inguruan ari ginela, denbora lantzeko moldeez eta denbora motez mintzatu zen eta *Narrazioak* liburua aipatu zuen. Nire buruko erritmoa eskolak ordurarte zeramana baino pausatuago izan zen gelditzen ziren minutuetan. Jadanik *Narrazioak* liburuko denboretan barna bainenbilen. Eskerrak, beraz, Jon Kortazarri eskainitako asti eta languntza guziarengatik eta, nola ez, bertze modu batera, baina konstantzian pausarik gabe, bakoitza bere modura, laguntzaile ditudan aitatxi, amatxi eta amari. Zuendako lan honetan jarritako gozatu nahiz gogo guziaren saria.

*Egungo arteetan, fotografiek, kazetek
eta bestek errealitatearen azalpen automatikoa
lortzen ari direnean, ...*

Idatzi honen helburua, Sarrionandiak *Narrazioak* liburuko hamar kontakizunetan erabili dituen denbora desberdinei buruzko hurbiltze ttiki bat egitea bertzerik ez da. Horretarako, denboraren determinazioari erreparatzeaz gain, denbora motak ere aztertzen saiatuko naizelarik. Azkenik, liburuko denborei dagokien begirada orokor bat eginez. Aldez aurretik barkamena eskatu beharrean nago, narrazio zenbaiti dagozkien atalak gehiago luzatu bertze batzuk baino. Izan ere, batzuetan erran beharra gehiago bainuen, bertzeetan, ordea (denbora

erreala zegozkien narrazioetan, kasu), ez da hala izan eta orokorkiago aritu naiz.

Egungo gizartearen gehiengoa denbora beraren mendean bizi gara, erlojuen denbora etengabe eta zatituaren mende, hain zuzen. Mundu hori bera adierazteko moduak zahar-berri-tuz joan dira. Ez dute jada antzinako arbasoen denbora neurtzeko moldeek balio, adierazkortasuna galdu dute. Errealitate eta biziak azaltzeko ez dute orain arteko neurketek balio, modu desberdinak topatu behar izan ditugu errealitate konplexua ulertzeko eta ulertarazia izateko. Literaturak ere, errealitatearen azalpen automatikoaz haratago, forma anitzak baliotzen ditu. Bertze denbora batzuek asmatzen ditugu ez garelako jada denbora lineal bakar bereko erlojuen mende bizi, ez beti behinik behin. Aunitzetan ez gatoz bat denbora horrekin, desfase bat, koska bat (mila ez erratearren) sortzen da pertsona eta erreallitatea neurtzea helburu duen ohiko denbora horren artean. Joseba Sarrionandiaren *Narrazioak* liburuko hamar narrazio hauetariko zenbaitetan haxe bera gertatzen da: erritmo desberdinak markatzen eta bizitzen dituzte erlojuek, bai beraien artean, baita bertan aurkitzen ditugun pertsonaiekiko ere, egonkortasun gabezia irudikatzen dira.

Narrazio bakoitzak bere *tenpusa* du, bakoitza bere modura txertatu delarik errealitate anitz horretan. Eternal, zirkular, dilatatu, geldiak diren deborak ageri dira bertze hainbertzeko konplexutasun eta aniztasuna duen errealitatearen argigarri. Horiexek guziek, denen artean lortzen dute benetako munduarekiko hurbiltasun handia. Bakoitzak, denek beren aldetik eta guzien artean sortzen dute mila alde dituen denboraren prisma. Izan ere, erlojuek agintzen duten mundu honetan, zail da orratzek markatzen duten denboratik ihes egitea. Denbora horren pertzepzio desberdinerako objektu bilakatu da denboraren prisma hori. Honen aurpegi bakoitza eite bat izanik, denen artean batasun bat osatzen dutelarik.

Hizpide dugun liburuan ohiko denboratik aldentzen diren ikusmoldeen proposamen bat aurki dezake irakurleak, denboraren lantze desberdin posible batzuen proba. Izan ere, denboraren azkartasunak, zamak, mugiarazten omen du mundua gaur egun, baina hau ez da beti hala izan. Ez behinik behin antzinako denboretan. Gure aitzineko jendeak urteak zikloka banatzen zituen, naturaren joan etorriak ziren irizpide, urtaroak izaten zituen mugarri eta eguzkiaren izpiak orratz. Lehenago batasun oso baten lekuko zen unitatea, denbora, ez da osotasun bakartzat irudikatzen. Hainbat ikusmira desberdin eta alternatiboz saiitzen gara Denborak antolatzen eta muntatzen. Denboraren ulertzeko modua zatikatuz joan da, gero eta ttikia-goak diren neurritan, fragmentutan, egunetan, orduetan, minutuetan banatu dugu gure bizia. Epe luzerako denboren orde, epe motzerakoen garrantzia da gaurkoa.

Narrazioak narrazioz osatua dago, narrazio bakoitzak bere determinazio edo determinazio eza du eta bakoitza gauzatzeko modu bat erabili da. Horregatik, ohiko denboraren zatikatze honetaz gain, urtaroen joan etorriak zuzendutako istorioak dazkarzkigu idazleak bertzeren artean. Mitoen denbora determinatutako gabeak, eguzkiaren errainu eta itzalenak, eta erloju desfasatuen denbora zirkularrak ageri zaizkigu. Denbora manipulagarri bihurtzen duten erlojuak dira kontakizun hauetakoak. Antzina denbora anitzez baliatzen ginen: animalien beharren arabera, urteena, urtaro, ilargi eta eguzki zikloena, ... egun, denboraren izate objektibo eta errealitatearen lekuko garbi denaren zalantzak sortzen dira.

Bi talde nagusitan bana genitzake narrazioak: alde batetik, denbora determinatua dutenak eta, bertzetik, determinatutako gabeak. Hala ere, liburuxka honetan biltzen diren denbora desberdinen izatea hori baino aunitzik konplexuagoa da. Horregatik, determinazioaz edo determinazio ezaz haratago, hauetako bakoitza adierazteko idazleak aukeratu dituen bertze denbora molde batzuk izanen ditut kontuan; hala nola, mitoen denbora

(hauetan elezaharren eta naturaren joan etorrien oihartzunak gogora dakarzkigunak bereizi ditudalarik), denbora erreala eta denbora zirkular eta eternala (denbora jarraiaaren kontraposizioan) bereizi ditut. Noski, honako hau proposamen bat bertzerik ez da eta bertzelako irakurketa posibleak ongi etorriak izanen dira. Ni azterketa eta sailkapen hau hautatu izanaren arrazoi ahalik eta sendoenak ematen ahaleginduko naiz. Hala ere, ezin ahaztu da hurbilketa ttiki bat bertzerik ez dela lan hau. Liburuak berak gehiagorako aukera ere eskaintzen baitu, dudarik gabe.

Denbora determinatu eta determinatu gabeen aziaz

Determinazioaren gauzatzea hagitz kontu subjektiboa da. Narrazio bat guztiz determinatua den edo ez erabakitzea zail da zenbaitetan, eta ziur nago erantzun jainkozko eta guztizkorik ez dagoela kasu aunitzetan. Zenbaitetan, data bat ez da nahikoa erreferente sendoa izaten kontaketa bat determinatua den edo ez erabakitzeko. Aitzitik, baliteke data konkretu baten erabile-
rak determinatu gabetzeko ahalmena izatea, denbora guzietarik at utzi eta denbora guzietarako mito bihurtuaz kontakizuna. Guztion burutan dagoen denbora epe edo urte baten manipulatzeak, adibidez, gertakari konkretu batetik orokortasunera eramane gaitzake.

Zail da guztiz zehatza den idatzirik topatzea, nahikoa aspergarria izanen baillizateke datak eta orduak, minutu eta segundoa behin eta berriz errepikatzen dituen testu bat irakurtzea. Horregatik ohikoa da, gaur hizpide ditugun idatzien moztasuna duten narrazioetan are gehiago, momentu bakar batean denbora aipatzea eta handik aitzina irakurlearen esku uztea honen jarraipen eta segimendua.

Narrazio hauetan garbia da determinazioaz landutako denborak badirela, "Sonbreiru baten istorioa"n, adibidez. Gizon zahar batek emakume batenganako sentitzen duen maitasun

bat-batekoa kontatzen zaigun honetan, denbora erreferentzi konkretu bat ematen zaigu hasieran, *arratsaldeko seirak heltzear dira*. Ondoren, ordea, *iluntze, udaberri, neguak aipatzen dira*, berriz ere naturak agintzen dueneko denbora zikloetan barneratuz irakurlea. "Gaueko enkontrua"n edo "Kristalezko bihotza"n ere gauza bera gertatzen da. Hirurak dira determinatuak, beraz. Baina ugariagoak dira, ene ustez, indeterminazioa aditzera eman edo hau erabiliaz eraikiak diren narrazioak. Honekin zera erran nahi dut, badirela denborari erreferentzi konkretua egiten dioten pasarteak, baina kontakizuna bere osotasunean determinatzen ez dutenak. Hasiera aldera denbora determinatua agertzen den narrazioetan ere, ez da behin ere urtearen datu zehatzik ematen, garai, edo X eguneko momentu bateko erreferentzia baizik. Mondik begiratzen den horrelako narrazio motxetarako nahiko determinazio dela, edo narrazioek jarraitzen duten ildoak ikusirik (bertako metafora, erlojuen joko) nahikoa ebidentzia ez edo determinaziotik indeterminazioranzko metamorfosi bat gertatzen dela ere pentsa genezake.

Denbora determinatua gauzatzeko baliabideak ageri dira, noski (urteen datak, orduak). Baina, kontaketa zenbaitetan hasiera batean denbora determinatu egiten duen esapideren bat agertzen den arren, narrazioan aitzina egin ahala determinazio hori galduz doa, ahaztuz, lausotuz edo garrantzia galduz, denboraren desfaseak gertatuz, zirkulartasuna iradokiz eta abar. Baliteke prozesu honen adibiderik garbiena "Arima naufrago bakartiak" narrazioko datarena izatea: *1814ko urriaren hamazazpia*. Lehendabiziko irakurraldian, agian, denbora zehatzaren seinale garbia iduri dakioke irakurleari esaldi hau. Zer du ordea berezi data honek? Sarrionandia maiz irakurtzen duen irakurle orok aski ongi badaki, idazle honek Herman Melvillen obrarekiko testuartekotasuna aunitzetan erabili izan duela bere lanetan. Kasu honetan, H. Melvillen biografiarekin lotura zuzena agertzen da datan. Izan ere, Herman Melvillek 1841ean ekin zion Acushnet izeneko bale ontzian Hegoaldeko Itsasoetarantz

ko bidaiari. Beraz, bidaia bien urtea bera da, azken bi zifren ordena aldatuaz gero. Testuartekotasun honekin hain determinatua zirudien narrazioak galdu egin du bere izaera konkretua, determinatu gabea egin da, "atenporal" bihurtuz. Horrela, narrazio konkretu baten denboraz haratago joanez. Hortaz gain, narrazioak aitzina egin ahala marrazten zaigun kronotopo determinatu gabeak eta istorioak berak duen oihartzun mitikoak begi bistako emaitzak ematen dizkigu.

Are gehiago, liburuaren osotasunean denbora determinatu gabea nagusi dela erratera ere ausartuko nintzateke. Nolabait erratearren, denbora mota anitzak dira, baina ia guziak daude indeterminazioaren hariaz josiak. Indeterminazioa, ordea, ez da guzietan berdin gauzatzen. Ia denak dira denontzaako ezaguna den denbora kronologiko eta historikoan zehazki koka ezinak, istorioak noiz gertatzen direnaren inongo erreferentziarik ez dutenak, alegia, zenbait kasutan.

Determinazio eta determinazio ezaz gainera, azpi denbora desberdinak banatu izanaren arrazoiak, erran bezala, zera izan da, determinazio nahiz indeterminazioa modu aunitzetara gauzatzen dela narrazio hauetan eta, bakoitza, denbora desberdin baten lekuko dela. Are gehiago, ene ustez, denbora mota desberdinak bai, baina indeterminazioa da narrazio ia guzietako denboren ardatz. Orokorrean badute narrazio guziek koherentzia tenporal bat, narrazio bakoitzaren idazketa eta barne denboraz haratagokoa: determinatu gabeak dira ia guziak. Ziur aski jende aunitz ez da nirekin ados egonen hitz hauek irakurri eta berehala, baina utz lezadazue lehendabizi nire ikuspuntua azaltzen eta argumentatzen, eta, ondotik, izanen dugu denbora (determinatu edo determinatu gabea, lineal edo fragmentarioa) kontra egiteko.

Beraz, lehen sailkapen orokor baterako nire proposamena hau da: alde batetik, denbora determinatu gabea duten "Estazioko begiradak", "Arima naufrago bakartiak", "Ginebra erregina herbestean", "Itzalarekin solasa" eta "Mezurik gabeko he-

riotza" leudeke, hain zuzen lehen bortz narrazioak direnak, eta baita azken biak diren "Amodio fantasia bat" eta "Marinel zaharra" ere. Bertzetik, "Sonbreiru baten istorioa", "Gaueko enkontrua", eta "Kristalezko bihotza", aurreneko bortzei jarraiki sei, zazpi eta zortzigarrena direnak leudeke.

Ondoko pasarteetan narrazio bakoitzean erabilitako denbora mota eta determinazioa iruzkintzen ahaleginduko naiz.

Denbora mitikoak

Denbora mota honetan landuko dituan narrazioak "Arima naufrago bakartiak", "Ginebra erregina herbestean" eta "Mezurik gabeko heriotza" dira. Lehengo narrazioan aurkitu dugun ezaugarri nagusia determinazio gabezia eta honekin jokatzeko idazleak sortzen duen narrazio hibridoak dira. Bigarrenean ere denbora determinatu gabea izanen dugu, baina erreginarenean urte kopurua aipatzen duena. Azkenik, hirugarrenean, determinazio gabezi bera dagoen arren, urtaroei zehaztuko dute istorioa gertatzen direneko denbora. Beraz, denbora mitikoa komunean duten arren, indeterminazioa desberdina da guzietan, guztizkoa gertatu ez eta konbinazioak gertatzen direlarik.

Mitoen denborak denok, noizbait, ipuin eta kontaketeetan entzun izan ditugun denbora hilezkorrak dira. Denbora historiko eta linealak aitzina egin arren bertze garaietako, egiazko nahiz ustezko, espaziotara eramaten gaituztenak, hain zuzen. Ez daude ez gertu, ezta urrun ere. Daude. Gure memorian gorderik, denbora kronologikotik at izan ziren sortuak.

Narrazio hauetan mitoen denbora mota bi bereiz daitezke: alde batetik, ipuin eta fantasiako, elezaharrena, "Arima naufrago bakartiak" eta "Ginebra erregina herbestean" narrazioetakoa. Bertzetik, naturaren berezko erritmoak jarraiki sortzen diren zikloenak aurki ditzakegu, "Mezurik gabeko heriotza"n, kasu.

"Arima naufrago bakartiak" en denbora mitikoa dugu. Elezaharrekin, Coleridgeren *Marinel zaharraren balada* liburuaren pasarteekin, narrazioaren hasierako aipamenean idazleak berak ematen digun erreferentzia ukaezinarekin (Herman Melville-ren hitzak ekartzen baititu gurera) eta bertze hainbat eta hainbat marinelen kontakizunekin gurutzatzen baita. Denbora determinatuarekin ematen dio hasiera narrazioari; hau da, narrazioaren hasiera denbora determinatu batean kokatua aurkezten zaigu, 1814ko urriaren hamazazpia dataren bitartez. Data honi dagokionean, ordea, determinazioa hankamotz geratzen da *Moby Dick* liburuaren idazlea bidaiari abiatzen deneko data bera baita, azken bi zifren ordena aldatuaz gero. Gainera, narrazioan barna determinazioa galduz doa istorioa azkenerako guztiz identifika, determina ezina egiten zaigularik. Determinaziotik indeterminaziorako bide hau argumentuarekin aldera genezake. Marinelak ekaitzak eragindako zurrunbiloa dela eta, galduta daude itsasoan. Irakurleari, hainbertzez, marinelei itsasoaren amorruren ondorioz sortu zaien egoera erreferentziarik gabea, denbora (bide batez baita lekua ere) determinatu gabea dela medio sortarazten zaio.

Denbora determinatu gabea narrazioaren argumentuarekin bat dator; izan ere, marinelak ekaitzaren ondorioz galtzen diren momentutik hasten da denbora determinatu gabea izaten. Marinelak galduak direnetik egunaren zikloak markatzen dituzten fenomeno logikoez (gaua, goiza) gain ez da denborarekiko bertze erreferentziarik. Irakurlearendako, ordea, narrazioaileak darabilen determinazio falta dela medio gauzatzen delarik.

Narrazio honek badu "Estazioko begiradak" kontakizunaren denborarekin erlazio estua. Alde batetik denbora mitikoen oihartzuna du, baina bertetik denbora eternala adierazten dute narrazio hau osatzen duten pasarteek. Izan ere, zenbaite-tan hertsiki dago erlazionatua mitoen denbora eta honek aunitzetan iradokitzen duen denbora eternala.

Kontakizun hauetan biltzen diren pertsonaien ezaugarrieta-ko bat bakardadearena da. *Bere begirada geltoki bakartian, bakarrik bere buruarekin mintzo da* edo bigarren narrazioko *irla bakarti bat zen, bakarrik geratzeko beldurragatik* eta abar. Bertalde, harrigarria da narrazio bietan bakardadearen agerrera esplizitua kontakizunaren erdian kokatua egotea gutti gotti be-tti (pasartetarik 7.ean lehenengoan eta 22 pasartetarik 13.ean bigarreanean).

Horretaz gain, denboraren iragaitearen sinbologia berezia darabil Sarrionandiak bere narrazio hauetan; dortokak, zahar eta geldoak. Irlara ailegatzen diren unetik aitzinera dortokaka dira denboraren iragaitearen eta moteltasunaren erakusle, sin-bolo. Lehen narrazioan, berriz, aulkiak izanen dira gauza bera-ren erakusle.

Azkenik, isiltasunak amaitzen eta ixten ditu bi narrazio hauek: *eta zurezko aulki zahar eta hautsi bi gorolditzen, isilta-sunean, isiltasunak ez bait du trenik hartzen; albatro mutuek soilik igar zezaketen paper puska haletan e zegoela deusere izkiriaturik.*

"Ginebra erregina herbestean" narrazioan denbora mitikoa dugu berriz ere. Arturo erregearen elezaharreko giro eta pertsonaiak oinarri harturik, hain ezaguna den istorio horren denbora determinatu gabean kokatzen du irakurlea. Elezahar Internazional hori gure herri eta inguruetara ekarriz (Arrasate, Urkiola), gure herriko ateetatik urrun baino urrunago gertatu den istorioa gure bide estratetaraino hurbiltzen du. Pertsonaien arteko berezko erlazioak nahasiz (Lanceloten semearekin ohe-ratzen da Ginebra erregina, ez Lancelot berarekin), hemen agertzen den denbora mitikoa gogora dakarkigun arren, inde-terminazioa areagotu egiten du, irakurleak elezaharrarekin be-rez egiten dituen loturak hautsiz eta narratzailearen mende jarriz. Jadanik ez dira Britainiar uharteetako biztanle, Euskal Herrikoak baizik.

“Mezurik gabeko heriotza”ko pertsonaiak naturarekin uztartuta, bere usadioen mende, bizi bertze erremediorik ez duten baserri munduan bizi dira; beraz, naturak darama denboraren zama, eta berarekin, pertsonaien bizitzak. *Egun luzeen aroa; iluntzea; goiza; eguzkiak, abailkeran, mendien marra ukitzen zuenerako iturrian elkartzen ziren, iluntzera arte; eguzkia... mendietan murgiltzen da; oraindik. Eguzkia noiz eta non, pertsonaiek hau edo bertzea egin. Gainera, pertsonaien jarrera eta Martintxok irudikatzen duen primitibotasuna dela medio antzinatasuna dario kontakizunari, usainak baitira behin eta berriz errepikatzen narrazio osoan zehar: *hauts bustiaren usain lizarretako onddoen usain, ortzadar usain...**

Erran bezala, hiru kontakizun hauen denbora mitikoa da, nahiz eta bi mota denbora desberdinetan sailkatu ditudan. Hala ere, naturako denboraren araberako indeterminazio hau bertze hainbertzeko narraziotan agertzen da. Idatzi honek aitzina egin ahala azalduko ditudanak.

Denbora erreala

Denboraren erreala gailentzen da “Itzalarekin solasa”, “Sonbreiru baten istorioa”, “Kristalezko bihotza” eta “Marinel zaharra” narrazioetan. Aipatu berri ditudan lehen eta azken narrazioek denbora determinatua dute eta bertze biek determinatua. Hala ere, determinazio hori “Sonbreiru baten istorioa”n orduak direla medio gauzatu da eta, “Kristalezko bihotza”n urte eta urtaroak direla medio. Determinazio falta, ordea, denbora mitikoa zuten narrazioetan ez bezala ez da inola ere gauzaten. Beraz, ez dago hibridismorik zentzu honetan.

Denbora erreala gauzak orden logiko batean, denboraren iragate arrunt eta homogeenan gertatzen denari delitu diot. Inongo desfaserik jasaten ez duena, hain zuzen. Denbora honetan ez dago minutuen eternaleko luzapenik, ez eta mitoen

oihartzuna dakarren denbora "ez-tenporal"ik ere. Hau da, denborarik gardenenak ageri dira narrazio mota hauetan.

Liburu honetan lau narrazio daude denbora mota honen arabera landuak. "Itzalarekin solasa" eta "Marinel zaharra" determinatu gabeak dira, "Sonbreiru baten istorioa" eta "Kristalezko bihotza", ordea, determinatuak. Azken bi hauen determinazioa desberdin ematen zaigu, lehenengoan ordua aipatzen da *arratsaldeko seirak heltzear*, bigarreanean, urte eta urtaroak direla medio egiten da zehaztapena *gure Jaunaren larehun eta berrogeita laua zen, uda*.

Erran bezala, denbora mota hau ageri da "Itzalarekin solasa"n. Honetan, ez dago inolako denbora erreferentziarik, determinatu gabea da guztiz, kontaketa itsua da zentzu honetan. Indeterminazio honetan ageri den denbora, ordea, erreala da. Kronologia logiko bat darama, bertan kontaktzen dena egungo denbora lineal eta logikoan gertatzea posible litzatekeen edo ez alde batera utzirik, ez du denbora desfaserik jasaten eta lineala da. Gauza berdina gertatzen da "Kristaleko bihotza"n. Denbora honetan ez da inolako desbideratzerik gertatzen, eta lehen aipatutako kontakizunaren barne logika bera du. Bi narrazio hauen arteko konparaketa egitean, denbora bera izan ordez berdina zutela erran izanaren arrazoa, azken honek hasiera batean behinik behin, denbora erreferentzi konkretua eman izana da, nahiz eta gero erreferentzia objektibo¹ oro galtzen den.

"Marinel zaharra" narrazioari dagokionean, denbora erreal agerikoa duen narrazioa izan arren, kalatxorien mitoak, *portuko ordu galduek* mitoena den kutsu betiereko bat somatzen zaio narrazioari. Zentzu batean narrazio hau "Arima naufrago bakar-tiak" narrazioaren kutsu berekoa da. Honetan ere Melvilleren liburuaren oihartzuna dakarren *bale zuri bat* agertzen da, baita

[1] Erreferentzia objektibo: ardatz kronologiko batean urteen arabera kokatu ahal dena. Honelako inongo erreferentziarik gabekoa, ordea, testu itsua bezala izendatu dut.

Coleridgeren *Marinel zaharraren balada* liburuko txorien mitoa eta izenburua. Beraz, ezin saihestu da mitoen oihartzuna duen narrazioa dela hau.

“Sonbreiru baten istorioa”ko denboraren arazoa zera da, erreala izanik ere, egitura borobila duen istorio bat aurkezten digula idazleak. Egitura zirkularra da, bere baitan ixten baita ipuina, azkenean hiru lerro gehitzen dizkiolarik. Hasiera nahiz amaieran errepikatzen diren hitzak hauek dira: *Elurte handia eginen du goizaldean eta ez dira malutak urtuko, hirinezkoak balira bezala geratuko dira gauza guzien gainean, zuhaitz arramak ere zuritasunaren azpian makur araziaz, eta altzairuan bezala isladatuko dira lehen eguzki errainuak, ahul eta ausartak. Orduan, egunsenti gardenean, ezkurdian barrena noraezean ibiliko da Lorelei, eta elurtzan erdi estaliriko sonbreiru bat aurkituko du. Eta azken hiru lerroetan gehitzen diren hitzak: eta berehala, hantxe aldamenean, ia erabat estalia, agure baten gorpua. Gorpuaren aurpegiko irribarre mutu eta ergela, neskatilari, haren egoerarekiko desegokia irudituko zaio dira. Egitura honek denbora erreal hori haratago eramanez denboraren errepikatze, banaketa edo zatitze desberdin bat ematen digu aditzera. Denboraren ikusmira desberdin batetik daude aurkeztuak gertaerak. Hau da, denbora puskak bertze modu batera itxeki dira.*

Bertzalde, *hasiera eta amaierarik ez duen errealtateari hasiera eta amaiera bat imintzea da literatura* hitzek amaierako azken hiru lerroen jatorriaren berri ematen digute. Izan ere, erranak erran, idazleak, errealtatearen hasiera eta amaiera gabezia hori erakutsi nahian, egiturako hasiera eta amaiera bera jartzen ditu, baina aldi berean, bukatzerakoan, benetako bukaera literario bat ematen dio bertze hiru lerro gehituaz. Beraz, denbora erreala den arren, denbora zirkularra iradokitzen du. Horrela, literaturaren errekurtsioekin eta ustezko eginbeharrekin jolastuz, zirkulartasun horretatik haratagoko amaiera bat ezartzen diolarik.

Gezurra badirudi ere, hau izan da lana idazten ari nintzelarik arazo gehien sortu dizkidan denbora mota. Izan ere, narrazio batean baino gehiagotan gertatzen da denbora hau, baina narrazio guzi hauek hibridoak dira. Honekin zera erran nahi dut, momenturen batean denbora erreala agertu arren, denek jasaten dutela denboraren trataeraren edo ulertzearen aldaketaren bat.

"Mezurik gabeko heriotza"n denbora erreala ageri dela pentsa genezake. Ene ustez, ordea, eguzkiak markaturiko eta baserriko mundu mitikoaren denbora ageri zaigu bertzea baino gailenago. Horregatik, denbora bera duten gainontzeko narrazioekin batera alpatua dut lehen atalean.

Denbora zirkular eta eternalak

"Estazioko begiradak" eta "Gaueko enkontrua" dira *tempus* honen adierazle nagusiak liburu honetan. Hala ere, badituzte elkarrengandik argi eta garbi desberdintzen dituzten ezaugarriak Horregatik, akaso, eternalitatea lantzeko sinbologia eta moldeei dagokienean elkarren orekatzaille gertatzen dira. Alde batetik, lehenengoa determinatu gabea izateaz gain, orratzak geldirik dituen horma-erlojua da bertako denboraren gidari. "Gaueko enkontrua"n, ordea, determinatua izateaz gain, hare aleen jarioa geldituz gero denbora pausatzeko eta eteteko gaitasuna duen hare-erlojua da gidari.

Deigarria da betierekotasuna gauzatzeko idazleak erabili dituen bi modu hauek. Izan ere, narrazio bakoitzak bere eternalitate propioa du, bertzearekin komunean betierekotasunaren ideia eta hainbat bertzelako elementu dituen, baina, era berean, gauzatzeko modu desberdinak dituztenak.

Orokortasunari begira, "Estazioko begiradak" narrazioa determinatu gabea den bezalaxe, "Gaueko enkontrua" determinatua da, *ilunabarreko zazpirak laurden gutiagotan*. Hala ere,

bien arteko kidetasuriak ugariak dira. Kidetasun hauek ba-koitzari begiradatxo bat bota ondotik azalduko ditugu.

“Estazioko begiradak” narrazioan erranguratsua da hagitz idazleak denborari erreferentzia egiteko darabilen lexikoa, denborak uste baino zama handiagoa baitu narrazio honetan. *Orratzak geldirik dituen horma-erloju bat; orratz zaindariak abandonoarean orduetan; berunezko arratsak*. Orratzen irudiarren bidez erloju-denbora irudikatzen da, geldirik dagoen denborarena. Estazioko denbora fisikoa geldirik baitago.

Denbora fisiko horrek, bere geldian, desterraturik, galdurik, hutsik dauden pertsonaiak, beren biziak, “zaintzen” ditu. Estazioko denbora ezin da ohiko elementu neurtzaileen bidez neurtu ahal. Bertze denbora berezi bat dut estazioak² ohiko parametroen bidez neur ezin daitezkeena (erlojuen bidez, kasu). Pertsonaia hauen hutsalak beraien istorioek denboraren ardatzean kokatuta daudeneko lekuari buruz ere bada zer erranik. Izan ere, 2. mailako istorioek osatzen duten denbora epeak, pertsonaia nagusiaren istorioan narraztaileak egiten duen denbora parentesi mentalak, lehen mailako istorioaren estazioko denborarekiko hutsune horretan baitaude sortuak. Nolabait ere pertsonaia nagusiaren buru barnean sortzen den bertze denbora horretan. Behin eta berriz pertsonaia nagusiaren gogamenean errepikatzen den denbora hutsalean. Beraz, estazioko denbora kronologikoari inongo erreferentziarik egiten ez zaion hutsunea, hau da, bigarren mailako istorioei dagokiena, pertsonaia nagusiaren imajinazioak sortuko dituen bigarren mailako ustezko pertsonaien izaera hutsalean proiektatua egon liteke. Akaso, pertsonaia nagusiaren biziaren hutsalak estazioko denbora hutsean sortutako parentesian sortuko dituelarik hainbat bizi hutsal. Hain zuzen, pertsonaia eta denboraren arteko erlazio hertsia den lekuko da pertsonaia gehienak denbora-

[2] §5, *Senarra hamaiketako trenan helduko dela uste du... eta ez daki hamaiketan trenik ez dagoela*. Pertsonaiek beraien ere ez dakite estazioa ez dagoela ohiko denbora hautematearen mende.

ri buruz hausnartzera etorri izana estaziora, edota denboraren legeak hausten saiatzea (pertsoneaia narratzailearen beraren hitzetan adierazia dena): estazioak badu erlazio berezia denborarekiko. Pertsonaiak bertara joaten dira denborari buruz hausnartzera, oroitza, denboran atzera eginez, ahaztera, denboraren iraganari ez-ikusiarera egitera.

Tren geltoki honetan ohiko denborarik-eza, denbora "antzua", bertan biltzen diren pertsonaien (pertsoneaia nagusi zein honen mentean sortutako) isla da, ez baitira edonolakoak pertsonaia hauei dagozkien ingurukoak izan daitezkeen ezau-garriak: § 3 *bakarrik, bere buruarekin mintzo*; § 4 *estazio lohi honetara etorri da, oroitzeko edo, ez daki, ahaztutzeko*; § 5 *bere senarraren zain etorritako andere bat; esperoan dago*; § 6 *itzalak bakarrik inguruan*; § 7 *bere begirada geltoki bakartian zehar*.

Errepikakortasun irudipena dario narrazioari. *Burdinbide amaigabe; trenaren gurplek egunero ehun aldiz zapalduko erloju baten antzera; estazio honetara dator ilunabarrero... etxeko zerbitzari bat bere bila etortzen den arte*. Ezinbertzean aipatu beharrekoa da pertsonaia nagusiak bertze ustezko pertsona horien irudia eraikitzen duenean hauen aurkezpena behin eta berriz toki beretik hastea, behin eta berriz pertsona eta istorio, bizi, desberdinak imajinatzea. Horrela, idazleak amaierarik gabeko denbora, errealitatea, eternitatean errepikatzen den espazio batera garamatzen irudipena sortzen zaigu.

"Gaueko enkontra"n denboraren manipulazioa da nagusi. Denbora determinatuz hasten da narrazioa, bertze hainbat kontakizunetan bezalaxe, *ilunabarreko zazpirak laurden gutiagotan; martxoko egun arrunt ia itzalian*. Jendea ordularien murrizketan bizi edo ez, *gaueko* eta *eguneko* pertsona bezala sailkatzen ditu pertsonaietako batek, baita narratzaileak ere. Gauekoak denboraren murrizketarik gabe bizi dira, egunekoak, ordea, erlojuen murrizketapean.

Denboraren manipulazioaren lekuko ezin hobea da Denbora harezko erloju batekin identifikatu eta honen ale lodi batek pasabidea ixten duelarik, denbora gelditu dela kontatzen zai-gun pasarte: *denbora gelditu egiten da, hare ale lodiago batek eragozten bait du erlojuaren bitarteko zulotxo*a. Harezko erloju hori da, jainko batek eginen lukeen bezalaxe, narrazioko pertsonaien denboraren iragaitea zuzentzen duena, denbora geldituz, luzatuz, amaigabe bihurtuz. Horrela, ale lodia desegiteak denboraren jarraitzea ekarriko du: *hare erlojuan, ale lodia desegin eta itzuli egiten da denbora apurka apurka eta urduri*. Hau da, ipuin honetako jendea, denbora bere erritmoen arabera mugitzen duen harezko erlojuaren mende bizi da.

Dilatazio eta uzkuertzeak denboraren iragaite irregularra sugeritzen dute: *une luzeak iragaiten ari, Mikel han, lantegi atari haretan, hare erloju bitarte hestuko baten aleak bezain astiro iragaiten bait dira uneak. Batbatean, ordua iristen da*.

Hortaz gain, narrazio honetako denborari betierekotasun kutsua somatzen diot nik. Alde batetik, *erloju orratz geldo, orratz hain astiro, bertzeko egunen zirkulu, egunen iragan eta gu beti zai egoteak, pertsonailetako baten errepikazio bereziak, gertaerak, posibilitateak... bizi egiten nituen gauzok, eta idatzi ere, zirkuluan idazten nuen halegia* hitzek eraginik, ziur aski. Pertsonaiek beraiek ere sugeritu egiten dute *niri denbora ez dela iragaiten eta nahi duzuna aukera dezazula gustatzen zait zineman... gero suizidatu egin zela uste dut, baina gu bila etorri eta hemen aurkitzen dugu beti*.

Bigelago aipatu dudanez, erloju hauen artean elkarrizketa berezia dago. Paralelotasun antzeko bat gertatzen da bien artean. "Estazioko begiradak" narrazioan orratzak geldirik dituen horma-erloju aurkezten zaigu, baina "Gaueko enkontrua"n denboraren iragaitea, hare aleen jaria lez, bere baitan manipulatzen duen hare-erlojua dugu. Batean denboraren neurtzaile diren orratzek ez dira mugitzen. Bertzean, aleak jarioan bai, baina itxi egiten da pasabidea.

Era berean, bi narrazioek egiten diote erreferentzi zuzena amaieran isiltasunari: *urezko aulki zahar eta hautsi bi gorolditzen, isiltasunean, isiltasunak ez bait du trenik hartzen, etaheuren alboan pausatze ziren albatro mutuek solik igar zezaketen barruko paper puska haietan ez zegoela deusere izkiriaturik*. Denbora eternal hauetan geratzen dena mututasuna, isiltasuna da.

Denbora desberdinak aztertzen saiatu naizen honetan, denborarenganako begirada desberdin bakoitzaz narrazio bana sumatu dut nik. Hala ere, badira liburuan zehar isilka agertzen diren denbora alternatiboak ere: *abandonoaren orduen lekuko den estazioa, zain dagoen jendearen denbora, gauaren denbora*. Baina denbora eternalaz osatuak dauden narrazio bietan *zain, esperoan* dagoen jendearen denbora nagusitzen da berzeen gainetik.

Denbora irudiz asetutako denbora eza:

Azken aurreko narrazio den "Amodio fantasia bat" narrazioaren kasua berezia da. Izan ere, Sarrionandiak berak "Narrazioei ohar batzu" atalean dioen bezalaxe, kontakizun baten inguruan txertatzen dituen eguneroko egoera eta gogoetetz dago osatua. Beraz, argumentudun kontaketak bere denbora daraman arren, bertze errealitate "puskel" denbora eza darie. Bere osotasunean da determinatu gabea narrazioa, nahiz eta argumentudun kontakizun ezagunean *usoak iragaiten direneko ordua, gauerdia, egunsentia* eta abar aipatzen diren. Beraz, neurri batean naturaren denbora mitikoen arabera gauzatzen den narrazioa da. Hala ere, inguruko bertze pasarteek independenteak dira honekiko eta ez dute denboraren kohesiorik erakusten.

Eguneroko egoera eta gogoetetan oinarrituak dauden pasarte ttikiek, ordea, badute liburu osoan zehar landu eta aipatuak izan diren denbora eta honen sinbolo izan diren irudiekin

loturaririk. *Itsasoa, ispilua, zatiak, hirian gertatzen deneko enkontrua, erlojua, ilunabarreko tren, estazioa, dena sostengatzen duen hare haria, euri tantak hiriko teilatu, harlausa ta kristalen aurka...* denek dute aurretiko narrazioen elementu edo pasarteren baten oihartzuna. Beraz, nahigabe bada ere irakurri berri diren kontakizunetako denborak oroitzen ditugu. Hau da, denbora konkretu edo finkori kez izan arren, aitzinean landutako denboren oihartzunen jabe dira pasarteak.

Hausnarrerako denborak

"Erlojuetako denboraren arauera moldatzen dira egun gure bizitzak, eta gure aldetik erlojuen esklabutza hori onartzen da, denbora bera zer den eta geure bizitzaren zentzua ere zein den hausnartzeko astirik geratzen ez delarik".³

Erlojuen esklabutzak sortzen digun denbora falta aipatzen da Sarrionandiaren hitz hauetan. Liburu honetako narrazio batzuetan, ordea, horretarakoxe kreaturiko denbora, denbora ezak eta espazioak eskaintzen zaizkigu. Liburua bera da denbora bera zer den, zer dioen eta zer erran dezakeen hausnartzeko *tenpus* desberdinak eskaintzen dizkiguna. Lehen narrazioan agertzen zaigun denboran, bizitzaren zentzuaz hausnartu eta denbora zer denari buruz pentsatzeko beta dugu: *gogoratu, oroitu, imajinatu, ahaztu, pentsatu, asmatu, behatu, begiratu, ikusi*, egiten da. *Eguna iragan eta gu beti zain; gauekoek ez dute ordurik eta begira zelako morrontza ezartzen digun guri erlojuak...* Jadanik aipatuak direnak eta eman daitezkeen adibideak aunitz dira, baina ez nuke sobera adibiderekir irakurlea asperrarazi nahi. Nahiko adibide garbia da liburua bere osotasunean. Izan ere, denbora desberdin posibleen moldaketek Denborari buruzko hausnarra dakarte derrigor.

[3] *Hi ez naiz hemengoa, "Denboraren fabrikazioa".*

Tresna ugari eskaintzen dizkigu liburu honek: denbora gelditzeko ahalmena duten erlojuak, denboraren iragaite eternaleko estazioak, mitoen denbora hilezkorra gurera hurbildua, trena... bertzerik da nola erabiltzeko eta ulertzeko abildadea duen bakoitzak. Beraz, mota desberdineko denboren gainetik Denboraren hausnarreko espazio irekia zabaltzen digu liburu honek.

Gogoetak

Iruzkinetan errandakoaren bilduma lanttoaren hasieran emana dut. Hala ere, ez da soberan egonen errepasso ttiki bat egitea. Alde batetik narrazioen izaeraren determinazioaz jardun dugu. Nahikoa garbi geratu delakoan nago hamar narraziotarik hiru bertzerik ez direla determinatuak. Bertze zazpiak determinatu gabeak dira bere osotasunean edo "Arima naufrago barkartiak" narrazioaren kasuan bezalaxe, narrazioaren hasieran agertzen den data ez da nahikoa determinazioa lortzeko. Aitzitik, determinatu gabetu egiten baitu kontakizuna.

Bertzetik. Lau denbora mota desberdinetan sailkatu ditut: elezahar eta naturaren denborak osatzen duten denbora mitikoa, erreal eta eternalak. Guztien artean, ordea, duten denbora dutela, duten determinazio dutela ere, Denboraren agerpen anitzak bertzerik ez dira. Liburua prisma bat da. Bere baitan Denbora gordetzen duen alde anitzetariko prisma da. Alde aunitz ditu, desberdinak, konbinagarriak, denak zilegi, denak emankor, denak literatura.

Denborak aldatuz doaz, erlojuak agintzen ez zuten denboretatik itzalen bidezko erloju eta hare-erlojuen denboretan sartu ginen. Ondoren, erloju analogikoak asmatu genituen, espazioarekin lotua dagoen neurketa mantenduaz oraindik ere. Azkenik, erloju digitalen aroan sartu gintuzten. Liburu honetako erlojuak, ordea, desberdin ageri dira. Orratzak geldirik dituzten horma-erlojuak, bata bertzea baino motelago doazen eskuko

erloju eta hormetakoak, denbora guztiz bere mende duten hare-erlojuak. Izan ere, errealitatean zehaztasuna irabazten joan den arren, denbora neurtu eta bereziki ulertu eta erakutsia izateko ez baitago modu bakar bat.

Amaitzen ari garela igarririk, Sarrionandiak erraniko hitz batzuen gogoeta ttiki bat egin nahiko nuke. Mitxel Sarasetak 1984an Sarrionandiari eginiko elkarrizketa batean "Zer da literatura hiretzat, ihesa?" galdetzen zion. Idazleak zera erantzun zion "Ihesa ez. Literaturarekin ez duk inora ihes egiten". Elkarrizketa hau *Narrazioak* liburua argitaratu ondorengo urtean eginga da. Baliteke literatura fisikoki ihes bat ez izatea, bai, ordea, gure buruarendako ihesbide paregabea. Mundu hau utzi eta bertze mundu, garai eta denboretako paisaietara ihesian joateko aukera. Agian, literatura, momentu hartan preso zegoenaren ihesbide izatea, edo bertzeon ihesbiderako egin izana denbora sorta bilduma hau. Norberak bizi dueneko denbora ulertzeko *tenpusak* eskuragarri jarritz, bakoitzak bere denbora propioa topatzeko erabili izana.


Denboraren hautematea aldatuz joan da. Denboraren zatikatze geroz eta ttikiagoaz gainera, zati horiek euren artean lotzeko, josteko, ulertzeko eta adierazteko molde berrien bila abiatu gara aspaldi honetan. Errealitate hautemateko molde horien erakusgarri ote *Narrazioak* liburuko narrazio sorta?

Denboraren adierazkortasuna ahalik eta gehien behartua dago liburuan, ahalik eta modu desberdin gehienetara adierazia edo, hobe erranda, moldatua izanik. Horrengatik, *Narrazioa*-keko denbora guzien bilduma bat eginez gero, erran nahi dena erran nahi delakoa izanik ere, adierazteko modu anitz baditugula ikusiko dugu. Nolabait, denbora puskatan zatituko bage-nu, geratzen zaizkigun fragmentoekin eraikuntza berriak eta desberdinak egin ditzakegula erakusten digu. Baliteke narrazio desberdinetan zehar hainbertze errepikatzen diren *puskak*, *hautsiak*, *zatiak*... horiek berak izatea kontakizunak. Denbora zatitu eta geratzen diren pusketekin eraikiak izatea berriz ere

narrazioak. Hala ere azken narrazioan erraten den bezalaxe, puskak batu arren ez dira errealitate bera erakusteko gai izanen, ezta lehenagotik erakusten zutena adierazteko ere.

Narrazio hauetako bakoitzak bere denbora bere modura gauzatua du, bakoitza, denbora zati desberdinez eraiki du narrazio hauen artisauak.

... artesauen eginbidea begiratzeko modu desberdin bat aurkitzea duk, gauzen bihotzera hurbiltzeko.



Sorkuntza



Etzaidan eskunik sar
arnasa lasai har dezadan
Sweet Jeanil
Musunik ez maite,
frago bat baino ez

Sorkuntza



2019.02.02

Groove pub

Pello OTXOTeko

Groove pub

Zutabe guztiak mugitzen ziren
argi gorriaren pean
taberna ilun hartan.

Ez zegoen itzalik
ez dirdal sendorik
kea ez besterik.

Sweet Jean!!
Musurik ez maite,
garagardo bat baino ez.

Zigarro txingar gorriak
begi-ninien sakonean
arrastiriko eguzkiak ziren
kantoiko bazter ezkutuetan.

Etzaldan eskurik sar
arnasa lasai har dezadan.
Sweet Jean!!
Musurik ez maite,
trago bat baino ez

Gaztearen izpiritua

Gaztearen nahia
baldekadaz betetzen da,
izan ere, hain da sakona bere hondoa...
gaztetasunak berak
ezin baitezake bete
barrunbe honen irritsa.

Gaztearen grinak
horzkada jarraletan baino ez
lor্তু ohi dira.

Traba gutxiko oztopoak
harrapari basatiennen mende
galgarik gabe irentsiak.

Gaztearen berehalako beharrek
ez dituzte atontze-lan handirik eskatzen,
soilik sua, argia eta oihua.

Anaiarekin buruz buru uztarturik
izerdiaren partaide bihurtuko dute
lagun hurkoaren eskaintza.

Gaztearen ametsak
itsaso zabalak dira.


Norberak lehiatzen dituen
trumoi hotsezko itsaso bortitzak,
baina airearen fintasunez
munduratzen diren hats berreskuraezinak
arnasaldi bakoitzean piztuak.

Gaztearen garaipenak
heroiak bihurtzen ditu
ekintzaren egile bakoitza,
eta istant batez hauek
izar distiratsuak bailiran
taldean dira ageri.


Gaztearen desirak
mendematu gabeko mahastietan daude.
Emankortasunean hozitzen diren kimuek
amaluraren sutsutasunez bultzatuak
ez dute hodeiertzarik topatzen
etorkizunaren begiradetan.

Gaztearen izpirituak
aise bateratzen ditu
esku bakarraren ahurrean
iparraldeko eta mendebaldeko
haize eraunsi bortitzenak.

Eta ez dago munduan indar hau
geldiaraziko duen ahalmenik.



Haur eta gazte literatura



Hau ete gaste literatura

Bertsogintza eta haurrentzako antzerkigintza: bi diziplina uztartzearen ahalegin emankorra

Gorka TOLOSA USARRAGA

Harriari heldu aurretik

Bertsoa eta antzerkia. Antzerkia eta bertsoa. Bi hitz, bi diziplina. Bataren eta bataren baturaz biak bat eginda. Horra hor, Bertso-Antzerkia.

Eta horixe bera da Trikuharri taldeak jorratutako bidea. Bide jorratuaren gainean hausnartu eta handik ateratako emaitza, berriz, honako hau. Izan ere, gure taldeak lau urteren buruan egindako ibilbideak zenbait hausnarketa egitera bideratu eta gogoeta horiek plazaratzeko irrika eragin baitigun.

Eta gogoeta horiek sorburu Bertso Eskoletan dute. Bertso Eskolen gerizpetan sortutako taldea izaki, ezinbestekoa dugu bertsoak eta Bertso Eskolak eman diguna azaltzea.

Gerizpearen xalotasunean eroso sentitu arren, erronka berriei heltzea eskatzen zigun barrenak, baita haurren bertso-gintzari sumatzen genizkion hutsune batzuk betetzeko ezinegonak ere. Sentitu, adierazi, elkartu eta gauzatu. Halaxe hasi zen haurrentzako bertso-antzerkia eraiki eta plazaratzeko abentura.

Bizia, gozoa, aberatsa... abentura ezbairik gabe. Lehen ametsa "Inaxitoren Ametsak" osatua, bigarrena "1, 2, 3..."

Inaxito!” irudimen biziz eraldatua... eta misterio eske dator hurrena.

Oraindik orain sortu eta gauzatu ditugun bi bertso antzerkiek badute muinean berdintasunik. Biak ala biak dira ezaugarri, irizpide edo estilo bertsoak. Eta horiek geuretzat zeresana badutelako sakondu ditugu ondorengo orrietan.

Haurrentzako bertso antzerkiak bertsoetik zenbat eta antzerkitik zenbat izan beharko lukeenaren gainean izan badira iritzi ezberdinak, eta hausnarketa horri erantzuna ere eman nahi izan diogu artikulu honetan.

Tartean izango dituzu, geure ikuspegiaren, antzezteko lan moduaren eta ibilbidean barrena jaso ditugun emaitzen azalpenak. Tartean, halaber, geure antzez gidioen ilustrazioak. Horietan kantatzen ditugun bertso eta koplak ere bai... eta adierazpen, adibide, argudio askotarikoak. Irudia eta hotsak izan ditugu faltan buru barrenak orrietan marrazterako une hainbatetan.

Baina horiek guztiak geure antzerkia ikustera etorri, geurekin gozatu eta gogoetak geurekin partekatzeke unerako utziko ditugu, nahiz guk geuk geure bizipenetatik abiatutako ondorio batzuen harri hondarrak utzi ditugun azken atalean.

Gustu baduzu... heldu harriari.

0. Trikuharri taldea gara

Trikuharri taldea 2003ko udaberrian sortu zuen **Gorka Tolosak**, gaur egun, haur artean Inaxito ezizenez ezagunak. Haurrei zuzendutako “Inaxitoren ametsak” bertso-antzerkia egiteko osatu zen taldea.

Gorka Tolosa hernaniarrak umeei zuzendutako bertso antzerkia egiteko ideia jarri zuen abian. Bera bakarrik nahikoa ez eta, Orioko bi lagunekin bat egin zuen: **Xabier Sukia** eta **Ibai Esoainekin**, alegia.

Hirurak bertsolariak gara. Txikitan hasi ginen Bertso Eskolan, eta egun ibai eta neroni gara Bertso Eskolako irakasle. Beraz, taldean hiru lagun ginen, eta horrexegatik jarri genion taldeari **Trikuharri** izena. Trikuharri askok hiru harri handi dituzte beste harri handi baten sostengu. Hiru harriek irudikatzen dituzte taldeko kideak, eta hauen gainean etzanda egon ohi den harrizarra izango litzateke hiruren artean eusten dugun eta umeen lagun egin den Inaxito bihurria.

“Inaxitoren Ametsak” bertso-antzerkia izan zen gure lehengo proiektua. Emanaldi honekin bi urte pasatxoaz jardun genuen Euskal Herriko lekuetan barna.

Hurrengo eta momentuz azken proiektua, “1, 2, 3... Inaxito!” da. 2005eko urrian plazaratua, eta gaur egun mar-txan jarraitzen duena.

Hauxe da gure istorio laburra, hitz gutxi batzuetan esana.

1. Bertso Eskola, lehen harria

Oso goiz ezagutu genuen bertsoa bera. Taldekideen inguru hurbilean bazen beti bertso edo koplarik. Familiako norbaitek ez bazen, auzoko edo ingurukoren batek beti izaten zuen eta egun duenik ere bada, bertsoa bere ezpainetan.

“Bertsoa” hitzaren inguruan asko eta luze idaz daiteke, eta oso ikuspuntu ezberdinen arabera. Ez da nire asmoa atal honetan bertsoaren inguruko teoria edo azalpenik ematea. Hori baino gehiago, guri bertsoak eman diguna alpatu nahi nuke.

Esan bezala, bertsoak gure bizimoduan eta bizitzan zer ikusi handia izan du eta gaur egun ere badu. Horrela esanda, norbaitek pentsa lezake ia egunero bertso saiotik saiora gabiltzala, baina hori ez da horrela. Horrela ez bada ere, beti dago presente.

Bertso munduak asko eman digu, besteak beste, lagunarte zabala. Eta bertsoari esker ezagutu genuen elkar: hernaniarrak eta bi oriotarrak.

Ume ginela hasi zen bakoitza bere herriko Bertso Eskolan, eta horiek antolatutako ekimenetan gozaten genuen. Beti bazen zerbait herrian bertsoak kantatzeko aukera ematen zue-na.

Ondoren, herritik kanpora irteten ere hasi ginen: aurrena, eskolarteko saio nahiz txapelketetara, eta hurrena, inguruko herri nahiz auzoetako saioetara. Konturatzerako, bertso zaletasuna odolean sartua genuen. Bertso Eskolako helduen babesean, gustura ibiltzen ginen batera eta bestera bertsoaren aitzakian. Bertsoak bide berriak ireki zizkigun.

Eta... Bertso Eskolako helduak izatera iritsi ginen, hauen ohiturari jarraiki. Aurrez jasotako hura, gu baino apenas hiru urte gutxiago zituztenei helarazi behar genien: batetik, bertsoari zegokiona; bestetik, bertsoaren inguru eta bizipenei zegokiena.

1.1. Bertsoetik haratago

Bertsoaren munduan hainbat saio mota ditugu: ohiko saioetatik hasi eta saio experimental¹ izenarekin aipatzen direneraino (musikak lagunduta egindakoak, gai bakar baten inguruko monografikoak...).

Bertso antzerkia inon kokatu behar balitz, saio experimentalen arloan izan lezake bere lekua. Dena dela, bertsoarekin uztartuz beste edozein diziplina erabiltzen bada, izendapen ezberdinak hartzen ditu: bertso antzerkia, bertso poesia... Zailantzagarria da, dena den, izendapen hauek zein punturaino diren egoki. Eztabaidatu izan da gai honen inguruan. Alegia,

[1] Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egaña (2001): "Bat-Bateko Bertso-laritza. Gakoak eta azterbideak". Bertsozale Elkarte. Donostia.

zenbat behar du bertsoetik ekoizpen batek bere izendapena eramateko?

Aurrez antzerkia eta bertsoa ezkondu izan dituen emanaldi ugari egin izan da. Bertso Eskolek egin izan dute horrelakorik. Bai helduek eta bai haurrek eurek ere. Oso modu puntualean, ordea, kasu gehienetan. Egun eta ordu jakinetarako gehienak. Jarraipen gutxikoak, azken batean.

Gure Bertso Eskola garaian gutxi probatu genuen horretatik. Bertsoaren egituran oinarritutako irakaskuntza zen geurea: ariketak, bertso zaharrak, bertso berriak asmatzea... hura izaten zen geure lantegia. Ez genuen antzerkia, trama edo antzekorik erabiltzen ostiral arratsalde haietan.

Urteak igarota, Bertso Eskolako udalekuetan, herriko Bertso Astean edo ikastetxe jakinetako saiotan... esperimentazioa gero eta nabarmenagoa zen; eta horien artean, bertsoa eta antzerkia uztartzen zen sarri.

Guk ere horrelako saioetan parte hartu izan dugu. Geure gisara, bertsolari batek baino gehiagok bizi izan ditu bertsoaz haratagoko esperientzia berriak.

Bertsoaz beste modu batera gozatzen da horrela. Nahiz bertsolari asko horrelako berrikuntzetan eroso sentitzen ez, beste batzuek bertsoari jorra bide berriak aurkitu dizkiogu.

Aurrez esan bezala, Bertso Eskoletan ohikoa da ikasle izan eta irakasle bihurtzea. Horrelakoetan, metodologia aldaketa txiki batzuk gertatzen dira sarri, eta saio esperimentalak egin ohi ditugu haurrekin.

Egun, gero eta gehiago erabiltzen dugu Sekuentzia Didaktikoa ikas-irakaskuntza metodologia tresna gisa. Azken xede jakin bat lortzeko bideratu ohi dira proiektuak, eta haiek aurrera eramateak laguntzen digu irakaskuntza sistematizatzen, erregulatzen eta orekatzen. Gisa horretako metodologietara gero eta gertuago gaudenok askotan jartzen ditugu helburu saio esperimentalen plazaratzeak.

Ez da erraza izaten haurren motibazioa mantentzea, baina bai beharrezkoa. Are gehiago, Bertso Eskolara egun joaten diren haur guztiak bertsozale ez direla izaten jakinik. Izan ere, batzuk lagun batzuei jarraiki joaten baitira eta beste batzuk bertan egon ohi den giro ona medio. Batzuek, ohi denez, zaletasuna dute hasterako, eta beste batzuek hartu egiten dute. Hartzen ez duenik ere bada, jakina.

Eta taldekideok, Bertso Eskolako irakasle izaki, ohartu izan gara umeak ohiko bertso saio eta formatuekin aspertu egiten direla sarri. Bertso saioak, oro har, helduei begira egiten dira eta ez da haurrenganako egokitzapenik egiteko ohiturarik. Dena den, gero eta saiakera gehiago egiten da alor honetan.

2. Hutsuneak bete nahian

Bertso Eskolan barneratu eta maitatzen ikasitako bertso-gintzak hutsune berriak sortu ditu, eta helduleku berriak bilatu dizkiogu bertsozaleok. Lehen esan bezala, hutsune berriak betetzeko beharra sentitu dugulako eta ur berrietan murgiltzeak aparteko gozamina sorrarazi digulako ditu geure antzerkiak bi abiapuntu: haurren beharrei erantzun nahiak eta geure gogoen asetze saiakerak.

2.1. Bertso antzerkia haurrei begira

Haurrei bertsoa ezagutzeko aukerak eskaintzea behar-beharrezkoa da, dudarik gabe. Hezkuntza arautuan eta Bertso Eskoletan ez ezik, bai aisialdian ere. Azken atal honetan dago, nire ustez, gabezia handiena.

Ezin dugu espero haurrak bertso saio arrunt batera besterik gabe joatea. Joaten direnetan, ia gehienetan, gurasoak doazelako izan ohi da, eta ez alderantziz.

Hutsune horretatik abiatu zen, hain zuzen ere, Trikuharri taldearen proiektua. Haurrek euren aisialdian bertsoarekin go-

zatzeko beste aukera bat eskaini nahi genuen, bertsoaren altzakerian ondo pasatzea, alegia.

Hurrengo pausoa, beraz, behar hori beteko zuen ekoizpen bat abian jartzea izan zen. Esan eta izan. Burua nekatzen hasi beharra zegoen. Bertso bat osatzeko orduan bezalaxe, sormenari bide eman eta abiatu zen gure abentura.

Garbi genuen, bertsoetik neurrian izan behar zuela. Ez zuen gure ekoizpenak bertsoa ardatz nagusi eta oinarri bakarra izan behar. Nolabait esateko, argi geneukan haurrek oharkabean jaso behar zituztela bertsoak, koplak eta bertsoarekin zerikusia duten hitz jolas eta gainerakoak. Zalantzarik gabe, zerbait ludi-koa izan behar zuen gure ekoizpenak. Haurrentzat, jolas bat.

Gure helburua erdiesteko modurik egokiena, bertsoa antzerkiarekin uztartzea zela pentsatu genuen. Haurrei, oro har, antzerkia asko gustatzeaz gain, bertsoarekin uztartzeko oso egokia dela inork gutxi jarriko du zalantzan. Aurrez gainera, antzeko ekoizpenak egin izan dira, haurrengan aski arrakastatsuak.

2.2. Bertso antzerkia geuri begira

Beti izan gara trapu zaharrak jantzi eta edozer egin zaleak. Herri mailan hamalka aldiz egin dugu bertsoa eta besterik duen saiorik.

Haurrentzat zerbait egin behar bagenuen, bertsolariaren betiko irudia puskatzea zen zilegi. Ez genuen haurren aurrean eskuak patriketan edo gerri atzealdean jarrita aritzeko gogorik. Ez gogorik eta ez egokiena iruditzen ere. Aitzitik, egia ere bada bertsoa bere gordinen oinarri izanik haurrentzako saio ederrik egiten duenik ere badela.

Guk, ordea, bertsoa beste modu batean bizitzeko gogoia ere bagenuen. Gure barruak zerbait gehiago eskatzen zigun. Geure barruak askatu nahi genituen, eta bertsoa ez zen nahikoa horretarako.

Bestalde, ia beti helduen inguruan eta helduentzako aritu izan ginen bertsoan, eta hurrekin eta haurrentzat ezer gutxi egin izan genuen Bertso Eskolaz kanpo. Horrez gain, Bertso Eskolako irakasle izateak haurrenganako sentiberatasun berezi bat sorrarazi zigun, eta halaxe ekin genion geure ekimen berriari, "Inaxito" protagonista izango zukeen produktu berriari.

3. Ohiko bertso saiotik bertso antzerkira

Esan bezala, bertsogintzak bide berriak jorratu ditu azken urteotan: bai irakaskuntza alorrean, bai bertsoa plazaratzean. Eta ohartu gara bertsogintzak bertsoaz haratagoko arloetan zer emana baduela, eta eroso sentitzen garela ur horietan.

Horrexegatik, bertsolari eta irakasle gisa guretzat bezainbat haurrentzat zerbait dibertigarriagoa, erakargarriagoa egiteko beharra bazela ikusi genuen. Beharra bazen eta beharra sentitzen genuen.

Eta ohiko bertsogintza baztertu gabe, bertso antzerkiari heldu genion: bertsoa abiapuntu eta helburu duen antzerki jarduera jakin bati. Izan liteke "Bertso Antzerkiak" "bertso" hitza sobera izatea, izan ere, inork ez baitu "ipuin antzerkia" edo "kantu antzerkia" moduko adierazpiderik erabiltzen. Baina bertsoa denez abiapuntua, zilegi zaigu hitz hori txertatzea.

Egia ere bada batek baino gehiagok esan izan duela geure ekoizpena ez dela bertso antzerkia, bertso solteak baino ez dituela. Alegia, bertsoan eraikitako antzerki bat izan beharko lukeela Bertso Antzerkiak. Eta hari horri tiraka, Bertso Antzerkiak daukagun irudikapena argitzea izango da egokiena.

Hitz elkartu honek garbi adierazten duen moduan, oroz gainera antzerkia da gure ekoizpena. Eta antzerki honi, gidoia eraiki eta interpretatzean, bertsoa eta haren inguruko zenbait ezaugarri txertatu zaizkio.

Oso garbi genuen hasieratik, gure emanaldietan bertsoak eta bertsoaren ingurumariak leku justua behar zutela. Ez da gure asmoa haurrak bertsoarekin aspertzea, ez eta bertsoa nahita ez betiko formatuan helaraztea ere. Haurrek bertsoarekin goza dezaten eta ondo pasa dezaten nahi dugu, eta dantzarekin, ipuin bat entzunez edo asmakizunak asmatuz... ere bai.

Oso modu malguan txertatzen dira gidoian bertsoak, koplak edo bertsoaren osaerarekin zerikusia duten joko nahiz hitz jolasak. Eta guztiek bat eginik eraikitzen da gure antzerkia, bertso gehiegi edo gutxiegi txertatu izanaren izurik gabe.

4. Gure antzerkiak, bi harri ale

Bi Bertso Antzerki plazaratu ditugu 2003ko udaberri hartatik hona: *Inaxitoren ametsak*, lehena, eta *1, 2, 3... Inaxito!* bigarrena. Aurtengo urteari begira, berriz, hirugarren baten zer suman abiatuak gara.

Bi izenburuetan nabarmen ikusten den bezala, Inaxito haur bihurri eta bertsozalea da antzerkietako protagonista, eta haren ingurumarian sortzen dira irudimenezko bidaiak, gatazkak, jolasak, dantzak... eta bertsoak. Bi harri ale sortu ditugu, bi antzerki. Eta produktuok ezberdin izanik ere, badute berdintasunik antzezleok dugun pentsamoldeari begira, lan jardunari begira, bertsogintzari begira, antzerkiari begira... hamaika oinarri begira. Ondorengo lerroetan aipatuko ditugu geuretzat zilegi esanguratsu diren ezaugarri nagusiak.

4.1. Produktuaren ezaugarriak

Gure lehenengo antzeztan (*Inaxitoren ametsak*) eta oraingoak (*1, 2, 3... Inaxito!*) ezaugarri berdintsuak dituzte, eta bederatzi oinarri hartuta labur liteke osotasuna: denbora, baliabideak, ahozketasuna, gidoia, bat-batekotasuna, euskara,

antzez tokia, haurren parte hartzea eta taldearen izaera. Atal honetan mamituko ditugu alpatu bederatzi oinarriak.

4.1.1. Denbora

Gehienez ordubetekoa izatea da gure irizpidea. Behin ordubetetik gora ez da lan erraza haurren arreta mantentzea. Dena den, malguak gara gai honetan. Gure antzezlanetan haurrek parte hartzen dute, hitz egiteko aukera ematen zale. Bai guk egindako galderak erantzunez, bai oholtza gainera igoz... Beti eta denbora osoz ezinezkoa bada ere, saiatzen gara eurek esana kontuan hartu eta geurera egokitzen. Hori dela eta, inoiz ordubetetik gora luzatu izan da antzezipena.

4.1.2. Baliabideak

Batez ere sinpletasuna eta eraginkortasuna bilatu nahi izaten da. Batetik, ez gara material asko eta konplexua erabili zaleak, eta bestetik, talde profesional bat ez izateak baldintzatzen du muntatze-desmuntatze lanetan denbora neurtua hartzen. Antzezlanaren prestaketek azkarrak, zuzenak eta egoikiak behar dute izan. Horrez gain, ez ditugu material handiegi eta irudimenezkoak erabiltzen.

Oro har, beraz, atzeko dekoratua antzezlanaren galarekin lotura zuzena duen oihal bat izaten da, eta eszenografia, berriz, beste bizpahiru elementu arruntek osatzen dute (harkaitza, kaptusa, hondartzako besaulkia...).

Inaxitoren itxura aldatzen ez bada ere, gainerako pertsonaiek jantzi zein tresna ezberdinak erabili ohi dituzte lekuan lekuko eta garaian garaiko mezuak baldintzatuta. Beraz, historiaren haria jarraitu ahal izateko lagungarri dira haurren arretarentzat jantzi eta tresna ezberdinak.

Azken antzezlanean txotxongiloak ere badira: ilargia eta eguzkia. Euren artean elkarrizketa bat gauzatzen dute koplaka.

Soinuztapen arloari dagokionez, musika eta soinu edo zarak erabiltzen ditugu antzezenaren lagungarri: haur kantak, kantu herrikoiak, bertso doinuak, kopia doinuak...

4.1.3. Ahozkotasuna

Ezaugarri hau da gure antzezanen oinarria eta geuretzat garrantzia handiena duena. Ardatza dela ere esan genezake. Bertsoaz dihardugunean ahozkotasunaz ere badihardugu; berdin antzerkiak mintzo garenean ere. Zer gutxiago bertsolari izaki ahozkotasunari garrantzia ematea baino.

Izendapena nondik begiratzen den halakoxe zehaztapenak egiten dira, eta ildo horretatik, komeni da ahozkotasuna aipatzean zertaz mintzo garen zehaztea. Geure antzerkiaren ahozko ezaugarriak zedarritzeko ez diogu ikuspegi diskurtsibo, pragmatiko edo erretorikoari heltzerik nahi. Aitzitik, ahozko literatura da geure iturria, eta handik edaten dugu. Atsotitzak, ipuinak, kantuak, bertsolaritza... izango da geure jardunaren mataza.

4.1.3.1. Atsotitzak eta hitz jokoak

Geure gidioan txertatuak eta propioki pentsatuak dira erabili ohi ditugun atsotitz eta hitz jokoak. Ahozko edozein elkarrizketa eta jardunetan euskal tradizioaren indar galdua berpizteko asmoz darabiltzagu molde eraikiok, eta bide batez, gure jardunaren aberasgarri ere badira musikalitatea dutelako, erritmo aldaketak sorrarazten dituztelako eta hitzaren jolasean murgiltzen garelako antzerkian bertan parte hartzen dugun ikusle eta aktoreak.

Hona hemen hitz jokoen eta esaera zaharren adibide bakan batzuk:

Inaxitok txerriari: "Fermintxo, gure txerritxo",

Aitak Inaxitori: "Inaxito, pottokito".

Txerriak bere dantza egin aurretik:

“zuek orain, ikusi eta... ikasi!”.

Bestalde, Inaxitok haurrak bideratzen ditu, aurrez hurrek jakina duten molde hori Inaxitorekin batera partekatuzera. Esaterako:

Inaxito zenbatzen ari denean: “bost, kaketan plost”, “lau, sardina bakalau”, “Bat, Martin Parrat”...

4.1.3.2. Ipuinak

Ahozko literaturan berebiziko garrantzia du ipuin kontaketa. Ipuin kontalariak izan ditugu Euskal Herrian, eta gaur egun ere badira aski ezagunak batzuk, haurren munduan, batik bat. Guk ere gure antzerkian eman nahi izan diogu toki bat ipuin kontaketa, eta ildo horretatik, lehen antzerkian berean gune bat gorde genuen ipuina jorratzeko.

Hala, lehen ipuinerako *Midas Erregea* ipuina kontatzen zuen Inaxitoren lagun egin zen ipuin kontalari arabiarrak.

Bigarren antzerkian, aldiz, testuinguruak baldintzatzen du ipuinaren kontaketa. Ipuinik berez gidoian jasota ez badugu ere, hura erabiltzeko beharra edo aukera ikusten bada, kontatu egiten du Inaxitok *Ilargia, eguzkia eta jostuna* narrazioa, noizean behin.

4.1.3.3. Kantuak

Euskal haur literaturan ezagun diren kantuak hautatzen ditugu haurren arreta pizteko eta partaidetza bultzatzeko. Horietatik bat alpatzekotan, azken antzezlanean sintoniarako erabili dugun *Bat, bi, hiru, lau...* kanta herrikoia izan liteke. Kantu honekin batera agurtzen ditu Inaxitok haurrak antzerkiaren has-tapenetan.

4.1.3.4. **Bertsolaritza**

Bertsolari izaki, antzezleontzat garrantzia berezia dauka bertsoak ere. Antzerkiaren enborra osatzen du bertsoak, bertsoen bidez egiten baitira hainbat deskribapen, bertsoen bidez egiten baita hainbat elkarrizketa, bertsoen bidez galdeztzen baitzaie haurrei, bertsoen bidez egiten baita magia... eta magia egiten baitute haurrentzat antzezleok kantatzen ditugun bertsoek.

Eta aipatzekoa da, era berean, darabilgun bertso moldeen aniztasuna, izan ere, koplak eta bertso ezberdinak kantatzen baitira antzezlanean zehar: bakarka eta ofiziolak kantatzen dugu, batik bat. Batzuetan, a capella eta beste batzuetan, berriz, musikak lagunduta.

Eta bertso antzerkiak zilegi dituen bertsoaren traka-milak, haiek jolas bihurturik aurkezten dizkiegu haurrei, eurek gurekin batera jolastu, asmatu eta sor ditzaten mezu zein egitura berriak. Jolasak hamaika izanik ere, atal honetan bertsoaren oinarritik jaso eta antzerkian garatzen ditugun batzuk aipatu nahi ditugu. Hemen, bada:

Errima jokoak: haurrek puntuaren oina asmatu behar izaten dute zenbaitetan, eta horretarako, mezu sinboliko eta ikusgarriaz baliatzen gara. Haurren adina kontuan hartuta, edukia-ekin lotura zuzena eta errima erraza duten oinak asmarazten dizkiegu.

Bat-batekotasuna edo inprobisazioa: bertsoak eta koplak aurrez eginak badira ere, haiek moldatu eta berriak ere sortzen ditugu egoerak horrela eskatzen badu.

Bertsoa eta bertso-eskolaren arteko harremana: Inaxito bertso-eskolan dabilen haurra da. Antzezlanean zehar horren inguruko alpuak egiten dira.

Bertsoa komunikazio errealekin uztartuta: bertsoa hitzarekin, irudiarekin, erritmoarekin, espazio jakin batekin, material batzuekin, jantzi batzuekin, musikarekin... lotuta dago

beti. Jakin badakigu bertsoaren muina hitza izanda ere, ulermena errazteko baliabideak erabiltzea komeni dela hartzaileak mezuaren haria jarraitu eta hari hel dakion, eta halaxe kantatzen ditugu bertsoak, ikus-entzunezko lagungarriez eta gorputz adierazpideez aberastuz.

Bertsolaria hitzaren erreparatzaile: bertsolariak hitzei eta hauen esanahiei aparteko garrantzia ematen die. Bertsoarekin lotura zuzen-zuzena ez badu ere, kasu honetan adierazgarria da Inaxitok haurrei proposatzen dien jolasa: zenbakiak hitzen barruan aurkitzea, alegia. Adibidez: XaBler, LAUra... Edo jOn (zeroa O hizkian), Zaloa (bi zenbakia Z hizkian)...

4.1.4. Gidoia

Gure antzezlanak eraikitzeko garaian inguruko adituen laguntza izaten badugu ere, taldekideon artean egiten dugu gidoia. Elkarrekin eraikitzen dugu antzezlanak: nola gidoia, hala ekoizpena.

Gidoia eraikitzeko unean, irizpide nagusia da haurren parte hartzea bultzatu behar duela gure ekoizpenak, haurren ulermena ziurtatu behar dugula, ahozkotasanari helduko diogula, eta hori guztia eraginkor izan dadin, denbora mugatua izan behar duela ikus-entzunezko antzerkiak.

Hala, gidoia egiten hasterako zehazten ditugu gaia eta mezuak, baita bertsogintzak eman liezazkigukeen baliabideen zerrenda ere. Istorioan barrena horietatik zein, nola eta noiz txertatu erabakitzen dugu ondoren.

4.1.5. Bat-batekotasuna

Bertso-antzerkiak, gidoi bati lotuta egonik ere, Inprobisaziotik asko du antzezleen arteko elkarrekintza malgua izateagatik: testuinguruak baldintzatuta, haurren parte hartzeak baldintzatuta, edozein egoerak baldintzatuta aldatzen da testua, eta antzezleek inprobisatuz heltzen diote, berriz ere, oinarrizko gidolari (oinarrizko testuari).

Jardun era horrek freskotasuna eta egiantzekotasuna ematen dio antzezenaren hariari, antzezenetik elkarrekintza errealetara igarotzen baikara behin eta berriro, eta haurrak egoera horietan mundu erreal eta irudimenezkoak nahasten baititu, bere gozamenerako. Beti dugu irekia horrenbeste gus-tatzen zaigun inprobisazioaren zirrikitua, nahiz hainbatetan arriskutsua ere baden interpretazioaren alderditik. Hitza, gidoia, bertsoak, koplak, jolasak eta elkarrizketak eraldatzen ditugu, antzezen gidoia antzezen inprobisatu bihurtzeraino.

4.1.6. Euskara

Guretzat aparteko garrantzia du hizkuntzaren kalitateak, eta beraz, geure jarduna zaintzen saiatzen gara. Gidoia bera euskara batuan idatzita badago ere, ingurune soziolinguistiko anitzetara egokitzeke saiakera egiten dugu ahal dugun neurrian.

Bestalde, askotan errepikatu moduan, guretzat berebiziko garrantzia du haurren parte hartzeak, eta horretarako, edozein haurrentzat ulergarri izango den testua eraiki ez ezik, ulermena ziurtatzen duten ballabideak erabiltzea zilegi da: irudiak, imintzioak, errepikapenak, ziurtapen galderak...

Alpatzekoa da, gainera, azken antzerkian erregistro ezberdinen erabilerari ere erreparatu diogula. Hala, haur hizketare-nak diren moldeak, gazte hizketarenak, etab. txertatu ditugu, aitak Inaxitorekin hitz egiten duenean, eta, Rockeroaren eta Inaxitoren arteko elkarrizketan, esate baterako.

4.1.7. Antzez tokia

Edozein lekutan egiteko moduko lanak dira geureak. Oso garbi dugu bertsoa haurrengana gerturatu nahi badugu, ezin garela baldintza espazialak jartzen hasi. Beraz, emanaldiak leku estalietan zein estali gabeetan egiten dira. Areto bat oso ero-soa eta goxoa da, baina ez da gutxiago eguzkipean egindako plaza irekiak duen xarma. Azken honetan, haurren gertutasuna

handiagoa da normalean, eta gainera, inprobisaziorako aukera gehiago izaten dira. Saihesteko modurik badugu, horiek pilota-lekuak dira. Azken hauetan sonoritate arazoak handiak izaten dira, eta horrez gain, leku hotzak dira gehienetan.

4.1.8. Haurren parte hartzea

Ezinbestekoa da guretzat haurren parte hartzea. Ikusle hutsak baino gehiago dira haurrek. Zenbakiak aurkitu beharreko jolasean, eurek ere gurekin batera hartzen dute parte. Guztion artean aurkitu behar dira zenbakiak. Beraz, haurrek ere jolasaren partaide zuzen bihurtzen dira. Jolas honetan zehar eurek esana gure antzezlanaren barruan txertatzen saiatzen gara. Berearekin harreman estua sortu nahi izaten dugu. Berearekiko elkarrekintza lantzen dugu antzezlanean. Horretarako, besteak beste, galdera zuzenak egiten zaizkie, kopia batzuetako azken oinak asmatu behar dituzte, antzezleekin batera dantza egin (txerri dantza), txalo erritmikoarekin lagundu, oholtzara igo magoaren laguntzaille gisara eta azken kopleetako ahapaldia eurek bakarrik kantatu.

Ezaugarri hauek kontuan hartuta, gure antzezlanaren material eta muntaketa aldetik sinplea dela esan genezake. Haurren arreta piztuko duten material eta pertsonaiak erabiltzen ditugu, beti ere, ahozkotasan karga berezi bat jarriz erabilitako elementu edo materialetan.

4.1.9. Taldearen izaera

Ezaugarri hauek guztiek ispiatzen dute taldearen izaera, eta aldi berean, taldearen izaerak ezaugarri hauek sakontzera garamatza. Beraz, beharrezkoa da antzezlan bat egiten hasteko, taldearen eta taldekideen dohain, jarrera eta asmoak aintzat hartzea. Labur esanda, estilo bat markatzea egokia dela deritzogu. Eta batzuetan estilo hori ez da aukeratzen, bera sortzen da.

5. "1, 2, 3... Inaxito!" antzezlanak eta bertsolaritza

Gure antzezlanak, lehen esan bezala, atal ezberdinak ditu, eta horietako bakoitzean sartu ditugu bertsoa, koplak edo bertso bat egiteko orduan beharrezko diren estrategia edo tresnak. Hurrengo lerroetan, hauen berri emango dugu hainbat adibide jarrita.

5.1. Agurra

Antzerkiari hasiera ematen dio Inaxito protagonistak. Ikus-entzuleak agurtu eta bere aurkezpena egiten du. Horretarako, hain ezaguna den eta haurrek zenbakiak ikasteko erabiltzen den *Bat, bi, hiru, lau...* doinu herrikoian tartekatzen ditu bere hitzak.

*Kaixo lagunak ni naiz Inaxito
Eta zenbakiekin jolastera nator!
Zer moduz
Zaudete?*

5.2. Eguzkia eta ilargia ofiziokak

Atal hau koplaz osatua da. Bertsolaritzan hain ohikoa eta ezaguna den ofiziotako lanaren parekoa da. Lan mota honetan gertatu ohi den gisara, elkarrizketa bat gauzatzen da koplak bidez.

Horretarako, txotxongiloen teknika erabiliz (batetik eguzkiak, eta bestetik ilargiak) Mikel Laboaren *Sorterriko Koplak* doinuaz balliatu, eta elkarrizketa bat egiten dute gauaren eta egunsentiaren arteko muga ordutan.

Inaxitok zenbakiekin jolasean zebilela zenbakiak ezkutatu zaizkiola dute gaitzat eguzkiak eta ilargiak. Elkarrizketa honetan, beraz, antzerkiaren hari nagusia argitu ez ezik, Inaxito bera ere aurkeztu egiten dute. Hona hemen elkarrizketa bera:

Eguzkia:

Kaixo egunon ilargi

Gaur ere zeruan argi
Zoaz lotara aurrerantzean
Nik egingo diet argi (bis)

Ilargia:

Kaixo eguzki andere
Zu atera eta ni gorde
Argitu bazter guztiak zeren
Zenbaki gabe baikaude (bis)

Eguzkia:

Zenbakien katramila
Azkar konpondu dedila
Baina ba al dabil hemen Adunan (tokian tokikoa)
Inor zenbakien bila? (bis)

Ilargia:

Bada norbait dabilena
Inaxito du izena
Eta badaukat denak bilduko
Dituen itxaropena (bis)

Eguzkia:

Argi egingo dut tinko
Ez naiz dudan ibiliko
Badut gogoaz ezagutzeko
Ea nor den Inaxito (bis)

Ilargia:

Mutil bizkorra da bera
Adunakoen (tokiko herria) antzera
Beno eguzki ni nekatu naiz
Orain banoa ohera (bis)

Eguzkia:

Ander, Mara ta Garazi
Zenbakien bila hasi
Mundu honetan zenbaki gabe
Ezin garelako bizil! (bis)

5.3. Hondartzako jolasa

Bertso bat edo kopla bat egiteko silabek duten garrantzia ikusaraztea da hondartzako jolasa. Bertsoak eraikitzean silaba kontaketak duen garrantzia kontuan hartuta, haurrek hitzak silabatan banatzen jartzen ditugu Bruno karramarroarekin. Hala, hitzen indar silabikoa lantzen da jolas baten bitartez.

Inaxitok Bruno karramarroa ezagutu du asperraldi batean, eta honek jolas bat proposatuko die Inaxito eta bere lagunel. Brunok, karramarro guztiak bezala, ibili atzeraka ibiltzen dela esan die. Ibili ez ezik, hitz egin ere atzeraka egiten du. Silabaka hitz egiten dute, baina alderantzizko norabidean. Hara hor gidoiaren zati bat esanaren erakusgarri:

(Inaxito "makinitarekin" Jolasten ari da bere aita lo dagoen bitartean. Orduan, karramarro bat sartzen da, Inaxitorengana joan eta "makinita" hartu eta bota egiten du. Inaxitorentzat egundoko ez ustea izan da karramarroa etorri izana).

I.: Zu nor zara?

KA (karramarroa):. Mi Brrruno naiz, Brrruno karramarroa-a-a-a-al (barre bihurri bat eginez).

I.: Ba, ni I-na-xi-to-o-o-o-o-ol

KA.: Eta, zergatik ez zara joan uretara. Zergatik ez duzu ipuin bat irakurtzen? Zergatik ez duzu gaztelu bat egiten edo... Zergatik ez duzu...

I.: Zergatik, zergatik...eta zu zergatik ibiltzen zara atzeraka? (haserre)

KA.: Nork esaten du, ba, aurreraka ibili behar dela-a-a-a-a-a? (barre bihurria eginez).

I.: Atzeraka ibiltzen zara?

KA: Moski, karramarroak atzeraka ibiltzen gara. Ez al. zenekiten? Zer, nahi duzu zuk ere atzeraka ibili Inaxito?

I.: Balell

(Orain, koreografia moduko bat egiten dute. Karramarroak ikusleen laguntza eskatuko du ezker-eskuin pausoak adierazteko. Halako batean, Inaxito erori egiten da aleta bat bestearekin trabatuta).

KA.: tak-le-a tzen-ken zu-tu-di-ba, to-be-ho ko-li-bi-i ra-zal

I.: Zer???

KA.: Barkatu, gure hizkeran ari nintzen, atzeraka. A-le-tak kentzen ba-di-tu-zu, ho-be-to i-bi-li-ko za-ral esan nahi nizun.

I.: Hitz egin ere atzeraka egiten duzue?

KA.: Nork esaten du, ba, aurreraka hitz egin behar dela-a-a-a-a? (barre bihurria eginez). Oso erraza da. Karramarroa, a-rror-ma-rra-ka! Flotagailua...

I.: A-lu-gai-ta-flo-a.

(Bruno, Inaxito eta ikusleak hitzak silabaka alderantzizko norabidean esaten jolastuko dira. Batzuetan Brunok berak jarriko dizkie hitzak haurrei eta beste batzutan haurrek beraiek Brunori).

KA.: Zer, ondo pasa duzue? Eta zuk Inaxito?

I.: Bai!

KA.: "Makinitarekin" baino hobeto?

I.: Askoz hobeto!

EFEKTUAK (Orain, enbata soinuak entzuten dira eta aita larrিতা esnatzen da)

Aita: Inaxito enbata dator!

I: Bai, ta-ba-en.

Ai: Zer? Joan beharra dugu Inaxito!

(Inaxitok aitari besotik heldu eta atzeraka oinez hasten da eta aita ere berarekin batera. Badoaz atzeraka eguzkitakoa (sonbrilla) ezin itxi eta hondartzara eramandako traste guztiak soinean erdi erorian)

I: Aita atzeraka goaz a-rror-ma-rra-ka bezala!

Ai: Zer bezala?

I: A-rrro-ma-rra-ka, ka-rra-ma-rrro-ai!

5.4. Historiaurrean imintzioak deskribagai

Mimika bidez irudikatutako deskribapenak koplatan interpretatzen dira oraingo honetan. Haurrek imintzioen laguntzaz ulertu duten hori bertsotan entzuten dute Inaxitoren ahotan. Errimak zuzen-zuzenean lotuta daude bere kide den australopitekusak gauzatzen dituen gorputz adierazpideekin. Laguntza tresna horren bidez, Inaxitok haurrak bultzatzen ditu puntueta-ko azken errimak eurek adieraz ditzaten. Horretarako, Inaxito bera ere gorputzaren mugimendu ezberdinaz baliatuko da. Horrez gain, haurren arreta piztu eta euren parte hartzea sustatzeko, *Ama Begira Zazu* doinu herrikoia ezagunak asko laguntzen du. Haurrek koplak bakoitzaren azken bukaera errepikatzen dute txaloek lagunduta.

Eta nola gertatzen den hori ikusiko dugu gidoiaren atal honetan:

I.: *Animalia handi bat ikusi dugu. Baina, zertarako nahi ote du horrenbesteko animalia?*

(oraingo honetan, lehen gizakiak imintzio bidez, animalia zertarako nahi duen azalduko du eta Inaxitok koplak bidez adieraziko du).

Koplak:

Animalia hil du
ondoren jateko,
motiboa badu, bai,
ehizera joateko (bis)

Laban zorrotzarekin
moztu du larrua.

Bestela harrapatuko
dugu katarrua (bis)

Animalia hezurrak
oker nahiz zuzenak,
orain bihurtu dira
lanerako tresnak (bis)

Gauza ttiki-ttiki bat
nahiko nuke jakin:
zer demontre marrazten
duen isatsakin? (bis)

5.5. Txerriarekin bertsoan eta dantzan

Oraingo honetan ere bertsoa eta gorputz adierazpena uzartzen ditugu. Kasu honetan, ordea, dantza erabiltzen da: "Txerri dantza". Hitza erantsi dio Inaxitok Fermintxo txerriaren dantzari. Horretarako, txerrien eguneroko bizitzarekin lot litekeen deskribapen bat egin du. Modu honetan, Inaxitok bertsoan eraikitako mezua irudikatuko du Fermintxok bere dantzaren bidez. Bertsoaren bitartez dantza ere egin daitekeelako mezua lantzen da zeharka.

Bestalde, bertsoa bera aurrez egina bada ere, Inaxitok bertso bat egitea ez dela horren erraza adierazi nahi dio txerriari, baita ikusleei ere. Bertso bat egiteko aurrez zer esan nahi den, zein ordenetan eta nola azalduko du. Ez da azalpen bat izango. Bertsoa kantatzen hasi aurretik, bertsolari batek buruan darabiltzan burutazioez arituko da, eta Fermintxok berak lagunduko dio azken puntua osatzen.

Horra hor, txerri dantzaren abiapuntua:

T.: Kaixo, Inaxito!

I.: Kaixo, Fermintxol Fermintxo, gure txerrixol Zer egiten duzu ikuilutik ihesi?

T.: Ai, Inaxito! Nire dantza berria entsaiatzen ari naiz.

I.: Dantza berria? Eta erakutsiko al diguzu, gero?

T.: Gero? Zergatik utzi gerorako, orain egin dezakeguna? Tira, Inaxito... eseri zure lagunen ondoan, eta... "ikusil... eta ikasil". Ea gustatzen zaizuen.

(Inaxito jende artean esertzen da dantza ikusteko).

T: Zer gustatu zaizue? Eta zuri Inaxito?

I: Beno... Xoxo xamarra iruditu zait!

T.: Xoxoa?

I: Bail Gatza falta du, hitzak falta ditul!

T: Inaxito, ni dantzari trebea naiz, baina hitzak jartzen...

I.: Ba, ni ... (tokian-tokiko)-ko bertso-eskolara joaten naiz, eta badakit doinu horretan hamarreko txikiko bertso bat osatzen!

T.: Ah, bai?

I.: Bai... eta nahi baduzu, jarriko dizkiot hitzak zure dantz berri horri?

T.: Bai?

I.: Bai, baina baldintza batekin. Nik kantatzen dudanaren arabera zuk dantza egitea.

(Orain, Inaxitok bertso bat botatzen du jendartetik (azpiko musika gabea); eta Fermintxok Inaxitoren bertsoaren araberrako dantza egingo du).

I.: Bertsoa

Goizean jaiki eta

Loreak usaindu,

Mendira igo eta

Ezkurrak bazkaldu...

Gure anai txikiak

Puzkarra bota du,

Errekara joan eta

Eltxoak bidaldu...

Dantzari finak eta

Alaiak gera gull

(Inaxito oholtza gainera igo da)

I.: Ederra izan dal Polital Oso polital Eta, Fermintxo... orain, zure dantza, nire bertsoa, eta musika uztartzen baditugu...

T: Ederra espektakulua!

I: Eta hemen aurreko txerrikume(haurrengatik) eta han atzeko txerrama eta apoteek (gurasoengatik) gurekin batera dantzatzen badute...

T: Orduan munduko espektakulu onena izango dal

(Kantua jarri, eta Inaxitok, berriz, bertsoa kantatzen du Fermintxo, haur eta gurasoekin batera "txerri dantza" dantzatzen duen bitartean).

5.6. Mago bertsolaria

Bertsoa eta gorputz mugimenduarekin gauzatzen den ekintza batera agertzen dira Inaxito Magoarekin agertzen den atalean. Magoaren diskurtsoa bertsoaren baitan agertzeak ezinbesteko ditu lehenik, ekintzaren azalpena, agindu ematea, eta bigarrenik, magoak magia egiteko beharrezko duen azken mezu magikoaren errepikapena (*zipri-zipriztina*), eta bertsoak ahalbidetzen du diskurtso horren irudikapena.

Esan bezala, azken puntuan doaz hitz magikoak eta haurrek azken puntua errepikatuz euren arreta mantentzeaz gain, hitz magikoak ikasten dituzte. Magoak hamarreko txikiko *Antton eta Maria* doinua erabiliz, lehen trikimailuko bertsoa kantatzen du, eta Inaxitok, berriz, hitzik gabeko doinu musikatuan egiten du magiarik handiena: esku bat bestearekin uztartu, putz egin eta doinuaren bukaera musikala jotzen du.

Jarraian, Zipri-zipriztina... bere magiarekin:

M.: Kaixo, denoi Zuekin, ZIPRI-ZIPRIZTIN magoa!! (2 aldiz). Orain, ni naiz protagonistal Orain, nire ekitaldia hasiko da,

eta horretarako, hiru trikimailu ezberdin ekarri ditut. Baina, nor naiz ni? Nor? (haurrak zirikatuz). Nire lehen trikimailua egiteko nire laguntzailea izan zaitezke. Zein da zure izena?

I: Inaxito!

M.: Ba, Inaxito, lehengo trikimailuarekin hasiko naiz, eta horretarako, puxika bat ekarri dut.

Bertsoa

Hartzazu Inaxito,
Puxika urdina.
Puztu ezazu, puztu,
Egin ahalegina.
Gainean jarri zapi
Zapi xuri fina.
Orain bihurtu baietz
Puxika hegazkina;
Hitz magikoak dira
ZIPRI-ZIPRIZTINA. (bis)

(Zapia kendu, eta puxikak Inaxitoren eskuetan jarraituko du)

M.: Ah! Badakit zer gertatu den, zure lagunek ez dituzte hitz magikoak behar bezain ozen esan (haurrak azken puntua kantatzeko zirikatuz).

Hitz magikoak dira:

ZIPRI-ZIPRIZTINA (bis).

(Zapi zuria kendu eta puxika "hegan" aterako da, Inaxitok askatu egin baitu. Jarraian beste bi trikimailu egingo ditu, horietako bakoitzean haur desberdin bat izango da magoaren laguntzailea. Hurrengo trikimailuek bertsoarekin duten lotura hitz magikoak dira. Hauek beti kantatuz esango dira, bertsoaren azken puntuari dagokion doinua erabiliz).

5.7. Zenbakiak aurkitu ditugu!

Bertsolaritzarekin erabat lotuta dago memorizatze teknika, eta azken atal honetan horixe da helburua: haurrek antzerkia-

ren mezu nagusia kopia bidez barneratu eta memorizatzea. Horretarako erabiltzen diren baliabide nagusiak dira: errepikapena, esanahiaren gorputz adierazpena eta musikaren laguntza.

Aurreko antzezlanean (“Inaxitoren Ametsak”) egin genuen bezalaxe, oraingo honetan ere haurrak ahapaldiko kopia, behintzat, ikastea nahi izan dugu. Izan ere, kopia honetan gure antzezanaren mezu nagusia agertzen baita: irudimenaren erabilera duen garrantzia.

Nafarroako “Cortes-eko dantzak” doinua erabiliz, estribiloaren tarteetan koplak kantatzen ditugu, non horietan antzezan osoan zehar bilatu ditugun eta bilatu ez ditugun zenbaki haiek eszenografiako zein lekutan dauden azaltzen den.

Kopia eta kopia tartean estribiloa kantatzen dugu. Eta azkenik, errepikapenaren ondorioz, eta, haurrei eurak ea ikasi duten zirikatuta eta bakarrik kanta dezaten eskatuz, beraiek ere ikasi egiten dute estribiloa. Bestalde, antzezaneko azken atal honetan borobiltzen dugu antzezan osoan lantzen dugun azpi mezua: irudimenaren erabilera.

Horra, aurkikuntzaren abiapuntua:

Inaxito oholta gainean bakarrik geratu da behin magoak alde egin duenean. Berekiko uztai mordo bat erabiliz zirkoko malabarista izango zela gustura ari da esaten.

Bat-batean, rockero bat sartuko da antzez tokira gitarra joaz. Bera Inaxitoren aspaldiko lagun bat da.

R.: lepa, Inaxito!!! Zer habi!!! (bizkarrean golpe bat emanez).

I.: lepa! (bizkarrean golpea itzuliz)

R.: Zer entzun diat, malabarista izan nahi duala?

I.: Ba, bai

R.: Ba... izan hadi!!! Izan hadi!!!

I.: Izan?

R.: Bai Inaxito!! Irudimena erabiltzen baduk, bizitza honetan nahi duana izan haiteke!! Tori, hartu lau uztai beso batean eta beste lau bestean. Orain bota uztaiak gora eta hasi hadi!!

(Inaxito jolasten hasi da irudikatutako uztailekin malabarista bailitza)

R.: Bat erori zaik, baina ona haiz Inaxito, oso ona!

I.: Bai, nahiko ona, bai... Orain, eskuarekin harrapatuko dizkiat; buruarekin... ere bai. Ea hik gitarrarekin harrapatzen dituan...

R.: Eta, ez al duk bizitzan beste ezer izan nahi?

I.: Bai, arraunlaria, nire lehengusua bezala!

R.: Ba, izan hadi, izan hadi! Mar ezak aurrauna... (gitarra eskainiz) Ni izango nauk hire patroia (arraunean dabiltzanaren itxura eginez). Inaxito! Azken txanpa... Iristen ari gaituk! Iritsi gaituk!

I.: Orduan arrauna jasoko dut! (gitarra jasoz. Gitarra berak, zazpiaren forma du eta hurrek bertan topatuko dute zenbakia).

(Rockeroa oholtzatik joan da)

I.: Orduan, irudimena erabiliz nahi duzuna izan bazaitezke bizitzan (hurrei zuzenduta), gustura izango nintzateke rockeroaren taldeko bateria jolea. Bateria gorri haundi baten atzean eseri eta... (bateria jotzen du fondoko soinuarekin)

(Ilargia sartzen da)

IL.: Umea... Zer ari haiz?

I.: Rockero batekin izan naiz, eta irudimena erabiliz nahi dudana izan naitekeela esan dit.

IL.: Ah, bai? Eta, ez al duzu nigan ezer ikusten?

I.: Eeezzz.

IL.: Ea, begira iezadazu ongi?

I.: *Bueno, ikusten dut... bateriaren bonboa bezalako gauza borobil bat, aurpegi handi zuri bat, edo... Zero! Zero... Ilargia zero bat da...*

(Orain, rockeroa sartzen da gitarra joz eta kantu baten estribilo bat kantatzen du. Jarraian, Inaxitok gauza bera egiten du bateria joz. Ondoren, teloi atzetik hirugarrena -Fermintxo- sartzen da gauza bera eginez: txirula edo dultzaina bat joz. Hirurek estribiloa kantatzen dute. Bukaeran, koplak kantatzen dituzte estribilo tarteetan. Estribilo tarte hauetako kopletan, antzezlanean topatu dituzten eta topatu ez dituzten zenbakiak eszenografiako zein leku edo objektuetan azalduko dute. Umeek koplaren estribiloa ikasteko konplizitate joku moduko bat egiten dute Inaxitok, Fermintxok eta rockeroak. Haurrek estribiloa ikasi eta kantatzen dute).

Estribiloa:

Bat, bi, hiru...Inaxito!

Ondo ireki begiak.

Edozein lekutan,

Daude zenbakiak!!

Koplak: 1. Inaxito 2. Fermintxo

Gauaren ilunean, hirua hiru limoi

Zeroa ilargia zuhaitzaren barruan

Eta flotagailuak eta laua gorde da

Ematen du bia arrainan buruan

3. Rockeroa 4. Inaxito

Bat, bi, hiru, lau, bost behatz Zazpia beti dantzan

Bai marrazki polita gitarraren soketan

Seia txerri buztana eta zortzia behian

Hodeian jarrita betaurrekoetan

5. Fermintxo

Nire makilarekin

Bederatzi apaina

Ta bata egiteko

Badugu dultzaina

6. Azken harria

Esan beharrik ez dago taldekideontzat oso aberatsa izan dela eta izaten jarraitzen duela bertsolari eta antzezle gisa bide berri hau jorratu izana. Beste diziplina bat ezagutzeko aukera eman digu haurrentzako eraikitako bertso antzerkiak, eta jendaurrean bertsoarekin lotura zuzenean jarraitzeko aukera ere bai, jakina.

Azken atal honetan, ordea, gure sorkuntzek bertsogintzari emandakoaren gainean hausnartzea iruditu zaigu egokien. Eta hausnar aldia igaro ondoren, honako ideia hauetan labur genezake guztia:

1) Bertsoaren eta bertsolarien ezagutza sustatu dugu haurrentan: haurrengana bestela iristeko bide berri bat jorratu dugu, eta benetan iristen garen zantzuak ditugu ekitaldi bakoitzean, antzerkian ikasitako kopla kalean entzuten dugunean, eskola eta etxeko hormetan argazkiak jarrita dituztela gogotsu kontatzen digutenean...

2) Bertsogintzak eskaintzen dituen "jolasak" azaleratu ditugu antzerkiak bat: bertsoa hitzarekin, irudiarekin, erritmoarekin, espazio jakin batekin, material batzuekin, jantzi batzuekin, musikarekin... lotuta dago gure antzerkietan. Bertsogintza tradizionala helduentzako bertso-saioetan ardatzen da batik bat, eta bada, geure ustez, nahikoa ekarpen haurrentzako prestatuta dagoen bertso-antzerkian "jolasok" baliatzea.

3) Bertsogintza eremu soziolinguistiko askotarikoetan hedatzeko ahalegina egin dugu: esparru euskaldun eta ez horren euskaldunetan aritzeko aukera paregabea eman digute geure bertso antzerkiek, eta errealitate horri egokitzen jakin dugu, antzerkigintzak ematen dituen baliabideak lagun, edozein haurrei ulermena ziurtatzeko tresnak emanez eta inguru bakoitzera-ko hizketara malguki moldatuz.

Aurrera begira, izango dira harri gehiago, izan badugu zer hobetua ere, eta lanean jarraituko dugu gogotsu.

1. Buena, fusten dut... bateraren bonob...
 horon... Zeri...
 Esan beharrik ez dago taldekidetza oso garrantzitsua

delat eta izaten jarraitzen duela behar izan eta antzele gisa bide
 bertan hain jantzi... beste aldirian dat ezaduzko sukera
 eman du haurterako etaniko berde antzerki, eta ten-
 dantean bertzerkin lotuta zuzenean jantzerako sukera ere

estabilizakantzen dute. Buhaera, kopiak kantatzen

Asien bit honetan, oboe, gure sorkuntzen beharrezkoan
 emandakoren gabean, haurterako jantzi gogorren. Eta
 haurterako aldirio onoren, honako bidea haurterako labore gene-
 dantean bertzerkin lotuta zuzenean jantzerako sukera ere

1) Berroren eta beharrezkoen esakuntza ez dago hain
 irengan; haurterako besteak beste, hain jantzi bide bertan
 dugu, eta beharrezkoen garen zantziak ditugu etaniko bide-
 korrean, antzerkiak ikasiko kopla kalera erantzen dugu-
 nean, eskola eta etako haurterako gaitzak jantzi dituzte
 gogorren kontatzen dituztenan.


2) Beharrezkoak eskaintzen dituen "joazak" azaleratu ditun-
 gu antzerkiak dat. Berde haurterako, haurterako, emantzerkin,
 espazio jakin batekin, material batekin, jantzi batekin, mu-
 sikarekin... lotuta dago gure antzerkiaren beharrezko jantzi-
 zioala haurterako, berde bidean ez dagoen bide bat, eta
 bide, gure ustek, haurterako erabian haurterako prestaketa

3. Berroren eta beharrezkoen esakuntza ez dago hain

3) Beharrezkoak eskaintzen dituen "joazak" azaleratu ditun-
 duteko zantziak erabian, espazio jakin batekin, mu-
 sikarekin... lotuta dago gure antzerkiaren beharrezko jantzi-
 zioala haurterako, berde bidean ez dagoen bide bat, eta
 bide, gure ustek, haurterako erabian haurterako prestaketa

Aurera begira, izango dira haurterako jantziak bide bidean
 hobetsu ere, eta lanetan jantziak bide bidean

Postontzia hutsik dagoenean



Kritikak eta erreseinak

Postontzia hutsik dagoenean

Pello OTXOTECO

BONILLA Juan. *Buzón vacío*. Pre-Textos. Valencia, 2006. 52 orrialde.

Seguraski 2006. urtean gazteleraz kaleratu den libururik hobere-netarikoa izango da. Juan Bonilla idazlearen "*Buzón vacío*" poema liburua ederra, sakona eta, era berean, eserialdi batean irakurtzen den horietakoa da. Nire ustetan hauxe izan daiteke bere poema libururik sakonena. Xerez-eko autorearen obra lirikoak duen estiloa multiformea eta aldakorra da, eta egilea beraren interes eta grina ezberdinak bertan azaltzen zaizkigu. Honako poema liburuan heldutasun handia aurkezten du, heriotza onartzen hasten den gizon baten sentimenduak agertzen zaizkigularik. Bizitzaren truke pagatu beharreko txanponaren txin-txin soinua eta oihartzuna iristen zaigu. Gai honen trataerak iluna irudi dezake, baina liburuak badauzka erabateko lasaitauna igortzen dituen poemak.

Liburuaren titulua hasieran azaltzen den haiku batetik hartua dago: "Otra mañana / que me avisa de la muerte. / Buzón vacío." Nolabait esateko, ideia hau ia poema guztietan agertzen da eta poemario osoan zehar *leit motiv* antzeko bat dela esan genezake. Egileak nola edo hala zehazten du zer darabilen buruan: ezinegona edo nora eza. Ondoren, beste erregistro batzuen bidez egoera honi erantzuna ematen saiatzen da, hustasun honi aurre egiten, postontziaren hustasunari hitzen bidez aurre eginez.

Hala ere, ez da osotara negatiboa, eta mundua ospatzen da, eta bizi garela bizi, poztasunez aldarrikatzen da. Eta heriotza garaitzeko modu bakarra bere allatua egitea da. Argi ikus dezakegu 11. orrialdeko poeman "¿Qué estoy haciendo aquí?" esaten duenean, eta erantzuna "Estar es suficiente" existentzialismo positibo batez ber-

matzen da. Honako hau, liburuaren laburpen gisara kontsidera deza-kegu, bizitzaren heriotza eta drama honen tragikotasuna azaltzen duelako eta bizitza beraren zentzu nagusia egotea eta bizitza bera bizitzea delako. Poema hau eguneroko egoera arrunten deskribape-nekin eraikitzen du, ondoren, paragrafo bakoitzaren bukaeran, "¿qué estoy haciendo aquí?" galderarekin bukatzeko. Irakurleari keinu arraro bat sorrarazten dio bisaian, berak ere galdera horren erantzuna irrisaz bilatuko balu bezala. Azkenean egilearen oihartzuna entzuten da, eta oihartzuna diot, izan ere, geure baitan erantzun berdina topatzen baitzen guk geuk aurkitzen ez bagenuen ere:

"No anheles la respuesta.

Estar es suficiente."

Heriotza da liburuaren oinarri, eta heriotzaren aurrean gizakiak hartzen duen jarrera. Literaturan topiko klasikoa da heriotzarena, eta bizitza eta heriotzaren uztartze hau modernotasunean berriz ere azaltzen zaigu Hegel-en eskutik. Hain zuzen ere, Maurice Blanchot-ek alpua egiten dio esanez lengoia heriotzara eramaten gaituen bizitza dela eta bere baitan mantentzen dela. Horren arabera, literatura oro drama horren gauzatzea da, eta liburu honetan gai nagusia bihurtu da.

Bizitza azken finean, egunero goizean jaikitzean *memento mori* bat da, ezinbestean izendatu zuen Heidegger-ek "gizakia heriotzara-ko izakia da", edo bestela esanda, euskarazko atsotitz ezagunak dioskunez: "Behin jaio ezker heriotza zor". Gogorak diruditen arren errealitatea egoera puruan islatzen duten esaldiak dira, eta errealitate horrekin bizitzera asmatzen duen gizakiak zoriontasuna eskuratzeko bide erdia egina duelakoan nago. Nolanahi ere, Bonillaren poema liburu honek hausnarketa karga handiak erakutsi arren, baditu, orobat, jolaserako tarteak eta bizitza pozez gozatzeko errezetak ematen dituzten poemak. Nik esango nuke, funtsean, liburu honen lerro bakoitza heriotzaren kontrako borrokan eginiko ahaleginaren sinbolo direla.

Poema guzti-guztiek heriotzari aurre egin nahi diote, bai egileak irtenbide errazak onartu ezin dituelako, bai dagoeneko klarki azaltzen den porrota onartzen ez duelako.

"Escucha esos ladridos otra vez:
te dicen que el futuro tan sólo es
el lugar donde espera tu cadáver."

Era berean, poematan garai bateko mamu, deabru eta ametsak deslotu eta iratzartzen ditu, bere buruaren irudia beste ispilu batean bilatuko balitu bezala.

"Dentro de mí, alguien que no soy me va borrando,
esconde mis secretos, tergiversa
recuerdos y desteje la narración que soy, para erigir
con sus fragmentos menos elocuentes
fatídicos fantasmas que me miran preguntándome,
¿quién eres de verdad?"

Sorpresa moduan maitasunezko poema original bat topatzen dugu poema guzti hauetan erdi mozorroturik. Originala diot, izan ere, maitaleen iraupena zakar poltsen kalera ateratzearekin neurtzen baitu.

"Son pocas todavía
las bolsas de basura que habéis llenado juntos
si las comparas con las más de mil
que Laura y tú llenasteis;
son muchas, desde luego, un escorial, si las comparas
con las apenas diez
que, de aquel sótano de Londres donde Marge,
sacabas rumbo a un minúsculo depósito en el patio.
En La Habana Amirilis
cada noche colgaba la basura de las ramas de los árboles
—para evitar la proliferación de ratas—:
llenasteis juntos veintitantas bolsas.
Es fea, bien lo sabes, tu costumbre
de computar amores en bolsas de basura."

Beste poema batzutan tarteka, ironiazko esaldiak azaltzen zaizkigu, eta instrumentu honen bitartez nolabaiteko distantzia lortzen da, heriotzaren drama honi aurre egiteko sentimentalkeria hutsean erori gabe eta, era berean, sentimenduak baztertu gabe.

Dena den, eta arestian aipatu bezala, liburu honek oldoztetan aise murgilduko gaituzten esaldiak badauzka. Gogoeta hauetara

bultzatuko gaituzten esaldiak ez dira abstraktuak eta hizkera erraz baten kulunkan eramango gaituzte, hona hemen liburuaren beste merituetako bat. Horren adibide gisa:

“Dame la mano. Finge que no importa.
No hagas perder el tiempo a los espejos.
Recorreremos unas calles más.
Luego nos moriremos.”

Horretaz aparte, etengabe azaltzen da poemario osoan zehar geure identitateari buruzko galdera nagusia, gure garai honetan oraindik erabat erantzun gabe dagoen galdera. Bonillak modu elegante eta baikor honen bitartez bere iritzia ematen digu:

“Gracias a él descubro que amo el mundo
por encima de mi mismo,
que no soy más que extensión
de cierta incalculable maravilla,
de ese milagro sin por qué
en que existir consiste.”

Testuok ereserki antzeko modu batez eraikitzen dira, intimoak, hausnarketarako bidea ematen dutenak, eta haletako batzuk simbolismo kutsua dute. Hau argi eta garbi “Seres” izeneko poemari ikusten dugu. Autore beraren hitzetan: “He querido, sí, que en mi libro haya un tono de himno y de exaltación de lo cotidiano. También me gusta la enumeración de cosas que no pueden ser dichas, ese misterio que hay encerrado en algunos momentos, las sensaciones a las que no podemos llegar o las emociones de seres por los que en algún momento uno sería capaz de cambiarse: un mendigo en Benarés, un paracaidista flotando allá arriba, un naufrago que renuncia a cualquier playa”.

Bukatze aldera, esan genezake, Bonillaren liburu honek gogoaren lasaitze bat dakarkigula pentsamenduaren muina lanean jartzen digun neurri berean. Aukera ezin hobea betikoa den gaiari aurrez aurre begiratzeko, existentzia absurdo honek sortzen digun egarri ase ezina ur berrituaz apaltzeko, betiko iturri zaharrak dakartzkigun zalantzak eta kezkek beste egile baten begirada berriaren uraz —ahal den heinean behintzat— erantzuteko.

Pello Otxoteko Vaquero.

Zaldiaren barrunbean itsu-esna

Pello OTXOTeko

GORROTXATEGI, Aritz. *Zaldi hustuak*. Erein. Donostia, 2007. 78 orrialde.

Aro modernoan sartu garenez geroztik, poeta guztien belaunaldi ezberdinek galdera berbera egin diote bere buruari: *Eta nola idatzi gaurko garaian?* Idazleek modu argigarrian igartzen dute gizartean gertatzen diren aldaketa guztien abiadura azkarra, eta kezka nabariaz saiatzeko dira idaztearen artez ahalik eta hobekien erantzuten, literaturaren garapen analogoaz, alegia. Mundua abiadura bizian aldatzen baldin bada, ulertzekoa da idazleek ere aldaketa hauri aurre egiteko kezka ager dezaten. Erronka konstante honen aurrean, poetaren obsesioa, beraz, poesiaren etorkizuna nondik joango den sumatzean datza, edo, bestela, etorkizun horretara irekiko diren lurraldeak arakatzea abiatzeko bideak ezartzean. Era berean, aitzindariak saiaturako ekimenen oihartzun hutsean geratzea izaten da poetaren izua. Eta, zeregin horietan buru-belarri dabilela, *bere ahotsa* deituriko hori bilatzen saiatzeko da.

Bilaketa horretan, garaian garaiko ahots propio horren bilaketan, norabidea galtzeko arriskua topatzen du bere burua, oinordekoen erretorika errepikakorraren lamia-kantuan galtzeko tentazioa. Baldintza posmodernoek ezartzen dituzten muga eta zedarrietan kokaturik, arrunkerietan eror daiteke, edo *kitsch* motako lengoaiari, edo "Pop-Art"eko moldeko irudietan, edo *Beat* garaiko transgresio zaharrituetan, e.a. Beraz, poetak, nahigabe, tradizio bateko edo beste bide eta estrata dagoeneko guztiz erabili eta eskuztatuetan murgil daitezke, lengoiaren esploratzailerik izateko duten bokazioari jaramon eginez. Erretorikak poesia mozorrotzen du, simulakro bilakatzen eta

degradatzen, eta hau gertatzen da poetak poesia fenomeno iraunkor gisa tratatzen duenean, denboraz kanpoko baillitza, berez funtsezkoa duen karga historikoa erantziz eta oinarri honetatik baztertuz, eta garaian garaiko giza-bizipenarekin duen elkarriketari uko egiten badio.

Modu horretan, benetako poesia ezin da artifizio huts batera mugatu: joko formala, hizkuntzaren artelana antzina ezarritako genero ezberdinen mugak modu mekanikoan lantzen dituelarik. Poesia mota hau lehenaldia oihartzun hutsa litzateke, funts gabeko jauzi tekniko, oinarrizko misterioaren keinua simulakro barregarria bihurtuz. Bestalde, benetako poesia bizitzarekin etengabeko elkarriketa jorian dauden bizipenetan oinarritzen da, giza-baldintza historikoetatik jariatzen den sentipenezko zukuari agertzen da.

Eta gogoeta hauetan murgilduta gabiltzala, Aritz Gorrotxategiren *Zaldi hustuak* poemategia eskuetara iritsi zaigu. Betiko mito eta irudiak berreskuratuz –batez ere klasikoak–, eguneroko bizitzan txertatutako gertakizunak eta bizipenak erakusten dizkigu, hala nola, amodioa, denboraren iragaitea, heriotza, bizi berri baten jaiotza, bidaiak... Baina galbahe berri batetik iragaziak denak, bizipen erreal eta konkretu batzuetan oinarriturik, izen-abizenak dituzten pertsonengan pentsatuz (izen konkretuak azaltzen ez badira ere), eta toki geografiko jakin eta ezagunetan kokatuak, leku geografikoen izenek halaxe adierazten digutenez. Iruditzen zait honexek izan behar duela poesia-aren zeregina: irakurleari bere barne-izatearen zerizana esnatzea. Poesiak kontzientziaren barne-estratu ezezagunak iratzarri egiten ditu, barruan lotuta daramagun *ni*-a askatzen du, ezagutarazten eta libratzen.

Aritz Gorrotxategiren ibilbidea oparoa da. Honako hau bere seigarren liburua da, bigarren poema-liburua bada ere. Bere lehen poema liburutik bost urte pasa dira eta benetan argiro nabaria da heldutasunaren hondar pausatua. Garai bateko *Taxi bat Hamletentzat* liburu hartatik zenbait urte pasa dira, eta tartean beste hiru liburu daude. Baina honako hau bestelakoa da. Beharbada Aritzen idazle ibilbidean mugarri baten aurrean gaude, heldutasun aroaren sentimenduak hustu baitira poema liburu honetan.

Jacques Roubaud poetak bere azken liburuari buruz esan du: "Irteera puntua norberaren bizitza kontatzea da, baina garaia aldatuta". Antzekoa gertatu zait hasiera batean Aritz Gorrotxategiren liburu

honekin. Nabarmen azaltzen zaigu bere bizitzako hainbat pasarte kontatzen dizkigula, bizitzaren gai nagusi eta sakonei heltzeko ausardiarik ez duela falta, konpromezua, estiloa eta ahalegina darizkio lerro bakoitzari, benetako poesiaren lurrinak, alde guztietatik; hala ere, poema gehienek beste une batzuetan eta beste gune geografikoetan eginak daudela dirudite. Hori niri, izugarri gustatu zait, gertutasuna sentitu dut, bestelako zerbait eta zerbait erabat berria irakurtzen nuenaren sentzazioa aldi berean edukita.

Liburua aitopen deklarazio modura kontsidera genezake. Argi eta garbi azaltzen da bizitzarekiko bere begirada aurkeztu nahi digula. Bizitzaz dihardu eta liburua bera bizitzaren gorazarrea da. Horretarako kontrarioetara joko du dialektika baten bila, aurrera ekiten eta bidea jorratzen lagunduko dion dialektikaren bila, eta bidean zehar etengabeko Itzuleraren mitoa nabarmen islatuko da, bai ohiko ibilbidea egiten badugu (aurrera egiteko ekimena) ala bai kontrabidean ekiten badiogu. Autoreak berak hauxe esaten digu: "Liburua aurkarien arteko elkarrizketa gisara antolatuta dago: bizitza-heriotza, maitasunagorrotza, gauza txikiak-gauza handiak, xumetasuna-eternitate egarria, gorputza-izpiritua..." Hustasunaren eta sabelaren irudiak ere ekartzen dizkigu orriotara. Dialektika-joko bitxia azaltzen zaigu, bikoitzasuna etengabe: bi munduren arteko isla ezberdina, barne-mundua eta kanpo-mundua; egilearengan garrantzia duten bi bizitzen agerpena, bikotea-ama eta jaiotzearen dagoen semea(k); bi lurraldeen arteko paralelismoak, Italia eta norberarena. Eta bi herrialdeen arteko ibiltze prozesua *poesia zer den* adierazten duen metafora gisa uler daiteke. Baliteke poeta ezinaren aurrean aurkitzea edo traba gaindiezinaren menpe egotea, izan ere, poetaren ahalegin antzua zirrikitu anitzetatik suma baitezakegu, Anjel Lertxundiren hitzetan: "Poeta benetako izan nahi eta ezina, bizitzak gertatzen segitzen baitu". Haatik, Gorrotxategik bere liburuaren bitartez baieztatzen digu poeta izan badaitekeela eta badela, bizitzak aurrera egiten badu ere.

"Rapsodak olo une bat eskaintzen du
negutegiaren isil aroan,
rapsodak ardo une bihurtzen du
epika lerroen dardarizoa."

"munduari forma emateko
poetak lotzen ditu zaldia
egurraren neurrira."

“Baina ahaztu al du zerri zainak
ez dela bozkarioa
Ulisesek bilatzen duena,
Bere itzulera zaldi bat dela,
Hau ere egurrezkoa...?”

“Baina ez dugu ezagutzen beste Odisearik
gure epika izkiriatzeko.”

Eta eguneroko bizitzaren eta barne-bizitzaren arteko tentsioaren erdi-puntuari poesiaren abiatze-gunea aurkitzen da. Badago kontraesan apur bat bataren eta bestearen artean, baina horrek ez du esan nahi mundua guztiz arrunta denik. Alta, poesiak bizitzaren aurrean begiak irekitzea baimentzen digu, eraberritzeko ahalmena eskaintzen du, pozgarria da, eta tarteka, mingarria ere bai. Hala ere, Adam Zagajewski poeta poloniarra esaten digun legez: “Munduan dagoen edertasunaz konturatzeko idazten dugu”.

Gaur inoiz baino gehiago *mito berriak* behar ditugu (zaharrak badira ere), zeinetan geure buruak ezagutzera emango ditugun, izartegi sinboliko berriak geure nortasunaren pertsonaiak eszenatokira taularatuko dituztenak, eta irudi eta sinbolo berriak ere irritsatzen ditugu, geure identitate zartatu eta arrailduetatik kontzientzia eraberritua piztuko dutenak eta zohargi dizdizaria erauziko dutenak.

“Minari buruz elkarri
Priamo eta Akiles,
mirespen eta erruki,
orduko eta gaurko haria
ehuntzen dute isilean
unibertsoaren oihalera kantuz
lotu den gizakia
joskera laburrean senidetuz.”

Beste irudi edo mito eraberritua zaldiarena da. Zaldiaren irudite-riaren inguruan kontinente poetiko bat sortzen saiatu da, baita lortu ere. Eta kontinente honen gordailu, kontraesana dirudien arren, hutsunea, hustasuna eta barrunbeak ageri zaizkigu. Gizakiaren konkaduretan, hain zuzen, sortzen da bizitza-hutsunea. Umetoki moduko horretan eraikitzen da bizitzaren eta heriotzaren arteko zubia. Hutsunetik sortzen da bizitzaren miraria, eta hutsune batetik beste hutsune batera doa, hutsunetik hutsunera. Nietzschek esaten zuen bizitza

dela heriotzaren hasiera; baina, era berean, heriotza da bizitza berri-rako baldintza, erredentziorik gabe. Eta bizitzaren hasieran 46 kromo-soma izaten hasten gara, azkenean 207 hezur inguru izateraino, eta tarte horren igaraldian bidaia egiten dugu. Horixe, bada, bizitza, bidaia ederra. Joan etorriko zauria. Gizakion betiereko itzulera abiapuntutzat hartuta -bizitzaren joan etorri hori- izokinaren irudia sortzen da liburuan, hastapenerako bidea egiten duen izokinarena. Izokinarenari, halaber, beste irudi bat lotzen zaio: Ulisesena, betiereko itzuleraren sinbolo ere badena. Ulisesek etxera itzultzeko asmatu zuen arrauna, hastapenetara itzultzeko; Itaka, hain zuzen, bere baitan beti izan zuelako, Kavafisen poema ezagunak dioen modura. Eta Ulisesen haritik zaldia datorkigu berriro gogoetara, itzuleraren mitoa beste behin bermatzeko.

“Zaldiगतik hasiko naiz,

demagun egurrezkoa.

Zaldiगतik hasiko naiz,

begitara itzelezkoa.

Ipuin zahar hau denok ezagutzen duzue:

bazen behin sabel bat

soldaduz betea.”

Zaldiak maiz erabili izan dira eta ageri ohi dira ia mundu osoko kultura eta mitologietan. Berezi, zaldiaren mitoa kultura helenoan Troiarekin elkartuta izango dugu beti, orpoz orpo topatzen duguna. Baina zaldiaren mitoa ez da Troian agortzen. Sinbologia aberatsa dauka zaldiak, eta esanahi asko onartzen ditu. Zentzu sakratu sakona dute zaldiek Homeroren idatzietan. Jainkozkoak dira, eta eurek dira jainkoak lurretik zerura eramaten dituztenak. Euskal mitologian ere, ez da alpamenik falta: “deabruak lur gainera ateratzen dira batzuetan animaliaz jantzirik, eta animalia gisa. Behi gorri, zaldi zuri, aker beltz...” (Barandiaren). Gogora dezagun, halaber, euskal tradizioan, eta hainbat kopia eta kantutan, *lau hanketan zuria* den zaldia heriotzaren seinale dela edota heriotzarekin lotuta dagoela. Hor dago zaldien hezigaitasuna ere, godalet dantza ezagutzen dugun zamaltzainean (gizon-zaldia) ongi islatua. Bestalde, zalduntasunak sustrai teologiko-antropologiko sakonak ditu. Luze hitz egin daiteke zaldiaren sinbologiari buruz, eta liburuan, forma asko hartzen ditu zaldi horrek. Askatasunaren sinbolo ere bada, hazigaiztasunarena, tiroz

akabatzen ditugu ezertarako balio ez duten zaldia, zuriak dira heriotzaren zaldia, egurrezkoak ere bai, hezeak dira bizitzaren zaldia...

Honekin guztiarekin, Gorrotxategik irudiz, sinboloz, eta metaforaz beteriko mundua ezagutzera eramaten gaitu, kulunka bortitzik gabe baina aurrera sendo bultzatzen gaituzten arraunketa gogorren bulkadaz.

"Baina nork hustu zuen zaldia?
Nork kendu zizkion soldadu puskak
egur moztuari?
Nork zizelkatu zituen
banan-banan eta mailuz
konkaduretan eskuziriak?
Nik esango dizuet
nork zabaldu zuen umetokian
herioren hutsune isila.
Begiratu nire eskuak..."

Saiakera modura, irakurleari proposatuko nioke mitoari asoziatu-riko oinarrizko sinbolismoaren potentzia poetikoa atxikitzen saia dadila, itsastarra den lurraldea, erabat zabala eta mugaezina, nekez zedarritzta daitekeena.

Hutsunearen figura ere sarri azaltzen da, izate baten eramaile eta izate horri zentzua emango dion elementu baten antzera, eta besteetan hutsunea sabelarekin aldatuko da, edo sabelak hutsunearen lekua hartuko du, bata zein bestea elkar trukatu. Troiako Zaldia hemen esanahi horren adierazle da, eta zaldi ezagun haren sabelean edo umetokian nahi bada, heriotza eta bizitza bizikidetzako gaitasunean daudela ahaztu behar ez dugula ohartarazten digu. Barrunbe honetatik, Zaldiaren bitartez, bizi berria datorkigu heriotzaren eskutik. Hutsunetik, Osotasuna dator, Zaldi hau Karonte antzeko bat bihurtzen duelarik.

"Muintaraino sartzen den bizitza,
usain sarkor hori, herdoillarena,
herio gabe uler ezin daitekeena."

"Eta, hala ere, nor izan zen bietan lehena,
bizitza ala heriotza?"

"Zaldi bat eta ametsa,
 eskuak hutsunean sartzea
 eta aukera egitea,
 bizitzea eta hiltzea.
 Ba al da beste aukerarik?"

Geure burua ezagutzeko bideak ere irekiko dizkigu. Nork bere eskuetan aurkituko du munduaren neurria. Ez dugu ezagutzen eguzkia, ez dugu ezagutzen lurra; harria ere ez dugu ezagutzen. Begia da kanpoarekin harremanetan jartzen gaituena. Gamonedaren esanetan, maitatzen dugun lehendabiziko gauza begiak dira. Baina begiratzeak ez du esan nahi ikustea. Alde horretatik, itsuaren figurak pisu handia dauka poemategian. Konkretuki Homero beraren figura. Izan ere, itsuak ezin du begietatik ikusi, eta mundua ulertzeko beste barruko lengoia batzuk bilatzen ditu. Ikusteko ez beste, gainontzeko kontuetarako erabiltzen dugu guk begia: begiekin jaten dugu, begiekin ukitu, begiekin sentitu... Azalekoa da begirada. Itsuak, ordea, ikusi gabe ulertzen du mundua, iluntasuna arakatzen du. Metaforikoki esanda, barrura begiratzen du kanpokoa ulertzeko.

Aritz Gorrotxategik aurkezpenean esan zigunez, itsuak begiekin bakarrik ez, eskuekin ere laztantzen du bizitza. Bere hitzetan "Errealitatea ikusteko nahikoak dira begiak. Barrura begiratzeako, haratago jotzeko, beste zentzumen batzuk dira beharrezkoak. Horien artean, poesia. Argi elektrikoz inguratuta egonda ere, iluntasunean bizi gaitzke. Platonek kobazuloan jarri gintuen, itzalen itzal." Beste mito bat ere gogora ekarri zigun: "Tiresiasen bainua hartetik biluzik ateratzen ikusten du Palas Atenea. Zigor modura, Ateneak itsu uzten du (kontraesana, itsu izatea zigorra baita). Baina, bestalde, konpentsazio moduko bat ematen dio, igarkizunaren ahalmena."

Horra irakurketa: jakinduria biluzik ikustea jatorria ikustea bezalako da. Debekatua dago. Zigor bat ordaindu beharra dago egia truke. Bestela esanda, hastapenari beldurra edukitzea da, askatasunari ikara. Poema hauetariko batzuek horren bidean jartzen gaituzte.

"Itsua heldu da ate joka
 negu partean eta berantiar..."

"Itsuak poltsa bat jarri du
mahai gainean diruz betea,
ezpata bezain astuna, zaldia bezain azkarra,
zalaparta txikian laburbildua
bizitzaren zurrumurru galkorra."

"Iluna heltzean
alfabeto bakarrak argi:
itsuarena."

Liburuko atal bakoitzak bere haria du, "bere osotasuna", baina lotura gehiago hartzen dute elementu jakin batzuen bitartez. Kultur klasikoaren aipamenak eta agerpenak, kasualitatezko zertzeladak baino, liburu osoko giroa eta atmosfera bihurtuko dira. Maitasunezko poemak atal batean nagusi izango dira; beste batean, kutsu existentzialagoa dutenak; beste poema batzuk bizitzaren zentzua bilatzen saiatuko dira ibilbide honen joan-etorrian, e.a.

"Galdera egiten diozu
zure buruari,
nola kabitu daiteke denbora gutzia
eskumuturrean?
Nork asmatu zuen
gezurrezko kartografia hau?
Beharbada gurpilak ez du errurik,
baina zirkuluek badute
hutsaren antza."


"Bizitzak ezin du itxaron,
taupadak bultza dagi.
Esaiozu zein den bidea
zugana."

"Beti bezain astun,
beti bezain berdin,
beti
izan beharra.
Zergatik ez izan,
beharrrik gabe?"

Ezin ahaztu Imanol Larrinagaren azaleko margolan bikaina, benetan ederra eta liburuaren izaerarekin guztiz bat datorrena.

Amaitzeko, esan dezadan, nire ustez liburuaren poesia mota hau hobekien deskribatu duen Juan Ramon Makuso idazleak diona: "Ezin esan poesia hau irakurrita ase gabe gelditu garela. Poesiaz blai geratu naiz, Grosetik hasi eta badiako baleak jazz soinuaz besarkatzeraino. Poesia eruditoa, fina eta dotorea."

Pello Otxoteko Vaquero.



Hazpidera berrita:

LIBURUAREN BERRIKOPIAK
Guztira: 1000 kopia
Berritzailearen izena: 1000 1217 1157-4214679
E-mail: libros@hazpidera.com

UZTARRO

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria

UZTARRO aldizkaria jaso nahi dut.

Izena _____

Helbidea _____

Herria _____ Posta-kodea _____

Telefonoa _____

N.A. / I.F.K. _____

Ordainketa:

Kontu korrontearen zenbakia (20 digitoak)

Bankoa _____

2003. urterako harpidetza (4 zenbaki)

Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
Concha Jenerala 25, 4 - 48010 BILBO
Telefonoa eta Faxe: (94) 4217145 / 4214679
e-mail: bulegoa@ueu.org

LiteraTur aldizkariak eskura

Urteko harpidetza-saria, 50 € besterik ez!



LITERATUR ALDIZKARIEN HARPIDETZA BATERATUA NAHI DUT:

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....Herria:.....K.P.:

Telefonoa:.....e-posta:.....

Kontu korrante zenbakia (20 digito):.....


Literatur aldizkariak-Harpidetza

EIE

Zemoria, 25

20013 Donostia

Posta elektronikoa: ei@eie.euskalnet.net



EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko
BOLETIN-aren euskarazko gehigarria



EDUKIAK

- 1.- Azterketa literarioak
- 2.- Sorkuntza: poesia, antzerkia, kontakizunak
- 3.- Ahozko tradizioa
- 4.- Itzulpenak. Autore unibertsalen itzulpenak
- 5.- Adabakiak: Euskara eta literatura inguruko berrien komentarioak.
- 6.- Kritikak eta erreseinak: euskal eta erdal liburuak

Harpidetu zaituz:	Urteko harpidetza:	18 €
	Atzerrian:	21 €
	Dendan ale bakoitza:	18 €
	Ale atzeratuak:	21 €

Informazio gehiago nahi baduzu, eskatu konpromisorik gabe.

Gure helbidea: EGAN

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea

Peña y Gofii, 5. 2gn. ezk.

Postakutxatilla 3.263 - 20080 - DONOSTIA

egan@bascongada.e.telefonica.net

HARPIDE TXARTELA

Izen delturak _____

Helbidea _____

Herria _____ Posta-kodea _____ tel. _____

Banku edo Kutxa _____

Kontu zkia.: _____

Bi egunkari bakar batean

berria

Informazioa

Informazio landu eta argigarria, diseinu berritzaile batekin emana



Astialdia
12 orrialde egunero

Gertuko gaiak
Elkarriketak
Erreportaiak
Kronikak
Mendia
Moda
Gastronomia
Jaiak...

...eta gainera



- **Mantangorri:**
Larunbatetan
16 orrialdeko gehigarri koloretsua
haur eta gaztekoentzat



- **Igandea:**
Asteko albisteak
patxadaz azeriazko aukera.



- **Internet:**
Edizio jarraitua,
webgune tematikoak
eta eztabaidagunak

● Euskaldunok behar dugun **berria**

Begiratu zientziari beste era batera

gizarte ekintza

hezikuntza



Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, Zientziaren KutxaGunea.

Ingurunean duguna hainbat sistema ekarreragileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ulatu, behatu, ulertu, gazatu egin baitzakazu. Zatoz eta begira egiazu munduari beste begirada batez.

- 170 esperimendu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Taikia (jumentakak).
- Elektrizitate-taiferra.
- Denbarraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxerako hezikuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendarentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparakaleku, dahoink. Errez iristen da Museora.




ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Zatoz Zientziaren
kutxaGunea

Mileletegi Pasealekua 45, DONOSTIA

Museoari buruzko informazioa osatzeko, bisita ezazu kutxasocial.net edo deitu kutxaren Gizarte Ekintzaren informazio-bulegora: 943 00 12 17.

www.kutxa.net

 kutxa

zer nahi duzu bihar?



EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"—AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Idazkaritza: Euskalerraren Adiskideen Elkarte, Gipuzkoako Saita
3.263 Postakutxatila - DONOSTIA